

# **hainbat itzulpen 1821**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

*Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa). CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala. Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

# **hainbat itzulpen 1821**

## SAN JUANEN EBANJELIOA

### CAPITULO 1

1. Prinzipioan baze Berboa, eta Berboa zego Jangoikoan, eta Jangoiko ze Berboa.
2. Au zego prinzipioan Jangoikoa baitan.
3. Gauza guziak egin dire beragatik, eta bera gabe ezta batere egin egin denik.
4. Berabaitan ze bizitza, eta bizitza ze gizonen argia:
5. Eta argiak argitzen du ilunbetan, eta ilunbeek etzute artu bera.
6. Izan ze gizon bat Jangoikoaganik bialia, deitzen zena Juan.
7. Au etorri ze testimoniotako, emateko testimonio argiaren, sinetsi zezaten guziek beraren medios.
8. Etze ura argia, baizik emateko testimonio argias.
9. Baze argi bat egiaskoa argitzen duena gizon guziaz datorrenai mundugontara.
10. Munduan zego, eta mundua beragatik egin ze, eta munduak bera ezaundu etzue.
11. Bere propioengana etorri ze, eta bereek etzute errezibitu.
12. Baña errezibitu zuten guziei eman ziozte esku egiteko Jangoikoaren hume, sinesten dutenei beraren izenean.
13. Zein ere ez odoletatik, eztare aragiaren naikundetik, ezetaere gizonkiaren naikundetik, baizik Jangoikoaganik jaio baitire.
14. Eta berboa egin ze aragi, eta bizitu ze gutartean. Eta ikusi gindue beraren gloria, gloria bat nolakoa dagokion Aita eternoaren Seme bakarrari, beterik grazias eta egias.
15. Juanek testimonio ematen du beraren, eta oiug egiten du, diola: Au ze niona, nere atzetik etorriko dena, ene alzinean edo ni baño len paratua da, zeren baize ni baño len.
16. Eta beraren betetasunetik guk guziek artu dugu, eta grazia graziagatik edo graziaren gañetik.
17. Zeren ezi legea eman ze Moisesen medios, grazia ta egia Jesu Kristoren medios egin da.
18. Jangoikoa niork ezto ikusi beñere. Bere Seme bakarra, Aitaren baitan dagona, berbera da eman diguna notizia, edo ezaunarazi diguna.
19. Eta au da Juanen testimonioa, noiz ta Judatarrek biali zuzten beragana sazerdoteak eta lebitak, galdegitera: Zu nor zara?
20. Eta konfesatu zue, ta etzue ukatu; eta konfesatu zue: Eznai zela ni Kristo.
21. Eta galdegin ziozte: Zer bada? Elias zara zu? Eta erran zue: Ez naiz. Profeta zara zu? Eta errespondatu zue: Ez.
22. Erran ziozte, bada: Nor zara, eramateko errespuesta biali gaitutenei? Zer diozu zeure buruas?

23. Erran zue: Ni boza oiui iten duenarena desertuan, ibili zuzen Jaunaren bidea, alainola erran zuten Isaias profetak.

24. Eta biali zuztenak zire fariseoetaik.

25. Eta galdegin zioten ta erran: Zergatik, bada, bataiatzen duzu, ez pazara zu Kristo, ezta ere Elias, ezta ere profeta?

26. Errespondatu zioten Juanek, ziola: Nik bataiatzen dut ures, baina zuzen erdian egon da zuek ezauntzen eztuzena.

27. Bera da ene atzetik etorriko dena, zein baita ni baño len, zeñen oñetakoen lotzakia lazatzeko ere ezipainaiz digno ni.

28. Ebek agitu zire Betanian Jordanen aratako aldean, non baizego Juan bataiatzen.

29. Berze egunean ikusi zue Juanek Jesus eldu zela beragana, ta erran zue: Ona Jangoikoaren axuria; ona kentzen duena munduko bekatua.

30. Au da, zeintas nion: Ene atzetik eldu da gizon bat, zein nere alzinean paratua den, zeren baita ni baño len.

31. Eta nik eznue ezauntzen, baizik manifesta daiengatik Israelen, orrengatik etorri naiz ni bataiatzen urean.

32. Eta eman zue testimonio Juanek ziola, ikusi dutela Espiritua jausten zerutik uso baten idurian eta jarri zela beraren gañean.

33. Eta nik eznue ezauntzen; baina biali ninduenak bataiatzera ures, ark erran zida: Noren gañean ikusi dezazun Espiritua jautsi ta gelditzen dela, ori da bataiatzen duena Espiritu Sanduas.

34. Eta nik ikusi nue, eta testimonio eman nue, au dela Jangoikoaren Semea.

35. Berze egunean, berriz, zego Juan eta beraren diszipuloetaik bida.

36. Eta ikusirik Jesus dabilala, erraten du: Ona Jangoikoaren axuria.

37. Eta aditu zute bi diszipuloek mintzatzen, eta segitu zute Jesus.

38. Itzulirik Jesus ta ikusirik segitzen diotela, erraten diote: Zer billatzen duze? Errespondatu zioten: Maestru Jauna, non dago ostatus?

39. Erraten diote: Zatozte ta ikusaze. Etorri zire ta ikusi zute. Eta berareki egon zire egun gartan, ezi ordua ze ia amargarrena.

40. Eta ze Andres, Simon Pedroren anaia bietaik bat, aiturik Juanenganik segitu zutena.

41. Aurkitu zue ark lenik bere anaia Simon, ta erraten dio: Aurkitu dugu Meesias, nai baitu erran Kristo.

42. Eta eraman zue Jesusengana. Eta beiraturik Jesusek erran zio: Zu zara Simon, Jonasen semea; zu deituko zara Pedro, nai baitu erran arria edo peña.

43. Biramonean nai izan zue atra Galileara, ta opatu zue Filipe; eta erraten dio Jesusek: Segi nazazu.

44. Eta ze Filipe Betsaidakoa, Andresen ta Pedroren errikoa.

45. Aurkitu zue Filipek Natanael, ta erraten dio: Eskribitu zutena Moisesek legean ta profetek, aurkitu dugu Jesus Josefen Semea Nazaretdarra.

46. Eta erran zio Natanaelek: Nazaretdik daike izan gauza onik? Erraten dio Filipek: Atoz ta ikusazu.

47. Ikusi zue Jesusek Natanael eldu zela beragana, ta erran zue artas: Ona bat egiaz israeldarra, zeintan ezipaita maliziarik.

48. Erraten dio Natanaelek: Nondik ezaundu nau? Errespondatu zio Jesusek ta erran zio: Filipek zu deitu baño len, zindeudelaik bikuaren pean, ikusi zinduzada.

49. Errespondatu zio Natanaelek, ta erran zio: Maestra, ori da Jangoikoaren Semea, ori da Israelgo Errege.

50. Errespondatu zio Jesusek, ta erran zio: Zeren erran dizuten ikusizaitudala bikupean, sinesten duzu; ori baño andiagoko gauzak ikuskotuzu.

51. Eta erraten dio: Sin sines erraten dizet, ikusiko duze idikirik zerua, ta Jangoikoaren ainguruak jausten ta igaten gizonaren Semearen gain.

Berboa da Jangoikoaren Seme bakarra, Jesu Kristo.

Berboa egin aragi, Jangoikoa egin gizon.

## CAPITULO 2

1. Eta irugarren egunean agitu zire bodak Kana Galileakoan, eta zego Jesusen Ama an.

2. Deitu zute Jesus ere ta bere diszipuloak bodetara.

3. Eta faltaturik ardo, erraten dio Jesusen Amak berari: Ardorik eztute.

4. Eta erraten dio Jesusek: Zer zaigu niri eta zuri, emastekia? Oraño ezta ellegatu nere ordua edo garaia.

5. Erraten diote beraren Amak zerbitzukoiei: In zaze erraten dizen guzia dena dela.

6. Zeude, bada, an sei arrisko tinaja edo onzi paratuak judatarren garbinaiazen araura, zeukatela bakotxak birana edo iruna neurri, edo.

7. Erraten diote Jesusek: Betezkize tinajak ures. Eta bete zuzte kaskoraño.

8. Eta erraten diote Jesusek: Atra zaze orai ta emozie maipurukoai. Ta erman ziotte.

9. Baña maipurukoak txastatu zuelaik ur ardo egina, ezpaizekie nola zen, baña bazekite zerbitzukoek atra zutenek ura, deitzen du esposoa maipurukoak.

10. Eta erraten dio: Gizon guziek paratzeunte lenik ardo ona, eta orditu direlaik, orduan txarrago dena; baña zuk guardatu duzu ardo ona orai arteo.

11. Au egin zue milagroen lenbizikoa Jesusek Galileako Kanan, ta manifestatu zue bere gloria, eta sinetsi zute berabaitan bere diszipuloek.

12. Ondorean jautsi ze Kafarnauna bera, ta bere Ama, ta bere anaiak, ta bere diszipuloak, eta an egon zire ez anitz egunes.

13. Eta urbil ze judatarren Bazkoa, eta igan ze Jesus Jerusalem.

14. Eta opatu zitue tenploan zeudela salzen idiak, ta ardiak, ta usoak; eta dirutariak jarririk.

15. Eta egin zuelaik azote-gisa bat kordeles, guziak bota zitue tenplotik, ardiak ere, baita idiak, eta lurreratu zue tratarien dirua, eta maiak irauli.

16. Eta usoak saltzen zeudenei erran ziotte: Ken oriek emendik eta etzazela nai ene Aitaren etxea egin merkatalgoaren etxea.

17. Baña oroitu zire bere diszipuloak, baitago eskribiturik, zure etxearen zeloak jaten nau.

18. Errespondatu ziotte, bada, judatarrek, ziotela: Zer señale ematen digu, gauza gebek iten baititu?

19. Errespondatu ziotte Jesusek ziola: Zuek desegin tenplo gau, ta irur egunes goratuko dut.

20. Erran ziotte, bada, judatarrek: Berrogeitasei urte kostatu da tenplo gonon egitea, eta orrek goratuko du irur egunes?

21. Baña berak zio bere gorputzaren tenploas.

22. Erresuzitaturik, bada, ilen ertetik biztu zelaik, oroitu zire bere diszipuloak,

ontas zerdukala, eta sinetsi zute eskriturari, eta Jesusek erran zuen itzari.

23. Zegolarik, bada, Jerusalemen Bazkoan jai andian, anitzek sinetsi zute beraren izenean ikusi beraren señalear iten zituenak.

24. Baña bera, Jesus, etze fiatzen aiei, zergatik ezi berak ezaunzen baizitue guziak.

25. Eta ezpaizue bear, eman zezon niork testimonio gizonas, ezi berak zekie zer den gizona baitan.

### CAPITULO 3

1. Ze gizon bat fariseoetaik deitua Nikodemo, judatarren prinzipa edo prinzipala.

2. Au joan ze Jesusengana gauas ta erran zio: Maestru Jauna, badakigu etorri dela Jangoikoaganik erakustun, zeren ezi niork ere ez dezazke egin orrek egitentuen señalear gebek, ezpalego Jangoikoa berareki.

3. Errespondatu zio Jesusek ziola: Sines bai sines erraten dizut, ezi ezpada bat berriro jaiotzen, ez dezake ikusi Jangoikoaren erreinua.

4. Erraten dio Nikodemok: Nola daike jaio gizona, delarik zarra? Agian daike berriro itzuli bere amaren sabelera eta jaio berriz?

5. Errespondatu zio Jesusek: Egiaz bai, egiaz erraten dizut, ezpada bat jaioberritzen ur ta Espiritu Sanduaren birtutez, eztaike sartu Jangoikoaren erreinuan.

6. Jaio dena aragitik, aragi da, eta jaio dena espirituaganik, espiritu da.

7. Etzaitela arritu nik erranas, preziso dela zuek jaiotzea berriro.

8. Espirituak non nai duen espiratzen du, eta beraren boza aditzen duzu, baña eztakizu nondik eldu den edo nora doaien. Ala da espirituaganik jaio den guzia.

9. Errespondatu zio Nikodemok ziola: Nola daike ori izan?

10. Errespondatu zio Jesusek ziola: Zu zara maestru Israelen, eta eztakizkizu ebek?

11. Sin sines erraten dizut, dakiguna diogula, ta ikusi duguna segurutzen dugula, eta gure testimonioa eztuzie errezibitzen.

12. Lurreko gauzak erranbaitiziet, ta ezpauzie sinesten, nola sinetsiko duzie, erratenbaitiziet zerukoak?

13. Eta nior esta igan zerura, baizik jautsi dena zerutik, gizonaren Semea, zein baitago zeruan.

14. Eta ala nola Moisesek goratu zuen serpientea desertuan, ala da preziso goratzea gizonaren Semea.

15. Sinesten duenik berabaitan gal eztaien nior ere, baizik logra dezan bizitza eternoa.

16. Zeren ezi Jangoikoak alako maneran onetsi du mundua, ezi eman baitu bere Seme bakarra, gal eztaien nior sinesten duenik berabaitan, baizik guziek logra dezaten bizitza eternoa.

17. Ezi ezta biali Jangoikoak bere Semea mundura, juzgadezangatik mundua, baizik salba daiengatik mundua beraren medios.

18. Sinesten duena berabaitan, ezta juzgatzen; baña eztuena sinesten, ia juzgaturik dago, zeren eztuen sinesten Jangoikoaren Seme bakarraren izenean.

19. Baña auda juizioa, zeren argia etorri baita mundura, eta naiago baitute gizonek iluna, ezi argia, zeren gaixtoak diren aien obrak.

20. Ezi gaizki egiten duenak eztunai argia, ta eztator argira, eztaitzen agertu bere obrak.

21. Baña egiten duenak egia edo zuzen-bidea, eldu da argira, manifesta daitzen

beraren obrak, zeren Jangoikoan eginak baitire.

22. Gero etorri ze Jesus, ta bere diszipuloak Judeako lurrera, eta an zego egotes ta bataiatzen.

23. Zego Juan ere bataiatzen Ennonen, Salin ondoan, zeren ur anitz baize an, ta eldu zire, ta bataitzen zire.

24. Ezi oraño etzute sartu Joan karzelean.

25. Eta Joanen diszipuloetaik batzuek paratu zute kestione judatarreki garbitzearen gain.

26. Eta etorri zire Juanengana ta erran ziote: Maestrua, orreki zegonak Jordanen aratako aldean, zeñen testimonio orrek eman duen, ark bataiatzen du, eta guziak doaz beragana.

27. Errespondatu zue Joaneke ziola: Ez dezake gizonak artu deus, ezpazaio ematen zerutik.

28. Zeurek zarate testigo, erran nuela eznaiz zela ni Kristo, baizik bialia beraren alzinetik.

29. Duena esposa esposo da; baña esposoaren adiskidea, dagona presente ta beraren aditzen, gozos gozaten da esposoaren bozagatik. Bada, nere gozo gau kunplitu da.

30. Bera bear da goratu, baña ni apaldu.

31. Goratik etorri dena guzien gañetik da. Lurrekoa dena lurretik da ta lurras darduka. Zerutik etorri dena guzien gañean da.

32. Eta ikusi duena ta aditu, ori segurutzen du, eta beraren testimonioa niork ezta admititzen.

33. Admititu duenak beraren testimonioa, firmatu du dela Jangoikoa egi-errallea.

34. Zeren ezi Jangoikoaganik bialiak erratentu Jangoikoaren itzak; ezi ezta Jangoikoak eman espiritua neurriturik ain txusto.

35. Aitak maitatzen du Semea eta guzia eman dio beraren eskuan.

36. Sinesten duenak Semean logratzen du bizitza eternoa; baña sinetsi nai eztaionak Semeari ezta ikusiko bizitza, baizik Jangoikoaren ira dago egotez arren gañean.

#### CAPITULO 4

1. Ezaundu zuelarik, bada, Jesusek, aditu zutela fariseoek iago diszipulo iten zuela ta bataiatzen zuela Jesusek Joaneke baño.

2. Naiz etzuen bataiatzen Jesusek, baizik bere diszipuloek.

3. Utzi zue Judea ta joan ze berriz Galileara.

4. Baña bear zue pasatu Samariatik barna.

5. Ellegatu ze, bada, Samariako iri batera deitzen dena Sikar, urbil heredaje edo alor emanzionari Jakobek bere seme Josefi.

6. Ze, bada, an Jakobek iturri bat. Bada, Jesus nekaturik biajeas zego ala jarririk iturri pokalean. Egerdi ze ia, ordu seigarrena.

7. Etorri ze Samariatik emasteki bat ur eske, erraten dio Jesusek idazu edatera.

8. Ezi diszipuloak ia joan zire errira eroatera janari.

9. Erraten dio, bada, emasteki samaritar garrek: Nola orrek delarik judatarra, eskatzen dida edateko niri, bainaiz emasteki Samariakoa? Ezi ezta tratatzen judatarrek samaritarreki.

10. Errespondatu zio Jesusek ta erran zio: Bazindeki Jangoikoaren donua eta nor

den erraten dizuna, idazu edatera, zuk agian berai eskatuko zindio, eta emanenzizu ur bizi bat.

11. Erraten dio emastekiak: Jauna, eztu ere zertas atra ur, eta butzua dago barna. Beras, nondik du ur bizia?

12. Agian ori da iago ezi gure Aita Jakob, zeñek eman zigun butzu gau, eta berak edan baizue ontaik, eta bere humeek, ta bere ar-saldoek?

13. Errespondatu zio Jesusek ta erran: Ur gontaik edaten duten guziak egarrituko dire berriz; baña edaten duena nik emanen dioten ura, ezta egarrituko sekulan.

14. Baizik ere nik emanen dioten ura inen da berabaitan uresko iturri bat salta daiena bizitza eternoraño.

15. Erraten dio emastekiak: Jauna, bida niri ur gortaik, ez nadien egarritu eta ez etorri ur eske onara.

16. Erraten dio Jesusek: Zoaz, de izazu zeure senarra edo gizona eta atoz onara.

17. Errespondatu zio emastekiak ziola: Eztut senarrik. Erraten dio Jesusek: Ongi erran duzu, eztuzula senarrik.

18. Ezi borz gizon izantuzu, eta orai duzun gizona, ezta zurea; ortan egia erran duzu.

19. Erraten dio emastekiak: Jauna, dakusat dela profeta berori.

20. Gure burasoek oian gontan adoratu zute, eta oiek diote, lekua dela Jerusalem, non bear den adoratu.

21. Erraten dio Jesusek: Zuek adoratzan duzie eztaki zena; guk adoratzan dugu dakiguna, zeren salbazioa edo ona judatarretaik eldu da.

23. Baña etorri da ordua, eta orai da, noiz adorazale egiaskoek adoratuko baitute Aita espirituas ta egias, zeren Aitak ere alakoak billatzentu adoradezatenak.

24. Espiritu da Jangoikoa, eta adoratzan dutenek bera bear dute adoratu espirituaz ta egiaz.

25. Erraten dio emastekiak: Badakit eldu dela Mesias, deitzen dena Kristo; bada, etortzen delaik ark erakutsiko digu guzia.

26. Erraten dio Jesusek: Ni naiz mintzatzen nagona zureki.

27. Eta bereala etorri zire diszipuloak ta arritu zire egoteas mintzatzen emastekiareki. Alaere etzio niork erran: Zer billatzen du? Edo: Zergatik mintzatzen du oneki?

28. Utzi zue, bada, bere kantaro edo ferrata emastekiak, eta joan ze errira, ta erraten diote ango gizonei:

29. Atozte ta ikusazie gizon bat erran didana in dudan guzia. Bera ote da Kristo?

30. Atra zire bada erritik ta eldu zire beragana.

31. Bitarteo eskatzen ziote bere diszipuloek erranes: Maestru Jauna, jan bez.

32. Baña berak erraten diote: Nik dut jateko janari bat zuek eztaki ziena.

33. Erraten zire, bada, diszipuloek elkar: Agian norbaitek ekarri ote dio jatera?

34. Erraten diote Jesusek: Ene janaria da egitea biali nauenaren borondatea, bukatzeko beraren lana.

35. Agian eztuzie erraten zuek, oraño laur ilabete direla, ta igita denbora eldu dela, edo uda? Orra, ea, erraten diziet, gora zeuren begiok ta beira kanpoak, baitaude zori ia txuriturik, igitatzeko.

36. Eta igitatzen duenak artzen du saria, ta biltzen du fruitu betiko bizizarako, goza daitzen bateo eraikitzen duena ta igitatzen duena.

37. Ezi au da itz bat egiaskoa, bat dela eraikitzen duena, ta berze bat dela biltzen duena.
38. Nik biali zaiztet zuek biltzera landu eztuzena, berzeek lanak egin eta zuek sartu zarate aien lanetan.
39. Erri gartaik, bada, anitzek samaritarretaik sinetsi zute berebaitan emastekiaren erranagatik, errantidala niri egintu dan guziak.
40. Etorririk, bada, beragana samaritarrek eskatu ziote geldi zeuela an. Eta gelditu ze ta egon ze an bi egunes.
41. Eta anitz iagok sinetsi zute berabaitan beraren erranengatik.
42. Eta emastekiari erraten ziote: Eztugu ia sinesten zure erranagatik, ezi geurek aitu dugu ta dakigu, au dela egiaz munduaren Salbazalea.
43. Baña bi egunen buruan atra ze andik eta joan ze Galileara.
44. Ezi Jesus berak eman zue testimonio, profetak bere sortuerrian eztuela honorerik.
45. Joan zelaik, bada, Galileara, errezibitu zute galileatarrek, ikusiaskeros egin zuen guzia Jerusalemenean, zeren ezi berak ere joan zire jaieguneko.
46. Etorri ze, bada, berriz Kana Galileakora, non egin zuen ura ardo. Etaze Jaun bat errege gisa, zeñen semea zegon heri, Kafarnaunen.
47. Onek, aitu zuelaik eldu zela Jesus Judeatik Galileara, joan ze beragana ta eskatzen zio jautsi zeuela ta senda zezala arren semea, ezi il urran ze.
48. Erran zio, bada, Jesusek: Ezpaituzie ikusten señalearak eta prodijioak, eztuzie sinesten.
49. Erraten dio Jaun ark: Jauna, betor, il daien baño len ene semea.
50. Erraten dio Jesusek: Zoaz, zure semea bizi da. Sinetsi zue gizonak Jesusek errana ta bazoeie.
51. Jausterakoan ia ura, atra zekizkio bidera mutilak, ta mezu eman ziote bizi zela arren semea.
52. Galdegiten ziote ark ordua, zeintan eman zuen obero, eta errespondatu ziote, ezi atzo zazpietakoan utzi zue sukarrak.
53. Erran duzue, bada, aitak, ordu gura zela, zeintan erran zion Jesusek: Zure semea bi zida, eta sinetsi zue berak, eta etxe guziak.
54. Au egin zue bigarren señalearak Jesusek, etorri zelarik Judeatik Galileara.

## CAPITULO 5

1. Ondorean ze judatarren festa-eguna, eta igan ze Jesus Jerusalemenean.
2. Da Jerusalemenean piszina bat probatika edo ur balsa bat, deitzen dena hebreoen itzkuntzan Betsaida, zituena bortz leorpe edo aterbe.
3. Ebetan zego kantidade andi bat heri, itsu, maingu, ear etxideten, noiz mogituko zen ura.
4. Ezi Jaunaren aingiru bat jausten ze aldartes piszinaran, ta mogitzen ze ura. Eta nor ere jausten zen piszinaran mogituaskeros len lenik, sendatzen ze edozein heritasun izan zezan.
5. Bada, ze an gizon bat ogeita emezorzi urte zuena bere eritasunean.
6. Au ikusi zuelaik Jesusek, eroria etzanik, ta ezaundu zuelaik asko denbora zuela ia, erran zio: Nai duzu gelditu sendaturik?
7. Errespondatu zio ezinduak: Jauna, eztut gizonik jautsinazanik urera, mogitzen



delaik, ezi ni noaien bitartean, jausten da berze bat ni baño len.

8. Erraten dio Jesusek: Jaikizaite, arzazu soñean zeure goatze goi eta ibili zaite oñes.

9. Eta istantean sendatu ze gizon gura, ta artu zue bere goatzea ta zebila. Baña ze larunbata egun gartan.

10. Erraten ziote, bada, judatarrek sendatu zenari: Larunbata da, eztuzu zillegi eramatea soñean zeure goatze goi.

11. Errespondatu ziote: Sendatu nauenak berak erran dida: Arzazu goatze goi ta zabiltza.

12. Galdegin ziote bada: Nor da gizon gura erran dizuna, arzazu goatze goi ta zabiltza?

13. Baña sendatuzenark etzekie nor zen, ezi Jesus apartatu ze lekuan zen jendearen ertetik.

14. Gero aurkitu zue Jesusek ura tenploan eta erran zio: Ea orra sendatu zara; ia etzazula bekaturik egin eztakizun agi gaizkiago.

15. Joan ze gizon gura, ta kontatu ziote judatarrei, Jesus zela sendatu zuena.

16. Orgatik persegitzen zute judatarrek Jesus, zeren iten zituen gauza gebek larunbatean.

17. Baña Jesusek errespondatu ziote: Ene Aitak orai ere obratzen du, eta nik obratzen dut.

18. Orgatik, bada, iago nai zute il judatarrek bera, zeren ez solamente lazatzen zuen larunbata, baitare erraten bere Aita zela Jangoikoa, iten zuelaik Jangoiko adiña bere burua. Eta ala errespondatu ziote Jesusek ziola:

19. Sin sines erraten dizet, ez dezake Semeak beraganik deusere egin, baizik ikusten duena egiten Aita, ezi ark iten duen guzia, iten du Semeak ere gisa berean.

20. Ezi Aitak onesten du Semea eta mostratzentio itentuenak berak; eta ebek baño iagokoak ere mostratukotio, arritu zaizten zuek.

21. Ezi ala nola Aitak erresuzitatzentuen ilak ta biziartzten, ala Semeak ere naituenak biztentu.

22. Zeren ezi ezta Aitak juzgatzen nior, baizik jugamendu guzia utzi dio Semeari.

23. Ohoradezatengatik guziek Semea, ala nola ohoratzen duten Aita, eztuenak ohoratzen Semea, ezta ohoratzen Aita, zeñek biali zuen ura.

24. Egiaz bai, egiaz erraten diziet, ezi aditzen duenak nere itza ta sinesten biali nauenai, duela bizitza eternoa, eta eztatorrela juiziora, baizik pasatzen eriotzetik bizitzara.

25. Egiaz bai, egiaz erraten diziet, ellegatu dela garaia, eta orai dela noiz ilek adituko duten Jangoikoaren semearen boza, ta aditzen dutenak biziko dire.

26. Ezi ala nola Aitak baitu bizitza berebaitan, ala eman dio Semeari ere izatea bizitza berebaitan.

27. Eta eman dio potestade egiteko iuiamendu, zeren baita gizonaren Seme.

28. Etzaitzela arritu ontas, ezi eldu da ordua, noiz monumentuetan diren guziek adituko duten Jangoikoaren Semearen boza.

29. Eta atrako dire in zuztenak obra onak bizitzaren erresurrekziora, baña in zuztenak gaixtoak, iuiamenduaren erresurrekziora.

30. Ez dezaket nik nere burutik egin deus ere; nola aditzen duten, ala juzgatzen dut; eta ene iuiamendua da justoa, zeren ezpaitut billatzen nere borondatea, baizik biali nauenaren borondatea.

31. Baldin nik ematen badut testimonio nere buruas, ene testimonioa ezta egiaskoa.
32. Berze bat da ematen duena testimonio nitas, eta badakit egiaskoa dela nitas ematen duen testimonioa.
33. Zuek biali zindute, Juanengana; eta eman zue testimonio egiaren.
34. Baña nik eztut gizonaren testimonio bearrik, baizik ere diot au, salbazaiztengatik.
35. Ura ze argizuzia erretzen ta argitzen duena. Baña zuek nai zindute denbora aldi bates alegratu arren argian.
36. Baña nik badut testimonio iagokoa ezi Juan; ezi obra emantidanak Aitak in dezkiten nik, obra gaiek berek emateunte testimonio nitas, zeren Aitak biali bainau.
37. Eta biali nauen Aitak, berak eman du testimonio nitas, eta beñere eztuzie aditu beraren boza, ezetaere ikusi beraren iduria.
38. Eta beraren itza eztaukaze egotez zeuren baitan, zeren berak biali duenai, oni zuek eztiozen sinesten.
39. Begira Eskriturak, uste baituzie zuek aietan duziela bizitza eternoa, eta aiek dire ematen dutenak testimonio nitas.
40. Eta eztuzie etorri nai enegana, izateko bizitza.
41. Ohorea gizonenganik eztut nai.
42. Baña ezaundu zaiztet zuek, eztuziela Jangoikoaren amorea zeuren baitan.
43. Ni etorri naiz ene Aitaren izenean, eta ez nauzie errezibitzen; berze bat baletor bere izenean, ura admitituko duzie.
44. Nola zuek dezakeze sinesta, billatzenduzienek gloria elkarrenganik, eta Jangoikoaganik sollik den gloria ez billatzen?
45. Ez pensa akusatukozaiztetela nik Aitaren alzinean; bada akusatzenzaiztenik, au da Moises, zeintan zuek esperatzen duzien.
46. Sinesta bazindezozie Moisesi, sinesta zindezakete agian niri ere, ezi nitas eskribitu zue arrek.
47. Baña arren letraei ezpaduzie sinesten, nola sinetsikotuzie ene itzak?

## CAPITULO 6

1. Gero joan ze Jesus Galileako itsasoaren berze aldera, zein baita Tiberiaskoa.
2. Eta segitzen zio jendetze andiak, zeren ikusten zuzten milagro iten zituenak heri zeudeneki.
3. Igan ze, bada, Jesus oian batera, eta an zego gelditurik bere diszipuloeki.
4. Eta urbil ze Bazkoa, judatarren festa eguna.
5. Bada, goraturik begiak Jesusek, ta ikusirik eldu zela jendeketa andia beragana, erran zio Filiperi: Nondik erosiko dugu ogi, jateko ebek?
6. Baña au zio arren progatu naies, ezi berak bazekie zer egin bear zuen.
7. Errespondatu zio Filipek: Berreun diruen ogiak eztire aski, emateko bakotxai pixka bana.
8. Erraten dio bere diszipuloetaik batek, Andresek, Simon Pedroren anaiak:
9. Bada emen mutiko bat, dituena bortz ogi ordioskoak ta bi arrai; baña ebek zer dire ainberzeendako?
10. Erran zue, bada, Jesusek: Jarrarazizkizie jendeok, ezi belarketa andi bat ze leku gartan. Jarri zire, bada, gizonak bortz milla bekala.
11. Artu zitue, bada, Jesusek ogiak, eta eskerrak eman ondoan errepartitu ziote

jarririk zeudenei; gisa berean arraietaik ere nai zuten diña.

12. Ase zirelaik, erran zue bere diszipuloei: Bilzkizie sobratu diren zatiak, gal eztaitzen.

13. Bildu zuzte, bada, ta bete zuzte amabi saski puskaeki, bortz ogi ordioskoetaik sobratu zireneki jan zutenei.

14. Gizon gaiek, bada, ikusi zutelarik egin zuela Jesusek señaleara, edo milagroa, ziote, au dela egiaz profeta etorriko dena mundura.

15. Baña Jesusek ezaundurik etorriko zirela arrapatzera ta egitera bera errege, joan ze berriz iges oianera bera bakarrik.

16. Berant egin zelaik, arratsalde apalean, jautsi zire bere diszipuloak itsasora.

17. Eta iganik itsasonzian joan zire itsasoaren berze aldera Kafarnauna. Eta ia ze sarturik gaua, eta etze aiengana etorri Jesus.

18. Eta itsasoa zoeie goratus, aize erru batek emanen.

19. Errematus pasatu zuztelaik ogeitabortz edo amar estadio, ikusteunte Jesus dabilala itsasoaren gañean, ta urbiltzen zela; ta izitu zire.

20. Baña berak erraten diote: Ni naiz, etzaziela izan beldurrik.

21. Nai zute, bada, artu onzira, eta bereala onzia ellegatu ze lurrera, zeintara zoezin.

22. Berze egunean, itsasotik arat zegon jendeak ikusi zue etzela berze onzirik, bat baizik, eta etzela sartu onzian Jesus bere diszipuloei, baizik joan zirela soilik diszipuloak.

23. Baña berze onzi batzuk etorri zire Tiberiasdik urbil leku gartara, non jan zuten ogia, graziak emanen Jaunak.

24. Ikusirik, bada, jendeak, etzegola Jesus an, ezeta bere diszipuloak ere, enbarkatu zire onzietan eta joan zire Kafarnauna Jesusen billa.

25. Eta aurkitu zutelaik itsasotik arat erran ziote: Maestru Jauna, noiz etorri da onara?

26. Errespondatu ziote Jesusek ta erran: Sin sines erraten dizet, ene billa zabilzte, ez zeren ikusituzen señaleara, baizik zeren jan duzien ogietaik ta ase zaraten.

27. Trabaja ez ogi akabatzen denagatik, baizik dirauenagatik betiroko bizitzan, zein emanen dizien Gizonaren Semeak, ezi au señaleara zue Aitak Jangoikoak.

28. Erran ziote, bada, aiek: Zer inen dugu, obratzeko Jangoikoaren obrak?

29. Errespondatu ziote Jesusek ta erran: Au da Jangoikoaren obra, sinetsi dezazen ark biali duena baitan.

30. Erran ziote, bada, aiek: Bada, zer señaleara iten du orrek, sinetsi dezagun berori? Zer obratzen du?

31. Gure burasoek jan zute manna desertuan, nola dagon eskribiturik, zerutik ogia eman ziotela jatera.

32. Erran ziote Jesusek: Egiaz bai egiaz erraten diziet, eztela Moises eman diziena ogia zerutik, baizik ene Aitak ematen dizielara ogi egiaskoa zerutik.

33. Ezi Jangoikoaren ogia da jautsi dena zerutik ta ematen duena bizitza munduari.

34. Erran ziote, bada, aiek: Jauna, betiro eman bezagu ogi goi.

35. Erran ziote Jesusek: Ni naiz bizitz asko ogia; enegana datorrena ezta gosetuko, ta enebaitan sinesten duena ezta egarrituko beñere.

36. Baña erran diziet ikusi nauzela, ta sinesten ez.

37. Aitak ematen didan guzia etorriko da enegana, eta datorrena enegana eztut botako kanpora.

38. Zeren ezi jautsi nitza zerutik, ez egiteko neure borondatea, baizik biali

nauenaren borondatea.

39. Bada, au da biali nauen Aitaren borondatea, ez dezaten gal emandidanetik batere, baizik erresuzita edo biztu dezaten azken egunean.

40. Au da biali nauen ene Aitaren borondatea, ezi ikusten duten guziek semea ta sinesten berabaitan, logra dezaten bizitza betirokoa, eta nik erresuzita edo biztukotut azken egunean.

41. Murmuratzen zute, bada, judatarrek artas, zeren erran zuen: Ni naiz ogi bizia zerutik jautsi nitzana.

42. Eta zio: Agian au ezta Jesus Josefen Semea, zeñen Aita ta Ama ezauntzentugun guk? Nola, bada, dio onek, zerutik jautsi naizela ni?

43. Errespondatu zio: Jesusek ta erran: Etzaziela nai murmuratu elkarreki.

44. Nior eztatorke enegana, ezpadakar Aitak biali nauenak, eta nik biztuko dut azken egunean.

45. Dago eskribiturik profetaetan: Izanen dire guziak ikaskoiak Jangoikoaren Aitaganik aditu ta ikusiduten guziak eldu dire enegana.

46. Ez zeren Aita niork ikusi duen, baizik ere Jangoikoaganik denak, onek ikusi du Aita.

47. Egiaz bai egiaz erraten diziet, sinesten duenak enebaitan, badu bizitza betirakoa.

48. Ni naiz bizitzaren ogia edo bizitzaskoa.

49. Zuen burasoek jan zute manna desertuan ta il zire.

50. Auda ogia zerutik jautsi dena, ontaik jaten duena il eztaien.

51. Ni naiz ogi bizia zerutik jautsi nitzana.

52. Nork ere jaten duen ogi gontaik, biziko da betikos eta nik emanen duten ogia neure aragia da munduaren bizitzagatik.

53. Asi zire, bada, marmarketan elkarreki judatarrak ziotela: Nola dezake onek guri eman bere aragia jateko?

54. Erran zio, bada, Jesusek: Sin sines erraten dizet, ezpaduzie jaten gizonaren Semearen aragia ta edaten beraren odola, eztuzie izanen bizitza zeuren baitan.

55. Jaten duenak ene aragia ta edaten ene odola, du bizitza betirokoa, eta nik biztuko dut azken egunean.

56. Ene aragia da egiaz janari, eta ene odola egiaz da edari.

57. Jaten duena ene aragia ta edaten ene odola, mantenitzen da nibaitan, ta ni berabaitan.

58. Ala nola biali ninduen ni Aitak bizi denak, eta ni bizi bainaiz Aitagatik, jaten nauena ni biziko da bera ere enegatik.

59. Au da ogia zerutik jautsi dena. Ez ala nola zuen buratsoek jan manna ta il baizire, jaten duena ogi gau biziko da betiroko.

60. Ebek erran zitue sinagogan erakusten Kafarnaunen.

61. Askok bere diszipuloetaik aiturik zio: Gogorra da prediku gau; eta nork dezake aditu?

62. Baña zekielaik berebaitan Jesusek, murmuratzen zutela ontas bere diszipuloek, erran zue: Orrek eskandalizatzen edo arritzen zaizte?

63. Bada zer, ikusibazindezate Gizonaren Semea igaten non zegon lenago?

64. Espiritua da biziartzten duena, baña aragiak ezta protxatzen deus ere. Nik errantzieten itzak espiritu ta bizitza dire.

65. Baña badire zuetaik zenbait eztutenak sinesten, ezi bazekie prinzipiotik Jesusek nor ziren sinesten-etzutenak, eta nork traiziatuko zuen.

66. Eta zio: Orgatik erran diziet nior eztatorrela neregana, ezpazaio eman ene Aitaganik.

67. Emendik asko diszipuloetaik joan zire atzerat, eta ia etzebiltza berareki.

68. Erran zio, bada, Jesusek amabiei: Agian nai duzie joan zuek ere?

69. Errespondatu zio Simon Pedrok: Jauna, norengana joanen gara? Bizitza eternoko itzak ditu orrek.

70. Eta guk sinetsi dugu eta ezaundu dugu berori dela Kristo Jangoikoaren Semea.

71. Errespondatu zio Jesusek: Etzaiztet agian nik berexi amabi? Eta zuetaik bat deabru da.

72. Zio Judas Iskariote Simonese, ezi onek traiziatuko zue, amabietatik bat zelarik.

## CAP.7

1. Andik gero zebila Jesus Galilearat, ezi etzue joan nai Judeara, zeren judatarrek nai zuten il.

2. Eta andik guti ze judioen festa-eguna, Eszenopejia.

3. Erran zio, bada bere anaiek: Pasa emendik ta bidoeie Judeara, ikus dezkiten bere diszipuloek obra egitentuenak.

4. Ezi niork eztu egiten estalian deus, ta nai du bere burua agertu. Egiten baitu orrek alako gauzak, manifesta bez bere burua munduari.

5. Ezi bere anaiek ere etzute sinesten berabaitan.

6. Erran zio, bada, Jesusek: Ene denbora ezta oraño ellegatu; baña zuen denbora beti dago prest.

7. Etzaizkete munduak gaizetsi zuek; baña ni gaizetsitzen nau, zeren artas ematen baitut testimonio, arren obrak direla gaixtoak.

8. Zuek igan zaizte festa-egun gontara, baña ni ez naiz igaten, zeren ezpaita bete nere denbora.

9. Au erranik, gelditu ze bera Galilean.

10. Baña igan zirelaik bere anaia, orduan bera ere igan ze festa egunera, ez agerrian, baizik estalian bekala.

11. Judatarrek, bada, billatzen zute festa-egunean, eta zio: Ura non da?

12. Eta marmar asko ze arren gain jendeetan; ezi batzuek zio, ona dela, berze batzuek zio, ezetz, baizik engañatzen uela jendeak.

13. Baña alaere nior etze mintzatzen artas agerrian judatarren beldurres.

14. Baña ia festa egunak erditsutan zirelaik (quarto die septimanae tirinus) igan ze Jesus tenplora, ta zego erakusten.

15. Eta arritzen zire judatarrek, ziotela, nola daki onek letrarik eztuelaik ikasi?

16. Errespondatu zio Jesusek ta erran: Ene doktrina ezta nerea, baizik bialinauenarena.

17. Nork ere nai duen egin beraren borondatea, ezaunduko du seguraturik doktrinas, ote den Jangoikoaganik, edo ni mintzatzen naizen ene burutik.

18. Bere burutik mintzatzen denak billatzen du bere gloria propioa, baña billatzen duenak biali nauenaren gloria, ura da egiaskoa ta eztu maliziarik.

19. Eztizie Moisesek eman legea? Eta eztu niork zuetaik egiten legea?

20. Zergatik zabilzate il naies ni? Errespondatu zio jendeak ta erran zio: Demonioa

dauka orrek. Nor dabila orren il naies?

21. Errespondatu zue Jesusek ziola: Obra bakar bat egin dut eta guziok arritzen zarate.

22. Orgatik Moisesek eman zizie zirkunzisia, ez zergatik den Moisesenganik, baizik burasoenganik. Eta larunbatean zirkunzidatzen duzue.

23. Artzen badu zirkunzisia gizonak larunbatean, laza eztaien Moisesen legea, ene kontra inidignatzen zarate, zeren gizona guzia sendatu duten larunbatean?

24. Etzaziela nai juizio egin iduri-utses, baizik dena den bekala zuzen-bidean.

25. Erraten zute, bada, Jerusalemgo batzuek: Ezta au, zeñen il naies dabilzan?

26. Eta orra mintzatzen da agerrian klaro, ta eztiote deus erraten. Agian ezaundu dute egiaz buruzagiek, au dela Kristo?

27. Baña au badakigu nongoa den; baña Kristo datorrela, niork eztaki nongoa den.

28. Klamatzen zue, bada, Jesusek tenploan erakusten ta erraten: Badakize ni nor naizen, ta nondik naizen badakize; eta ez naiz etorri neure burutik, baizik bada egiasko bat biali nauena, zuek eztaki ziena.

29. Eta nik badakit ura nor den, zeren beraganik naiz eta berak biali nau.

30. Zebiltza, bada, in naies preso, eta niork etzio bota eskurik, zeren oraño etzen ellegatu bere ordua.

31. Baña jende komunetik anitzek sinetsi zute berabaitan eta erraten zute: Kristok datorrela, inen du agian iago seña, onek iten duen baño?

32. Aditu zute fariseoek, jendeak zerdukala au artas, eta biali zuzte buruzagiek ta fariseoek ministroak, arrapa zezaten preso.

33. Erran ziot, bada, aiei Jesusek: Oraño denbora guti bat nago zueki eta banoaie biali nauenagana.

34. Billatuko nauzie ta aurkituko ez nauzie; eta non ere nagon ni, zuek etzaizkete etorri.

35. Erran zute, bada, elkarreki judatarrek: Nora joanen da au, ezpaitugu aurkituko? Joanen ote da jendalderat erakustera jendeei edo jentilei?

36. Zer errana da erran duen gau: Billatuko nauzie ta aurkituko ez? Eta non nagon ni, zuek ezin etorri?

37. Baña festaren azken egun andian zego txutirik Jesus, ta zio oiuz: Nor ere dagon egarriak, betor enegana eta edan bez.

38. Sinesten duenak enebaitan, nola dion Eskriturak, ur biziaren errekek beraganik ugariko dire.

39. Baña au zio Espiritu artu bear zutenas sinesten zutenek berabaitan, ezi oraño etze Espiritua eman, zeren oraño etzen gloriastatu Jesus.

40. Bada, jendetze gartaik, aituzitutelaik itz gebek ziot: Au da egiaz profeta.

41. Berze batzuek ziot: Au da Kristo. Baña zenbaitek ziot: Agian Galileatik dator Kristo?

42. Eztio agian Eskriturak, datorrela Kristo Dabiden jendakitik ta Belengo kastelutik, nongo zen Dabid?

43. Agitu ze, bada, desaraukida jendean beraren kasos.

44. Aietaik zenbaitek nai zute arrapatu; baña niork etzio botatu eskurik.

45. Etorri zire, bada, ministroak pontifizeen ta fariseoengana, ta erran ziot ebek aiei: Zergatik eztuzie ekarri?

46. Errespondatu zute ministroek: Sekulan ezta mintzatu ala gizonik, nola gizon gau.
47. Errespondatu zioten, bada, aiei fariseoek: Agian zuek ere utzi zarate engañatzen?
48. Agian buruzagietaik niork sinetsi du arren baitan edo fariseoetaik?
49. Baña jende komun ezta legea madarikatuak dire.
50. Erran zioten aiei Nikodemok, gauas etorri zenak beragana, zein baize aietatik bat:
51. Agian gure legeak juzgatzen du gizonik aditu gabe bera ta informatu gabe zer in duen?
52. Errespondatu zioten ta erran: Agian zu ere galileatarra zara? Leizkizu ongi Eskriturak, eta ikusi, ezte profetarik atratzen Galileatik.
53. Eta itzuli zire bakotxa bere etxera.

## CAPITULO 8

1. Baña Jesus joan ze Olibeteko oianera.
2. Eta goiz goizean berriz etorri ze tenplora, eta erriko jende guzia beragana etorri ze, eta berak jarririk erakusten zioten.
3. Baña eskriba ta fariseoek ekartzen dute emasteki bat arrapatua bekatuan, ta paratu zute beraren aizinean erdian.
4. Eta erran zioten: Maestra, emaste gau oraietan aurkitu da bekatuan.
5. Eta Moisesen legean manatu zigu arrikatzeko alakoak. Bada, orrek zer dio?
6. Baña au erraten zute tentatus, al bazezakete akusatu. Baña Jesus kurturik beerat, zego eskribitzen erias lurrean.
7. Bada, zirautelaik galdegiten, goratu ze ta erran zioten: Zuetaik nor ere aurkitzen den bekatuak gabe, ark lenbizikorik tira bezoz arrukaldia.
8. Eta berriz kurturik, eskribitzen zue lurrean.
9. Baña aditurik aiek atratzen zire bata berzearen atzetik, asis zarrenetaik. Eta gelditu ze sollik Jesus eta emastekia zegona erdian.
10. Goratu zelaik Jesusek erran zio: Emastekia, non dire akusatzen zindutenak zu? Niork etzaitu kondenatu?
11. Ark erran zue: Niork ere ez, Jauna. Bada, erran zue Jesusek: Nik ere etzaitu kondenatuko. Zoaz, eta ia etzazula nai iago egin bekatuak.
12. Berriz, bada, mintzatu zekioten Jesus aiei ziola: Ni naiz munduaren argia. Nor ere datorren ene atzetik, eztabila ilunbetan, baizik izanen du bizitzako argitasuna.
13. Erran zioten, bada, fariseoek: Orrek bere buruas ematen du testimonio, orren testimonioa ezta egiaskoa.
14. Errespondatu zue Jesusek ta erran zioten: Naiz nik eman testimonio nitas, egia da nere testimonioa, zeren baitakit nondik etorri naizen ta nora noaien. Baña zuek ezta zekioz nondik etorri edo nora noaien.
15. Zuek aragiaren araura juizio iten duzie; nik ezta juzgatzen nior.
16. Eta juzgatzen barin badut nik, nere juizioa egiaskoa da, zeren ez naizen bakarrik; baizik ere ni eta biali nauena ni, Aita.
17. Eta zuen legean dago eskribiturik, ezi bi gizonen testimonioa dela egiaskoa.
18. Ni naiz ematen dutena testimonio nitas, eta nitas ematen du testimonio biali nauenak, Aitak.
19. Erraten zioten, bada: Non da orren Aita? Errespondatu zue Jesusek: Ez nitas

dakizie, ez nere Aitas ere. Nitas bazidekite, agian jakin zindezakete ene Aitas ere.

20. Itz gebek erran zitue ondakartegian, erakutsis tenploan. Eta niork etzue arrapatu preso, zeren oraño etzen ellegatu beraren ordua.

21. Erran ziote berriz Jesusek: Ni banoaie, ta ene billa ibiliko zarate, ta zeuren bekatuan ilen zarate. Nora noaien ni, zuek etzaizkete etorri.

22. Erraten zute, bada, judioek: Ilen ote du bere burua, baitio, nora noaien ni, zuek ezin etorri?

23. Eta erraten ziote aiei: Zuek emen beitikoak zarate, ni goratik gorenetik naiz. Zuek mundu gontakoak zarate, ni ez naiz mundu gontakoa.

24. Erran dizet, bada, ezi ilen zaratela zeuren bekatuetan, zeren ezi ezpaduzie sinesten, ni naizela, ilen zarate zeuren bekatuan.

25. Erraten ziote, bada, berai: Ori nor da? Erran ziote Jesusek: Prinzipioa, zein ere mintzaten naizen zueki.

26. Asko dut zer erran ta juzgatu zuetas, baña biali nauena ni, egiaskoa da; eta nik aitutudanak beraganik, ebek erratentut munduan.

27. Eta etzute ezaundu, ezi bere Aita ziola Jangoikoa.

28. Erran ziote, bada, Jesusek: Goratzen duzielaik gizonaren Semea, orduan ezaundukozie ni naizela; eta neure burutik eztut deus ere egiten, baizik nola erakutsi didan Aitak, mintzaten naiz.

29. Eta biali nauena ni, eneki dago, ta ez nau utzi bakarrik, ezi nik beraren plazer dena iten dut beti.

30. Ebek errateareki berak, anitzek sinetsi zute berabaitan.

31. Erraten ziote Jesusek sinetsi zioten judatarrei: Baldin zuek irauten baduze nere erranetan, egiaz ene diszipuloak izanen zarate.

32. Eta ezaunduko uze egia, ta egiak libratuko zaizte.

33. Errespondatu ziote: Abrahamen jendakia gara, ta niori eztiogu zerbitzatu beñere. Nola dio orrek: Libre izanen zarate?

34. Errespondatu ziote Jesusek: Sin sines erraten diziet, ezi egiteunten guziek bekatu, bekatuaren sierbo direla.

35. Bada, sierboa ezta mantenitzen etxean betiroko, baña Semea mantenitzen da beti.

36. Beras, libratzen bazaizte semeak, egiaz libre izanen zarate.

37. Badakit zaratela Abrahamen humeak, baña zabilzate il naiak ni, zeren nere erranak etzuten lekurik zuen baitan.

38. Nik ikusi dutena ene Aitan, erraten dut; eta zuek ikusi duziena zeuren Aitan, egiten duzie.

39. Errespondatu ziote ta erran: Gure Aita Abraham da. Erraten diote Jesusek: Barin bazarate Abrahamen humeak, eginzkizie Abrahamen obrak.

40. Baña orai zabilzate il naiak ni, gizon bat erran dizetena egia aitu dudana Jangoikoaganik. Au etzue Abrahamek egin.

41. Zuek egitentuzie zeuren Aitaren lanak. Erran zute aiek: Gu ezgara jaio bekatutik. Jangoikoa dugu Aita bakarrik.

42. Bada, erran ziote Jesusek: Jangoikoa baliz zuen Aita, onetsin in dezakeze ni, ezi ni Jangoikoaganik prozeditu ta etorri naiz; ezi ez naiz etorri neureganik, baizik berak biali nau.

43. Zergatik eztuzie ezauntzen mintzaera enea? Zeren ez dezazkezen aditu nere



itzak.

44. Zuek aita deabruaganik zarate, eta zeuren aitaren deseok naituzie egin. Ura ze giza-ilzale prinzipiotik; eta etze egon firme egian, ezpaita arren baitan egiarik. Mintzatzen duelaik gezurra, mintzatzen du beretik, baita gezurti ta arren aita.

45. Baña nik erraten badizet egia, eztidaze sinesten.

46. Nork zuetaik akusatuko nau ni bekatoren bates? Erraten badizet egia, zergatik eztidazie sinesten?

47. Jangoikoaganik denak aditzentu Jangoikoaren itzak. Orgatik zuek eztuzie aditzen, ezpaizarate Jangoikoaren.

48. Errespondatu ziozte, bada, judatarrek ziotela: Agian eztiogu ongi guk, samaritarra dela ori, eta daukala demonioa?

49. Errespondatu zue Jesusek: Nik eztut demoniorik, baizik honratzen dut nere Aita, eta zuek desonratu nauzie ni.

50. Baña nik eztut billatzen neure gloria; bada billatzen duenik eta juzgatuko duenik.

51. Sin sines erraten dizet: Nork ere guardatzentuen nere erranak, ezta ikusiko eriotzea betikos.

52. Erran zute judatarrek: Orai ezaunzen dugu demonio duela. Il zire Abraham ta profetak. Eta orrek dio, guardatzentuenak nere erranak ezta txastatuko eriotzea sekulan.

53. Agian ori andiago da ezi gure aita Abraham, zein il baize? Profetak ere il zire. Nor iten da berori?

54. Errespondatu zue Jesusek: Nik honratzen badut nere burua, nere honrak ezta deus balio. Nere Aita da honratzen nauena ni, zein baitioze zuek dela zuen Jangoikoa.

55. Eta eztuzie ezauntzen bera, baña nik ezauntzen dut. Eta erran banetz eztutela ezauntzen, nitzake zuen gisa gezurti. Baña ezauntzen dut bera, ta beraren itzak guardatzentut.

56. Abraham zuen aita alegratu ze ikusi naies nere eguna; ikusi zue ta gozatu ze.

57. Erran ziozte, bada, judatarrek: Berrogeitamar urte oraño ezta, eta Abraham ikusi du?

58. Erran ziozte Jesusek: Egiaz bai, egiaz erraten dizet, Abraham inbañolen, banaiz ni.

59. Artu zuzte, bada, arriak, tiratzeko beraren kontra. Baña Jesus altxatu ze ta atra ze tenplotik.

## CAPITULO 9

1. Eta pasatus bidanabar ikusi zue gizon bat itsua jaiotzes.

2. Eta galdegin ziozte bere diszipuloek: Maestru Jauna, nork du kulpa edo bekatu, onek edo onen buratsoek, jaiotzeko au itsu?

3. Errespondatu zue Jesusek: Ezta onek kulparik, ezeta onen buratsoek ere, baizik ager daitzen Jangoikoaren obrak ontan.

4. Da preziso nik obratzea biali nauenaren obrak, egunak dirauen bitarteko. Eldu da gaua, noiz niork ere ez dezaken obratu.

5. Nagon bitarteko munduan, munduaren argia naiz.

6. Au erran ta bota zue lixtu lurrean, ta egin zue lixtuas loi, ta loias untatu zitio begiak.

7. Eta erran zio: Zoaz, garbi zaitte Siloeko balsan (nai baitu erran Bialia). Joan ze,

bada, ta garbitu ze, eta etorri ze ikusten zuela.

8. Eta ala aldekoek ta len ikusi zutenek errumes eskean zebilala ziote: Agian ezta au zegona eskean? Batzuek ziote, baietz, au dela.

9. Berze batzuek, ezetz, baizik arri iduritua dela. Baña berak zio, ni naizela.

10. Erraten ziote, bada, berari: Nola idiki zaizkizu begiok?

11. Errespondatu zue, Jesus deitzen den gizon garrek egin du loi lixtuas, untatutida begiok ta erran dida: Zoaz Siloeko balsara ta garbi zaite, eta joan naiz, garbitu naiz ta ikusten dut.

12. Eta erran ziote berai: Non dago gizon gura? Ark dio: Eztakit.

13. Dakarte fariseoengana itsu izan zena.

14. Bada, ze larunbata, noiz in zuen Jesusek loa ta idiki zituen arren begiak.

15. Berriz, bada, galdegiten ziote fariseoek, nola ikusi zuen. Baña berak erran ziote: Loia paratu dida begien gañean ta garbitu, ta ikusten dut.

16. Ziote, bada, fariseoetaik zenbaitek: Ezta Jangoikoaren aldetik gizon goi ezpaitu guardatzen larunbata. Baña berze batzuek ziote: Nola dezake gizon bekatariak egin alako señaleak edo milagroak? Eta desaraukida ze aien erlean.

17. Erraten diote, bada, itsuari berriz: Zuk zer diozu artas idikitizunas begiok? Ark zio, profeta dela.

18. Etzute, bada, judatarrek sinetsi artas, itsu izan zela ta ikusi zuela, aliketa deitu zuzten arteo ikusi zuen garren buratsoak.

19. Eta galdegin ziote aiei ta erran: Auda, zuen semea zuek diozema jaio zela itsu? Bada, nola orai ikusten du?

20. Errespondatu ziote arren buratsoek ta erran: Dakigu au dela gure semea ta itsu jaio zela;

21. Baña nola ikusten duen orai, eztakigu, edo nork idikition begiok, guk eztakigu; berorri galdegin bezote, badu adin, berorrek erran bez bere buruas.

22. Au erran zute arren buratsoek, zeren baizire judioen beldur, ezi ia batzarrean inzute, ezi norbaitek konfesa balez ura zela Kristo, botatzeko sinagogatik.

23. Orgatik arren buratsoek erran zute: Badu adin, galde berorri.

24. Deitu zute, bada, berriz itsu izana, ta erran diote: Emoza gloria Jangoikoai guk dakigu gizon goi dela bekatari.

25. Erran ziote, bada, ark aiei: Bekatari den, eztakit. Gauza bat dakit, ezi nitzalaik itsu, orai ikusten dudala.

26. Erran ziote aiek: Zer in dizu? Nola idikitizu begiok?

27. Errespondatu ziote aiei: Erran dizet ia ta aditu duze, zer nauzie berriz aditu? Agian nauzie zuek ere izan beraren diszipulo.

28. Madarikatu zute ta erran: Zu zaizela arren diszipulo; baña gu Moisesen diszipulo gara.

29. Guk dakigu Moisesi minzatu ziola Jangoikoak; baña au eztakigu nondik den edo nongoa.

30. Errespondatu zue gizon garrek ta erran: Ontan, bada, dago miragarria, ezpaitakize nondik den eta idiki baititu nere begiok.

31. Eta badakigu ezi bekatariak eztituela aditzen Jangoikoak; baña barin bada bat Jangoikoaren beldurdun ta iten duena beraren borondatea, alakoa aditzen du.

32. Sekulan ezta aditu, idikituela batek itsu jaiorenen begiak.

33. Ezpaliz au Jangoiokaganik, ezin lezake deus egin.

34. Errespondatu zioite aiek ta erran: Bekatuetan guziori jaio zara; eta zuk erakutsi guri? Eta botatu zute kanpora.
35. Aitu zue Jesusek, bota zutela, ta aurkitu zuelarik erran zio: Zuk sinesten duzu Jangoikoaren Semean?
36. Errespondatu zue ark ziola: Nor da, Jauna, sinesta dezaten berabaitan?
37. Erran zio Jesusek: Alde bat ikusi duzu, ta mintzatzen dagona zureki, berbera da.
38. Eta ark erran zue: Sinesten dut, Jauna. Eta auspeska paraturik adoratu zue.
39. Eta erran zue Jesusek: Juiziotako ni etorri naiz mundugontara, ikusten eztutenek ikus dezaten eta ikusten dutenak itsu egin daitzen.
40. Eta aditu zute zenbaitek fariseoetaik berareki zeudenek, eta erran zioite: Agian gu ere itsu gara?
41. Erran zioite Jesusek: Itsu barinbazinate, etzin dute bekatuik. Baña orai dioze: Ikusten dugu. Bada, zuen bekatua da iraupetsu.

## CAPITULO 10

1. Egiaz bai, egiaz erraten dizet, eztena sartzen ataritik ardien artegian, baizik igaten berze nondikbait, ura da lapurra ta ohoina.
2. Baña sartzen dena ataritik da ardien artzaia.
3. Oni atalzaiak idikitzen dio, ta ardiek aditzen dute beraren boza, ta deitzentu bere ardi propioak beren izenes eta atrazentu.
4. Eta atra ondoan bere ardiak, doaie aien alzinean, ta ardiek segitzeunte, baitakite arren boza.
5. Baña berzerena eztute segitzen, baizik iges egiten arrenganik, ezpaitute ezauntzen berzerenen mintzoa.
6. Esangiau erran zioite Jesusek. Baña aiek etzute entendatu zer erraten zioten.
7. Erran zioite, bada, berriz Jesusek: Sin sines erraten diziet, ni naizela ardien ataria.
8. Etorri diren guziak lapurrak dire ta ohoinak eta eztuzte aditu ardiek.
9. Ni naiz ataria. Enegatik sartzen dena salbatuko da, ta sar-atrako da, ta aurkituko du bazka.
10. Lapurra ezta etortzen, baizik ebasteagatik, il eta galtzeagatik. Ni etorri naiz izandezatengatik bizitza ta abasto izan dezaten.
11. Ni naiz artzai ona. Artzai onak bere bizia edo arima ematen du bere ardiengatik.
12. Baña alokairukoak ta artzai eztenak, norenak ezpaitire ardiak, ikusirik otsoa eldu dela, uztentu ardiak ta iges egiten du, eta otsoak arrapatzen eta galtzentu ardiak.
13. Baña alokairukoak iges iten du, baita alokatua, ta ezpai zaio deus ardies.
14. Ni naiz artzai ona eta ezauntzentut nere ardiak, ta ezauntzen naute ni neureek.
15. Ala nola ezauntzen nauen ni Aitak, eta nik ezauntzen duten Aita, eta nere bizia ematen dut nere ardiengatik.
16. Berze ardi batzuk ere baitut, eztirenak artegigontakoak; aiek ere beartut ekarri, ta adituko dute nere boza, ta inen da saldo bat, ta artzai bat.
17. Orgatik maitatzen nau ni Aitak, zeren nik uzten baitut nere arima, artzeko berriz bera.
18. Niork eztida kentzen au, baizik nik uzten dut nereganik, eta esku dut uzteko, ta esku dut artzeko berriz. Manamendu gau artu dut ene Aitagarik.

19. Desaraukida berriz agitu ze judatarren erlean itz geben kasos.
20. Askok aietatik baiziot: Demonioa dauka, ta eraturik dago, zergatik aditzen duzie?
21. Berze batzuek ziot: Itz gebek eztire demonio daukanarenak. Agian demonioak dezazke idiki itsuen begiak?
22. Ze tenploaren Donekidaren festa, deitua Enzenia Jerusalem, eta negua ze.
23. Eta zebila Jesus tenploan, Salomonen leorpean.
24. Inguratu zute, bada, bera judioek, ta erraten ziot: Noiz arteo gauzki dudat? Ori barin bada Kristo, erran bezagu klaro argiro.
25. Errespondatu ziot Jesus: Erraten dizet, ta eztuzie sinesten. Obra itentutenak nik ene Aitaren izenean, ebek ematen dute progu nitas.
26. Baña zuek eztuzie sinesten, ezpaizarate nere ardietaik.
27. Nere ardiek aditzen dute nere boza, eta nik ezauntzentut aiek, eta aiek segitzen naute ni.
28. Eta nik ematen diotet bizitza betirokoa, ta eztire galduko betikos, ta eztitu niork atrako nere eskutik.
29. Ene Aitak eman didana da guziak baño iagokoa; eta niork ez dezake kendu ene Aitaren eskutik.
30. Ni eta nere Aita gara bat.
31. Artu zuzte, bada, judioek arriak, arrikatzeko bera.
32. Errespondatu ziot Jesus: asko obra on erakutsitiziet ene Aitaganik; aietatik zein obratik arrikatzen nauzie ni?
33. Errespondatu ziot judioek: Obra onagatik eztugu arrikatzen, baizik blasfemiagatik, eta zeren gizona delaik, iten baitu Jangoiko bere buruoi.
34. Errespondatu ziot Jesus: Eztago eskribiturik zuen legean: Nik erran dut, Jangoiko zaratela?
35. Deitu bazitue Jangoiko aiek, zeñei mintzatu zen, eta eztaike desegin Eskritura
36. Aitak santifikatu duena ta biali mundura, zuek dioze, blasfemia diotela, erranas Jangoikoaren Seme naizela?
37. Ezpaitut egiten ene Aitaren obrak, ez sinetsi niri;
38. Baña iten baditut, naiz niri eztidazen sinetsi nai, sinetsi zozie obraei, ezauntzeko ta sinesteko Aita dagola nibaitan eta ni Aita baitan.
39. Nai zute, bada, preso egin, eta atra ze aien eskuetaik.
40. Eta joan ze berriz Jordanetik berze aldera leku gartara, non zegon Juan bataiatzen len; eta gelditu ze an.
41. Eta anitz etorri zire beragana, eta ziot, ezpaizue Juanek egin señalerik batere.
42. Baña ontas Juanek erran zituen guzi guziak, baitire egiak. Eta anitzek sinetsi zute berabaitan.

## CAPITULO 11

1. Ze heri bat deitua Lazaro Betaniakoa, Mariaren ta bere aizpa Martaren gastelukoa.
2. Eta Maria ze unjitu zuena ungenduas Jauna, ta igortzi beraren oñak bere biloareki; zeñen anaia Lazaro zego heri.
3. Biali ziot, bada, arreba gaiek Jaunari erratera: Jauna, orra maite duena orrek dago heri.

4. Aiturik Jesusek erran zue: Heritasun gau ezta erioaren, baizik Jangoikoaren gloriaren, arren kasos honra daien Jangoikoaren Semea.
5. Bada, onesten zue Jesusek Marta, ta arren aizpa Maria, eta Lazaro.
6. Aiturik, bada, zegola heri, egon ze geldi an leku berean bi egunes.
7. Gero ondorean erran ziotere bere diszipuloei: Goazen Judeara berriz.
8. Erraten diote diszipuloek: Maestru Jauna, oraietan judioek nai zute arrikatu berori, eta berriz doaie arara?
9. Errespondatu zue Jesusek: Eztire amabi eguneko orduak? Barin badabila bat egunas, ezta tropezatzen, baitakusa mundu gontako argia.
10. Baña barin badabila gauas, tropezatzen da, zeren ezpaitu argirik.
11. Au erran ta ondorean erraten diote: Lazaro gure adiskidea lo dago; baña banoaie idatzarri dezaten lotik.
12. Erran ziotere bere diszipuloek: Jauna, lo barin badago, atrako da salbo.
13. Baña Jesusek zerduka arren eriotzeas; baña aiek pensatu zute zerdukala lokartuas.
14. Orduan, bada, erran ziotere Jesusek agerri: Lazaro ilda.
15. Eta plazer dut zuengatik, sinesta dezazen, nola ezpaignego an; baña goazen beragana.
16. Tomas Didimo deitzen denak erran ziotere lagunei: Goazen gu ere, il gaitzen berareki.
17. Ala, bada, etorri ze Jesus, eta aurkitu zue ia laur egun ilik zegola monumentuan.
18. Eta Betania ta Jerusalena urbil amabortz estadio guti gora bera.
19. Bada, judioetaik anitz etorri zire Marta ta Mariagana, konsolatzera beren anaiagatik.
20. Martak, bada, aitu orduko etorri zela Jesus, atra zekio bidera; baña Maria zego geldi etxean.
21. Erran zio, bada, Martak Jesusi: o Jauna, egon baze berori emen, ene anaia etze ilen.
22. Baña oraño ere badakit edozein gauza eska dezon orrek Jangoikoai, emanen diola Jangoikoak.
23. Erraten dio Jesusek: Biztuko da zure anaia.
24. Erraten dio Martak: Badakit biztuko dela erresurrekzioan azken egunean.
25. Erraten dio Jesusek: Ni naiz erresurrekzio ta bizitza; sinesten duena nibaitan, naiz il daien edo il den, biziko da.
26. Eta bizi den ta sinesten duena nibaitan, ezta ilen betikos edo sekulan. Sinesten duzu au?
27. Erraten dio: Bai, Jauna, nik sinetsi dut, zeren ori baita Kristo Jangoiko biziaren Semea etorri dena mundugontara.
28. Eta au erran ta joan ze, ta deitu zue ixil ixila bere aizpa Maria erraten diola: Maestru Jauna etorri da, ta deitzen zaitu.
29. Aitu orduko jaiki berla ura ta doaie beragana.
30. Ezi oraño etze ellegatu Jesus kastelura, baizik zego leku gartan, non atra zekion Marta.
31. Bada, judioek zeudenek arreki etxean ta konsolatzen zutenek, ikusi zutelaik jaiki zela Maria prisaka, ta joan zela, segitu zute ziotela: Monumentura bide doaie, negar

itera an.

32. Maria, bada, ellegatu zelaik non zegon Jesus, ikusi orduko belaurikatzen zaio oñetara, ta erraten dio: o Jauna, ori egon baze emen, ene anaia etze ilen.

33. Jesusek, bada, ikusi zuelaik ura negarres ta berareki etorri ziren judioak negarres, lastimatu ze espirituan ta genastuze bera ere.

34. Eta erran zue: Non paratu duzie? Erraten diote: Betor ta ikusi bez.

35. Eta negar egin zue Jesusek.

36. Erran zute, bada, judioek: Beira nola maite zuen.

37. Baña aietaik zenbaitek erran zute: Onek idiki zituenak itsu jaioareen begiak, etzuke egin, etzeien il au?

38. Jesus, bada, berriz lastimaturik berebaitan etorri ze monumentura; eta ze lurruspe bat; eta arri bat paraturik zego gañean.

39. Erraten du Jesusek: Ken zaze arri goi. Erraten dio Martak, il zenaren arrebak: Jauna, ia usandurik dago, ezi laur eguntako ilada.

40. Erraten dio Jesusek: Eztizut erran, ezi sinesten bauzu, ikusko duzula Jangoikoaren gloria?

41. Kendu zute, bada, arria, eta Jesusek goraturik begiak gora, erran zue: Aita, eskerrak ematentiot, zeren aditu nauen.

42. Nik banekie aditzen nauela beti ni, baña inguruan dagon jendeagatik erran dut, sinetsidezatengatik, orrek biali nauela ni.

43. Au erran ta oiui andi bateki klamatu zue: Lazaro, atoz kanpora.

44. Eta instantean atra ze ila zena, loturik eskuak ta oñak bendaeki, eta aurpegia zeuka loturik oial bateki, erran ziote aiei Jesusek: Laza zazie ta utzazie doaiela.

45. Anitzek, bada, judioetaik, etorri zirenek Maria ta Martagana, ta ikusi zutenek Jesusek egin zituenak, sinetsi zute berabaitan.

46. Baña aietaik batzuk joan zire fariseoengana ta kontatu ziote egin zuena Jesusek.

47. Bildu zute, bada, pontifizeek ta fariseoek batzarre, eta erraten zute: Zer ai gara? Ezi gizon gonek anitz señale egiten du.

48. Baldin uzten badugu ala, guziek sinetsiko dute berabaitan, eta etorriko dire erromatarrak, ta galduko dute gure lekua ta jendea.

49. Baña aietaik batek, Kaifas deituak, zelarik urte gartako pontifize, erran ziote: Zuek eztakize deusere.

50. Eta eztuze pensatzen konbeni zaizela il daien gizon bat jendeagatik, eta gal eztaien jende guzia.

51. Baña au etzue erran bere burutik, baizik nola baize urte gartako pontifize, asmegitatu zue Jesus il bear zela jendeagatik.

52. Eta ez jendeagatik sollik, baizik ere batera biltzeko Jangoikoaren humeak zeudenak barraiaturik.

53. Egun gartaik, bada, gogo artu zute ilarazteko Jesus.

54. Bada, Jesus ia etzebila agerrian judioen erlean, baizik joan ze alderri batera desertura urbil, Efrem deitzen den irira, ta an zego bere diszipuloeki.

55. Baña urbil ze ia judioen Bazkoa, eta igan zire anitz alderritik Jerusalem Bazkoa-alzinean santifikatzera berak.

56. Zebiltza, bada, Jesusen billa, eta mintzatzen zire elkarreki tenploan zeudelaik: Zergatik uste duzie eztela etorri festa eguneko? Emanik zeukate pontifizeek ta fariseoek

manamendu, ezi norbaitek ezaunzen bazue non zen, kontu emateko, bera preso arrapatzeko.

## CAPITULO 12

1. Jesus, bada, sei egun Bazkoa baño len, etorri ze Betaniara, non il baize Lazaro, zein biztu zuen Jesusek.

2. An prestatu zioten afaria; eta Martak zerbitzatzen zio; eta Lazaro ze bat maiean jarririk zeudenetaik.

3. Bada, Mariak artu zue libra bat unguendo nardo fiñ prezioso; ta unjitu zitue Jesusen oñak eta igortzi bere biloareki; eta etxea bete ze unguenduaren atxonas.

4. Erran zue, bada, bere diszipuloetaik batek, Judas Iskariotek, traiziatu bear zuenak:

5. Zergatik unguendo gau ezta saldu irur eun dirutan, eta eman beartsueri?

6. Baña au erran zue, ez zeren ajola zuen beartsues, baizik zeren baize lapurra, ta zeukalaik bolsa baizema ematen zena.

7. Erran zue, bada, Jesusek: Utzaze goarda dezan ori ene ilari-eguneko.

8. Zeren ezi beartsuak beti baituzie zeureki, baña ni ez naukazie beti.

9. Bada, judatarretaik asko jendeak xakin zue an zegola, eta etorri zire ez Jesusengatik sollik, baita ikusteagatik ere Lazaro biztu zuena iletai.

10. Baña sazerdoteen prinzipeek gogo artu zute ilarazteko Lazaro ere.

11. Zeren judatarretaik askok arren kasos joan ta sinestatu zuten Jesusen baitan.

12. Baña biramonean asko jende etorri zena festa-eguneko, aiturik eldu zela Jesus Jerusalem,

13. Artu zuzte palmaen adar edo erramuak, ta atra zekizkio bidera, ta oiuz klamatzen zute: Hosanna, biba, bedeikatua eldu dena Jaunaren izenean, Israelgo Errege.

14. Eta aurkitu zue Jesusek astoko bat, eta jarri ze arren gañean, nola baizego eskribiturik.

15. Etzazula beldurrik izan Siongo alaba, orra zure errege eldu da jarririk asto baten astokoan.

16. Au etzute entendatu bere diszipuloek len, baizik gloriastatu zelarik Jesus, orduan oroitu zire, au zegola eskribiturik beras, ta au in ziotela berari.

17. Ematen zue, bada, testimonio jendeak berareki zegonak, deitu zuelarik Lazaro monumentutik, ta biztu ilen ertetik.

18. Orgatik ere atra zekio bidera jendea, zeren aditu baizute berak in zuela señaile gau.

19. Fariseoek, bada, erran zute elkarren artean: Badakusaze eztugula protxurik atratzen? Orra mundu guzia doaie beraren atzetik.

20. Baña bazire jentil batzuk igan zirenetaik adoratzera festa-egunean.

21. Ebek, bada, ellegatu zire Felipezana, zein baize Galileako Betsaidakoa, ta eskatzen zioten erranes: Jauna, nai dugu ikusi Jesus.

22. Doaie Filipe ta erraten dio Andresi; berriz Andres eta Felipek erran zioten Jesusi.

23. Jesusek, bada, errespondatu zioten ziola: Etorri da ordua, izateko ohoratua Gizonaren Semea.

24. Sin sines erraten dizet, ezpalitz gari pikorra eroririk lurrean iltzen,

25. Bera sollik gelditzen da; baña iltzen bada, anitz fruitu dakar. Maitatzen duenak

bere arima, galduko du, eta gaizetsitzen duenak bere arima mundu gontan, betiko bizitzarako guardatzen du.

26. Nork ere zerbitzatzen didan niri, segi benaza ni, eta non ere nagon ni, an egonen da ene zerbitzuko ere. Nork ere zerbitza nazan ni, ura nere Aitak ohoratuko du.

27. Orai ene anima turbatu da, eta zer erranen dut? Aita, salba benaza ordu gontaik. Baña orgatik ellegatu naiz ordu gontara.

28. Aita, argiratu edo ezaunarazi bez bere izena. Etorri ze, bada, oi u bat zerutik: Ezaunarazi dut ta berriz ere ezaunaraziko dut.

29. Jendeak, bada, an zegonak ta aditu zuenak, zio ortotsa izan zela. Berze batzuek ziote: Aingeruen bat mintzatu zaio.

30. Errespondatu zue Jesusek ta erran: Ezta enegatik egin oi u gau, baizik zuengatik.

31. Orai da munduaren iuiamendua. Orai mundu gonon buruzagia botako da kanpora.

32. Eta nik, goratua barin banaiz lurretik, guzia ekarriko dut neregana.

33. Baña au zio emanen aditzera zer erio gisas bear zen il.

34. Errespondatu zio jendeak: Guk aitu dugu legetik, ezi Kristok irauten duela betikos eta nola orrek dio, bear dela goratu Gizonaren Semea? Nor da Gizonaren Seme goi?

35. Erran ziote Jesusek: Oraño argitasun guti da zuen baitan. Ibili zaizte, argi duzien bitartean, etzaizten arrapatu iluntasunak. Eta ilunbetan dabilanak eztaki nora doaien.

36. Argia duzien bitartean, sinetsi zatie argian, izan zaizten argiaren humeak. Au erran zue Jesusek; eta joan ze ta altxatu ze aienganik.

37. Eta egin zituelaik ainberzeko señaileak aien alzinean, etzute sinesten berabaitan.

38. Kunpli zeien Isaias profetak erran zuen itza: Jauna, nork sinetsi du gure adimentuari? Eta Jaunaren besoa nori agertu zaio?

39. Orgatik etzuket sinetsi, zeren baizio berriz Isaiasek.

40. Itsutu zitue aien begiak ta gogortu aien biotza, ez dezaten ikusi begies, ta ez entenda biotzas, eta konberti daitzen, ta senda dezkiten.

41. Au erran zue Isaiasek, ikusi zuelarik beraren gloria eta mintzatu zelaik beraren gain.

42. Alarikan ere anitzek buruzagietatik sinetsi zute berabaitan; baña fariseoen kasos etzute konfesatzen, botatu etzekiten Sinagogatik.

43. Zeren estimatzen zuten gizonen gloria edo ohorea, iago ezi Jangoikoaren gloria.

44. Baña Jesusek oi u egin zue, ta erran: Sinesten duenak nibaitan, eztu sinesten nibaitan baizik biali nauena baitan.

45. Eta ikusten nauenak ni, ikusten du biali nauena ni.

46. Ni naiz argi etorri naizena mundura, nibaitan sinesten duten guziak eztauden ilunbetan.

47. Eta nork ere aditzentuen nere itzak, ta ez guardatzen, nik eztut ura juzgatzen, ezi etorri ez naiz juzgatzera mundua, baizik salbatzera mundua.

48. Mespreziatzen nauenak ni, ta ez artzen nere itzak, badu nork juzgatuko duen bera. Nik erranikako itzak juzgatuko du azken egunean.

49. Zeren nik eztut erran nere burutik, baizik biali nauen Aitak, berak manatu dida zer erran ta mintza.



50. Eta badakit ezi beraren manamendua dela bizitza betirokoa. Mintzatzeuntena bada nik, nola erran didan Aitak, ala mintzatzen dut.

### CAPITULO 13

1. Bazkoaren festaren bezperan, zekielaik Jesusek ellegatzen zela beraren ordua pasatzeko mundugontaik Aitagana, onetsi zituelaik bereak munduan zirenak, azkeneraño onetsi zitue.

2. Eta bukaturik afaria, ia orduko deabruak Judasi, Simon Iskarioteenai, paratu ziolaik ta sartu biotzean egitea traizio berari,

3. Zekielarik ezi gauza guziak utzi zitiola Aitak eskuetan, eta etorri zela Jangoikoaganik, eta doaiela Jangoikoagana,

4. Jaikitzen da maietik ta uztentu bere tresenak, eta arturik oial bat paratu zue gerrunzean.

5. Gero paratzen du ur bazia batean ta asten da garbitzen diszipuloen oñak, ta igortzen oial zeukanareki gerruntzean.

6. Eldu da, bada, Simon Pedrorengana, eta erraten dio Pedrok: Jauna, orrek niri garbitzen oñak?

7. Errespondatu zio Jesusek ta erran: Nik iten dutena zuk eztuzu entendatzen orai, baña entendatukouzu gero.

8. Erraten dio Pedrok: Eztida niri garbituko oñak sekulan. Errespondazen dio Jesusek: Ezpazaitut garbitzen, eztuzu izanen itekorik edo lekurik nereki.

9. Erraten dio Simon Pedrok: Jauna, ez oñak sollik, baita ene eskuak eta burua ere.

10. Erraten dio Jesusek: Garbiturik dagonak ezta bear garbitu baizik oñak, ezi guzia dago garbi. Eta zuek garbi zauzte, baña ez guziok.

11. Zeren ezi bazekie nor zen entregatuko zuena, orgatik zio: Etzauzte garbi guziok.

12. Garbituas geros aien oñak, artu zituelaik bere tresenak, jarri zelaik berriz, erran zio: Badakize zer egin duten zueki?

13. Zuek deitzen nauzie Maestru ta Jauna; eta ongi dioze, zeren ezi ala naiz.

14. Nik, bada, garbitu baitut zuen oñak Jaun ta Maestru izanik, zuek ere beartu zie garbitu elkar batak berzearen oñak.

15. Ezi exenplu eman diziet, ala nola nik egindizeten zuei, egiteko zuek ere.

16. Egiaz, egiaz erraten dizet: Ezta mutila iago nausia baño; ezeta apostolua ere ezta iago biali duena baño.

17. Au barin badakize, zorionekoak izanen zarate ori egiten baduzie.

18. Eztut erraten zuetas guzietas. Nik badakit zein autatu nituen, baña kunpli daien eskritura, nork ere jaten duen ogia nereki, goratuko du bere astala ene kontra.

19. Oraidanik erraten dizet agitubañolen, ala agituas geros, sinetsi dezazen ni naizela.

20. Egiaz bai egiaz erraten dizet, errezipitzen duenak bialtzen dutena nik, errezipitzen nau ni; ta errezipitzen nauenak ni, errezipitzen du biali ninduenak ni.

21. Au erran zuelaik Jesusek, turbatu ze espirituan, ta seguratu zue, ta erran zue: Sin sines erraten dizet, ezi zuetaik batek traiziatuko nauela ni.

22. Elkarrri beiratzten zute diszipuloek dudaketan etxakines nor ote zen ziona.

23. Zego, bada, eratzinik Jesusen altzoan bere diszipuloetaik bat, Jesusek zuena maite.

24. Keñu egin zio oni Simon Pedrok ta erran zio: Nor da, zeintas dion?
25. Ala, bada, erreklinatu zelarik ura Jesusen bularrean, erraten dio: Jauna, zein da?
26. Errespondazen dio Jesusek: Ura da, zeñei ere nik ematen dioten ogi buztia salsan. Eta busti zuelaik eman zio Simon Iskarioteren Judasi.
27. Eta amenaren atzetik sartu ze artan Satanas. Eta erran zio Jesusek: Iten duzuna inzazu len baño len.
28. Baña au etzue entendatu niork jarririk zeudenetaik, zertara erran ote zion.
29. Ezi batzuek uste zute, nola Judasek baizema bolsa, erran bide ziola Jesusek: Eros izazu bear dena festaeguneko edo eman zerbait beartsueri.
30. Ark, bada, artu zuelarik amena, atra ze bereala. Eta ze gaua.
31. Atra zelaik, bada, erran zue Jesusek: Orai ohoratu da Gizonaren Semea, eta Jangoikoa ohoratu da artan.
32. Jangoikoa ohoratu barin bada artan, Jangoikoak ere bera ohoratuko du berebaitan, ta bereala ohoratuko du.
33. Humettoak, oraño guti bat zueki nago. Billatuko nauze; eta nola errannioten judioei: Nora noaien ni, zuek ezin etorri; ta orai erraten dizet:
34. Manamendu bat berria ematen dizet, onetsi zaiztela elkar, ala nola onetsi zaizteten nik, onetsizaiztengatik zuek ere elkar.
35. Ontan ezaunduko dute guziek, zaratela nere diszipulo, barin badioze amore elkarri.
36. Erraten dio Simon Pedrok: Jauna, nora doaie? Errespondatuko Jesusek: Nora noaien ni, zuk ez nazakezu orai segi; baño segituko nauzu gero.
36. Erraten dio Simon Pedrok: Zergatik ez dezoket segi orai? Ene arima orrengatik utziko dut.
37. Errespondazen dio Jesusek: Zeure arima enegatik emanen duzu? Sin sines erraten dizut, eztu kantatuko ollarrak, ukatu arteo zuk ni irur aldiz.

#### CAPITULO 14

1. Eztadiela turbatu edo genasi zuen biotza. Sinesten duzie Jangoikoa baitan, sinetsi zazie nibaitan ere.
2. Ene Aitaren etxean bizitegi asko da. Ezi ezperen, erranen nize, zeren bainoiaie prestatzera zuendako leku.
3. Eta naiz joan ta prestatu lekua zuendako; berriz eldu naiz, eta artuko zaiztet neuregana, egonzaiztengatik zuek ere, non nagon ni.
4. Eta nora noaien badakize, eta bidea badakize.
5. Erraten dio Tomasek: Jauna, eztakigu nora doaien; eta nola dezakegu jakin bidea?
6. Erraten dio Jesusek: Ni naiz bidea, ta egia, ta bizitza. Nior eztoaie Aitagana, ezpada ene medios.
7. Ezaundu banin duze ni, ezaunduko zindute sines Aita nerea ere. Eta oraidanik laster ezaunduko duze, eta ikusi baituze.
8. Erraten dio Filipek: Jauna, mostra edo erakutsi bezagu Aita, eta aski dugu.
9. Erraten dio Jesusek: Ainberze denboras nago zueki, eta ez nauzie ezaundu ni? Filipe, ikusten nauenak ni, ikusten du ene Aita ere. Nola zuk diozu: Erakutsi bezagu Aita?
10. Eztuzie sinesten, ni Aita baitan, ta nibaitan dagola Aita? Nik erratentu dan

itzak, eztitut erraten neureganik; baña enebaitan dagonak Aitak berak egitentut obrak.

11. Eztuzie sinesten, Aita baitan nagola ni, eta Aita nibaitan?

12. Ezperen, obra beren kasos sinetsi zazie. Sines sines erraten dizet, ezi sinesten duenak nibaitan, inentuela ark ere obrak nik itentudanak; ta ebek baño iagokoak ere inentut, zeren ezi bainoaie Aitagana.

13. Eta edozein gauza eska dezozen Aitari ene izenean, ori eginen dut, izan daien ohoratua Aita Semean.

14. Zerbait eskatzen barin baduzie ene izenean, ori eginen dut.

15. Maite baunauzie ni, guarda ene manamenduak.

16. Eta nik eskatuko diot Aitari, eta emanen dizie berze Paraklito, konsolazale edo abogatu bat, zueki egon daien betikos;

17. Egi eta fedearen espiritua, zein munduak ez dezaken errezibitu, zeren ezpaitu ikusten, eztaere ezauntzen; baña zuek ezaunduko duze, ezi zuen artean iraunen du, ta zuen baitan egonen da.

18. Etzaiztet utziko emazurtz edo buraso gabe. Etorriko naiz zuengana.

19. Oraño guti bat, eta ia munduak ez nau ikusten. Baña zuek ikusten nauze, zeren ezi ni bizi naiz, eta zuek biziko zarate.

20. Egun gartan ezaunduko duzie, zeren ni nagon ene Aitan, ta zuek nitan, eta ni zuetan.

21. Nork ere baititu ene manamenduak, ta guardatzen, ori da onesten nauena ni. Baña onesten nauena ni, onetsia izanen da ene Aitaganik ta nik onetsiko dut bera, ta agertuko nazaio.

22. Erraten dio Judasek, ez Iskariotek: Jauna, zer egin da, zeren agertuko den berori bai guri ta ez munduari?

23. Errespondatu zio Jesusek ta erran: Nork ere onesten nauen ni, guardatukotu nik erranak; ta ene Aitak onetsiko du bera, ta beragana etorriko gara, ta berabaitan egonen gara egotes.

24. Ez nauenak onesten ni, ez titu guardatzen nik erranak. Eta prediku aitu duzena ezta nerea, baizik bialin in duenarena, Aitarena.

25. Au erran dut nagon bitarteo zueki.

26. Baña Espiritu Sandu Paraklitoak, zein Aitak bialiko duen nere izenean, ark erakutsiko dize guzia ta inspiratuko dize nik erran dezaten guzia.

27. Bakea uzten dizet, ene bakea ematen dizet; ez nola munduak ematen duen, ematen dizet nik zuei. Eztaiela turba zuen biotza, ta ez lotsa.

28. Aitu duze nik erran dizetela: Banoaie, ta eldu naiz zuengana. Maite banin duze ni, alegrazindeizkete, zeren bainoaie Aitagana, ezi Aita iago da ezi ni.

29. Eta orai erran dizet, agi daien baño len; ala gero agiturik, sinetsi dezazen.

30. Ia ez naiz mintzatuko anitz zueki; ezi eldu da mundu gontako buruzagia, ta ene baitan eztu ikustekorik.

31. Baña ezaun dezan munduak maite dudala Aita, eta nola eman didan manamendua, ala egiten dutela. Jaiki zaizte, goazen emendik.

## CAPITULO 15

1. Ni naiz aien egiaskoa, eta ene Aita da langin edo nekazaria.

2. Zarmendu gaiek guziak fruiturik ezta karratenak kendukotu, eta fruitu dakarratenak garbitukotu ekar dezaten fruitu iago.

3. Ia zuek garbi zauzte nik zuei erranikako itzengatik.
4. Manteni zaizte nibaitan, eta ni zuen baitan. Ala nola zarmenduak ezpaitezake ekarri fruiturik bereganik, ezpalitz mantenitzen aienean, ala zuek ere ez, ezpazarate mantenitzen enebaitan.
5. Ni naiz aiena, zuek zarmenduak. Mantenitzen dena nibaitan, eta ni bera baitan, onek dakarra fruitu anitz, zeren ezi ni gabe deus ez dezakeze egin.
6. Nor ere ezten mantenitzen nibaitan, botako da kanpora ala nola zarmendua, ta eartuko da, ta bilduko dute, ta botako dute sura, ta erretzen da.
7. Mantenitzen bazarate nibaitan, ta nere itzak mantenitzen badire zuen baitan, nai duzien guzia eskatuko duzie ta eginen zaize.
8. Ontan da ohoratua ene Aita, ekar dezazen fruitu anitz ta egin zaizten ene diszipulo.
9. Ala nola maitatu nauen ni Aitak, nik ere maitatu zaiztet zuek. Manteni zaizte ene amorean.
10. Guardatzen baituze ene mandamentuak, mantenituko zarate ene amorean, ala nola nik ere guardatutu dan ene Aitaren manamenduak ta mantenitzen bainaiz beraren amorean.
11. Gauza gebek mintzatutizet, izan daien kontentu zuetan ta kunpli daien zuen kontentua.
12. Au da nere manamendua, onetsi zaiztela elkar, ala nola nik onetsi zaizteten zuek.
13. Niork ezta amore andiagorik au baño, baita ematea batek bere bizia bere adiskideengatik.
14. Zuek ene adiskideak zarate, egiten baituzie nik manatzentizietenak.
15. Ia etzaiztet deituko zuek sierboak edo zerbitzukoak, ezi zerbitzukoak eztaki zer iten duen bere nausiak. Baña zuek deitu zaiztet adiskideak, zeren Aitaganik aditutudan gauza guziak adiarazitizet zuei.
16. Ez nauzie zuek autatu ni, baizik nik autatu zaiztet zuek; ta paratu zaiztet joateko ta fruitu emateko ta zuen fruituak iraun dezan, edozein gauza eska dezozen Aitari ene izenean, eman dezazien zuei.
17. Au manatzen dizet, onetsi zaiztela elkar.
18. Baldin munduak gaitzetsitzen bazaizte zuek, jakin zaze gaitzetsi nauela ni zuek baño len.
19. Munduarenak izanbazinate, munduak bere zena onetsiko zue; baña zeren ezpaizarate munduaren aldekoak, baizik mundutik autatu zaizten nik, orrengatik gaitzetsitzen zaizte munduak.
20. Oroi zaizte nere itzas, nik zuei erranas: Ezta iago sierboa nausia baño. Persegitu banaute ni, persegituko zaizte zuek ere; ene errana guardatu badute, zuena ere guardatuko dute.
21. Baña ebek guziok inentizie zuei ene izenagatik, zeren ezpaitute ezauntzen biali ninduena ni.
22. Ezpanitza etorri ta ezpaniote mintzatu, ez lukete bekatuak; baña orai eztute atxekiarik beren bekatuaren.
23. Gaitzetsitzen nauenak ni, gaitzetsitzen du ene Aita ere.
24. Ezpanitu egin aien ertean obrak berze niork ere in eztituenak, ez lukete bekatuak; baña orai ikusi ta gaitzetsi naute ni, eta nere Aita ere.

25. Baña kunpli daien itza beren legean eskribiturik dagona, ezi gaitzetsi nautela ni kausarik gabe.

26. Baña datorrelaik Paraklito, bialiko dutena nik Aitaganik, egiaren espiritua prozeditzen dena Aitaganik, ark emanen du testimonio nitas.

27. Eta zuek emanen duze testimonio, zeren prinzipiotik baizauste nereki.

#### CAP.16

1. Gauza gebek errantiziet, etzaizten gaitzbideratu edo erori trebukurik.

2. Utziko zaizte batzarretaik kanpoan; baña eldu da ordua, ezi ilzenzaiztenak zuek, uste duen bere gogoan zerbitzu iten diola Jangoikoai.

3. Eta ebek inentizie, ezpaitute ezaunzen Aita, ta ez ni.

4. Baña ebek errantizet zuei, ellegatzen delaik aien ordua, oroizaiztengatik nola nik erran nizen.

5. Baña eznizie erran lenetik, zeren bainindegoko zueki. Eta orai noaie bialiko nauenagana, eta zuetaik niork eztida galdegiten: Nora doaie?

6. Baña zeren au erran dizeten nik zuei, tristuras bete da zuen biotza.

7. Baña nik egia erraten dizet, konbeni zaize noaien ni, zeren ezi ezpanindoaie, Paraklitoa edo konsolazalea ezta etorriko zuengana; baña joaten banitz, bialiko dizet.

8. Eta arrek, datorrelaik, akusatuko du mundua bekatuas, justizias eta juizioas.

9. Bekatuas, zeren ez tuten sinetsi nibaitan.

10. Bada, justizias, zeren bainoaie Aitagana eta ia ez nauzen ikusiko.

11. Baña juizioas, zeren mundu gonon buruzagia ia juzgatua baita.

12. Asko iago errateko zuei badut oraño, baña ez dezakeze jasi orai.

13. Baña datorrelaik egiaren espiritu gura, ark erakutsiko dize egia guzia; ezi ez tu erranen bereganik, baizik aditzen duen guzia erranen du eta abisatuko zaizte agituko direnes gero.

14. Ark ohoratuko nau ni, zeren neretik artuko du eta erakutsiko dize zuei.

15. Aitak duen guzi guzia nerea da. Orgatik erran dizet, ezi neretik artu ta erakutsiko dizela.

16. Guti bat, eta ia ez nauzie ikusiko; eta berriz guti bat, eta ikusiko nauzie, zeren noaie Aitagana.

17. Erran zute, bada, bere diszipuloetaik elkarri, zer da au erraten diguna: Guti bat, ta ez nauzie ikusiko, ta berriz guti bat, ta ikusiko nauzie, ta zeren bainoaie Aitagana?

18. Ziote bada: Zer da dion gau: Guti bat? Eztakigu zer erraten digun.

19. Ezaun duzue, bada, Jesusek, nai ziotela galdegin, ta erran ziote: Onen gain dardukaze elkarren artean, zeren erran duten: Guti bat, ta ez nauzie ikusiko, ta berriz guti bat, ta ikusiko nauzie.

20. Egiaz bai, egiaz erraten dizet: Inen duzela zuek negar ta dolamen, baña mundua gozatuko da; zuek, ordea, tristatuko zarate, baña zuen tristura itzuliko da gozotan.

21. Emastekiak erditzerakoan du tristura, zeren ellegatu baita bere ordua; baña argira eman geros aurra, ia ezta oroitzen ersturas gozoaren utses, zeren jaio den gizona mundura.

22. Eta, bada, zuek ere orai duzie tristura; baña berriz ikusiko zaiztet, ta gozatuko da zuen biotza, eta zuen kontentua niork eztizie kenduko.

23. Eta egun gartan eztidaze niri eskatuko deus; sin sines erraten dizet, baldin zerbait eskatzen badioze Aitari ene izenean, emanen diziela zuei.

24. Orai arteo eztuzie eskatu deus ene izenean; eska zazie ta artukouzie, zuen kontentua izan daien betea.
25. Ebek errantiziet esangietan. Eldu da ordua, noiz ia eztizieten erranen esangietan, baizik agerri klaro erakutsiko diziet ene Aitas.
26. Egun gartan eskatuko duzie ene izenean, ta eztiot nik eskatuko diotela Aitari zuen partes,
27. Ezi Aitak berak maite zaizte zuek, zeren zuek maite nauzien ni ta sinetsi baituzie ni Jangoikoaganik etorri naizela.
28. Aitaganik atra ta etorri nitza mundura. Berriz uzten dut mundua ta noaie Aitagana.
29. Erraten diote bere diszipuloek: Orra, orai klaro mintzatzen da ta ezti esangirik batere.
30. Orai dakigu badakiela orrek guzia ta eztuela bear galdegin dezon niork. Ontan sinesten dugu Jangoikoaganik atra dela.
31. Errespondatu ziote Jesusek: Orai sinesten duzie?
32. Orra, eldu da ordua; eta ia etorri da, barratuko baizarate bakotxa bere alde, ta utziko ni bakarrik. Eta eznago bakarrik, zeren Aita nereki dago.
33. Au erran dizet, izan dezazien bakea enebaitan. Munduan ertxidura izanen duzie; baña konfia zazie, nik garaitu dut mundua.

## CAPITULO 17

1. Ebek erran zitue Jesusek, eta goraturik begiak zerurat, erran zue: Aita, ellegatu da ordua. Ohora bez bere Semea, ohora dezan bere Semeak berori.
2. Ala nola eman zion berari potestade gizagende guziaren gain, eman dezoten berak bizitza betirokoa, orrek berai emanikako guziari.
3. Baña au da bizitza betirokoa, ezaundezaten berori sollik Jangoiko egiaskoa, eta orrek biali duena, Jesu Kristo.
4. Nik ohoratu dut berori lur gañean, bukatu dut obra eman zidana egiteko.
5. Eta orai ohora benaza ni orrek, Aita, bere baitan, ohore nuenareki berorren baitan, mundua izan baño len.
6. Agertu ta adiarazi dut orren izena, orrek mundutik emantidan gizonei. Orrenak zire, ta niri eman zitida, ta guardatutuzte nere erranak.
7. Orai ezaundu dute eman zitidan gauza guziak orrenganik direla.
8. Ezi niri eman zitidan itzak emantiotek nik ebei; eta berek artutuzte ta ezaundu dute egiaz orrenganik atra nitzala, ta sinetsi dute orrek bialin\_in duela.
9. Nik ebengatik otoitz egiten dut. Eztut munduagatik otoitz egiten, baizik emantidangebengatik, zeren berorrenak baitire.
10. Eta nere gauza guziak orrenak dire, ta orrenak dire nereak, ta ohoratua naiz aietan.
11. Eta ia eznago munduan, ta ebek munduan daude, eta ni orrengana noaie. Aita Sandua, guarda bezki orren izenean niri emantidanok, izan daitzen gauza bat, ala nola gu ere.
12. Ebeki nindegolaik, nik guardatzen nitue orren izenean. Emantidanok guardatutut, eta ebetaik nior ezta galdu, ezpada galmendearen humea, kunplitzeko Eskritura.
13. Baña orai noaie orrengana; eta ebek erratentut munduan, izan dezaten nere

kontentua beterik beren baitan.

14. Nik eman diotet nere itza, eta munduak gaitzetsizentu, zeren ezpaitire munduaren aldekoak, nola ni ere ezpainaiz mundukoa.
15. Eztiot eskatzen ken dezkiela mundutik, baizik guarda dezkiela gaitzetik.
16. Mundukoak eztire, nola ni ere ez naiz mundukoa.
17. Santifika edo sandu in bezki egiaz. Orren itza egia da.
18. Ala nola orrek ni biali ninduen mundura, nik ere ebek bialitut mundura.
19. Eta ebengatik ni santifikatzen naiz, izan daitzen ebek ere santifikatuak egiaz.
20. Baña eztut sollik ebengatik eskatzen, baitaere aiengatik zeñek eben itzaren medios sinetsiko duten enebaitan.
21. Izan daitzen guziak bat, ala nola ori, Aita, nibaitan, ta ni orren baitan, berak ere gure baitan izan daitzen bat; sinetsi dezan munduak, ezi orrek bialin\_in duela ni.
22. Eta nik klaridade orrek eman zidana eman diotet ebei, izan daitzen guziok bat, ala nola gu ere baikara bat.
23. Ni ebetan eta ori nibaitan, izan daitzen perfekto batean; eta ezaun dezan munduak, orrek biali nauela ni, eta maitetuela ebek, nola maite nauen ni ere.
24. Aita, orrek emantidanak, nai dut non nagon ni, dauden ebek ere eneki; ikus dezaten gloria eman didana, zeren onetsi bainau, egin bañolen mundua.
25. Aita justoa, munduak eztu ori ezaundu; baña nik ezaundu dut; eta ebek ezaundu dute ezi orrek bialin\_in duela ni.
26. Eta ezaunarazi diotet ebei orren izena, ta ezaunaraziko diotet; ala amorea, zeñeki amatu nauen ni, dagon ebetan eta ni beretan.

## CAPITULO 18

1. Ebek erran ondoan, atra ze Jesus bere diszipuloeki Zedron errethren berze aldera, non baize baratze bat, zeintan sartuzen bera ta bere diszipuloak.
2. Judasek ere traiziatzen zuenak bazekie lekua, zeren maiz egon zen an Jesus bere diszipuloeki.
3. Judasek, bada, arturik soldado-tropa bat eta ministroak pontifizeen ta fariseoenganik, joan ze arara linternaeki, zuzi ta armaeki.
4. Jesus, bada, xakinik agituko zen guzia berareki, alzinatu ze ta erran: Nor billatzen duzie?
5. Errespondatu ziote: Jesus Nazarenao edo Nazaretdarra. Erraten diote Jesusek: Ni naiz. Eta zego Judas ere entregatzen zuena bera, aieki.
6. Bada, erranzioteneko, ni naiz; atzera joan ta erori zire lurrean.
7. Berriz, bada, galdegin ziote: Nor billatzen duzie? Ta aiek erran zute: Jesus Nazaretdarra.
8. Errespondatu zue Jesusek: Erran dizet, ni naizela. Bada, ni billatzen banauzie, uzkie ebek doazela.
9. Kunpli zeien itz erran zuena, ezi emantidanetaik eztut galdu bakotxik ere.
10. Bada, Simon Pedrok zeukalarik ezpata bat, atra zue ura ta heritu zue pontifizearen sierbo bat, ta ebaki zio eskuieko bearria. Eta sierboak zue izena Malko.
11. Erran zio, bada, Jesusek Pedrori: altxa zeure ezpata goi bere magian. Tragoa ene Aitak eman didana eztut edan bear?
12. Tropak, bada, ta buruzagiek, ta judioen ministroek arrapatu zute Jesus preso ta lotu zute.

13. Eta eraman zute lenik Anasengana, baize sui Kaifasen, zein baize pontifize urte gartan.

14. Eta ze Kaifas eman ziotena konsellu judioei, ezi dela konbeni gizon bat iltzea jendeagatik.

15. Baña segitzen zue Jesus Simon Pedrok ta berze diszipulo batek. Eta diszipulo gura ze ezauna pontifizearen, ta sartu ze Jesuseki pontifizearen etxe barnean.

16. Baña Pedro zego atarian kanpoan. Atra ze, bada, berze diszipulo gura, pontifizearen ezauna zena, ta erran zio atalzaiari, ta sarrarazi zue Pedro.

17. Erraten dio, bada, Pedrori neskato atelzaiak: Zu ere zara gizon goren diszipuloetaik? Erraten dio ark: Ez naiz.

18. Zeude, bada, zerbitzukoak ta ministroak su ondoan, ezi otz zego, ta berotzen zeude; baitare zego aieki Pedro txutirik ta berotzen.

19. Pontifizeak, bada, galdegin zio Jesusi bere diszipuloen ta bere doktrinaren gain.

20. Errespondatu zio Jesusek: Nik agerrian klaro mintzatu dut munduari; nik beti erakutsi dut sinagogan ta tenploan, nora biltzen diren judio guziak; eta estalian deus ez naiz mintzatu.

21. Zergatik galdegiten dida niri? Galde bezote aditu nautenei, ia zer mintzatu dioteten; orra aiek badakite zer erran duten nik.

22. Au erran zuelaik, eman zio Jesusi ministroetaik batek presente zegonak zaflada edo mateleko bat, ziola: Ala errespondatzen diok pontifizeari?

23. Errespondatu zio Jesusek: Gaizki mintzatu banaiz, errazu zertan; baña ongi mintzatu banaiz, zergatik golpatzen nauzu?

24. Eta biali zue Anasek bera loturik Kaifas pontifizeagana.

25. Zego, bada, Simon Pedro txutirik berotzen. Bada, erran zio: Agian zu ere arren diszipuloetaik zara? Ukatu zue ark, ta erran: Ez naiz.

26. Erraten dio pontifizearen sierboetaik batek, ai dezenak arren, zeñen bearria ebaki zuen Pedrok: Etzinduzada nik ikusi zu berareki baratzean?

27. Berriz, bada, ukatu zue Pedrok, eta bereala kantatu zue ollarrak.

28. Daramate, bada, Jesus, Kaifasen etxetik presidentearen jauregira. Eta goiza ze. Eta berak etzire sartu justiziako salan, etzeizengatik zikindu edo kutsatu, baizik zelebrazteko Bazkoa.

29. Atra ze, bada, Pilatos aiengana kanpora, ta erran zue: Zer akusazio dakarrazte gizon gonon kontra?

30. Errespondatu zioite ta erran: Ezpalitz au gaizkiegillea, ez gindio ekarriko berorri.

31. Erran zioite, bada, Pilatosek: Ar zazie zuek ta juzga zazie zeuren legearen araura. Erran zioite judioek: Guri eztagokigu bizia edekitzea niori.

32. Kunpli zeien Jesusen itz erran zuena, adiarazis nolako eriotzeas il bear zen.

33. Sartu ze, bada, berriz salan Pilatos, ta deitu zue Jesus, ta erran zio: Zu zara judioen errege?

34. Errespondatu zio Jesusek: Bere burutik dio ori, edo berzeek erran diote nitas?

35. Errespondatu zue Pilatosek: Agian ni judatarra naiz? Zure jendeak ta pontifizeek entregatu zaitute nere eskuetan. Zer egin duzu?

36. Errespondatu zue Jesusek: Ene erregetasuna ezta mundu gontakoa. Mundu gontakoa baliz ene erregetasuna, ene zerbitzukoek indar inen zute ez uzteko judioen



eskuetan, baña orai ene erregetasuna ezta emendik.

37. Erran zio, bada, Pilatosek: Beras, errege zara zu? Errespondatu zue Jesusek: Orrek dio, errege naizela ni. Ni ontako jaio naiz, ta ontara etorri naiz mundura, emateko testimonio egiaren. Egiaren aldetik denak aditzen du ene boza.

38. Erraten dio Pilatosek: Zer da egia? Eta au erran ta atra ze berriz judioengana, ta erraten diote: Nik eztut aurkitzen kausarik batere artan.

39. Baña usanza duzie, uzdezazeten bat libre Bazkoan; nauzie, bada, uzdezazeten libre judioen erregea?

40. Oiu egin zute, bada, berriz guziek, ziotela: Ez au, baizik Barabas. Eta ze Barabas ladron bat.

## CAPITULO 19

1. Orduan, bada, artu zue Pilatosek Jesus eta azotatu zue.

2. Eta soldadoek forjatus koroa bat aranzees paratu zioten beraren buruan, eta inguratu zute purpurasko soñeko bates.

3. Eta zoezi beragana ellegatus, ta erraten zioten: Agur, judioen errege, ta ematen zioten zafladak.

4. Atra ze, bada, berriz Pilatos kanpora, ta erraten diote: Ona dakarraziet au zuei agerrira, jakin dezazien, eztutela nik ontan kausarik batere aurkitzen.

5. (Atra ze, bada, Jesus zeramala koroa aranzeskoa ta purpurasko soñekoa). Eta erraten diote aiei: Ona gizona.

6. Ikusi zutelaik, bada, pontifizeek ta ministroek klamatzen zute, ziotela: Guruzifika bez, guruzifika bez. Erraten diote Pilatosek: Ar zazie zuek, ta guruzifika zazie, ezi nik eztut batere kausarik aurkitzen onen baitan.

7. Errespondatu zioten judioek: Guk dugu lege, ta legearen araura bear du il, zeren bere burua in baitu Jangoikoaren Seme.

8. Aiturik Pilatosek itz gau, iago izitu ze.

9. Eta sartu ze salan berriz, ta erran zio Jesusi: Nondik edo nongoa zara zu? Baña Jesusek etzio eman errespuestarik.

10. Erraten dio, bada, Pilatosek: Niri eztidazu mintzatzen? Eztakizu ezi dutela nik esku zure guruzifikatzeko, ta dutela esku zure libratzeko?

11. Errespondatu zio Jesusek: Ez luke izanen eskurik batere ene kontra, ezpalekio eman an goratik. Orgatik orri entregatu nauenak bekatu andiago du.

12. Andik alzina zebila Pilatos libratu naies bera. Baña judioek klamatzen zute ziotela: Au libratzen barin badu, ezta enperadorearen adiskide, ezi bere burua errege iten duenak enperadorearen kontra iten du.

13. Pilatosek aiturik erran gebek atra zue kanpora Jesus, eta jarri ze juez-aintzu Litostroto deitzen den lekuan, eta hebreoen itzkuntas Gabata.

14. Eta ze Bazkoaren Parasceve edo preparazioa, egerditsurat. Ta erraten diote judioei: Ona zuen erregea.

15. Baña aiek klamatzen zute: Ken, kenbez; guruzifika bez. Erraten diote Pilatosek: Zuen errege guruzifikatuko dut? Errespondatu zute pontifizeek: Eztugu erregerik, baizik enperadorea.

16. Orduan, bada, entregatu zioten guruzifikatzeko. Eta artu zute Jesus, eta atra zute.

17. Eta zeramalaik soñean guruzea atra ze lekugartarat, zein deitzen baita Kalbariokoa, ta hebreoen itzkuntas Golgota.

18. Eta an guruzifikatu zute bera; ta berareki berze bida andik eta emendik, baña erdian Jesus.
19. Eskribitu ere zue Pilatosek titulo edo letrero gañekoa, ta paratu zue guruzearen gañean eta zego eskribiturik: Jesus Nazarenao judioen errege.
20. Titulo gau, bada, asko judioek leitu zute; zeren errira urbil zegon lekua, non guruzifikatu zuten Jesus. Ta zego eskribiturik hebreos, griegos eta latines.
21. Erraten ziote, bada, Pilatosi judioen pontifizeek: Ezdezala nai eskribitu, judioen errege, baizik berak erran zuela: Naiz judioen errege.
22. Errespondatu zue Pilatosek: Eskribitu dutena eskribitu dut.
23. Soldadoek, bada, guruzifikatu zutelaik, artu zuzte beraren tresenak ta egin zuzte laur zati, soldado bakoxtari bere zatia eta tunika. Eta ze tunika kostura gabea, eoturik goititik asi ta beituraño guzia.
24. Erran zire, bada, elkarri: Etzagula zatitu au; baizik sortez atra norendako den. Kunpli zeien Eskritura diona: Partitutuzte nere tresenak, ta ene soñekoa sortean atra dute. Soldadoek, bada, egin zuzte gauza gebek.
25. Baña zeude txutirik Jesusen guruzearen ondoan beraren ama, ta bere amaren aizpa Maria Kleofarena ta Maria Magdalena.
26. Ikusirik, bada, Jesusek Ama ta diszipulo maite zuena txutirik, erraten dio bere amari: Emastekia, orra zure Semea.
27. Gero erraten dio diszipuloari: Orra zure Ama. Eta ordu gartaik artu zue diszipuloak bera beretako edo berea bekala.
28. Gero zekielaik Jesusek, guzia zela bukatua, kunpli zeien Eskritura erran zue: Egarrri dut.
29. Zego, bada, paraturik onzi bat hozpiñes beterik. Aiek, bada, hisopo bat inguraturik esponja edo arrokiak hozpines beteas paratu ziote agoan berari.
30. Artu zuelaik, bada, Jesusek hozpiña erran zue: Bukatua da. Eta burua inklinaturik, entregatu zue espiritua.
31. Judioek, bada, zeren baize Parasceve Bazkoaren bezpera, etzeizengatik gorputzak gelditu guruzean larunbatean, eskatu ziote Pilatosi lizenzia auxteko aien zangoak ta kentzeko.
32. Etorri zire, bada, soldadoak eta autxi zuzte lenbizikoaren zangoak, ta arreki guruzifikatu zen berzearenak.
33. Baña ellegaturik Jesusengana, nola ikusi baizuten ia ilik, etziote autxi bere zangoak.
34. Baizik soldadoetaik batek idiki zio lanza bates beraren bularra, eta bereala atra ze odola ta ura.
35. Eta ikusi duenak eman du testimonio, eta egiaskoa da beraren testimonioa. Eta ark daki diola egia, zuek ere sinetsidezazengatik.
36. Agitu zire ebek, kunpli zeien Eskritura: Eztuzie beraren ezurrik autxiko.
37. Eta berriz berze Eskritura batek dio: Ikusiko dute nor traspasatu duten edo josi itzees.
38. Eben ondorean eskatu zio Pilatosi Josef Arimateakoak, baize Jesusen diszipulo, baña altxaturik judioen beldurres, lizenzia artzeko Jesusen gorputza. Agindu zio Pilatosek. Etorri ze, bada, ta artu zue Jesusen gorputza.
39. Etorri ze Nikodemo ere, zein joan zen gauas lenik Jesusengana, zeramala mirra ta aloen unghendu eun libra bekala.

40. Artu zute, bada, Jesusen gorputza, ta inguratu zute misesko maindrees aromaeki, nola duten judioek usantza ortzitzea.

41. Baña ze gurezifikatu zuten lekuan baratze bat, eta baratzean monumentu bat berria, non etzen ortzi nior ere oraño.

42. An, bada, judioen festagatik, zeren baizego aldakan monumentua, paratu zute Jesus.

## CAPITULO 20

1. Baña astearen lenbiziko egunean, Maria Magdalena joan ze goizik, argitu gabe oraño, monumentura, ta ikusi zue arlauza kendurik monumentutik.

2. Laster egin zue, bada, ta joan ze Simon Pedrogana, ta berze diszipuloagana, zein maite zuen Jesusek, ta erraten diote: Eraman dute Jauna monumentutik, ta eztakigu non paratu duten.

3. Atra ze, bada, Pedro, ta berze diszipulo gura, eta joan zire monumentura.

4. Lasterka zoezi biak bateo, ta berze diszipulo gura lasterrago joan ze Pedro baño, ta ellegatu ze lenik monumentura.

5. Eta inklinatu zelarik ikusi zitue misesko maindreak an utzirik; baña etze sartu.

6. Ellegatu ze, bada, Simon Pedro atzetik eldu zena, ta sartu ze monumentuan, ta ikusi zitue oialak an utzirik.

7. Eta buruaren gañean egon zen pañoloa ez maindreeki paraturik, baizik aparte inbolokaturik leku batean.

8. Orduan, bada, sartu ze diszipulo gura ere, lenik etorri zena monumentura, eta ikusi zue, ta sinetsi zue.

9. Ezi oraño etzekite Eskritura, ezi bear zela erresuzitatu ta biztu ilen ertetik.

10. Joan zire, bada, berriz diszipuloak bere lagunengana.

11. Baña Maria zego txutirik monumentuaren alzinean negarres. Negarrez bitartean inklinatu ze, ta beiratu zue monumentura.

12. Eta ikusi zitue bi aingiru txuris bestiturik, zeudela jarririk bat buru aldean, berzea oñetako aldean, non egon zen paraturik Jesusen gorputza.

13. Erraten diote berari: Emastekia: Zergatik zaude negarres? Erraten diote aiei: Zergatik eraman baitute ene Jauna ta eztakit non paratu duten.

14. Au erran ta itzuli ze atzerat, ta ikusi zue Jesus zegola txutirik, eta etzekie Jesus dela.

15. Erraten dio Jesusek: Emastekia, zergatik zaude negarres? Nor billatzen duzu? Ark ustes zen baratzezaia, erraten dio: Jauna, orrek kendu barin badu, erran bezada non paratu duen, eta nik eramako dut.

16. Erraten dio Jesusek: Maria. Itzulirik ark erraten dio: Raboni, nai baitu erran, Maestru Jauna.

17. Erran zio Jesusek: Ez nazazula nai ukitu, ezi oraño ez naiz igan ene Aitagana. Baña zoaz ene anaiengana ta erran zozute: Banoaie iganes ene Aitagana ta zuen Aitagana, ene Jangoiko ta zuen Jangoikoagana.

18. Etorri ze Maria Magdalena berri emanen: Ikusi dutela nik Jauna, eta au erran dida.

19. Bada, berandu zelarik egun gartan, astearen lenbizikoan, eta atariak zeudelaik ertxirik, non ere diszipuloak baizeude bildurik judioen beldurres, etorri ze Jesus, ta paratu ze erdian, ta erran ziote: Bakea zuei.

20. Eta au erran ta mostratu zitiote eskuak eta bularra. Boztu zire diszipuloak, ikusirik Jauna.

21. Erran ziot, bada, berriz aiei: Bakea zuei. Ala nola biali ninduen ni Aitak, nik ere bialtzen zaiztet zuek.

22. Au erran ta ats eman ziot, ta erran: Errezibi zazie Espiritu Sandua.

23. Noren bekatuak barkatzentuzien, barkatzen zaizkiote; ta norenak gelditzen tuzien, geldituak dire.

24. Baña Tomas amabietaik bat, deitzen dena Didimo etzego aieki, etorri zelaik Jesus.

25. Erran ziot, bada, arri berze diszipuloek: Ikusi dugu Jauna. Baña ark erran ziot: Baldin ezpadut ikusten beraren eskuetan itzeen kuntzea, eta paratzen ene eri au itzeen lekuan, ta ukitzen nere eskuas bere bularreko llaga, eztut sinetsiko.

26. Eta zorzi egunen buruan berriz zeude diszipuloak etxe-barnean, eta aieki bateo Tomas. Etorri ze Jesus, atariak zeudelaik ertxirik, ta paratu ze erdian, ta erran: Bakea zuei.

27. Gero erraten dio Tomasi: Sar zazu zure eri ori emen, eta beira nere eskuok, ta eda zeure eskuoi, ta para zazu ene saietsean, ta etzaitela izan sinestagaitz, baizik sinestakor.

28. Errespondatu zue Tomasek ta erran: Ene Jauna ta ene Jangoikoa.

29. Erran zio Jesusek: Zeren ikusi nauzun, Tomas, sinetsi duzu; zori onekoak ikusi gabe sinetsi dutenak.

30. Egin zue Jesusek bere diszipuloen alzinean berze asko señaile eztaudenak eskribiturik libru gontan.

31. Baña ebek eskribitu dire sinetsidezaziengatik, ezi Jesus dela Kristo Jangoikoaren Semea, eta sinetsis logra dezazen bizitza beraren izenean.

## CAPITULO 21

1. Gero agertu ze berriz Jesus diszipuloeri Tiberiasko itsasoan. Ta agertu ze ala.

2. Zeude batean Simon Pedro ta Tomas, deitzen dena Didimo, ta Natanael Galileako Kanako zena, ta Zebedeoaren semeak, eta beraren diszipuloetaik berze bida.

3. Erraten diote Simon Pedrok: Banoaie arrantzatzera. Erraten diote aiek, bagoazi gu ere zureki. Eta atra zire, ta onziratu zire; eta gauartan deus ere etzute arrapatu.

4. Baña goiza ellegaturik, baratu ze Jesus basterrean; baña etzute ezaundu diszipuloek Jesus zela.

5. Erran ziot, bada, Jesusek: Mutilak, agian baduzie janaririk? Errespondatu zute, ezetz.

6. Erraten diote aiei: Botazkize sarea onziaren eskuieko aldera, ta aurkituko duze. Bota zute, bada; eta ia etzezakete tiratu arraiketa andiaren kasos.

7. Bada, Jesusek maite zuen diszipulo gark erran zio Pedrori: Jauna da. Simon Pedrok aitu zuelarik Jauna zela, estali ze tunikas, baizego biluxirik, eta saltatu ze itsasora.

8. Baña berze diszipuloak etorri zire itsasonzian, (ezi etzeude urruti, baizik berreun ukondo bekala) zeramatala arraien sarea.

9. Bada, atra zirelaik lurrera, ikusi zuzte paraturik brasak, ta gañean arrai bat eta ogi.

10. Erraten diote Jesusek: Ekarzie orai arrapatutuzien arraietaik.

11. Igan ze Simon Pedro ta atra zue lurrera sarea beterik arrai andies eun ta berrogei ta amirures. Eta ainberze zirelaik, etze urratu sarea.

12. Erraten diote Jesusek: Atozte, bazkal zaze. Eta nior zeudenetaik jarririk etze

trebe galdegitera: Ori nor da? Baizekite zela Jauna.

13. Eta etorri ze Jesus, ta artzen du ogia, eta ematen diote, eta gisa berean arraia.

14. Au ze ia irugarren aldia agertu zekiotena Jesus bere diszipuloeri, biztuzenasgeros ilen ertetik.

15. Bazkaldu ondoan erraten dio Simon Pedrori Jesusek: Simon Joanen Semea, maitatzen nauzu ni ebek baño iago? Erraten dio: Bai, Jauna, orrek daki maite dutela. Erraten dio: Guardazkizu, ta bazka ene axuriak.

16. Erraten dio berriz: Simon Joanena, amaten nauzu ni? Erraten dio: Bai, Jauna, orrek badaki, maite dudala; erraten dio Jaunak: Guarda edo bazkazkizu ene axuriak.

17. Irugarren aldian erraten dio: Simon Joanena, maite nauzu ni? Tristatu ze Pedro, zeren erran zion irugarren aldian: Maite nauzu ni? Eta erran zio: Jauna, orrek guzia daki. Orrek badaki, maite dudala ori. Erran zio: Kuida edo bazka ene ardiak.

18. Egiaz bai egiaz erraten dizut, gastea zinalaik, zeuroi gerrickatzen zina, ta zindebiltza nora nai zinduen; baño zarzen zarelaik, edatukotuzu zeure eskuak, ta berze batek gerrickatuko zaitu, ta eramako zaitu nora nai eztuzun.

19. Baña au erran zio adiarazis nolako eriotzeareki ohoratu bear zuen Jangoikoa. Eta au erran ondoan erraten dio: Segi nazazu ni.

20. Itzulirik Pedrok ikusi zue berze diszipulo Jesusek maite zuen gura segitzen ziola, zein ere erreklinatu baize afarian beraren bulargañean, ta erran baizio: Jauna, nor da entregatuko duena berori?

21. Au, bada, ikusi zuelarik Pedrok, erraten dio Jesusi: Jauna, onek zer? Ontas zer izanen da?

22. Erraten dio Jesusek: Ala nai dut au geldi daien, natorren arteo; zuri zer zaizu? Zuk segi nazazu ni.

23. Atra ze, bada, itzketa gau anaien ertean, ezi diszipulo gura eztela iltzen. Eta etzio erran Jesusek: Ezta iltzen, baizik: Ala nai dut geldi daien, natorren arteo. Zuri zer zaizu?

24. Au da diszipulo gura ematen duena testimonio gauza ebetas, ta eskribitutuena ebek. Eta dakigu egia dela bere testimonioa.

25. Badire, alaber, asko berze gauza Jesusek egin estuenak, zein eskribi baleitez banaka, uste dut munduak berak ezin lezazkela iduki eskribitu bearlirazken libruak.

## DOTRINA — 1

Doktrinaren textoa

### AITA GUREA

Aita gurea zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, etorri bedi zure erreinua, kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere. Eman dezaguzu gure egunoroko ogia egun eta beti, barkadazkiguzu guri geuren zorrak, ala nola guk barkatzen baitiogute gu zorgaitzeneri; eta ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera, baizik libra gaitzazu gaitzetik. Amen.

### ABE MARIA

Jangoikoak salba zaizala Maria grazias betea, Jauna da zureki, bedeikatua zara emaste guzien artean ta bedeikatua da zure sabeleko fruitua Jesus.

Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk otoitz egizu gu bekatariengatik orai ta gure eriotzeko orduan. Amen.

### SALBEA

Jangoikoak salba zaizala erregina, miseriardiaren Ama, bizitza, dulzetasuna ta gure esperanza; Jangoikoak salba zaizala. Zure gana deies gaude Ebaren hume desterratuok. Zure gana suspiratzen dugu aies eta negarres, negarresko balle gontan. Ea bada, gure Abogada, itzulizkizu gure gana zeure begi miseriardiasko goiek, eta desterru gonon ondorean erakutsaguzu Jesus zure sabeleko fruitu bedeikatua. O klementisima! O piadosa! O dulce beti Birjina Maria! Zuk otoitz egizu guregatik, Jangoikoaren Ama sanda, izan gaitzen digno erdexteko Jesu Kristoren promesak. Amen.

### KREDO

Nik sinestatzen dut Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kiazalearen baitan eta Jesu Kristo arren Seme bakar gure Jaunabaitan, zein konzebitu baize Ama Birjinaren entraña sanduetan; Espiritu Sanduaren obras ta birtutes jaio zela Birjina Mariaganik; pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian; gurutzifikatu zutela, il zela, ortzi zutela; jautsi zela linboetara, an zeuden arima sandaen atratzera; andik il ta irugarren egunean berriro biztu zela ilen ertetik bere birtute propios; igan zela zeruetara ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean, nondik etorriko baita azken juizioko egunean ilen eta bizien juzgatzerara. Alaber, sinestatzen dut Espiritu Santi Jaunabaitan, Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa, aragiaren erresurrekzioa, bizitza sekulakoa. Amen.

### ARTIKULO FEDESKOAK DIRE AMALAU:

Lenbiziko zazpiak Jangoikoaren dibinidadeari dagozkionak dire ebek:

Lenbizikoa, sinestatzea dela Jangoiko bat bakarra guzis poderosoa.

Bigarrena, sinestatzea dela Aita.

Irugarrena, sinestatzea dela Semea.

Laurgarrena, sinestatzea dela Espiritu Santi Jauna.

Borzgarrena, sinestatzea dela Kriazalea.

Seigarrena, sinestatzea dela Salbazalea.

Zazpigarrena, sinestatzea dela Glorifikazalea.

Berze zazpiak Jesu Kristoren humanidade sanduari dagozkionak dire ebek:

Lenbizikoa, sinestatzea Jesu Kristo gure Jauna gizon den bezan bates izan zela konzebitua Espiritu Santi Jaunaren obras ta birtutes.

Bigarrena, sinestatzea jaio zela Maria Birjinaganik, gelditurik Ama Birjin, erdi baño len, erditzean ta erdias-geros beti birjinik.

Irugarrena, sinestatzea pasatu zuela pasio ta eriotze gu bekatariok salbatzeagatik.

Laurgarrena, sinestatzea jautsi zela linboetara, an zeuden arima sanden atratzera.

Borzgarrena, sinestatzea erresuzitatu edo berriro biztu zela il ta irugarren egunean ilen ertetik bere birtute propios.

Seigarrena, sinestatzea igan zela zeruetara ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean.

Zazpigarrena, sinestatzea etorriko dela azken juizioko egunean ilen ta bizien juzgatzeraz; onei emanen diotela betiko gloria, zeren guardatu zuzten beraren mandamentuak eta gaixtoei sekulako pena, zeren etzituzten guardatu. Amen.

## MANDAMENTUAK

Jangoikoaren legearen mandamentuak dire amar: (lenbiziko irurak dagozkio Jangoikoaren honrari; berze zazpiak proximoen probetxuari).

Lenbizikoa, Jangoikoa onetsi ta adora zagula gauza guzien gañetik.

Bigarrena, juramenturik banoan in etzagula.

Irugarrena, jaiak ta igandeak guardazkigula.

Laurgarrena, geuren aita ta amak, ta gu baño iagokoak ongi honra ta errespetazkigula.

Borzgarrena, nior il etzagula.

Seigarrena, luxuriasko bekatuak in etzagula.

Zazpigarrena, ebatsi etzagula.

Zorzigarrena, niori testimonio falsurik goratu-etzagula, ta ez gezurrik erran.

Bedratzigarrena, proximoaren bizikidea desea-etzagula.

Amargarrena, proximoaren gauzarik desea-etzagula, edo Jangoikoak emanareki kontenta gaizala.

Amar mandamentu gebek enzerraten dire (edo biltzen dire) bidatan: lenbizikoa, amatzean Jangoikoa guzien gañetik; bigarrena, amatzean proximoa geuren burua bekala Jangoikoagatik.

## ELIZAKO MANDAMENTUAK DIRE BORZ:

Lenbizikoa, jai eta igandeetan meza osoa enzutea.

Bigarrena, urtean bein berere konfesatzea, edo lenago, barin badu iltzeko peligrorik edo komekatu bear badu.

Irugarrena, Bazkoa garizumakoetan komekatzea, edo lenago, barin badu iltzeko peligrorik.

Laurgarrena, Elizak manatzenduenean barutzea.

Borzgarrena, amarren ta primiziak ongi egitea.

## OBRA MISERIKORDIASKOAK DIRE AMALAU:

Lenbiziko zazpiak espiritualak edo arimarenak dire ebek:

Lenbizikoa, eztakienai erakustea.

Bigarrena, konseju bear duenai konseju ematea.

Irugarrena, uts iten duena korrejitzea.

Laurgarrena, injurien barkatzea.

Borzgarrena, tristen konsolatzea.

Seigarrena, proximoen faltak ta agrabioak pazienziatan eramatea.

Zazpigarrena, ilen eta biziengatik Jangoikoari otoitz egitea.

Berze zazpiak gorporalak edo gorputzarenak dire ebek: Lenbizikoa, herien bisitatzea.

Bigarrena, goseak dagonai jatera ematea.

Irugarrena, egarriak dagonai edatera ematea.

Laurgarrena, kautiboen erreskatatzea.

Borzgarrena, biluxien bestitzea.

Seigarrena, pobre ta peregrinoei ostatu ematea.

Zazpigarrena, ilak ortzitzea. Amen.

(Galdera. Zergatik deitzen miserikordiaskoak?

Errespuesta. Zergatik ezpaitire zor justiziaz

GALD. Noiz obligatzen bekatu mortalaren azpian?

ERR. Noiz grabeak diren bearrak).

#### ELIZAKO SAKRAMENTUAK DIRE ZAZPI:

(Lenbiziko bortzak dire preziso errebitzea obras edo deseos, zein gabe ezin salba, uzten baditu meprezioz; bi azkenak dire borondatezkoak).

Lenbizikoa, bataiatzea.

Bigarrena, konfirmatzea.

Irugarrena, konfesatzea.

Laurgarrena, komekatzea.

Borzgarrena, oliatzea.

Seigarrena, ordenatzea.

Zazpigarrena, matrimonioa.

#### KONFESIO JENERALA

Ni bekatorea, ni konfesatzen nazaio Jangoiko Jaunari, Birjin Andre Mariari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo apostolueri, zeruko sandu guzieri, ta berorri ene aita konfessore orri, egin dudala sobra bekatu obras, itzes ta pensamentus; Jauna, enea da kulpa, enea da kulpa, enea da kulpa andia. Orrengatik otoitz egiten nagokio Birjina Andre Mariari, San Migel aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo apostolueri, zeruko sandu guzieri eta berorri, otoitz in dezaten enegatik Jangoiko Jaunari. Amen Jesus.

#### KONTRIZIOSKO AKTOA

Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, ene Kriadorea ta Erredentorea, zeuroi zarenagatik infinitoki ona ta amablea, eta zeren amatzen baizaitut gauza guziak baño iago, damu dut Jauna biotz guziaz, dut damu ta urriki zu ofendituas. Eta proponitzen dut ez berriz bekatu egiteko, ta apartatzeko bekatuen okasio guzietatik, eta konfesatzeko, eta



kunplitzeko aita konfesoreak ematen didan penitentzia.

Ofrezitzen dizkizut ene obra ta trabaju guziok ene bekatuen satisfakziotan, eta dut esperanza zurebaitan zeure merejimentuengatik barkatuko tidazula ta emanen didazula mundu gontan zuri zerbitzatzeko grazia, ta berzean zure gloria. Amen Jesus.

NOVISSIMOAK EDO GIZONAREN AZKENAK DIRE LAUR:

Eriotzea, juizioa, infernua eta gloria.

(Bizia labur, iltzea segur, kontuak ertxi, sententzia segi, gloria edo pena beti beti, begira nola bizi!).

GORPUTZAREN SENTIDOAK DIRE BORTZ:

Bista, usma, adimentua, gustoa ta ukiña.

ARIMAREN POTENZIAK DIRE IRUR:

Memoria, entendamentua ta borondatea.

GALD. Zertako eman digu Jangoikoak memoria?

ERR. Oroitzeko beras, ta beraren ongi egines.

GALD. Zertako entendamentua?

ERR. Pensatzeko Jangoikoan, ta aren gauzetan.

GALD. Zertako borondatea?

Erresp. Amatzeko Jangoikoa guzien gañetik, eta gure proximoak geurok bekala Jangoikoagatik.

BIRTUTE TEOLOGALEAK IRUR:

Fedea, Esperanza ta Karidadea.

GALD. Zer da fedea?

ERR. Sinestatzea ikusi gabe, zeren Jangoikoak errebelatu dion Eliza gure Ama Sandari, ta Elizak ala erakusten digun guri.

GALD. Zer da esperanza?

ERR. Esperatzea gloria Jangoikoaren graziaren ta geuren obra onen medios.

GALD. Zer da karidadea?

ERR. Amatzea Jangoikoa guzien gañetik ta gure proximoak geuren buruok bekala Jangoikoagatik.

ARIMAREN ETSIAK DIRE IRUR:

Mundua, Demonioa eta Aragia.

GALD. Nola garaitzen da mundua?

ERR. Despreziatus munduko ponpak ta banidadeak.

GALD. Nola garaitzen da demonioa?

ERR. Orazios ta humildades.

GALD. Nola garaitzen da aragia?

ERR. Orazios, humildades ta mortifikazios.

BEKATU KAPITALAK EDO BIZIO-BURUAK DIRE ZAZPI:

Subergia, Abarizia, Luxuria, Ira, Gula, Inbidia, Azidia edo Pereza.

## ZAZPI BIZIOGEBEN KONTRA ZAZPI BIRTUTE:

Suberbiaren kontra Humildadea.  
Abariziaren kontra Liberalidadea.  
Luxuriaren kontra Kastidadea.  
Iraren kontra Paziencia.  
Gularen kontra Tenplanza.  
Inbidiaren kontra Karidadea.  
Perezaren kontra Dilijenzia.

## FEDE, ESPERANZA TA KARIDADEAREN AKTOAK

1. Nik sinestutzen dut zurebaitan ene Jangoikoa, Aita Jangoiko, Semea Jangoiko, Espiritu Santi Jauna Jangoiko; irur persona distinto ta Jangoiko bat egiaskoa.

Nik sinestutzen dut zurebaitan Jesu-Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, eta zure misterio guzietan.

Nik sinestutzen dut aldareko sakramentu sanduan, zeintan baizaude presente ain errealki nola zeruan.

Nik sinestazentut zure fedearen misterio guziak. Eta nai dut bizi eta il fede goneki.

2. Dut esperanza zure baitan, ene Jangoikoa, Jesu Kristoren merejimentuengatik, Maria Santisimaren ta sandu guzien interzesioagatik, emanen didazula mundu gontan zuri zerbitzatzeko grazia ta berzean zure gloria. Nai dut bizi ta il esperanza goneki.

3. Maitatzen zaitut, ene Jangoikoa, gauza guziak baño iago, zeuroi zarenagatik infinitoki ona ta maitagarria. Eta maitazentut zuregatik ene proximo guziak.

Nai dut bizi ta il karidade goneki.

4. Damu dut, Jauna, zure ofenditutas; dut damu milla aldis. Misericordia ta grazia. Biba Jangoikoa. Biba Jesus. Biba Maria. Biba Kristoren fedea. Eta biba Jangoikoaren legea.

Fuera bekatua; fuera sekulakos. Amen.

## DOKTRINA KRISTIOAREN EXPLIKAZIOA

\*(GALDEG. Zer da gizona?

ERR. Gizona da animale razionala edo entendamentu-duna, Jangoikoak kriatu duena bere imajina ta semejanzara.

GALD. Zertako jaio da gizona?

ERR. Amatzeko ta zerbitzatzeko Jangoikoa munduan; eta gozatzeko bera zeruan.

GALD. Zein da gizonaren azken fina?

ERR. Ellegatzea gozatzera Jangoikoa glorian.

GALD. Ellegatzeko artara, zer medio da?

ERR. Ezauntzea, amatzea, ta zerbitzatzea emen.

GALD. Nola eginen ori?

ERR. Ikasis eta kunplitus doktrina kristioa.

GALD. Zer da doktrina kristioa?

ERR. Kristoren doktrina, au da, erakutsi zuena Kristok, etorri zenak zerutik lurrera gu salbatzeagatik ta eramateagatik zerura).

GALD. Eta zu kristioa zara?  
ERR. Bai, jauna, Jangoikoaren grazias.  
G. Eta nondik duzu kristioaren izen goi?  
ERR. Kristo gure Jaunaganik.  
GALD. Zer nai du erran kristioa?)  
ERR. Kristorena edo Kristoren gizona.  
GALD. Zer entendatzen da Kristoren gizona?  
ERR. Gizon bat, zeñek eze baitu Kristoren fedea bataioan profesatua, ta ala dago obligaturik aren zerbitzu sandura.  
GALD. Zein da kristioaren señailea?  
ERR. Gurutze sandua.  
GALD. Zergatik?  
ERR. Zergatik mostratzen baitu Kristo guruzifikatua erredimitu ginduzana gurutzean.  
GALD. Zenbat gisatara usatzen du kristioak señaile goi?  
ERR. Bidatara.  
GALD. Zein dire?  
ERR. Zeñatzea ta santiguatzea.  
GALD. Zer da zeñatzea?  
ERR. Eskuieko eri-beatzas irur gurutze egitea: Lenbizikoa kopetan, bigarrena agoan, irugarrena bularretan, mintzatus gure Jaun Jangoikoareki.  
GALD. Ia nola?  
ERR. Gurutze sanduaren + señaileagatik gure + etsaietatik libra gaitzazu, + gure Jaun ta Jangoikoa.  
GALD. Zergatik zeñatzen gara kopetan?  
ERR. Jangoikoak guarda gaitzan pensamentu gaixtoetaik.  
GALD. Zergatik agoan?  
ERR. Jangoikoak guarda gaitzan itz gaixtoetaik.  
GALD. Zergatik bularretan?  
ERR. Jangoikoak guarda gaitzan obra ta deseo gaixtoetaik.  
GALD. Zer da santiguatzea?  
ERR. Eskuieko bi eri andienes guruze bat egitea kopetatik bularretaraño, ta ezkerreko soñetik eskuiekoraño, inbokatus Trintate Jaun poderosoa.  
GALD. Ia nola?  
ERR. Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.  
GALD. Noiz usatu bear da señaile goi?  
ERR. Edozein lanen astean; aurkitzen garelaik nezesidade, tentazio edo peligrotan; berexkiro goatzetik jaikitzean, etxetik atratzean, elizan sartzean ta atratzean, jatean ta etzitean.  
GALD. Zergatik ainberze aldis?  
ERR. Zergatik leku ta ordu guzietan geuren etsaiak tentatzen ta persegitzen gaituten.  
GALD. Zer etsai dire oriek?  
ERR. Mundua, demonioa ta aragia.  
GALD. Eta badu gurutzeak birtuterik etsai goien kontra?  
ERR. Bai, Jauna.

GALD. Zergatik?

ERR. Zergatik Kristok garaitu baizitue bere eriotzeareki gurutzean.

GALD. Adoratzenduzularik gurutzea, nola erraten duzu?

ERR. Adoratzen ta bedeikatzen zaitut, Jesu Kristo ene Jauna, zeren gurutze sanduaren medios erredimitu zinduen mundua.

\*Baitare: Adoratzen zaitut gurutze bedeikatua, zeintan izan zen guruzifikatua ene erredentorea, Jesus.

#### DOKTRINA KRISTIOAREN BEREZITZEA

GALD. Zenbat gauza jakin beartu kristioak ezaumentura ellegatuas geros?

ERR. Laur.

GALD. Zein dire?

ERR. Lenbizikoa, jakitea zer sinestatu; bigarrena, zer eskatu; irugarrena, zer obratu; laugarrena, zer errezibitu.

GALD. Nola jakinen zer sinestatu?

ERR. Dakielaik kredo edo artikulo fedekoak.

GALD. Nola jakinen zer eskatu?

ERR. Dakielaik Aita gurea ta Elizako gañarako orazioak.

GALD. Nola jakinen zer obratu?

ERR. Dakielaik Jangoikoaren legeko mandamentuak, Elizako borzak ta obra miserikordiasakoak.

GALD. Nola jakinen zer errezibitu?

ERR. Dakizkielaik Elizako sakramentuak.

\*(M. Laur ebetaik bi prinzipalenak dire sinestatzea ta obratzea, fedea ta legea; sinesta egiak Jangoikoak errebelatuak, ta kunpli gauza manatuak. Eben bien kunplitzeko laguntzen dute berze biek, auda, orazioek ta sakramentuek. Eska auxilioak. Artu erremedioak eta ala izanen zara salbo).

#### Doktrinaren lenbizikoa

#### Kredoaren explikazioa

GALD. Nork erran zue Kredo?

ERR. Amabi apostoluek.

(M. Apostolu nai du erran bialdua. Amabi gaiek zire lenbiziko gizon sanduak beterik Espiritu Sandus, biali zituenak mundu guzia barna Jesu Kristok, Gizon Jangoiko denak, erakusteko guziei zerurako bidea. Ortako joan baño len formatu zute artikulo prinzipalenen laburgo edo bilgura gau, deitzen dena Kredo, zeren latinez etc. joateko guziak konforme ez solamente egia eta fedearen sustanzian, bai itzetan ere).

GALD. Zertako erran zute aiek?

ERR. Guri fede sanduaren erakusteko.

GAL. Eta guk zertako erraten dugu?

ERR. Kristioek dugun fedea konfesatzeko.

GALD. Zer da fedea?

ERR. Sinestea ikusi gabe.

GALD. Ikusi zindue Kristo jaiotzen, iltzen, erresuzitatzen edo zerura igaten?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Eta sinesten duzu?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Eta zergatik sinesten duzu?

ERR. Zergatik Jangoikoak ala errebelatu baitu Elizari, ta Elizak ala erakusten baitu guri.

\*(M. Errebelatu da oroat nola deklaratu, manifestatu edo seguratu egia dela).

GALD. Zer gauza dire sinetsi beartugunak kristio bekala?

ERR. Eliza Ama Sandak sinestentuen guziak.

GALD. Eta zein dire sinestentuenak Elizak?

ERR. Artikulo fedeskoak prinsipalki, Kredoan dauden bekala.

GALD. Eta zer dire artikulo fedeskoak?

ERR. Dire fedearen misterio prinsipalenak.

GALD. Zertako dire artikulo fedeskoak?

ERR. Guri emateko notizia edo ezaumentu Jangoikoas eta Jesu Kristo gure erredentoreas.

GALD. Nor da Jangoikoa?

ERR. Jangoikoa da gauza bat ain exzelentea ta ain admirablea, erran ta pensa daiken baño iagokoa; jaun bat infinitoki ona, poderosoa, sabioa, justoa, inmenso, eternoa, (prinzipiorik ta finik gabe) prinzipio ta fin gauza guziena.

GALD. Eta nor da Trintate Sandua?

ERR. Jangoikoa bera, Aita ta Semea ta Espiritu Santi Jauna, irur persona distinto ta Jangoiko bat bakar egiaskoa. (Trintate nai du erran irurtasuna).

GALD. Zenbat Jangoiko da?

ERR. Bat, jauna.

GALD. Eta zenbat persona Jangoikoan?

ERR. Irur, jauna.

GALD. Zein dire?

ERR. Aita eta Semea eta Espiritu Santi Jauna, irur persona distinto ta Jangoiko bat bakar egiaskoa.

GALD. Aita da Jangoiko?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Semea da Jangoiko?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Espiritu Santi Jauna da Jangoiko?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Irur Jangoiko dire?

ERR. Ez, jauna, baizik irur persona distinto ta Jangoiko bakar egiaskoa.

GALD. Aita da Seme?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Semea da Aita?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Espiritu Sandua da Aita edo Seme?

ERR. Ez, Jauna.

GALD. Zergatik?

ERR. Zergatik baitire distinto personetan, naiz izanik bat Jangoikotasunean.

\*(M. Misterio gora goregi admiragarria, guzis ezin daikena konprehen-di gure entendamentu eskas ebeki, emen bentzait, nola izanik irur persona, ta irurak Jangoiko, ala ere ez irur Jangoiko, baizik bat; nola irurek baitute naturaleza bat, majestade, podore, perfekzio, ta guzia bat. Ezta ere misterio gonon konparaziorik; izatekos, zerbaitto usmatzeko, biz eguzkiarena: Eguzkian sua, argia, beroa; irur, baña irur goiek iruzki bat, baña ezta bardin. Ezta manatzen ere konprehenditzea osoki, baizik sinestatzea firmeki etc. ikazginaren fedea).

(GALD. Nor da Aita deitzen dena?

ERR. Da Trintateko lenbiziko persona dibinoa zeñek enjendratu duen Semea igual bardin esenzian edo izatean, ta distinto personan.

GALD. Nor da Semea?

ERR. Trintateko bigarren persona dibinoa, zein baita enjendratua Aitaganik.

GALD. Nor da Espiritu Santi Jauna?

ERR. Trintateko irugarren persona dibinoa, prozeditzen dena Aitaren ta Semearenganik).

\*(M. Nola den Semearen etorkia Aitaganik, eta Espiritu Sanduarena Aitaren ta Semearenganik neke da entendatzea, nekesago erabakitzea; ta ezta bear ere. Peligro da gogora dakion noribaiti, ote den an emengo gisara. Infinito da diferenzia Espiritu purisimo gartan: Nola Jangoikoa Jangoikoa ganik, nola argia argiaganik, mezatako Kredoan.

GALD. Irur personetan, zein da len edo andien?

ERR. Nior ez, baizik irurak bardin, irurak Jangoiko bat eterno, inmenso, infinito).

GALD. Non dago Jangoikoa?

ERR. Leku guzietan, espezialki zeruan ta aldareko Sakramentuan.

GALD. Badu Jangoikoak gorputzik, guk bekala?

ERR. Ez, jauna, zergatik baita Espiritu purisimo.

GALD. Badu esku, begi ta alako mienbrorik?

ERR. Ez, jauna.

\*(M. Diolarik eskrituran Jangoikoen aurpegia, besoa etc., mintzatzen da gure emengo gisara; ez entenda materialkiro, baizik espiritualkiro, Jangoikoaren aurpegian bere edertasun infinitoa; begian bere jakintasuna, beso ta eskuan bere podorea, biotzean amorea, ontasuna, etc.).

(GALD. Badu Jangoikoak memoria, entendamentu ta borondaterik?

ERR. Entendamentu ta borondate bai, baña memoriarik ez.

GALD. Nola ez memoria?

ERR. Zeren memoria baita oroitzeko gauza pasatues; baña Jangoikoarendako ezta deus pasaturik, guzia bateo dauka presente betiro).

GALD. Nola da Jangoikoa guzis poderoso?

ERR. Bere podoreareki in baitezake nai duen guzia.

\*(M. Baña in ez dezake gaizkirik, bekaturik, gezur ta alakorik, ezeta nai ere, zeren alako egitea ezpaita podore, bai falta; eta ori al balezake, ezlitzake guzis poderoso).

GALD. Nola da Kriadore?

ERR. Kriatu edo in baititu gauza guziak deusetatik.

GALD. Nola da Salbadore?

ERR. Ematen baitu grazia eta barkatzen bekatuak.

GALD. Nola da Glorifikadore?

ERR. Ematen baitu gloria grazian doazinei eta desgrazian doazinei infernuko pena

eterno.

#### ENKARNAZIOKO MISTERIOA

GALD. Irur persona dibinoetaik zein in ze gizon?

ERR. Bigarrena, baita Semea.

GALD. Aita egin ze gizon?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Espiritu Sandua in ze gizon?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Nor, bada?

ERR. Sollik Semea, zein gizon eginik ia deitzen baita Jesu Kristo.

GALD. Nor da, beras, Jesu Kristo?

ERR. Da Jangoikoaren Semea, gizon egin zena gu erredimitzeagatik ta bizitzaren exenplu emateagatik.

GALD. Zer nai du erran Jesus?

ERR. Salbazalea.

GALD. Zertaik salbatuginduza?

ERR. Gure bekatuetaik ta deabruaren eskupetik.

GALD. Zer nai du erran Kristo?

ERR. Unjitua edo konsagratua.

GALD. Zertas izan ze unjitua?

ERR. Espiritu Sanduaren donoos ta grazies.

(GALD. Eta Jesu Kristo da Jangoiko?)

ERR. Bai, jauna.

GALD. Eta da gizon ere?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Beras, da Jangoiko ta gizon?

ERR. Bai, jauna).

(GALD. Berze gisas au berau. Zenbat naturaleza dire Kristo baitan?)

ERR. Bida, dibinoa ta humanoa.

GALD. Zenbat persona Kriston?

ERR. Bat sollik, ta ori dibinoa, Trintateko bigarrena.

M. Ontan nai du erran, ezi Kristo izanik persona bat, batean Jangoiko ta gizon dela: Jangoiko, Aita eternoaren seme bekala; gizon, Ama Birjinaren Seme bekala; eta ala badu gorputz, arima, odol ta gizontasunes den guzia, zergatik baita gizon egiaskoa).

GALD. Eta non egin ze gizon?

ERR. Maria Santisimaren entraña sanduetan.

GALD. Noren obraz?

ERR. Espiritu Sanduaren obras.

(M. Izan ze, alaber, Aita ta Seme beraren, ta Trintate guziaren obras; baña erraten da Espiritu Sanduaren obras, zeren izan zen amoresko obra, ta amorea atribuitzen zaion Espiritu Sanduari, ala nola podorea Aitari, ta Semeari jakintasuna).

GALD. Nola izan zen obra goi?

ERR. Sobrenaturala, milagroskoa, dibinoa; obratus Jangoikoak sobrenatural, milagrosoki.

(M. Ala dio Astatetek, ta ongi, ta aski; ezta bear iago, eta eztio iago ebanjelioak ere.

Berze batzuek diote ta erran daike ala: Jangoikoak Maria Santisimaren odol garbitik formatu zue gorputz bat, deusetaik kriatu zue arima bat, arima ta gorputz gau elkarreki uniturik unitu zitue bereki Jangoikoaren Semeak; eta ala len zena Jangoiko sollik, gelditu ze Jangoiko ta gizon eginik Ama Birjinaren entraña sanduetan).

(GALD: Noiz agitu ze milagro goi?

ERR. Ama Birjinaren Annunziazio-egunean, martxoaren 25.an.

GALD. Eta noiz jaio ze Maria Birjinaganik?

ERR. Abenduaren 25.an, Eguerri egunean.

(M. Jaio ze, alaber, milagrosoki, gelditurik Ama birjin mellarik gabe, nola konzebitu baizue seme gura milagrosoki Espiritu Sanduaren birtutez, gizonkiren komunikaziorik gabe; birjin erdi bañolen, erditzean ta erdias geros beti birjinik. Eta ala San Josef izanik ere Maria Santisimaren esposo, ezta Jesu Kristoren aita, baizik jendeen opinionean, ez errealidadean, zeren Jesu Kristok gizon bezan batez eztu aitarik).

GALD. Beras, Maria Santisima da Jesu Kristoren Ama propria.

ERR. Bai, zierto, zeren bereganik izan zuen semea ta eman zion duen gizontasuna.

GALD. Eta daike deitu Jangoikoaren Ama?

ERR. Dei daike ta deitu bear da Jangoikoaren Ama, zeren bere seme gura baita Jangoiko ta gizon persona batean, naiz ez eman Amak Jangoikotasuna; nola obispoaren ama, naiz ez eman amak obispotasuna.

GALD. Jesu Kristok nor du Aita?

ERR. Jangoiko den aldetik Aita eternoa Amarik gabe.

GALD. Eta Ama nor?

ERR. Gizon den aldetik Ama du Ama Birjina aitarik gabe. Alako Semeari alako Ama, alako Amari alako Semea.

GALD. Eta non iltze Jesu Kristo?

ERR. Gurutzean.

GALD. Norengatik?

ERR. Gure ta mundu guziaren salbatzeagatik.

GALD. Jangoiko bekala, edo gizon bekala iltze?

ERR. Gizon bekala, ezi Jangoikoa da inpasible.

(M. Baña Jangoiko izatea baliatu zekio baliarazteko infinito pasatu zuen pasio doloreskoa).

GALD. Zer da iltzea?

ERR. Arima gorputzetik berezitzea.

(M. Gorputz dibinoa gelditu ze an gurutzean uniturik bere dibinidadeareki, eta gero orzi zutela dio Kredoan).

GALD. Eta arima nora joan ze?

ERR. Jautsi ze linboetara, an zeuden arima sandaen atratzera, uniturik dibinidadeai.

(GALD. Zer da erresuzitate?

ERR. Arima gorputzera itzuli ta berriro biztea ila).

GALD. Noiz erresuzitatu edo biztu ze Kristo?

ERR. Il ta irugarren egunean bere birtute propios.

GALD. Nola?

ERR. Berriz juntatus bere arima ta gorputza glorioso, ez beñere iltzekotan.

GALD. Nola igan ze zeruetara?

ERR. Bere birtute propios.



GALD. Zer nai du erran, dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean?  
ERR. Duela gloria bera Aitareki Jangoiko bekala ta berze guziek baño iago gizon bekala.

GALD. Eta noiz etorriko da onen ta gaixtoen juzgatzera?

ERR. Azken juizioko egunean.

GALD. Eta non dago orai Jesu Kristo?

ERR. Zeruan eta aldareko Sakramentuan, etc.

(M. Bai, ziertoki ain erreal emen, nola an; an goiti dago egotemodu natural ikusgarrian, emen beiti egotemodu sobrenatural miragarrian, altxaturik aragisko begiei; an glorioso gloriatzaten bereak, zorionekoak; baña emen amoroso erregalitzen, graziazatzen bere amazaleak. O amoresko milagroak! Etc.).

GALD. Dio Kredoan: Nik sinestutzen dut Espiritu Sandua baitan. Zer sinestutzen da ontan?

ERR. Espiritu Santi Jauna dela Jangoiko ta Trintateko irugarren persona, prozeditzen dena Aitaren ta Semearenganik.

GALD. Segitzen da: Eliza Sanda Katolikoa. Zer da Eliza?

ERR. Da kristio fiel guzien kongregazioa, bilgura, saldoa edo familia, zeñen burua baita Jesu Kristo eta aren ordes Aita Sandua.

GALD. Nor da Aita Sandua?

ERR. Kristoren bikarioa lurrean, zeñi guziok gauden obligaturik obeditzera.

GALD. Zer nai du erran sanduen komunioa?

ERR. Kristio fiel guziok garena partizipante elkarren obra onetan, mienbro garen bekala gorputz batenak, zein baita Eliza.

GALD. Zer nai du erran bekatuen barkazioa?

ERR. Badirela Elizan erremedioak barkatzeko bekatuak edo konfesio on baten medios barkatzen direla bekatuak.

GALD. Zer nai du erran aragiaren erresurrekzioa?

ERR. Erresuzitatu edo il ta berriro biztubeargarela guziok azken juizioko eguneko, orai tugun gorputz ta arimaeki.

GALD. Zer nai du erran bizitza sekulakoa?

ERR. Bizi bear dugula gero secula seculorum glorian edo infernuan: Jangoikoaren grazian iltzen direnak, glorian; desgrazian iltzen direnak, infernuan.

GALD. Kredo ta artikuloes landara bear dugu sinestatu berzerik?

ERR. Bai, Jauna, Eskritura Sagratuan dagon guzia. Amen Kredoan da ala dela.

(M. Eliza militantea gara kristio bizi garenok emen; triunfantea, daudenak zeruan; purgantea, purgatorioan; aragiaren erresurrekzioa, zeren iltzen baitire sollik gorputzak; ebek bizturik glorioso, izaintute laur dote: klaridadea, ajilidadea, sutileza, inpasibilidadea

Doktrina kristioaren zati edo salla  
Zer eskatu edo nola orazio egin bear den

GALD. Nork erran zue Aita gurea?

ERR. Jesu Kristok bere ago sanduas.

GALD. Zertako?

ERR. Guri erakusteko orazio egiten.

GALD. Zer da orazio egitea?  
ERR. Goratzea biotza Jangoikoa gana ta eskatzea on direnak.  
GALD. Erraten dugularik Aita gurea, noreki mintzatzen gara?  
ERR. Gure Jaun Jangoikoareki.  
GALD. Non dago gure Jaun Jangoikoa?  
ERR. Leku guzietan, espezialki zeruan ta aldareko Sakramentu Sanduan.  
GALD. Zein da orazio guzietan den obena?  
ERR. Aita gurea.  
GALD. Zergatik?  
ERR. Zergatik erran baizue Jesu Kristok berak, apostoluek eskaturik.  
GALD. Zergatik iago?  
ERR. Zergatik baititu zazpi petizio fundatuak karidade guzian.  
GALD. Zein da lenbiziko petizioa?  
ERR. Santifika bedi zure izena.  
GALD. Zer eskatzen da petizio gontan?  
ERR. Jangoikoaren izena izan daiela ezaundua ta honratua mundu guzian.  
GALD. Zein da bigarren petizioa?  
ERR. Etorri bedi zure erreinua.  
GALD. Zer eskatzen da petizio gontan?  
ERR. Erreina dezala Jangoikoak gure arimaetan emen graziaz, ta gero eman dezagula gloria.  
GALD. Zein da irugarren petizioa?  
ERR. Kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere.  
GALD. Zer eskatzen ontan?  
ERR. Egin dezagula Jangoikoaren borondatea lurrean gaudenek, ala nola egiten baitute zeruan zori oneko doatsuek.  
GALD. Zein da laugarren petizioa?  
ERR. Eman dezaguzu gure egunoroko ogia egun.  
GALD. Zer eskatzen ontan?  
ERR. Eman dezagula Jangoikoak mantenu konbeni dena gorputzendako, ta espiritualea graziarena ta sakramentuena arimendako.  
GALD. Zein da borzgarren petizioa?  
ERR. Barka dazkiguzu guri geuren zorrak, ala nola guk barkatzen baitiogute gu zorgaitzeneri.  
GALD. Zer eskatzen ontan?  
ERR. Barka dezakigula Jangoikoak guri bekatuak, nola guk ere barkatzen dioguten agrabio ta gaizki egindigutenei  
GALD. Zein da seigarren petizioa?  
ERR. Ezkaizazula utzi tentazioan erortzera.  
GALD. Zer eskatzen ontan?  
ERR. Ezkaitzala Jangoikoak utzi konsentitzera gogorazio ta tentazio gaixtoetan, zeñeki etsaiak nai gaituen eroriarazi bekatuan.  
GALD. Zein da zazpigarren petizioa?  
ERR. Libra gaizazu gaitzetik.  
GALD. Zer eskatzen ontan?  
ERR. Libra gaizala Jangoikoak arimaren ta gorputzaren gaitz guzietaik.

GALD. Zergatik erran lenean, Aita gurea zeruetan zaudena?  
 ERR. Goratzeko biotza Jangoikoa gana ta eskatzeko humiltasun ta konfianzareki.  
 (M. Bai, ezi gogoraturik dela Aita gurea Jangoikoa, eldu zaigu konfianza; eta zeruan gora beiratus dagola gure errege, ta gu artto miserableak emen lurrean arrastaka, humillatzea dugu. Baña beti pensa lagun dugula gure alde Jesus ona, gure anaia andia bekala ta Jangoikoaren Seme propioa bekala, erratean Aita gurea zeruetan zaudena etc.).  
 Aita gurean amen da ala izan daiela, edo ala biz.  
 GALD. Zer orazio prinzipalki erratentiogu Ama Birjinari?  
 ERR. Abe Maria ta Salbea.  
 GALD. Nork erran zue Abe Maria?  
 ERR. Parte San Gabriel Aingeruak, parte Santa Isabelek, eta parte Eliza Ama Sandak.  
 GALD. Nork erran zue Salbea?  
 ERR. Eliza Ama Sandak dauka errezebiturik.  
 GALD. Zertako?  
 ERR. Eskatzeko Maria Santisimari fabore.  
 GALD. Abe Maria eta Salbea erraterakoan, noreki mintzatzen gara?  
 ERR. Maria Santisimareki.  
 GALD. Nor da Maria Santisima?  
 ERR. Andre bat grazias ta birtutes betea, zein baita Jangoikoaren Ama ta baitago zeruan guzien Erregina.  
 GALD. Aldarean dagon gura zer da?  
 ERR. Imajina edo memoria bat zeruan dagonarena.  
 GALD. Eta zertako dago aldarean?  
 ERR. Aren medios oroï gaitzen zeruan dagonas eta in zogun erreberenzia, zergatik den beraren imajina.  
 (M. Oroat in bear da sanduen imajinaeki bere ariora).  
 GALD. In bear da orazio aingeruei ta sanduei?  
 ERR. Bai, jauna, gure bitarteko edo medianeroei bekala.  
 GALD. Zer dire aingeruak?  
 ERR. Espiritu bienabenturatuak daudenak gozaten Jangoikoa zeruan.  
 GALD. Zertako kriatu zitue Jangoikoak?  
 ERR. Laudatzeko ta bedeikatzeko bere Majestadea eternidade guzian.  
 GALD. Zertako iago?  
 ERR. Beraren ministro bekala goberna dezaten Eliza eta guarda dezkiten gizonak.  
 Beras, badugu nork bere aingeru guardiakoa ta izan bear diogu debozio.

#### ONA ORAZIO BAT

(O Jangoikoaren aingeru ederra,  
 Pobretto gonon guardian zaudena,  
 Bada beraren piedades zure anparoan nago ni,  
 Guarda ta kida nazazu, baita goberna nazazu  
 Gau ta egun beti, erman arteo zerura zeureki).  
 Amen. Amen.  
 Zerukoek, lurrekook aditzen ta ikusten Jangoikoan, noiz ta nola duen plazer,  
 baitago leku guzietan

Doktrina kristioaren zati edo salla irugarrena  
Zer obratu, edo nola bizitu bear den

Jangoikoaren legea dago amar mandamentuetan.

GALD. Zein da lenbiziko mandamentua?

ERR. Jangoikoa onetsi ta adora zagula guzien gañetik.

GALD. Nork onetsitzen du Jangoikoa?

ERR. Guardatzentuenak beraren mandamentuak.

GALD. Eta zer da onetsitzea guzien gañetik?

ERR. Galdu-naia guziak lenago, ezi ofenditu Jangoikoa.

GALD. Zertara iago obligatzen gaitu mandamentu gonek?

ERR. Adoratzera sollik Jangoikoa, sinezten (sic) ta esperatzen dugularik biziro berabaitan.

(GALD. Nork faltatzen du onen kontra?

ERR. Faltatzen duenak fedean, esperanza, karidadean edo errelijioan).

GALD. Zein da bigarren mandamentua?

ERR. Iuramenturik banoan in etzagula.

GALD. Nork iten du juramentua banoan?

ERR. Egiten duenak egirik gabe, justiziarik gabe edo premiarik gabe.

GALD. Zer erremedio da ez iteko juramenturik banoan?

ERR. Akostunbratzea erratera ez edo bai llano, senzil (sic), Kristok erakutsi bekala.

GALD. Zein da irugarren mandamentua?

ERR. Jaiak ta igandeak guardazkigula.

GALD. Nork guardatzentu jaiak?

ERR. Meza osoa enzuten duenak ta eztuenak trabajitzen edo lan egiten premiarik gabe.

GALD. Zein da laugarren mandamentua?

ERR. Aitatamak ongi honrazkigula.

GALD. Nork honratzentu ongi?

ERR. Maitatzen, obeditzen, respetatzen ta sokorritzentuenak.

GALD. Nor iago adiarazten da buratsoetan?

ERR. Geiago direnak adinean, dignidadean edo gobernuan.

(M. Alaber, mandamentu ontan entenda aitetamen ta berze kargudunen obligazioak. Exenplua, doktrina, bijilanzia, korrekzioa, orazioa).

GALD. Zein da borzgarren mandamentua?

ERR. Nior il etzagula.

GALD. Zer manatzen zaigu ontan?

ERR. Etzogula niori gaizkirik egin, ez obras, ez itzes ta ez biotzes ere.

GALD. Zein da seigarren mandamentua?

ERR. Luxuriasko bekatuak in etzagula.

GALD. Zer manatzen zaigu ontan?

ERR. Izan gaitzela garbiak eta kastoak obras, itzes eta biotzes ere.

GALD. Zein da zazpigarren mandamentua?

ERR. Nion deus ebatsi etzagula.

GALD. Zer manatzen zaigu ontan?

ERR. Ez kendu, ez iduki, ez desea berzeren gauza jabearen borondatearen kontra.

GALD. Zein da zorzigarren mandamentua?

ERR. Niori testimonio falsurik goratu edo erakitxi etzagula, ta ez gezurrik erran.

GALD. Zer manatzen zaigu ontan?

ERR. Etzagula juizio gaixtorik egin, ez murmuratu, ez aitu murmuratzen, ta ez erran gezurrik, ta ez agertu sekretorik, naiz egia den.

GALD. Bedratzi ta amargarren mandamentuetan, zer debekatzen zaigu?

ERR. Deseo desonestoak ta berzeren gauza deseatzea.

(M. Bi azken mandamentu gebek paratutu Jangoikoak, adiarazteko naituela beretako biotzak; ikustentuela ta juzgatzen biotz barneko bekatuak, gizonek ez bekala; argatik paratutu berex. Baña konfesatzean daike bedratzigarrena sartu seigarrenean, ta amargarrena zazpigarrenean, non ta konfesa daitzen diren guziak obras, itzes eta biotzes). (Jangoikoa da espiritua, eta adoratzeko dutenek bear dute adoratu espirituz ta egiaz).

Doktrina kristioaren zati edo salla laugarrena  
Zer errezibitu bear den, baitire Sakramentuak

GALD. Zer gauza dire Sakramentuak?

ERR. Dire señale sagratuak, Jesu Kristok paratuak, emateko guri aien medios bere grazia eta birtuteak.

GALD. Eta zer da grazia?

ERR. Da Jangoikoaren dono andi bat, zeñeki arima egiten den beraren hume ta zeruaren heredera.

(M. Itzak dionez, da grazia, agradoa edo agradatzea Jangoikoaren begietan; da berari quadrable izatea; da Jangoikoaren eder argiaren errañu bat bekala; da arimaren bizitza, edertasuna eta gala; da ondasun guzien andiena, on guziaren prinzipio ta kausa, zein gabe deus eztaike mereji; da zeruko gloriaren azia bekala ta gloria lorean; da ararako prenda seguroa, titulo ta pasaporte erreala Jangoikoaren eskus firmatua, zeñeki doaienai berla idikitzen ango atariak; daike erran balio duela Jangoikoak adiña, ezi grazia duenak du Jangoikoa bere. Grazia goi galtzen da bekatu mortalareki, logratzen da Sakramentueki, ongi errezibitus, etc.).

GALD. Zer birtute ematen dute Sakramentuek graziareki bateo?

ERR. Prinzipalkiro irur teologaleak, baitire fedea, esperanza ta karidadea.

GALD. Zertako da bataiatzea edo Bataioko Sakramentua?

ERR. Kentzeko bekatu orijinala ta berze edozein aurkidaiena bataiatzen dena baitan.

GALD. Zer da bekatu orijinala?

ERR. Jeneraziozko bekatu gura zeñeki guziok jaiotzen garen, lenbiziko aita Adanenganik heredatua.

GALD. Zertako da konfirmatzea edo Konfirmazioko Sakramentua?

ERR. Konfirmatzeko gu ta indartzeko bataio sanduan errezibitu ginduen fedean.

GALD. Zertako da konfesatzea edo konfesioko penitenziako Sakramentua?

ERR. Barkatzeko bekatu inikakoak bataiatuas geros.

GALD. Zer bekatu dire oriek?

ERR. Mortaleak eta benialeak. (Edo grabeak eta lebeak).

GALD. Zer da bekatu mortalea?

ERR. (Da desobediencia bat Jangoikoaren manamenduari gauza grabean, edo) Egitea, erratea, gogoratzea edo deseitzea zerbait Jangoikoaren legearen kontra gauza grabean.

GALD. Zergatik deitzen da mortalea?

ERR. Zergatik iltzen baitu iten duenaren arima.

(GALD. Nola iltzen?

ERR. Galdus Jangoikoaren grazia, zein baita arimaren bizitza propioa, eta paratus Jangoikoaren desgrazian ta odioan).

GALD. Zer da bekatu beniala?

ERR. Da disposizio bat mortalerako (edo da desobediencia gauza lebean; edo egitea, erratea edo pensatzea Jangoikoaren legearen kontra gauza lebean edo ez adbertitus ongi).

GALD. Zergatik deitzen da benialea?

ERR. Zergatik aisa egiten ta aisa barkatzen den.

(GALD. Benialeak barkatzeko zer medio dire?

ERR. Sakramentaleak, meza enzutea, komekatzea, Ni bekatorea erratea, obispoaren bedeizioa, ur bedeikatua ta ogi bedeikatua, Aita gurea erreztatzea, prediku aditzea, bularrean golpe ematea penaturik bekatues ta eskatus barkazio).

GALD. Mortaleen barkatzeko zer medio da?

ERR. Konfesatzea edo penitenziako sakramentua, daikelarik; edo kontriziosko dolorea konfesatzeko intenzioareki.

GALD. Mortalean erortzen delarik bat, da preziso bereala konfesatzea?

ERR. On litzake, baña ezta preziso berla.

GALD. Zer in bear du bada?

ERR. Artu pena ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofendituas, intenzioareki konfesatzeko noiz manatzen duen Elizak. (Lotsagarri da egotea ta lokartzea Jangoikoaren desgrazian, kondenatzeko arrixkoan).

GALD. Penitentzia edo konfesioko Sakramentua ongi egiteko zenbat gauza bear dire?

ERR. (Irur diote batzuek tridentinoareki, cordis contritio, oris confessio, et operis satisfactio. Biotzezko kontrizioa, agosko konfesioa ta obrasko satisfakzioa; baña orduan kontrizioan entendatzeunte propositoa ere, ta konfesioan examina). Ta ala berexis, obe da erratea bortz.

G. Zein dire?

Lenbizikoa, bere konzienzia ongi examinatzea.

Bigarrena, artzea biotzesko dolore ta urrikimentu andi bat ofendituas Jangoikoa.

Irugarrena, proposito firme bat ez berriz ofenditzeko.

Laurgarrena, bere bekatuak osoki konfesatzea.

Borzgarrena, konfesoreak ematen dion penitentzia kunplitzea.

GALD. Zer da konzienziaren examinatzea?

ERR. Bekatuak memoriara ekartzera prokuratzea, edo oroitzea bekatu egines.

GALD. Nondik in bear da examina goi?

ERR. Amar mandamentuetaik.

(M. Bai, erreparasatus gutibana ta erreparatus mandamentu bakotxean zer faltatu duen aren kontra ta zenbat aldis, dela obras, dela itzes, dela biotzes, eta joan bildus memorian mortalak; mandamentu gontan ainberze, berze gartan ainberze, etc. Benialees ezta preziso ainberze examina, eztelaik obligaziorik konfesatzeko).

GALD. Noizazgerostik bear da examina egin?

ERR. Azken konfesio onetik onat.

(M. Onetik onat dio, zeren konfesio gaixtoan ezta barkatzen bekaturik batere, bai añaaditzen gañetik sakrilejioa; eta da preziso au ta ala konfesatuak berriro konfesatzea ongi disponiturik). (Zenbat dilijenzia bear den examinaren eskudriña-gisa ortan da denboraren ta bizimoduaren ariora dilijenzia prudente bat, ala nola inportaziosko iteko batean. Bekatu mortaleetan bear da atra numero txustoa, zenbat, al badaike; ezperen, guti gora bera idurikal; edo egunoro zenbat, edo asteoro, bata berzeareki. Beniale klaroetan ezta preziso ain txusto berextea zenbat, nola ezpaita ere aien konfesatzea). Ona modela. Konfesatzeko intenzio arturik, artu alaber denbora bear adiña, garai ta leku erretiratua; belauriko paraturik an, eska Jangoikoai grazia, oroitzeko bere kulpes. Gero mandamentu bakotxean egon deteniturik erreparasaten faltatu duena leku, aldarte ta okasio izanetan. Gero ia uste duelaik etzaiola okurrituko iago artan, pasa berze mandamentura; egon artan oroat pensatzen, ala gañarakoetan. Zeintan dakien guti edo batere faltatzen ez tuela, artan guti detenitza aski du; iago bear du detenitu zeintan dakien iago faltatzen duela kostunbres edo pasatzes, eta berze egun batez edo garaiez, berriz ta berriz dilijenzia bera bear-adiña, demanera ezi dezaken adiarazi bentzait bere arimaren estadoa daiken modurik obenean, etc.).

GALD. Zer da biotzesko dolorea?

ERR. Da urrikimentu ta pena ofendituas Jangoikoa:

GALD. Zenbat gisatara dolore goi?

ERR. Bidatara, baitire kontrizioa ta atrizioa.

GALD. Zer da kontrizioa?

ERR. Kontrizioa da amoresko dolore ta urrikimentu andi bat ofendituas Jangoikoa, bera denagatik, zeren ofenditu duen Jaun bat ain ona ta amablea, intenzioreki konfesatzeko ta emendatzeko.

GALD. Zer da atrizioa?

ERR. Atrizioa da beldurresko dolore ta urrikimentu andi bat ofendituas Jangoikoa, bekatuaren gaixtoagatik, zeren galdu duen grazia ta zerurako dretxoa, ta merejitu infernua, intenzioreki konfesatzeko ta emendatzeko.

GALD. Nondik jaiotzen da kontriziosko dolorea?

ERR. Jangoiko onari diogun amoretik.

GALD. Nondik atriziosko dolorea?

ERR. Jangoiko justoari diogun beldurretik.

(Berze gisas. Zein da kontrizioaren motiboa? Jangoikoaren ona ta amablea ofenditua. Zein da atrizioaren motiboa? Bekatuaren gaizkia, graziaren ta gloriaren galdua, ta infernuko penak merejitua).

GALD. Dolore goietaik, zein da obeago?

ERR. Kontrizioa.

GALD. Zergatik?

ERR. Zergatik nobleago baita kontrizioa ta bakarrik ere barkatzen baitu bekatuak; baña atrizioak ez sakramenturik gabe.

(M. De manera, ezi bida konfesatzeko prebeniturik, bata kontrizioreki, berzea atrizioareki, ta biak il derepente konfesatu gabe, lenbizikoa litzake salbo, baña bigarrena ez).

GALD. Eta sakramentuareki, atrizioa da aski?

ERR. Bai arreaki bateo, baña gabe ez).

(M. Orgatik iltzen dagonak bekatu mortalaren estadoan sazerdoterik gabe, inbear duena da goratu biotza Jangoikoagana, amatu ta estimatu bere Majestadea guzien gañetik, eta izan kontriziosko pena amoroso gura ofendituas Jaun bat ain ona ta amablea, intenzioreki konfesatzeko ta emendatzeko. Eta iltzeko lanzean naiz konfesatu ere, bear dela prokuratu kontrizioa diote anitz autoreek, etc.).

(M. Nola beldurrari amoreak, darama abantalla andia atrizioari kontrizioak. Eta konbeni da bizian maiz usatzea pena amoroso goi biotzean itxekitzen ta egotea ala erretzen penas maiz. Orreki garbituko da maiz arima bekatuetaik, eztakienetaik ere. Orreki du konsolu bizian eta eriotzean aisago kontrizioa, etc.).

GALD. Zer da propositoa?

ERR. Da gogoaren erresoluzio edo determinazio firme bat ez berriz bekatu rik egiteko.

(M. Propositoak beartu irur kondizio: Firme, efikaz ta unibersale. Firme, au da, zin ziñez gogotik; efikaz, auda, paratus medioak guartzeko; unibersale, au da, bekatu guzietaik ta bizi guzian ilartaño).

GALD. Zer nai du erran bere bekatuak osoki konfesatzea?

ERR. Erran bear direla konfesioan bere bekatu mortale guziak, konzienzian dauden bekala, ziertoak zierto bekala, dudaskoak dudasko bekala, baterez kendu ta añaditu gabe.

GALD. Erran bear dire benialeak?

ERR. Obligazios ez klaro direnak beniale.

GALD. Eta mortale konfesatuak len?

ERR. Eztare ongi konfesatuak, baldin ezpadu galdegiten kostunbreagatik.

GALD. Zer nai du erran konzienzian dauden bekala?

ERR. Nola ta zenbat diren bere ustes.

GALD. Noiz bear da kunplitu penitentzia?

ERR. Len baño len, ezpadio señalatu denbora konfesoreak, eta señalatu badio, señalatuan.

GALD. Ezpada kunplitzen penitentzia, balioso da konfesio egina?

ERR. Bai, barin bazue intenzio ziña kunplitzeko; ez kunplitzea da bekatu berria, konfesatzeko urbilenean.

GALD. Zertako da komekatzea edo komunionea?

ERR. Alimentatzeko arima ta aumentatzeko grazia.

GALD. Zer errezibitzen da komunionean?

ERR. Jesu Kristo berbera, Jangoiko ta gizon egiaskoa, ain errealki nola baitago zeruan ta aldareko Sakramentu Sanduan.

GALD. Zer da aldareko Sakramentua?

ERR. Hostia konsagratua, baitare Kaliza konsagratua; edozein bietaik, biak oroat.\*

GALD. Zer dago Hostian?

ERR. Konsagratu baño len, ogi guti bat; konsagratuas geros, Jesu Kristoren gorputz preziosoa itzen birtutez.



GALD. Zer dago Kalizan?

ERR. Konsagratu baño len edo konsagrazioko itzak erran baño len, ardo guti bat; konsagratuas geros, Jesu Kristoren odol preziosoa itzen birtutez.

GALD. Hostia konsagratuan gorputzareki dago odola ere?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Eta Kalizan konsagratuas geros, odolareki dago gorputza ere?

ERR. Bai, jauna.

GALD. Eta bere arima?

ERR. Arima ere bai bietan, zergatik baitago bizirik gorputza, ta ezin legoke bizirik odol ta arimarik gabe.

GALD. Beras, ala batean nola berzean dago Jesu Kristo guzia?

ERR. Bai, jauna, bere dibinidade ta humanidade guziareki.

GALD. Daude sakramentuan Kristoreki Aita ta Espiritu Sandua?

ERR. Bai, jauna, Trintate guzia, irur persona dibinoak, ezpaitaizke elkarrenganik aparta, direlaik irurak Jangoiko bat.

GALD. Badago Hostia konsagratuan ogirik, edo Kalizan konsagratuas geros ardorik?

ERR. Ez, jauna.

GALD. Zer in dire, bada, ogi ta ardo len zirenak?

ERR. Jesu Kristoren itz ta podorearen birtutez aldatu dire beraren gorputz ta odol preziosoen sustanziatan.

GALD. Zer dire, bada, an begis ikusten ta sentidoes sentitzen diren gaiak?

ERR. Aiek dire ogi-ardoan itxurak edo akzidenteak, kolorea, zaporea, bultoa, etc. beren sustanzia gabe).

GALD. Beras, ori da milagro andi bat?

ERR. Milagroen milagroa da, Jangoikoak egintuen guzien andiena.

(M. Bai, ogi iduri eta ezta ogi; ardo iduri ta ezta ardo; iduri gorputzaren eta izaki arimaren; orgatik da Sakramentu admiragarri, señale sagratu sekreto ta fedearen misterio; ezta gure gorputz astoaren, ta ala ez in kasorik gorputzaren sentidoes senti denas emen, baizik Jaunaren itzas, amoreas eta podoreas, nai baitu ta baitezake egin gure onetan guk entenda ta pensa ala baño iago. Gure amarez jautsi zenak zerutik, gizon in zenak ta bere bizia eman zuenak gurutzean gure amarez, nai gaitu erregalatu bere gorputz eta odol propioeki aldareko sakramentuan. Fedeara beira, gogoas xega ta amoreas txastatzen da, etc.).

GALD. Zer dispozizio edo zenbat gauza bear da ongi komekatzeko?

ERR. Bida, bat arimaren aldetik, grazian joatea; berzea gorputzaren aldetik, barurik joatea.

(Naiz erran bida, suponitzen dire berze bida, baitire jakitea zer errezibitzen den an eta debozio eramatea:

Orra laur ia, laurok koplatxo gontan:

1. Arima garbirik,
2. Gorputza barurik,
3. Zer den ikasirik,
4. Debozioa bizturik.

GALD. Senti duenak konzien zian bekatu graberen bat, zer in bear du komekatzekos?

ERR. Konfesatu lenik, eta ezta aski kontrizioa, daikelaik konfesa.

GALD. Komekatu-alzineko oraziotxo nola da?

ERR. Jauna, ni ez naiz digno orren Majestadearen errezipituzeko; baizik solamente erran bedi orren itz sandua eta ene arima izanen da sana ta salba).

GALD. Zertako da oliatzea? (Edo Olio Sanduaren Sakramentua, edo Oliadura deitzen dena?).

ERR. Irur gauzatak: lenbizikoa, kentzeko lengo bekatuen erreptoak edo efektoak; bigarrena, emateko arimari konfianza ta indar tentazioen kontra; irugarrena, emateko gorputzari alibio ta osasuna ere, konbeni barin bada.

(M. Agi daike ere barkatzea mortaleak atriziosko doloreareki, ustez duen kontrizio; ta ala ezpaleike errezipitu berze Sakramenturik, ta au bai, bear da errezipitu au ezaumentura ellegatuas geros, baitare duda delarik ortas, etc. Et si in peccatis sit, remittentur ei. Jacobi cap. 5.).

GALD. Zertako da ordenatzea edo Orden Sagratuaren Sakramentua?

ERR. Konsagratzeko Elizako ministroak eta sazerdoteak.

GALD. Zertako da Matrimonioaren Sakramentua?

ERR. Ezkontzeko ta ezkondueri emateko grazia, bizi daitzen bakean elkarreki ta azi dezkiten humeak zerurako.

(M. Sakramentu guziek obratzen dute grazia Jesu Kristoren birtutez, errezipituzentutenen disposizioaren ariora).

## (PREBENZIOA KONFESIORAKO

Lan ona da ongi konfesatzea, eta bataiatuas geros bekatu in duenarendako ori da erremedio bakarra ta bigarren bataio-gisa bat neke-kara; baña ain preziso nola bataio lenbizikoa eztaudenendako bataiatu. Borz gauza bear direnetaik ongi konfesatzeko, prinzipalena da dolore fiña. Agi daike barkatzea bekatuak examinarik gabe, konfesorik ta absoluziorik gabe lanze ertxietan, izanik dolore perfektoa biotz-barnean; baña dolorerik gabe sekulan ez, naiz absoluzioa eman Aita Sanduak. Baña nola erdetxi dolore goi? Jangoikoai eskatus, Jangoikoak emanen ta bakotxak bere aldetik egines. Ona examinatuan ondoan in daiken

## ORAZIOA KONTRIZIOAREN

O ene Jangoiko ona ta ene Jesus amorosoa, ni bekatu iteko banaiz sobra ere, baña ez naiz erremediatzeko gaizki egin, ezeta penatzeko ere ongi. Eman bezada berorrek, otoi, argi eta su biotzean, ezauntzeko ta erretzeko penak. Ah! Nola nindeiken izan ta nola galdu naizen! Ah! Ezpanu beñere bekatu egin! Ah! Il banitza lenago ezi egin ene Jaun onaren kontra! Zer gaizki egin zida niri orren Majestadeak? O ene amazale bakarra, gaizkirik eztida egin, ez, bai ongi sobra ere. Onetsi nau beti sobra ere ta enegatik jautsi zerutik, eta egintu amoresko exzesoa ilartaño gurutzean enegatik. Nor norengatik? Arrazio iago ze ilneien ni berorengatik. Ala in bear nue, ta ala ere ez nio pagatuko millataik bat. Eztut in ori ere. Bear nue bentzait egin orrek manatuak plazer eman naies. Ori ere eztut egin. Bear nue bentzait biotzas amatu ta estimatu, etc. Eztut in ori ere. Bentzait ofenditu bear ez nuen. Ori bai in dut sobra bai, sobra ta neure kaltetan. Oh! Gaizki egin! Oh! Aita onaren hume gaixtoa ni! Aitaren etxean negokelaik ongi erregalaturik, hume prodigoaren gisa utzi ene Aita ona bere erregaloekei, Ejiptoko elze ta tipula ta porru ta farraskerien amores! Oh! Zenbat nirabe dauden nere Aitaren etxean nauten guziareki ta ni, etc. Aita, bekatu egin dut

berorren ta zeruaren kontra! Ia ez naiz digno dei nazaten orren hume; nirabeetaik bat bekala in benaza. Barka bezada, otoi otoi, ta eztagola ene kontra. Confitebor tibi in cithara, etc. Konfesatuko diot beti orren ona ta nere gaixtoa; orren noblea ta nere txarra; orren amorea ta nere desamorea, etc. etc. etc. Quaretristis, etc. Spes, etc. O edertasun, ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! O ene Jaunaren on amablea, zein guti amatu duten! O amore izan didana, zein gaizki pagatu duten! O gusto soberanoa, zein guti gozatu duten! Zein gusto txarra izan duten! Etc.)

(GALD. Nola bear da ellegatu konfesatzera?

ERR. Humil, modesto, erreberente, ala nola kulpante, barkazio eske, Jangoikoaren lekuan dagonagana. Ellegaturik zeñatu ta erran espazioreki: Ni bekatorea, etc., ta bularra golpatus itz gaiek siñki: Jauna, enea da kulpaa, enea da, etc.

Konbeni da akostunbratzea erratera galdegin gabe: Aita, onenberze denbora du konfesatu nitzala, ene ustes ongi, edo faltatu nue, etc. Kunplitu nue penitenzia, examinatu dut konzienzia ta eldu naiz penaturik ofendituas ene Jangoiko-ona, etc. Aurkitu dutena konfesatzeko da, alako mandamentuan au ta au; berzean berze gau etc. etc. Ala bildurik tuenak, egiten da brebeago ta aisago konfesioa, utzis mandamentu gaiek, zeñetan ez tuen aurkitu deus; baña examina in bear da guzietan bat banaka. Baña ezpadaki edo ezpada akomodatzan erratera bereganik, eska dezoke, galdegin dezola konfesoreak eta joan errespondatus egia beti, dena den bekala; beti bere kontra gezurrik, atxekiarik ta in gura-minguraik gabe. Naiz alke den, garaitu bere arimagnetik edo erran: Jauna, alke dut. Animatuko du konfesoreak, etc. Gero aditu atento erratentionak. Penatu ongi gaizki eginas, orreki guzia kitto, etc. etc.).

#### (M. KOMUNIONERAKO PREBENZIOA

Debozioaren sua itxekitzen da FUKA. Itztto gontan tuzu laur letra mostratzeko laur afekto: F. Fedea, U. Humiltasuna, K. Kontriziosko dolorea ta A. Amorea.

Fedea 1. Jesus da, sinesta, arima.

Humildadea 2. Humilla zaite zarenas.

Kontrizioa 3. Indigna zu ta urtu penas.

Amorea 4. Baña Jesus da: ama, estima.

#### PERSONA SENZILLOAK PENZA BREBE AISA ALA

1. Fedea. Orai nainuke nik errezubitu ongi Sakramentu admirable goi. Biz eneki Jangoikoaren grazia. O Jesus ona. Nik sinesten dut firmeki, dagola Sakramentu gortan ain errealki nola zeruan bizirik ene Jesu Kristo; Jangoikoaren Seme bakar gure Jauna, zein izan baize konzebitua Maria Santisimaren entraña sanduetan Espiritu Sanduaren obras ta birtutes; jaio zena Birjina Mariaganik, pasatu zuena pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian, guruzifikatu zutena, iltzena, ortzi zutena, jautsi zena linboetara, il ta irugarren egunean erresuzitaturik berriro biztu zena bere birtute propios, igan zena zeruetara ta an dagona jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean ta andik etorriko dena ilen eta bizien juzgatzer. Sinesten dut au guziau eta bitarteo dagola presente miragarriro Sakramentuan, altxaturik nola ene arimaren Esposo amante dibinoa, erregalatu naies bere gorputz odol preziosoeki. Sinesten dut, o Jesus, biztu bez ene fedea.

2. Humildadea. Baña nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea berori enegana? San Pedrok zio: Jauna, aparta eneganik, bainaiz gizon bekataria. Zer errain dut nik? Diot berori dela ona ta onegia, ni gaixto esker-gaitza; berori noblea, ni txarra; berori garbi

ederra, ni itsusia; berori gloriako errege, ni esklabo etc. Diot, Jauna, eznaiz zela digno orren Majestadea errezibitzeko; baña erran bedi bere itz sandua ta nere arima izan daiela sana ta salba, etc.

3. Kontrizioa. O Jesus, amatu barin banu bentzait nik orren Majestadea; baña ofenditu dut malamente sobra, bai, sobra. O Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, berori denagatik infinitoki ona ta amablea, damu dut ofenditua, dut damu milla aldiz. Proponitzen dut ez berriz bekaturik egitea ta apartatzea bekatuen okasio guzietatik, etc., etc.

4. Amorea. Esperanza dut barkatzen didala, baitu bere gloria ta sendagalla barkatzean. Esker milla. Amaten dut, nai dut, maite dut nik berori ene biotz guzias, arima guzias, entraña, indar, etc. Amaten dut iago ezi guziak, iago ezi ondasun, honra, gusto, erregalo, mundu, gloria, etc. Amaten dut ta nainuke amore fiñ ta ziñareki, amore fuerte, firme, efikaz, perfektoareki. Amaten dut ta nainuke amatu afektoas, efektoas, perfektoas osokiro; afektoas, paratus ortan ene arimaren afizione ta potentzia guziak, memoria oroitus, entendamentua pensatus, borondatea nai izanes sollik nai duena berorrek, ta biotza konsumitus orren amores; efektoas, obratus, trabajatus, nekatus, egin ta desegines nola duen plazer; perfektoas, padezitus, bukatus, iles sakrifikaturik orren amoretan. Amaten dut ta nainuke orren amores bizi ta il; ojala balitz orren amorea izpiritua zeñeki bizi naieni eta sukarra zeñeki konsumi naieni. Amen. Amaten dut ta nainuke amatu nola Santa Teresak, nola N. eta N., nola sandu guziek, nola aingeruek, nola serafinek, nola Maria Santisimak. Amen.

Amaten dut ta nai dut ama dezaten biotz guziek goiti ta beiti leku ta denbora guzietan. Amen.

Amaten dut ta plazer dut ama dezaten sandu guziek ta biotz prestu guziek, ta niork ez ofendi. Amen.

Amaten dut ta pena dut ez amatzeas ta ez ezauntzeas berorren ona munduan anitzek ez bear bekala. Eta alako itsuen numero infinitoan kontatu naiz ni ere. O edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! etc.

Amaten dut ta nai dut amatu pasioneen bortxaz ere, deabruen ta kontrario guzien bortxaz.

Amaten dut ta pena dut ez iago amatzeas. Ama bezate ene partez arima prestu guziek.

Amaten dut ta ama bedi berori ene biotz goneki; bere biotzeko suan erre bez nere gau. Amen.

3. Deseoak. O ene Jesus ona, ez nuke bada nai ofenditu nik orren Majestadea komunione gontan, bai plazer egin berorri ta probetxu ene arimai. O nork luken sanduen dispozizioa! O nork lezaken errezibitu ain ongi nola bere Ama Santisimak! Ene partez ofratzentiot beraren ta sanduen merejimentuak. Guzien gañetik supli bez berorren on onegiak, etc. Amen.)

#### (M. KOMEKATUONDOAN ESKERRAK

Oroigarritako biz koplaxo gau.

1. Ongi-etorria da lenik,
2. Sinetsi, 3. Onetsi, 4. Laudatu,
5. Dena eman, 6. Nai dena eskatu,
7. Ofratzea da azkenik.

Erretiraturik bere lekuan, begiak ertxirik ta arima guzia bildurik bere Jaunareki, dezoke erran:

1. Ongi-etorria dela bere pobretto gonengana ene Jesus onegia, gloriako Errege ta ene arimaren esposo! Ain podoroso ta ain amoroso! Ain andi ta ain txipi! Ain gora ta ain apal! Ain admirable ta ain amable! Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea Jesus N. gana? Ain andia ta ain txipi Jesus ori enegatik; badakusat zergatik, amorosteagatik ni. Bada, ongi etorria dela.

2. Sinetsi. Zeren ezi, naiz ezin ikusi, bear dut sinetsi ta sinesten dut firmeki, dagola ene barnean sakramentuan ene Jesus ona, Jangoiko ta gizon egiaskoa, izan zena konzebitua Espiritu Sanduaren, etc.

3. Onetsi. Nola dezoket paga? Emen eztu aurkituko baizik bearra ta borondate ona. Oneki amaten dut ta estimatzen biotz guzias, arima etc.

4. Laudatu. Eztut zereki, ezpada afekto ones. Milla milla esker ta laudario ta bedeizio. Bedeika ta lauda bezate aingeruek ta sanduek ta bere Ama Santisimak. Bedeika ta lauda bezate zeruek ta lurra ta orietan diren gauza guziek. Bedeika ta lauda bezate gizonek espezialkiro, zeñen faboretan in baitu ainberze fineza ta exzesu amoresko iltartaño gurutzetan ta emanen jatera bere gorputz prezioso. Bedeika ta lauda bezate arima on guziek, baitare nere arima pobreak, ene potenziak, ene biotz ta entraña guziek, bizi guzian orai ta gero eternidadean.

5. Dena eman. Jauna, ia ke ta etorri den enegana, ar bez posesio nitas ta nere gauza guzies betikos; entregatzeniot emengo giltza guziak. Ematzeniot nere arima, gorputza ta biotza; ene libertadea, memoria, entendamentua ta borondatea; nere bizitza, iltzea ta eternidadea; guzietas disponi bez, egin ta desegin bez nola duen plazer jabe ta jaun bekala; mana bez errege bekala; orren palazio biz ene petxo, biotza, trono, potentzia ta sentido guziok orren menpeko, neurau orren pregonari, klamatzen dutela, biba Errege, biba Jesus.

6. Nai dena eskatu. Berorren oñetan paraturik auspeska adoraten dut ta eskatzen lenik bekatu guzien barkazio ta bere grazia ez nazan utzi erortzera beñere desgrazian, ken dezki dan bizio ta inklinazio gaixtoak, eman birtuteak, humildadea, kastidadea, mansotasun ta pazientzia, fede, esperanza, karidadea ta gañarakoak. In benaza gizon berri bat orren gustora guzia. Azkenean perseberantzia finala ta iltze ona. Oraidanik uzten dut orren eskuetan ene arima. Eskatzen ere diot ene kontra direnen fabore, ene aide, adiskide ta obligazioskoen gatik, kristiandade guziagatik, baitare purgatoriokoengatik, etc., etc., etc.

7. Ofra, etc. Ofratzen diot Trintate Jaunari Jesus bitarteko bakarra, etc. Maria Santisimari bere Seme dibinoa, etc. Sandueri N. eta N. Aingiruei, guardiakoai etc. O Jesus, orren bedeizioa niri; ori nerea, ni orrena.

## MEZAREN OFREZIMENTUA

O gure Jangoiko Jauna, emen berorren presenzian Eliza Ama Sandareki ofratzeniotu meza sandu gau eta ontan sakrifikatzen den axuri dibinoa, Kristo Jesus onegia, geuren biotz guzieki beraren pasio ta eriotzearen memoriatan. Amen.

Biz Jauna, alaber, orren honra, gloria, plazer ta esker milla millatan. Amen.

Biz, alaber, Ama Birjinaren aingeru ta sanduen obsekio, gozo ta gloriatan. Amen.

Biz, alaber, purgatorioko arimen, berexki gure obligazioskoen sufrajiotan. Amen.

Biz, alaber, mundu guziaren onetan. Amen. Bekatariei logratzeko piedade ta barkazio, justoei graziaren aumentu, zortugun penaen satisfakzio, gaitz guzien erremedio ta on guzien erdetximentu bear guzietan. Amen.

Nai dugu, Jauna, emen asistitu sakrifizio gontara daiken modurik obenean, Eliza Ama Sandaren intenzioaren konforme, aingeruen konpañian, Jangoikoaren aitzinean, Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

#### GOIZOROKO DEBOZIOA

Idatzarri-orduko len lenik oroitu Jangoikoas eta erran gogoan: Bedeikatua biz ene Jaun ona, guardatu bainau ta ellegarazi bizirik egun gontara. Esker milla milla.

#### OFREZIMENTUA GOIZEAN ADORAZIOA

O Jangoiko Jaun andia, guzien Jaun ta Jabe dena ta leku guzietan presente dagona, ta emen ere bai niri beira; nik lurreko artto gonek humil humila sinesten, amaten ta adoratzan dut berorren Majestadea, sandua, sandua, sandua; bere glorias beteak daude zeruak ta lurra. Biba ene Jauna. Amen.

#### ESKEA

Biotzez damu dut ofendituas orren Majestadea. Barkazio eske nago. Barka bezada, otoi Jauna, barka bezada eta aurki bez pobre gonek grazia orren begietan. Amen.

#### ESKERRAK

Esker milla diot egintidan faborees ezin konta ala, nik mereji gabe; zeren kriatu nauen, erredimitu, kristiatu, guardatu ta infinizio bat maneras ongi egin eta orai ellegarazi egun gontara. Biz orren zerbitzuko. Amen.

#### OFREZIMENDUA

Ofratzentiot eta sakrifikatzen neure persona, arima ta gorputza; neure obra, itz, pensamentu, afekto, trabaju, mogimentu ta gauza guziak, egungoak ta betikoak, bizitza ta eriotzea berorren amoretan. Amen.

#### OTOITZA

Baña nola deus onik ezpaitezaket nereganik, eman bezada, otoi, bere grazia, ez dezoten desplazer egin deustan ere, bai plazer al guzia guzietan. Amen. (Irur Aita gure ta irur Gloria).

#### MARIA SANTISIMARI

O Birjina Maria, Jangoikoaren Ama ta ene Ama Santisima, kuida bez nitas bereas bekala, bizi ta il nadien Jaunaren ta berorren amorean ta ez dezaten kontra egin sekulan. Amen. (Irur Abe Maria).

#### AINGERU GUARDIAKOAI

O Jangoikoaren Aingeru ona, pobre gonon guardian dagona, bada, beraren piedadez orren anparoan nago ni, guarda, goberna ta kida benaza egun eta beti. Amen. (Aita gure ta Abe Maria).

#### SANDUERI

O zeruko sandu ta sandak, berexki egungoak, otoitz in bezate enegatik ta logra

bezadate anitz grazia, zerbitza dezoten orien gisara nik ere gure Jaun Jangoikoari obras, itzes, biotzes, ala bizi ta il naien beraren amores, ta ellegatu gozatzeria orieki zeruan. Amen. (Aita gure bat. Arimengatik berze bat. Iltze on batengatik berze bat eta Gloria Patri, etc.).

\*Bedeika ta guarda benaza Jangoikoak guzis poderoso ta miserikordioso denak, Aitak ta Semeak ta Espiritu Sanduak. Amen.

#### ORONAK EMATERAKOAN

O Jesusen Ama ederra, biz bedeikatua ordu gura noiz eguzkirik obena ekar zinduen mundura. Abe Maria ta Gloria, etc.

Jangoikoa amatzen dut, kontra eginas damu dut, ordu gontaik ia betikos guzis amatu nai dut. Amen Jesus.

#### ARGI-EZKILAK, EGERDI TA ILUN-EZKILAK SOÑATZERAKOAN, ORAZIOAK

1. Jangoikoaren aingeruak mezu emanik, konzebitu zue Mariak Espiritu Sanduaganik. Abe Maria.

2. Ona Jaunaren esklaba. Egin bedi nereki zuk erran bekala... Abe Maria.

3. Eta Jangoikoa gizon egin ze eta gutartean bizitu ze... Abe Maria.

Orazioa. Erauntsi bez, otoi Jauna, gure arimaetan bere grazia; orreki, dakigunek bere Seme Jaun Jesu Kristoren enkarnazioa aingeruaren mezus, beraren pasio ta eriotzearen medios ellega gaitzen erresurrekzioren gloriara. Kristo beragatik. Amen.

#### MAIAREN BEDEIZIOA EUSKARAS

Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

Jauna bedeika orrek gu ta bere eman gebek berorren eskutik artu beartugunok. Kristo gure Jaunagatik. Amen. (Aita gurea, Abe Maria ta Gloria).

Gloriako Errege Jaunak egin gaizala zeruko maiaren partizipante. Amen.

#### JAN ONDOREAN, GRAZIAK

Aitaren ta Semearen ta Espiritu, etc.

Ematentiogu graziak bere mertxede guziengatik, Jangoiko Jauna guzis poderoso, betiro bizi ta erreinatzen dagona. Amen. (Aita gurea. Ama Birjinaren honratan Abe Maria. Iltze on batengatik Aita gure ta Abe. Purgatorioko arimengatik Aita gure, Abe ta Gloria).

#### AZKENEAN

Mantenatzen gaituenak lurrean, bedeika gaizala zeruan. Amen Jesus.

#### KONZIENZIAREN EXAMINA GAUORO

1. Graziak. Esker milla, ene Jangoiko Jaun ona, bere infinizio bat fabore intidanengatik, berexki zeren guardatu nauen egun ta ellegarazi gau ontara bizirik. Biz berorren amore ta gloriatan. Amen.

2. Eskea. Eman bezada, otoi, bere argia ta sua, ikusteko, ezauntzeko ta sentizeko nere gaizki-eginak eta faltak, ta logratzeko barkamendua ta grazia. Amen.

3. Examina. (Emen egon guti bat pausaturik errepasatzen nola pasatu duen egun ontan, nola portatu obra, itz, pensamentu, etc.).

4. Kontrizioa. Jesu Kristo ene Jauna, etc.

5. Satisfakzioa. Kredo. Nik sinestatz

Aingeru guardiakoaren obsekioan Aita gurea ta Abe Maria. Berze bat sanduen. Berze bat arimen. Berze bat iltze onaren.

Antifona. Salba benaza, Jauna, nagolaik idatzarririk; guarda benaza, nagolaik lokarturik, Kristoreki beillan nagon ta errepausa bakean.

V. In bezada, Jauna, gaur mertxede.

R. Guardatzeas ni bekaturik gabe.

V. Izan bez nitas, otoi, miserikordia,

R. Nago konfiaturik; Jauna, miserikordia.

Orazioa. Bisita bez, Jauna, leku gau ta aparta emendik urrun etsaiaren gaixtakeria. Beude gureki berorren aingeru sanduak, zeñek guarda gaizaten bakean; ta orren bedeizioa biz beti gure gañean, Kristo gure Jaunagatik. Amen. Bedeika ta guarda benaza, etc.

Errosarioa euskaras misterioen memoriaeki

#### OFREZIMENDUA

O Jangoikoaren Ama Santisima ta guzien erregina, ofratzen diot errosario gau misterio sanduen memoriaeki, Jangoikoaren gloria ta berorren obsekioan, eskatus humilki Elizaren onagatik, gaizkien akabanzagatik, fede ta birtute kristioen aziteagatik, baitare niri logradezadangatik bizitze on bat ta iltze prezioa Jangoikoaren presentian berorren anparoareki tranze gartan, grazia emen, gloria an. Amen.

Deus in adjutorium, etc. Gloria Patr, etc.

Maria, graziaren ta miserikordiaren Ama, etsaietatik libra gu ta bear orduan anpara.

#### ASTELENEAN TA ORTZEGUNEAN MISTERIO GOZOSKOAK

1. Lenbiziko misterioa: Kristoren enkarnazioa.

V. Jangoikoa inda gizon-birjin Amaganik:

R. Jauna ofendituas nago penaturik.

2. Bigarren misterioa: Ama Birjinaren bisitazioa.

V. Jesus ta Amak San Juan-beira sanduturik:

R. Jauna ofendituas-nago penaturik. (au aldioro).

3. Irugarren misterioa: Jesu Kristoren jaiotzea.

V. Belengo aur andia-beira paxaturik. R.

4. Laugarren misterioa: Ama Birjinaren purifikazioa.

V. Jesus ta Ama tenploan-beira presentaturik. R.

5. Bortzgarren misterioa: Tenploan aurkitzea Jesus amabi urtetakoa.

V. Tenploan gelditu-Jesus ta aurkiturik. R.

#### ASTEARTEAN TA ORTZILAREAN MISTERIO DOLORESKOAK

1 Baratzean Jesusen orazioa ta preso arzea.

V. Odol izerditan-Jesus eta loturik.

2 Jesusen azotatzea loturik kolumnan.

V. Jangoiko den gura-beira azotaturik.

3 Aranzees koronatzea Jesus.

V. Aranzees korona-beira frinkaturik.

4 Gurutzeareki soñean Kalbariora joatea.



- V. Guruzeareki doa-erorka akaiturik.
- 5 Guruzifikatzea ta iltzea Jesus.
- V. Gurutzean Jesus il da akabaturik.

#### LARUNBATEAN, IGANDEAN TA ASTEAZKENEAN MISTERIO GLORIOSOAK

- 1 Jesu Kristo erresuzitatu ta berriro biztea.
- V. Beira berez Jesus-berriro bizturik. R.
- 2 Jesusen igatea zerura glorioso.
- V. Apal duzena beirargora goraturik. R.
- 3 Espiritu Sanduaren etorria.
- V. Espiritu Sandus-utzitu suturik. R.
- 4 Ama Birjinaren Asunzioea, zeruratzea.
- V. Semeak Ama du-eraman arturik. R.
- 5 Ama Birjinaren koronatzeta Erregina.
- V. Beira Ama Erregina an koronaturik. R.

Ave filia, Dei Patris; Ave Mater, etc. euskaras

Agur Maria, Jangoiko Aitaren alaba.  
 Agur, Jangoiko den semearen Ama.  
 Agur, Espiritu Santi Jaunaren esposa.  
 Agur, Trinitate Jaunaren tenplo ta sagraio zarena. Agur, Birjina garbi garbia,  
 bekatu orijinalaren mantxarik gabe konzebitua. Amen.

Jesus onak iltzerakoan Amari erran San Juanes: Ona zure Semea; eta San Juani:  
 Ona zure Ama. Sandu gartan entenda Kristio-gende guzia eta erran diona San Anselmok:  
 O konfianza ditxosoa! O anparo seguroa! Jangoikoaren Ama ta gure Ama! Mostra bez  
 dela Ama. Mostra zuk ere zarela beraren humea.

Amar mandamentuak koplatan

- 1. Sinetsi, onetsi, fiatu Jangoikoan ta adoratu...
- 2. Juramenturik banoan ez agoan ta ez gogoan...
- 3. Eman jaiak ta igandeak Jaunari, nola bereak...
- 4. Aitetames humeek kuida ta ebetas aiek...
- 5. Niori gaizkirik ez-obras, itzez, biotzez...
- 6. Garbi naitu Jangoiko onak — gorputz ta ariman personak...
- 7. Ez ebatsi ta ez desea — eman bai nori berea...
- 8. Ez pensa, ez erran gaizkia — bai ongi beti, ta egia...
- 9. Ez dezazula desea berzeren — bizikidea...
- 10. Gauza batere ez desea — baizik bakotxak berea...

Meatxuak auxtentuztenei

1. Jangoikoaren konforme ezpagara,  
geren kontra ai gara ta galduak gara...
2. Non den maldizio maiz ta juramentu,  
ezta faltako malhur ta eskarmentu...
3. Lan eginen auxten baituzu jaiak,  
galdu zuk ta irabazten zure etsaiak...
4. Hume ta buratso onek bedeizioa,  
gaixtoek kontra dute maldizioa...
5. Gaitz naiba diozu proximoari,  
gaitz iago in duzu zeure buruari...
6. Nork uzten Jauna luxuriagatik,  
galtzen du on guzia ongarriagatik...
7. Abratstu naia lakioan tratatzen da,  
dio San Pablok: ta nola atratzen da?
8. Berzeak juzgatzen ta murmuratzen,  
gogorki, zeuroi zara kondenatzen...
9. Berzeren bizikidea ez desea,  
ezpauzu nai galdu arima zurea...
10. Kendu nai ta ez eman nori berea,  
duzu infernurako laster bidea...

#### Abe Maria koplatan

Agur, o Maria, — grazias betea,  
O miragarria, — Jaunaren maitea,  
Jauna da zureki, — zu zara berea,  
Emasteetan berexki.

Bedeikatua zu — zara guzietan,  
Ta da bedeikatu — bai zure entrañetan  
Fruitu logratua, — Jesus zeruetan  
Gora gora goratua.

Santa Maria Ama — Jangoikoarena,  
Nola Ama zuk klama — bekatariena  
Gure faborean – len ta gero on dena  
Bearren bearreanean. Amen.

Oh! Esperanzaren — ona ta alegrea,  
Dena Ama Jaunaren — dela Ama gurea!  
Baitu podorea, — baitare amorea:  
Ezin falta faborea.

Balitz bat berere — zuri eskaturik  
Utzia beñere — desanparaturik,

Zure piedadeak — arrek mututurik  
Ez aipa miserableak.

Oroi zaite bada, — eztela ez aditu,  
O gure Abogada, — nior akuditu  
Zugana duenik — duzula despeitu  
Sekulan uts zureganik.

### Salbea koplatan

Agur erregina, — ta Ama piadosa,  
Bizitza dibina, — gozoa gustosa,  
Esperanza segur, — Amante amorosa,  
Bedeika zu Jaunak, agur.

Zuri gu klamatzen — desterru tristean,  
Zuri suspiratzen — ai ta negarrean,  
Ebaren humeok — negarren ballean,  
Ama, beira gu pobreak.

Ea, orai bada — zuk zeure begiok,  
O gure Abogada-beratx onegiok  
Gure gana biur, — orreki guziok  
Ongi gauden — eta segur.

Noiz desterrua guk — utzi bukatua,  
An guri mostra zuk — Jesus ematua,  
Zure sabeleko — fruitu doatsua,  
Zerura gu manatzeko.

O klementisima! — O! urrikaria!  
Eta o dulzissima — Birjina Maria!  
Jangoiko denaren — Ama sanda andia,  
Etxokandre zeruaren.

Eska zozu beras, — Ama, guretako,  
In gaitzan egiaz — digno beretako,  
Dezkigun fruituak — logra sekulako  
Jaun berak ofrezituak. Amen.

### Regina coeli: Euskaras

Zeruko erregina, — alegra zaite ia,  
Zeren zuk egina — semea biztu da,

Nola berak erran — eska zuk, ordu da,  
Berai gure faboretan.

Penen ariora — zinduza gozoak,  
Zu bere gustora — Jaun amorosoak  
Ama konsolatu, — ta poderosoak  
Zinduzan erregalatu.

Ea, pasatu da — ekaitza ta andia,  
Bai ta ellegatu da — on eguraldia,  
Beira doloroso — len Jaun onegia,  
Orai beira glorioso.

Zein diferente zen, — odolestatuak  
Llagak apatu len; — gloriaztatuak  
Orai apatzea! — negar pasatuak  
Gustoeki pagatzea!

Ea bada Jesus, — ea zuk Maria  
Amorearen sus — ni brasa gorria  
Itzuli; nitzana — ikatz itsusia,  
Nagon beti biengana.

Ia nere enplegua — Jesus ta Maria,  
Nere sosegua, — ta nere alegria,  
Ta ondasun guzia, — ta au nere bizia,  
Ta grazia, ta gloria — Amen.

#### Sacris solemniiis euskaras

Jai andi andias — biz alegranzia,  
Ta biotz garbias — kantatzeko ansia:  
Despei ia lengoas; — berri biz guzia,  
Obrak, bozak ta gogoak.

Zelebratzen dugu — azken afaria,  
Non Jesus baitugu — jaten axuria  
Apostolueki, — baizen iduria  
In denarena berareki.

Aren ondorean — axuri bizia  
Inik amorean — Jesus onegia  
Eman da amabiei, — bakotxai guzia,  
Eta guzia guziei.

Eman da pobreei — gorputza janari,  
Eman da tristeei — odola edari,  
Naiz iduriturik — ogi ta ardoari,  
Jesus bera da altxaturik.

Jesus bera emanik — guziek ar zaze,  
Berak ala erranik, — jan eta edan zaze;  
Iten duzietan — betiro egin zaze  
Au ene memorietan.

Ta sakrifizioa — ala fundaturik,  
Onen ofizioa — dago manaturik  
Sazerdoteeri, — ta berek arturik,  
Emateko guzieri.

Ogi zerukoa — Jangoiko gizona  
Inda mundukoa — donoen korona!  
Gauza admirableak! — jaten du Jaun ona  
Pobre ta miserableak.

Trintate Jauna zu — Jesus onareki  
Laudatzenzaitugu — gogo ziñareki  
Oraiko bizian, — segitzeko beti  
Eternidade guzian. Amen.

(«Pange lingua») Euskaras au

Kanta, mia, glorioso  
Jesusen onegia,  
Gorputz-odol prezioso  
Emanen geiegia,  
Bera eginik amoroso  
Erregalo berria.

Gure errege den gorenak  
Sabel birjinalean  
Gorputz odol in zirenak  
Emanik gurutzean,  
Kontino emen oroipenak  
Ematentu aldarean.

Guri eman da, guregatik  
Gorenaren Semea  
Amaren entrañetatik  
Jaio ze, ta gurea

Beti izan, ta ilda orgatik  
Gure amores betea.

Erakusten ta manatzen  
Salbatzeko bear dena  
Beti egon da, ta paratzen  
Faboreak beti obratzen,  
Ta azkenean obena.

Azken arrats ta afarian  
Jarririk bereeki,  
Kunpliturik ia guzian  
Lengo legeareki,  
Bera eman da janarian,  
Bera bere eskueki.

Ogi ta ardo len zirenak  
Gorputz odol bereak  
Itzulitu dezakenak  
Jaunaren podoreak,  
Gozatzentu emen direnak  
Fedeak ta amoreak.

Sakramentu gau gorena  
Guzis benera zagun  
Ontan gure amanteena  
Jesus ona ama zagun,  
Zenzus ezin datekena  
Fedes supli dezagun.

Trintate Jaun andiari  
Biz denbora guzian  
Kanta milla ta laudazi

Goitian ta beitian,  
Ta esker milla biz berari  
Emen eta glorian. Amen.

Hostia goratzean orazio in daikena

O Jesus, o ene Jesus amable on onegia, ongi etorria dela. Nik sinesten, onesten ta adoratzen dut presente errealki orren Majestadea Sakramentu admirable gortan, naiz begis ezin ikus. O ene Jesus, berorrek ikusten nau ni itsu pobretto gau, beira bezada piadoso, ta Jangoikoaren amores limosna bat. Zer nai duten? Ellega nadien ikustera bere glorian, bitartean beti berorren grazian ta amorean emen. Amen. Ene Jesus, eztututziko eman arteo

bere bedeizioa ta baimendea.

Kaliza goratzean edo ondorean

O Aita eternoa, orra berorren Seme onetsia, zeintan baitu bere konplazentzia ona. Beira bez, adi bez gure faboretan. Orra beraren odol prezioso dagokio klamatzen gure alde, ez justizia, baizik miseriakordia, piedade, induljenzia, grazia ta gloria, malogra-eztaien prezio infinito balio duen gura, zeñeki erreskatatu ginduzan, etc.

Exenplutxoak doktrinarako

## 1. ERAKUSTE TA IKASTEAREN

Jesus len lena zerutik lurrera jautsirik erakustera zerurako bidea, amabi urtetakoa zelarik aurkitu ze tenploan erakustunen erdian aditzen ta galdegiten doktrina. Eta Amari billa ibili zenari erran zio: Etzekite bear naizela ni enpleatu ene Aitari dagozkion gauzetan? (Luc. 2).

Eta aurrak apartarazten zuztenei erran zio, uzkie txipitook datozin enegana, ezi alakoena da zeruetako erreinua. Eta besarkatus ta gañean eskuak paratus, bedeizioa, etc. (Marc. 10).

Bere despeidan manatu zio apostoluei: Zoazte mundu guzia barna, erakutsi jende guziera. Eta San Pedrori, uzten zuenari artzaiburu kristioen saldoaren, galdegin irur aldiz: Pedro, maite nauzu ni? Ta baietz ark errespondaturik, erran zio bere Majestadeak: Bada, kuida ene axuriak, kuida ene axuriak, kuida ene ardiak. Ardies bein dio; bi aldiz axuries. Bazka ene axuriak (Joan. 21).

Zerura iganik, an dagolaik Errege glorioso, agertu da emen aurren erdean auridurian amoroso, doktrina galdegiterakoan San Pedro Paskasiok, ta errespondatu dio nor den Jangoikoa, nor Aita, ta galdeginik Semeas: Ori naiz ni eta etorri naiz zuri faboratzera, plazer baitut ikusteas zu ene ofizio gontan (In ejus vita).

Ex. Indiako donzella bati Maria Santisimak berak agerturik erakusten ziola doktrina, kontatzen du Parrak. Eta artzai tonto bati bere Aingiru guardiakoak ari baten agos erranes orazioak (Parr. pl.1).

Ex. Gizon sandu anitz ta andiak enpleatzen zire erakusten doktrina Kristioa, San Gregorio M., San Agustin, San Anselmo, San Bizente Ferrer, San Ignazio, San... noiz akaba? Biz guzien partez gure San Franzisko Xabier, zein destinaturik Indietako apostolu ta Aita Sanduaren legado, ellegaturik an ta ikusirik infielen konbertitzeko zela estorbu andia kristioen galmendea, ta galmendearen kausa zela doktrina-gabea, onen erakustea izan ze bere lenbiziko enpeñua. Pregonari berri bat bekala, arturik txintxa bat, zebila karrikas karrika soñatus txintxa ta egines oius konbit humil, amoroso gau: Kristio fielak, Jesu Kristoren adiskideak, atozte ta biali zeuren hume ta nirabeak, ikastera doktrina Jangoikoaren amoreagatik. Au izan ze prinzipio ta zimendu bere obra miragarrien. Eta mostratzeko Jangoikoak zein quadrable zekion, bialis aurrak bere palo edo gauza bateki ta aiek erranes Aita gurea, sendatzen zire heriak, etc.

## 2. ERAKUSTEKO OBLIGAZIOAREN GAIN

Exenpl. Kontatzen du Aita Parrak, bildu zela Franzian obispoen konzilio bat ta prinsipio emateko enkargatu ziotela predikua sazerdote bati. Zego au ansiaturik pensatzen zer bear zuen erran. Jangoikoaren manamendus agerturik demonioak erraten dio: Au sollik da erran bear duena, infernuko ilunbeen prinzipieek milla goraintzi ta esker milla diote buratsoei ta arimen kargu-dunei, deskuido dutenas erakustean doktrina, zeren ignoranziatik datozi bekatuak ta bekatuetaik kondenazioak. Erran ori ta eziago. Eta jakin bez ni naizela demonioa ta Jangoikoak ala manatu duela. Ona señaleara: Pasatu zio eskuas aurpegia ta utzi zio ain beltz itsusia nola ikatza. Kolore goi etzaio kenduko erran artaño; baña erran orduko, egin ur bedeikatus elizan, ta geldituko da txuri ta garbi nola len. Guzia agitu ze, joan etc. (P.1. pl.21).

Ex. Santa Teresa gloriosak, Elizaren gloria denak, zerutik agerturik bere monja bati, galdegintzari, zein librutan leituko zuten, arturik eskuan doktrina kristioaren katixima edo kartilla, erran zio: Au da librua zeintan nauten nik lei dezaten kontino ene monjaek. Eta asi zekio sanda leitzen juizioaren artikulo fedeskoa boza lotsagarri bateki, ezpai zuke atzen asko egunes (T.1. cart. aviso 13).

### 3. KRISTIOAREN IZEN TA DIGNIDADEAREN GAIN

Ex. Kristiandadearen prinzipioan bataiatuak deitzen zuzte fielak, deituak, eskojituak, sinestazaleak, sanduak, baitare Nazarenoak. Antiokian gero asi zire nonbratzen kristioak, baita, oroat, nola Kristorenak (San Leo, S.1 de Sanctis Petro et Paulo). Gero gañetik katolikoak, au da, segitzen dutenak Elizaren guzia ta Aita Sandua.

Ex. Diakon bat (sic) deitzen zena Santo presentaturik Antonino Vero enperadorearen alzinean, galdegiten zio: Nola deitzen zara? Ark: Ni kristio. Zer ofizio duzu? Kristio. Nongoa? Kristio. Ezin atrarazi zio berze itzik tormentu guzieki, baizik: Ni kristio naiz Jangoikoaren grazias (Parr. pl.4 p.1).

Ex. Oroat kontatzen da San Blandinas, eta zion aldioro kristio naiz, senti zuela koraje iago berriro (In ej.v).

Ex. Santa Teresak kontatzen du, ezi laur alaba jaiorik ezkondu batzuei, borzgarrena jaio zekiotelaik, ura ere alaba, desplacer zutela ortas, eta ajola guti aren il edo bizias; ala irugarren egunean, kuidazaleak utzirik aurttoa, joan zirela dibertitzera kanpoan. Gauza bat inzute ongi, dio sandak, baize bataiatzea jaio ta berla. Itzuli zirelaik arratsean, bat oroiturik aurttoas joan ze lasterka ikustera, ta arturik eskuetan erran omen zio lastimas: Bada, ene aurttoa, zu etzara kristio? Aurttoak goraturik burua errespondatu omen zio klaro: Bai, kristio naiz Jangoikoaren grazias; eta gerostik ez omen zue atra berze itzik, etc. (Fundaciones c.20).

Ex. Dignidadearen. San Juanek errana: Kristo Jangoiko Gizona errezibitu duten guzi guziei eman diote potestade egiteko Jangoikoaren hume, baitire sinesten dutenak beraren izenean (C.1). Eta diona (1.c.4): Beira nolako karidadea in digun Aitak, dei gaitzen gu ta izan gaitzen Jangoikoaren humeak. Baitare San Pedrok diona (1.c.3): Zuek zarate jendaki edo kasta eskojitua, sazerdozio erreala, jende sandua, pueblo berexia, etc. Kristoren izenas burla iten badizie zori onekoak zarate. Zuetaik nior ez dezatela kastiga gaizkiegille, ladron ta alakoetaik izanes; baña padezitzeas kristio izanes, alketu ez, bai izen gortas biz gloria ta sendagalla (Ib.c.2. et 3).

Ex. Bataioa bigarren jaiotzea, graziarako emen ta gloriarako an, izateko errege koronatuak. Berrogei gara emen, zio soldado kristio gaiek, Jauna; Berrogei, alaber, izan gaitzela koronatuak. Baña bat desalaiturik, guardiak ikusi zue nola zerutik zekarzkiten 39



korona; ta zio berebaitan: 40 dire emen, berrogeigarrenaren korona non dago? Erran ta ikusi zue bat gura berexi zela. Sartu ze bera aien konpañian ta logratuzue korona berzearen, etc. Martx. 10.

#### 4. KRISTIOAREN SEÑALE GURUTZEA

Ex. Eliza guzia, baitama beti alzinean gurutzea bere funziõne guzietan, meza, bedeizio, orazio, konjurio, prozesio, prediku, sakramentu, errezu, lan ta iteko guzietan, zeren mostratzen baitu Kristo guruzifikatua, zeñenganik datorren on guzia etc.

Ex. Konstantino M. enperadorea zegolarik arrixko andian, izanik zerutik bisione bat mostratzen zekiola gurutzea ta aiturik erran zekiola in hoc signo vinces, señaleari goneki logratuko duzu biktoria, logratuzue. Eta bere Ama Santa Helenak joanik Jerusalem aurkitu zue an Kalbarioan gurutze gura bera zeintan iltzen Jesu Kristo; zeñen memoria ta adorazioa kentzeagatik, jentilek ortzi baizute bi ladronen gurutzeeki. Eta ezauntzeko zein zen iruretaik Kristorena, deklaratu zue Jangoikoak milagrosoki, ezi heri andi bati aplikaturik biek etziotelaik protxatu, irugarrenak sendatu zue instantean osoki. Gurutzearen señaleari españolek ere infinizio bat moroen kontra logratu zute biktoria, Tolosako Naba deituen lekuan 1212 urtean, deitzen baita gurutzearen triunfoa, zelebratzen dena Garillaren 16. Andik Santxo errege VIII. eskutarma kateak.

Ex. San Benitok formatu gurutzearen señaleari, onzi bat benenos eman ziotelaik, autxize onzia (In ej. v.) Ala da on kostunbrea zeñatzeko ta santiguatzeko jan edanen alzinean, baitare arrausia iterakoan; eta datorrela kostunbre goi, zeren izurri-aldi batean iltzen ziren arrausias ta ori izan zen erremedio.

Ex. San Martinek zio ausarki: Ni armarik gabe, solamente gurutzearen señaleari, trebe naiz pasatzera etsai guzien erditik. San Franzisko Xabierek goraturik besoa gurutzeareki, lotsarritu ta iges inarazi ziate anitz etsai armaturik etorri zirenei Indian.

Ex. Sandu gonek, berze anitzek bekala, beti zerama bereki gurutzea. Bein ustekabean erori zekio itsasoan, eta belauriko paraturik orazioan, ikusi zue karamarro bat burua goraturik eldu zela ta zekarrala agoan ta eman ziola eskura (In ej.v.).

Ex. San Luis Beltran iltzeko tiraturik batek eskopeta-ollarra, instantean itzuli ze gurutzearen figuran, egiteareki sanduak gurutzearen señaleari.

Persegitzen zuelaik infernuko etsaiak, paratzen zue sanduak bere gelako atarian gurutzea, ta ura egoten ze kanpotik ainkurias txakurra bekala (Ej.v.).

Ex. Santa Justina errendiarazi nai zutelaik arte gaixtos, defendatzen ze gurutzeas, garaitu demonioak ta konbertitu zue San Zipriano sorgin zena len (In ej. v.).

Ex. Ur bedeikatuaren. Erreljioso batek formatu gurutzearen señaleari ta eman ur bedeikatus goatzearen inguruan, ezin deus egin sorginek (Andrade).

Debozio ona, espezialki etziterakoan zeñatzea ta ur bedeikatus ematea, Aitaren ta Semearen, etc. Santa Teresak dio: Idukazu eskunara ur bedeikatu, ezi oneki doae iges demonioa. Eta uristatu bear da inguruan (T.1. cart. 33). Experiencia dut, dio (l. vid. c.31), eztela gauzarik zeñeki iten duten etsaiek iges iago ez itzultzeko. Gurutzeaganik ere iten dute iges, baña itzultzen dire. Andia bide da ur bedeikatuaren birtutea. Enetako da konsolazio, etc., etc., bida.

Ex. Gurutzearen debozio, etc. Santa Klara Monte Falkoren biotzean aurkitu zire inprimiturik Kristoren pasioko instrumentuak. San Ignazio M. biotzean Jesus (Cor.v.).

Ex. Peregrino bat, bisitaturik leku sanduak, iltze Jesusen amore-utses ta aurkitu ziate biotzean inprimiturik: Jesus ene amore (Claus p.2 cat.c.19).

Ex. Sazerdote bat il ondoan Erroman nai zutelaik enbalsamatu, bularra idikirik, etze ageri nion arren biotza; beiraturik gurutze bat, ikusi zute andik nola zegon dilindan, mostratzeko debozioa (Parr. p.1.pl.5).

Ex. Santa Rosaliak beiratzean hispillua, ikusi zue an Jesu Kristo lllagaturik, etc. O zer hispillua! (Cl.p.2 conc. c.71).

Ex. Konstantino M. Kristoren atenzios paratu zue lege, nior ez justiziatzeko gurutzean (Breviar.3. Maji).

## 5. DOKTRINAREN LAUR SALLLEN

Konparanzak. Ala nola paraisoan baize ugalde bat, aren erregatzeko, zein partitzen zen lauretan, ala elizan, Jangoikoaren paraiso, etxe ta familian doktrina kristioa laur gauzatan. Laurak tuzu itz gonon laur letraetan, SEOR: Sinestatzea, eskatzea, obratzea, rezibitzea.

Konparanza. Nagusi Jaun andi baten zerbitzuan lenik da ezauntzea ta aditzea, ori dugu Kredoa sinetsis; gero egitea manatuak, ori dugu legean amar mandamentutan; gero eskatzea beartugunak, ori dugu orazioetan; gero errebitzea erremedio ta sustentu beartugunak, ori sakramentuetan.

Konparanza. Bide edo biaje batean, lenik xakitea nondik nora ta nola, ori erakusten du fedea; gero ibili bear zuzen, ori erakusten legeak; gero eska ta artu biderako bear direnak, ori logratzen orazioeki ta Sakramentueki.

Konparanza. Karroza laur erruedaeki, bida prinzipalenak fedea ta legea edo sinestatzea ta obratzea; ebei laguntzeko berze bida, orazio egitea ta Sakramentuak ongi errebitzea.

Fedea, esperanza, karidatea, grazia. Orra guzia.

## 6. FEDE KRISTIOAREN

Konparanzak. Sinestea ikusi gabe: Ala nola itsasoan gauas farolak itxekirik portuan, bere sugarreki adiarazten baitiote nabeganteei an dela portua, naiz au ez ikusi, ala fedesko gauzetan, etc. (Parr).

Konparanza. Ala nola begietako bista sollik ezpaita aski ikusteko gauzak, ezpada kanpotik argi, ala arimaren bista, baita entendamentua, ezta aski gauza sobrenaturaleetan; Jangoikoak argitu bearke. Beraren itza, errebelazioa ta fede dibinoa da nola zeruko argi bat, emengo arrazio guziak baño firmeago, zeini atenditzeas ongi iten duzie, ala nola antortxa bati argitzen duenai leku lañus betean ta ilunean, dio San Pedrok (1.c.1).

Konparanza. Fedea ala nola hispillu edo beji-ordea urrutirako, videmus nunc per speculum etc., tunc autem, etc. (1 Cor.13).

Ala nola izar gura kidatu zituena irur magoak Betleena adoratzera Jesus Jangoiko aurttoa gabelan, etc.

Ala nola karta bat biali duena zeruko Erregek lurreko desterratuei emateko berri onak, arartzeko nola ta zer gisas. Abrats kondenatuak eskatzen bialtzeko iletaik bat, etc. Errespondatzen dio: An dauzkite Moises ta profetak; ezpadiote ebei sinesten, eztute ilai ere sinetsiko. Firmiorem habemus profeticum sermonem, cui benefacimus, etc. (2.Petr. 1.v.19).

Ex. Zeukalaik Presidenteak tormentatzen San Roman, onek nai zio arri sinestarazi egi eta fedea, nola Jesu Kristo den Jangoiko: Sinezta bez, Jauna, zio, eta niri ezpadida sinestatu nai, sinesta bezo aurtto garri. Zego an aur esneko bat Amaren besotan. Onek

klaro bereala erran zue: Egia da diona sandu gorrek. Tiranoak sumindurik: Eta nork erran dizu ori? Aurttoak: Niri ene Amak, ta ene Amari Jangoikoak. Baita Kristio guzien errespuesta, zeren Jangoikoak errebelatu dion Eliza Ama Sandari ta Elizak ala erakutsi, etc. (Parr. 15).

Ex. San Julianen orazios biztu ze il bat. Onek eman zue testimonio egi eta fedeas ta iltze berriro (In ej.v.9. Jan).

Ex. Nizeako konzilioan ilik bi obispo firmatu baño len, deklaratuzen egia fedeskoa. Paraturik aien obian librua aurkitu ze firmaturik aien firma biramonean (Cl.p. 1.Cat.). Oroat, Kalzedonian, Santa Eufemiaren aldarean paraturik beren fedearen librua herejeek, ta berena katolikoek, au biramonean aurkitu zute zeukala sandak petxoain kontra, ta herejeena oñaren pean (Ej.o.).

Ex. Ezta manatzen entendatzea guzia, baizik sinestatzea, naiz ezin entenda. Santa Teresak zio: Nik zenbatenaz gutiago entendatzeunten, iago sinesten dut, señale baita ori, dela Jangoikoaren gauza. Eta nailuketenes ikusi Kristo nola zen bizi zelaik, irri iten zue ziola, zer iago nai zuten, daukatelaik ain errealki presente berbera Sakramentu aldarekoan (Cam. de perf. c.34).

Exenplu ta progu seguroak fede kristioaren, bakar egiaskoaren, dire ezin konta ala, baña memoriaren amorez beira emen batzuk erkadan:

1. Unione ona fedean leku ta denbora guzietan, etc.
2. Notizia on ematentuenak Jangoikoas, Kristos, zeruas, etc.
3. Alfa. Asiera edo prinzipioa Kristoganik, Jangoiko gizonaganik.
4. Milagro klaro asko kristioen amorez Jangoikoak, etc.
5. Santidade guzia, sandu doktrina, Legea, Sakramentuak, etc.
6. Apostolu pobreek pregonatua, edatua, firmatua, etc.
7. Nobletasun prestua onetsis etsaiak, ongi egines, etc.
8. Konformidadea doktrinan konzilio, Aita Sandu, doktore, etc.
9. Testimonio emanak ontas ilek, zerukoek, infernukoek, etc.
10. Antiguasko profeziak kunplitua Elizan klaro, etc.
11. Martir glorioso biktorioso izanak Jangoikoaren grazias, etc.
12. Komunikazio amorosoa Jangoikoarena kristioeki, orazioan, etc.
13. Asistenzia kontinokoa bere Eliza goni guardatus, faborezitus, etc.
14. Tema amorosoa Kristorena Sakramentuan beti gur., etc.
15. Odio Elizari diotena deabruet, gaixoek persegitus, etc.
16. Legearen ona, onetsi Jangoikoa ta proximoak, etsaiak, etc.
17. Igualtasuna Jangoikoaren alzinako, ap.D.non est acepcio personarum, etc.
18. Konstanzia fede ta legearen guardatzean naiz il, etc.
19. Aingeruak guardia gure, anai, arreba, aide sanduak, etc.
20. Maria Santisima Jangoikoaren Ama ta gure Ama amant, etc.

## 7. JANGOIKO BAKAR EGIASKOAREN

Ex. Ezin guzis explika Jangoikoa nor den, ezin ere guzis entenda. Filosofo bati galdeginik zer den Jangoikoa, errespondatzeko eskatu zue egun baten epea, gero bida, gero irur. Azkenean erran zue etzekiela ta etzukela, etc. (Claus cath. 1.c.12).

Konparanza. Nola iruzkia ta argia dagon suan ta ez erretzen, urean ta ez bustitzen, loiean ta ez zikintzen, etc. Jangoikoa. Konparazios emengo mintzatze-gisara, Jangoikoaren

besoa bere podore infinito, eskua bere justizia, aurpegia bere edertasuna, begia bere jakintasuna, biotza amorea, etc.

## 8. TRINTATE, IRURTASUN DIBINOAREN

Konparanza. Nola suaganik argia eta su ta argiaganik beroa, ain laster bata nola berzea (Aug. tr.20.Joan). Nola iruzkian sua, argia ta beroa, irur, ta irurak iruzki bat, Aita, Semea ta Espiritu Sandua Jangoiko bat.

Ex. Zebilalaik San Agustin pensatzen itsasbasterrean, nola izanik irur persona ta irurak Jangoiko bat, ikusi zue zegola an aurtto bat kontxa bateki, ustu zen ur lurrean egin zuen zulotto batera. Zer ai zara or? Galdegin zio sanduak. Eta aurttoak: Nago emen ustutzen itsasoa zulo gontan. Sanduak: Bada, eztuzu ikusten ori dela imposible? Inposibleago konprehenditzea orrek bere entendamentuas, pensatzen dagona, erran ta etc. (Claus ib.).

Ex. Ikazginaren fedea da famatua. Paratzen zio filosofo batek argumentu, etzela posible izatea irur persona, irurak Jangoiko ta irurak Jangoiko bat. Arrek etzekie nola errespondatu, baña arturik kapusaiaren alzialdea ta paraturik irur plegutan, galdegin zio: Zenbat dire ebek? Arrek: Irur. Istantean desplegurik: Orra nola eztiren baizik bat. Andik da erran gura.

Ex. Santa Klara Monte Falkoren entrañetan aurkitu zire irur bolatxo bardin, igual kolorean, bultoa, pizuan, batak etzuela pizatzen (sic) iago berzeak baño; eztare biek, eztare irurek iago batak baño, Trintateko misterioaren mostratako (In ej. vit.).

Exenplua. Santiguatzean berean mostratzen dugu Trintateko misterioa, diogularik Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, nonbratus irur personak ta erranes izenean, ta ez izenetan; ala, konfesatus irurak direla Jangoiko bat, zeren irurek baitute naturaleza bat, esenzia bat, majestade bat, podore, entendamentu, borondate, santidade, edertasun, gloria ta guzia bat.

## 9. JESU KRISTOREN ENKARNAZIOAREN

Konparanza. Ala nola Jangoikoak bere Legea eskribitu zuen bi ol arriskoetan burriñarik ta instrumenturik gabe, ala nola atra zuen ogi desertuan lurra landu gabe, ala nola bara gura lorarazi zuen euririk gabe, ala berak egin zue konzebi zeien ta jaio zeien Birjinaganik Jesu Kristo gizon dibino berri gura, gizonik gabe, sobrenatural ta milagrosoki, nior ez bekala. (Aug. s.14. De nativitate D.).

Irur jenerazio-gisa agitu zire munduan: lenbizikoa Adanena, lurretik gizon ta emasterik gabe; bigarrena Ebarena, Adanen kostillatik emastekirik gabe; irugarrena komuna, gizon ta emastearen komunikazios; laugarrena, falta ze Birjinaganik gizonik gabe Espiritu Sanduaren birtutez, Jangoikoaren milagros, au da, Jesu Kristorena Maria Santisimaganik, guzien erremedio, salbazio, grazia ta gloriatako (Aug. ap. Barrad. t.1.1. 5.c.5).

Ex. Jangoikoak berak emanen dizie señale bat, zio Profetak, Birjina batek konzebitu ta emanen du seme bat, deituko dena Emanuel, au da, gureki Jangoikoa (Isai.7).

Ex. Milagro goi aipatzen da San Juanen ebanjelioan, diolarik: Verbum caro factum est, berboa egin ze gizon; baitare Kredo mezakoan, et incarnatus est, etc. Enkarnatu ze, aragis bestitu ze Espiritu Sanduaren birtutez Maria Birjina ganik eta gizon egin ze, belaurikatzen baikara guziok, mostratus estimazio ta esker milla ortan egin zigun fabore geiegiagatik. Deskuidatu ze bat belaurikatu gabe, deabruak eman zio zalaparta erru bat,

erranes bateo: Enegatik in bazue Jangoikoak alakorik, kurtuko nitza ni lurreraño beti gogotik ere (Claus p.2 cat.c.5).

Ex. Konta itzez itz ebanjelioa. Missus est: Ta nola, etc.

Ex. Predikari bat zebila tentaturik nola zaiken izan Ama ta Birjin. Erresolbitu ze joatera Frai Gil lego sanduagana. Au bere paloa arturik atra zekio bidera, ta ikusi orduko oiuegin zio: Aita predikaria, Maria Santisima Birjin erdi baño len. Eta eman golpe bat paloas lurrean ta atra ze istantean azuzena eder bat; bizpirur pausu eman ta erran zue berriz: Aita predikaria, Ama Santisima Birjin erditzean. Berze golpe bat eman ta atra ze berze azuzena bat; aratxago joan ta erran: Aita predikaria, Jangoikoaren Ama Birjin erdias geros. Ta emanik berze golpe bat ta atra ze irugarren azuzena. Milagro goneki gelditu ze ura beterik admirazios ta konsolazios, ta seguraturik (Andr. gr.4).

Ex. San Ildefonsok defendatu zue Ama Birjinaren gloria andi gau Elpidianoenkontra; konfunditurik aiek ta aien herejia, desterratu zitue Españatik. Onen premiotan, Santa Leokadiaren festa egunean, presente zegolaik Recesvinto erregea bere kortearreki sandaren tenploan Toledon, eta sandua orazio egiten obiaren alzinean, sanda ia irur eun urtez ortzirik zegona, gañeko ar-lauza goraturik, atra ze obiatik derepente, ta edaturik eskua sanduagana, errazio: O Ildefonso, berorren medios bi zida gure Señora andiaren gloria. Erran ta itzuli ze obiarra. Ez kontent oneki sollik, berze fabore andiako bat egin zio zeruko Erreginak. Bere expektazioko festa egunean bere Majestadea bera jautsirik zerutik, tenploan ikusi zue sanduak ta beraren eskutik errezibitu zue ornamenta prezioso bat utzi ziona mezarako, erraten ziola: Zeren defendatu duzun nere birjinidadea ta guardatu duzun zeurea, tori ene amorearen prenda gau memoriatako, etc. (In ej.v.et Brev.).

Ex. Santo Domingo defendatu ziona gala berex gura, o zenbat maneras erregalatu zue Ama Birjinak? (Eor.V.).

Ex. Nestorio herejea ukatzen zuena etzela deitu bear Ama Birjina Jangoikoaren Ama, usteldu mi infame gura ta arres beterik ondatu omen ze lur barnean. Arrio, berriz, ziona Jesu Kristo Ama Birjinaren Semea etzela Jangoiko ta gizon persona batean, iltze miserableki egotzirik bere entraña gaixtoak, etc.

## 10. KRISTOREN PASIOAREN, ETC.

Exempl. Jesu Kristoren pasio ta eriotze pasatu zuena bere borondatez gure amorez, da amoresko exzesu admiragarria ta amorosgarria, niork etzuketena ez desea, ez espera ta ez pensa; Zeren memoria nai du izan dezagun kontino, ta dugu obligazio, ta orreki berari plazer inen diogu ta geurei probetxu. Alberto Magnok dio, iago balio duela pensatzeak egunoro Kristoren pasioan, ezi barutzeak ogi ta ur solles urte guzian (Claus p.1.cat.c.15).

Ex. Santa Jertrudisi agerturik, Jaun dibinoak erran zio, beiratzen dionai bere imajinan gurutzean debozioreki, berak ere beiratzen diola arri amorosoki (Blos. Baron 141).

Ex. Beti, len ta gero kuidatu du Jangoikoak oroiaraztea jendea Jesu Kristoren pasio doloreskoas, guruzifikatzeas, iltzeas. Onen señale izan ze manatua Abrahami, sakrifika zezola bere seme bakarra Isaak oian batean. Zoazi biak aldapa-gora, aitak zerama sua ta arma eskuetan, semeari paratu zio egurra soñean. Onek erran zio: Aita, ona sua ta egurra; baña non da erres il bear dena? Aitak: Ene seme, Jangoikoak emanen du. Baña keñatzea izan ze artan, baña kunplitu ze Jesus onegian, etc. (Genes.22.narr).

Ex. Alaber, manatu ziote israeldarrei sakrifikatzeako axuri bat xamur garbia zenbait zeremoniaeki, libratu nai zituelaik Ejiptoko presondegitik, mostratzeko ala Jesus axuri

dibino onegia, etc. (Exod. 12).

Ex. Axuri garren misterioa zelebratu zue Kristo berak azken afarian; baña postrean disponiturik utzi zue misterio obeagokoa, baita aldareko sakrifizioa ta Sakramentua, non bera errealki presentatzen ta sakrifikatzen den bere pasio ta eriotzearen memoriatan. Ala erran zue berak: Au iten duzien aldioro, in zazie ene memoriatan. Eta San Pablok: Mortem Domini annunciabitis, Jaunaren eriotzearen memoria inen duzie datorren arteo juzgatzera, etc.

On da kontatzea erkadan pasioko pausu prinzipalenak, ikasteko pensatzen.

1. Jesus ona gure amorez zerutik jautsi zena gu salbatzeagatik, gaizkirik in etzuen ta etzuketan, baizik ongi nai zuten guziei, alaere Judatarrek aborrezitzea, il naiak, eta Judasek bere apostolu izanak traizios saltzea 30 dirutan, nola erres bat, edo gaizkiegille bat ilarazteko...

Zergatik utzi ze Jaun ona? Zergatik den ona ta onesten gaituen gu sobra.

2. Joatea Jaun dibinoa leku gartara, non preso inen zutela baizekie; an paratzea orazioan, ta lotsamenturas ta tristuraz gizon bekala izerditzea odoles agoniaren utses; ta eldu zirelaik armaturik aiek Judaseki lenean, alzinatzea bere Majestadea, uztea eman zezon arrek apa falsu gura, baizekie zela señaile paratua xakiteko nori eutxi. Erratea traidoreai: Adiskidea, zertara etorri zara? Apa goneki entregatzen duzu Birjinaren Semea? Gero uztea arrapatzera preso, lotzera sokas ta kateas, ta eramatera moldegaizki Axuri dibinoa nola, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

3. Presentatzea pontifizearen sui Anasen alzinean, ta galdeginik bere doktrina erakutsi zuenas, zeren errespondatu zuen guzia in zuela agerrian, ematea batek zaflada erru bat aurpegi dibinoan, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

4. Eramatea andik Kaifas pontifizearen etxera, non zeuden bildurik eskribak ta sazerdote bekaiztiak, nola otso gosetiak etxideten Axuri dibinoa galdu naies alas edo olas; aien azoraturik ibiltzea billatzen testimonio ta testigo falsu; ezin aurki egi-itxuraik ere; Jaunaren ixil, geldi, trankil egote gura. Gero, galdeginik Jangoikoaren izenean ia Kristo zen, erratea baietz ta bere denboran ikusiko dutela etortzen majestade andiareki. Ontara izitu bearrean aiek goratzea kontra; blasfemo bekala maltratatzeta, lixtukatzea, golpatzea, begiak bendaturik milla eskarnio egitea eta Jaunak sufri guzia, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten, etc.

5. Eramatea biramonean, Ortzilare Sanduan, egun argis karririk barna preso andia bekala Ponzio Pilatos juezaren palaziora; an ausarki alegatzen asko gauza ta deus ezin proga; juezak aiturik aien oiuk ta examinaturik Preso dibinoa, ezaundurik aien inbidia utsa, ta deklaratu zue klaro etzuela kausarik aurkitzen ta biali zue Herodesengana.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten, etc.

6. Presentatzea Herodesen presenzian, aien porfiatzea andik eta emendik; Herodes galde ta galde egotea Jaunari; onen ixil egotea, baize indigno aditzeko beraren itzik ilarazi zuena San Juan Bautista, ta bizi zena deshonesto; onek tratatzeta fatuo ta ero bekala, bestiaraztea gañetik manta txuri bateki, ta ala itzularaztea irri, eskarnio ta txistuen ertean Pilatosengana berriro, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten, etc.

7. Presentatzea berriz Pilatosi ta au aurkitzea loturik bekala, alde bat ezin kondena kulparik etzuen, berze alde ezin aieki erreka. Iduritu zekio pensatu zuela bide on bat, Bazkoaren bezpera izanes, bear zue utzi libre presoetaik bat, nai zutena jendeek. Famatua ze gaixtos Barrabas deitua. Pilatosek oiuziote: Zein nai duzie libre, Barrabas, edo Jesus? Errespondatu zute: Ez au, baizik Barrabas. O zer konparanza! Zer autu? etc.

Zergatik o Jesus? Zergatik den ona ta onest, etc.

8. Berze uts errutegokoa, azotatzea oñetaik bururano gorputz birjinale dibino gura borzt milla ta iago azotukaldis urratu, zatikatu, odolustu kuelkiro iago ezi tzakur bat. Ixil bere Aita Jangoikoa! Geldi bere aingeruak! Sufri Jesus onegiak! O Jesus, ainberze? Ainberze?

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

9. Berze izigarri bat. Au, zio, nai ze egin errege, koronazagun. Forjaturik lar ta arantze tzorrotz gogorres uztai-gisa bat inguratu ta frinkatu zio buruan; nolako oñazeeki, pensa! Soñetan purpura zar zatar bat ta eskuan kanabera bat. Eta ala zeukatelaik jarririk alki batean doaz ellegatus aduratu itxura eskarnios bat banaka, ta belau bat paraturik lurrean, erraten diotela burlankerian: Agur, errege Jauna. Eta batek lixtu botas aurpegira, berzeak kanas golpatu aranzeen gañean, berzeak zaflada, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

10. Bukaturik jostaketa gura, Pilatosek atratzea balkonera Jaun dibinoa, ustez naski lastimatuko ziren, ziola: Ona gizon gura. Lastimari ez an, baizik oiuketa: Kem kenbez, guruzifika bez. Juezak dio: Bada, zer gaizki egin du? Aiek segi teman, guruzifika dezala. O Jesus, ainberze gaitz in du? Ez, baizik ongi, sendatus heriak, argitus itsuak, etc. Alaere orren kontra? Alaere galdu nai berori? Ta berorrek sufri? etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

11. Azkeneko, sentenziaturik iltzera gurutzean, arturik au soñean, ezin jasis angabeturik, erorka; ats anditurik, beldurak il zekioten bidean, alokaturik zirenetar bat ermateko gurutzeta atzetik; andre Jerusalengoak lamentatzen; bere Ama Santisima bidera atrarik, beira nolako penak, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten gaituen, etc.

12. Guruzifikatzea. Ellegaturik Kalbarioko aldapan, edaturik lurrean gurutzeta ta artan Jesus ona, besoak zabaldurik, esku bata itze bateki, berze berze bateki josi malluas golpeka; ta oñak itze andi bateki, diotenez batzuek; Bideki, diotenez berze batzuek; Beitiko zur-punta lurreko zuloan sarturik, goratu zute gañarako gora, ta gorputza dilindan itzeetaik. Pensa zer oñaze, agonia, etc.

Zergatik? Zergatik den ona ta onesten, etc.

13. Baratu bear da arima Jesusen oñetan, dagolaik goraturik gurutzean, agonian azken irur ordu gaitan. Beira zein neke-penatan gure amores! Beira nola orano ere blasfematzen ta eskarnio iten dioten! Beira nola alaere mendekatzen den garaitu bere onareki aien gaizkia; nola mostratus sentimentu iago aien galtzeas ezi bere iltzeas, dion lenbiziko itza: Aita, barka bezote ezi eztakite zer ai diren. Nai zuenak barkat zekioten aiei, nola eztu naiko barkatu niri? Bigarren itza, bi aldetaik guruzifikaturik zeuden bi ladronetaik bati, eskatu zionai oroit zeila artas bere erreinura joan ondoan, erran zio: Segurki erraten dizut izanen zarela egun nereki paraisoan. Irugarren itza bere Ama Santisimari San Juanengatik: Ona zure Semea. Eta berla San Juani bere Amagatik: Ona zure Ama. Ortan utzi zigu Amatako maite dugun guziei. Berze laur aldis mintzaturik iltze. Guregatik iltze, etc.

14. Il ondoan ere agertu ze bere piedade infinito, ezi soldado bati lanzas idiki zionai bularra, argitu zio bista gorputzarena lenik, gero arimarena. In ze Kristio ta martir glorioso San Longino. Kredoan erratea ortzi zutela, da adiazteko bere iltzea izan zela egiaz. Por konsigiente, bere erresuzitaztea edo berriro biztea ere egiaz. Ex. San Franzisko urtzen ze negarres pensatzean pasioa, gal duzue bista, Jaunak inprimituzizkio bere llagak. Santa Katalina Sena, Santa Luzia Narniense, etc.

#### 11. KRISTOREN ERRESUZITATZEAREN

Ex. Konta nola berriro bizturik egon zen munduan oraño berrogei egun; nola glorioso agertu zekion bere Ama Santisimari lenik dudarik gabe, naiz eztion Ebanjelioak; baitare Santa Magdalena ta bere lagunei, baitare San Pedrori, Emausa zoezin bi diszipulo gaiei, berze diszipuloei afaltegian egun berean, Santo Tomasi gero ta mostratu llagak, gero zazpiei arranzuan, etc. (Vid. Evang.).

Ex. Erreserbatu zitue llagen kuntzeak glorioso eder, presentatzeko bere Aita eternoari gure erreskatearen progu errealak, mintzatzeko gure fabore abogatu gisa. Eztaike atzen gutas eskribiturik ala esku, oin, etc.

Ex. Advocatum habemus, etc. Abogatu dugu Aitarendako bere Semea; Semearendako bere Ama. Semeak Aitari mostratzen bere llagak; Amak Semeari bere bularrak. Nola ez gaitute atrako libre ta salbo, etc.? (Bonav.)

#### 12. KRISTOREN IGATEA ZERURA

Ex. Konta itzez itz historia, nola dion (Act.1.et Agred.).

Ex. Olibeteko oianean, nondik igantzen, utzi zitue inprimiturik arrian oñen kuntzeak, ta omen diraute oraño an egin zen tenploan; ta bobeda edo gañeko alde gura nondik pasatu zen, omen dago idikirik, ezin ertxiduketela beñere. Soldado bat, bisitatu ondoan leku sanduak ta azkenean leku gura, iltze urturik amores, ta aurkitu ziote biotzean inprimiturik: Ene amorea Jesus (Spec.). On intigunak igatean: 1. Honratzea gure naturaleza aingeruen gañetik. 2. Idikitzea guretako ango atariak: 3. Prestatzea leku an guretako. 4. Aumentatzea gure fede, esperanza, etc. 5. Abogatzea gure fabore, etc.

#### 13. ESPIRITU SANTI JAUNAREN

Ex. Konta itzez itz nola agitu zen Pentekost, etc. (Act.2.)

Konparanzak. Espiritu Sanduak eztu gorputzik, baña lurrekoei mostratzeko zerbait gisas, agertu da zenbait iduritan. Jordango ugaldean bataiatu Jesus, aren gañean agertu ze uso baten idurian. Taboroko oianean trasfiguratu zelarik, mostratu ze lañu argi baten idurian. Erresurrekzio ondorean, aize edo ats dibinoaren mostran. Gero Pentekostes egunean aize andi erru bat eldu zela iduri, ta jarri ze guzien ta baktxaren gañean susko mi batzuen idurian.

Konparanza. Suaren konparanza da propioena Espiritu Sanduaren, zein baita datorrena Aitaren ta Semearenganik elkarren amorea, ta amore gau da Su dibinoa. Efeitoak beira:

1. Suak atrarazten humedadea zur berdeaganik. Amoreak atrarazten bekatariaganik negar kontrizioskoak. Etc.

2. Suak kendu otza ta berotzen erretzeko. Amoreak kentzen afizione banoak ta berotzen debozioan, etc.

3. Suak itxeki ta erretzen, itzulis ikatz belza brasa gorria. Amoreak itxekirik



amorozten Jangoikoas arima amantea, etc.

4. Suak agian goratzen sugarrak ta txindiak. Amoreak atrarazten afekto onak, antsiak, goraintziak, eginak, etc.

5. Suak itxekirik ongi du argitzea. Su dibinoak, amoreak argitzen dio arimai ezaunarazis ona ta gaitza, egia ta banidadeak, etc.

6. Suak errautsten egurra, lastoa, etc.; errefinatzen, garbitzen, edertzen urrea. Amoreak garbi, eder paratzea arima, kendus bizio, etc.

7. Suak akorritzen otzak ilik zegona: Amoreak biotza konsolatzen miragarriri, andik deitzen da Paraklito konsolazale, etc.

8. Suareki egosten ta gisatzen alimentuak. Amoreareki usatzen lanak ta gustoso egiten ta baliarazten; Ori gabe deus guti balio baitu iten denak, etc. Nil prodest (1.Cor.13).

9. Sua elementu fuertea. Su dibinoak bizkortzen, indar, koraje, ausardia ematen biotzai, naiz beldurtizen. Testigo dire apostoluak, martirak, birjinak, aurrak, etc.

10. Sua eztagoke zeborik gabe. Amorea ere ez deus in gabe. Inaraziko dio zer edo zer, ezperen itzaliko da, etc.

Ex. San Pablo, baizio: Quis nos separabit etc.? Tribulatio, etc.?

Ex. Santa Maria Magdalena Kristoren atzean, guruzean, sepulkroan, etc.

Ex. San Franzisko Xabier trabajuetan: Iago, Jauna, iago, etc.

Ex. Santa Teresa, baizio, edo padezitu edo il. Santa Magdalena Pazzik berriz, padezitu ta ez il, zio Jaunaren amores.

Ex. San Justo ta San Pastor aurtoak: Neskattoak Santa Ines, Eulaliak, etc.

Exenpl. Monje gaste gura, guzia zena orazio, penitentzia, birtute, agitz maite baizue orgatik zar benereableak azitzen zuenak, onek, izanik errebelazio-iduri, alfer nekatzen zela, infernurako zegola, triste beiratzeas ere iten zue negar. Goarturik arrek galdegiten zio kausa. Zer in bear dut, zio zarrak, izan badut errebelazio galduko zarella infernuan? Gasteak animoso, eziela afliji ortas, non ta in dezogun plazer Jangoiko onai. Eztiot nik zerbitzaten gloriagatik, baizik bera denagatik. Ematen badida gloria, esker milla; ezperen, inen du justizia. Baña nik in bear dut obligazio dutena, baita onetsitza ta zerbitzate Jaun ona gogotik, eta orai iago. Admiraturik zarra alako amoreas Jangoikoagana, desengañatu zue Jangoikoaren aingeru onak, engañatu zuela etsaiak in zion errebelazioan, eta gaste garrek akto garreki agitz merejitu zuela (Parr.p.2.pl.2). San Buenaventurak Frai Gili, amiña batek maita dezake Jangoikoa ain nola fraileak (In ej vit.).

#### 14. ELIZA SANDA KATOLIKOAREN

Konparanza. Eliza Jangoikoaren etxea, familia, saldoa munduan, Kristok bildu duena; bera buru, kristiook mienbro lagun, iten dugula gorputz bat berareki; bere izen ta potestadeareki utzirik agerrirako San Pedro ta aren ondorengoak artzai, etc.

Konparanza. Nola ardantze bat Jangoikoarena, Kristo aien egiaskoa, kristiook zarmendu; Jangoikoa langin, ta peon bekala sazerdoteak.

Konparanza. Nola fabrika bat, zimendu Kristo, arri kristioak, etc.

Konparanza. Da nola Noen arka, inarazi ziona Jangoikoak salbatzeko bera ta bere familia, ondatu zuelaik mundua dilubio unibersalean. Gisa berean salbo zarate zuek bataioaren kasos, erraten digu San Pedrok Kristioei (1.Petr.3).

Konparanza. Fedean faltatzea kontu dela zimendua kentzea. Legean faltatzea, makurtzea edo erorzea paretea; ura kontu zarmendua apartatzea aienetik, berze goi kontu egotea bai zarmendua aienean, baña utsal edo ear.

Exenpl. Kristioak ardi markatuak Kristoren markareki. Lenbiziko gaietaik askok zute sendagalla eramateas eskuan markaturik Kristoren izena, edo mostratzeko estimazio iten zutena Jaun dibinoas, edo oroitzeko (Parr. p.1.pl.4).

Exenpl. Eliza gonon atari bakarra bataioa. Flandesen jaiorik aur bat zuena aita hereje, ama kristio katolika, nai zue aitak bataiarazi herejeen gisara; amak ezetz, baizik kristioen bataioas. Porfia gontan zer egin zue aitak? Lo zegolaik ama bein, artu zue aurra ixil ixila ta eraman zue ministro herejeagana. Zer agitu ze? Il aurra derepente. Petardo goneki itzuli ta paratu zio saietsean aur ila amari. Idatzarri zelarik zego bere teman, bataiatu bear zela sazerdote katolikoaganik. Senarrak: Inzazu nauzuna, bizi barin bada. Amak aurkitu zue bizirik eta bataiarazi nola nai zuen, ta ekarririk artu zue aitak kontent bere aurra bizi ta bizkor; eta konbertitu ze bera, ikusirik milagroa, etc. (Parr.p.3.pl.3).

#### 15. PAPA EDO AITA SANDUAREN SEÑALEAK (PAG.88)

Ex. Amabi apostolu paratu zitue Jesu Kristok, berze iru-ogei ta amabi diszipuloes landara, ta guzien gañetik San Pedro, kuidatzeko bere Elizas edo kristio gendeas, ortako eman baizitio bere giltzak edo potestadeak. Eta nola San Pedro ta gañarakoak il bear baizire bere denboran, eta Elizak iraundu bear mundua mundu den bitarteo, diraute alaber, giltza ta potestategaiek betiro pasatus eskutik eskura, utzis bekala aizinekoek. Ala, oraiko Aita Sandua edo Papa deitzen dena da San Pedroren ondorengo, arren ofizio ta giltzak tuena; eta berze apostoluen ta diszipuloen ondorengoak, obispoak ta sazerdoteak, ongi ordenatuak; eta guzien gañetik Jesu Kristoren asistenzia kontino, ofrezitu zuen bekala despeidan: Et ecce ego vobiscum sum usque ad consummationem saeculi (Math. ultimo). Eta ona ni zueki nago munduaren akabanzaraño. Elizaren tribulazio ta persekuzioetan dagola beira, ta bear dena inen duela bear orduan mostratu zue itsasonzi ta itsasoaren gora bera agitu zirenetan (Math.8. Luc.14. Beira pag.88).

#### 16. SANDUEN KOMUNIOAREN

Konparanza. Ala nola gorputz batean komunikatzen ta laguntzen diren elkar mienbro lagunak, ta batoren onas partizipatzen duen berzeak, ala sanduen edo kristioen komunioan. Deitzen da sanduen komunioa, edo zeren sandu deitzen ziren kristioak len, edo zeren sanduek partizipatzen duten iago; baña zerbait bekatariak ere bai, dirauten bitarteo fedean, ezi on iten diote Elizaren ta onen orazioek, ta eben kasos diote piedade Jangoikoak askotan.

Komunikazio goi edatzen da purgatorioraño ta zeruraño, guk sufrajio egines purgatoriokoei, ta zerukoei honra ta orazio; aiek guri logratu on, etc.

Ex. San Pedro libratzea Jerusalem kristioen orazios. San Pabloren konbertitzea, etc. Purgatorioaren exenplu nonnai.

#### 17. BEKATUEN BARKAZIOAREN

Exenpl. San Pedrok galdegin: Jauna, zenbat aldiz barkatuko diot ene anaiari, bekatu in duenari? Zazpitarraño? Jaunak: Ez solamente zazpitarraño, baizik zazpi amar zazpitarraño ere. Nai du erran, ezi noiznai (Mat. 18).

Ex. Bekatarien konsolutako zio: Ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak; eztute mediku bearrik ongi daudenek, baizik gaizki daudenek (Marc.2).

Ex. Fariseoek murmuratzen zute: Onek errebitzentu bekatariak ta barzkaltzen du aieki (Luc.15). Bein perlesiatu bati erranik Jaun dibinoak, konfia zazu, ene humea,

barkatzen zaizkizu zeure bekatuak, blasfemia ziola ziot. Baña Jaunak erraten diote: Zein da aisago, erratea bekatuak barkatzen zaizkiola edo jaiki ta dabilala? Eta bereala manatu ta sendatu zue (Math.9). Alaber, ziot: Nork dezazke barka bekatuak, ezpada sollik Jangoikoak? Baña Jesus Jangoiko da, ta berak ez ezi, beraren komisios normaiek barka dezazke. Komisio goi eman zue erresuzitatu zelaik, erran ziotelaik: Ala nola biali nauen ni ene Aitak, nik ere bialtzen zaiztet zuek. Ta bere atsa emanik erran zue: Errezibi zazie Espiritu Sandua. Noren bekatuak barkatzentuzien, barkatuak dire, etc. (Joan.20).

Ex. Ardi galduaren, dratxmaren, prodigoaren etc. Eta erratea zeruan dela alegranzia, bekatari batek egiten duelaik penitentzia: Super uno peccatore, etc. (Luc. 15).

Ex. San Pedro, Santa Magdalena, Zakeo, San Mateo, San Pablo gero; Malkori bearria, botazizkiolaik eskuak; ladronari ofrezitu paraisoa; Longinos, eman ziona lanzada, orai sandu; eskatu ere bai gurezifikatuzutendako, nai bazue, etc.

## 18. ARAGIAREN ERRESURREKZIOAREN

Ex. Jesu Kristo ilen primizia, erreformatu ta berritukotuela gure gorputzak berearen ariora (Filip.3).

Ex. Konta biztu zituenak. Prinzipe garren alaba (Luc.8). Naingo mutil garrena (Luc.7). Lazarorena (Joan.11). Konta Dorkas biztu zuena San Pedrok (Act.9). Eutiko biztu zuena San Pablok (Act.20). Pedro biztu zuena San Estanislao (Maj.7).

Ex. Naingo gura omen ze San Materno, berriz biztu San Pedoren manamendus, irur aldis il, etc. (Claus p.4. cat.c.70).

Ex. San Gregorio M. konbenzitu Eutikio alako maneran ezi larrua idukis zio: Konfesatzen dut, etc. (Mart.12).

## 19. BIZITZA SEKULAKOAREN

Konparanza. Ura da Jangoiko andiaren, erregeen Erregeren paraiso, korte ta palazio erreala; proprioki bizien erria, errefrijerio, erregalo, argi, bake ta on guzien lekua; promisioneko lurra, eztiz, esnes, glorias, gustos betea; ezin daikena konprehendi den adiña, non guziak diren errege ta den txipiena iago ezi munduan den andiena, etc., etc.

Ex. Abrats kondenatuak infernuan eskatzen zue busti zezon Lazarok mia, zeren gloriako tanta bat aski baita dulzatzeko, etc. (Aug. Marsal).

Ex. Santa Teresak dio ezi txastaraztea Jangoikoak emen gloriako urrupa-iduri bat dela sobra ta sobra pagatzeko zerbitzu Jangoikoai, gizonak indezozken zerbitzurik andienak. Ager baledi emen ango gorputz bat duen gloriareki, ezin lezakela soporta gure bista naturalak, etc. (Cam. perf. ad fin).

Ex. San Franzisko Xabier baña zen zuelaik konsolazios Jangoikoak trabaju andien erdian, asten ze klamatzen: Aski da, Jauna, aski da. San Franzisko Salesek: Jauna, deteni bez bere graziaren geiegia, etc. (In eor.v.). San Franzisko Asisek, soñatzeareki aingeruak zitara bat, sualeak ematerakoan, ezta sentitu ere. San Viril iru eun ta iago urtez txori baten kantuan. Mille anni ante te tamquam dies hesterna, etc.

## 20. AITA GUREAREN

Ex. Santa Teresak, Aita gurea erratean akonpañatzen gaituela Jesu Kristok, in bear dela kontu, etc.

Ex. Errelijioso maestru andi bat iltzerakoan, zego kontino errepetitzen Aita gurearen petizioneak.

Ex. Berze erreljioso bat inguraturik demonioak lanze gartan, ikar ikar zegolaik klatmatzen, lagunek Aita gurea klaro erranes libratu (Cl.p.2.conc.16).

Ex. Obispo batek ikusi bisionean aur bat zegola butzu batetik urresko hamuareki atratzen andre eder bat. Joan ta aurkitu zue erreztatzen Aita gurea, ta entendatu zue au zela urresko hamua zeñeki atra zuen purgatoriotik Ama. Abreu.

## 21. LENBIZIKO PETIZIOAREN

Ex. Au dela gloriako kantuaren gisara: Sandua, sandua, sandua; beteak daude orren glorias. Au paratu zuela mezan Xisto.1; eta gloria Patri, etc. San Damasok, dio Buriok. San Ignaziok beti biotzean ta agoan au, ad majorem Dei gloriam. San Franzisko Asisi ladronek galdeginik nor zen: Ni, Errege andiaren pregonari. Santa Teresak au sollik nai zue: Onda bedi mundua, ez ofendi Jangoikoa, etc.

## 22. BIGARREN PETIZIOAREN

Ex. Ladron onak gurutzetik gurutzera: Oro bedi nitas, doaielarik bere erreinura, etc. Ofra zeure petxoa palazio, biotza, trono, etc. Ar dezala posesio zutas ta guzias Errege gisa.

## 23. IRUGARREN PETIZIOAREN

Ex. Jesus onaren petizioa bere pasio alzinean.

Ex. Sanda bati eskaturik enkomenda zezkiela Jangoikoai, naiz ari atzendu, Jangoikoak egiten grazia, eta berai erran: Zuk niri emanaz geros zeure borondatea, nik zuri eman nizu neurea, egiteko nauzuna, naiz ez oroitu zu eskatzeas. Rodrigez.

Ex. Nekazari on batek zio, beti ark nai zuen denbora iten zuela, zeren ark nai zuen Jangoikoak nai duena (Ib.). San Martin beti sereno igual, zetorrena zetorrela, zeren baizego guzis utzirik Jangoikoaren eskuan. Au petizio gorena, baitare protxugarriena.

## 24. LAURGARREN PETIZIOAREN

Exempl. Laur ogi-mota dire: 1. grazia. 2. doktrina. 3. sakramentuak, espezialki aldarekoa. 4. mantenua, au gorputzaren, aiek arimaren. Eska humil konfiaturik, nola hume pobreak Aita obenari, dakienari gure bearra ta manatzendigunari eskatzeko, petite et dabitur vobis, quaerite, pulsate, etc. (Luc.11. Math.6. et 7).

Ex. San Paulo lenbiziko eremutarra mantenitu zue bere kubilan 60 urtes bialis egunoro otsorrai bat ogi erdi bateki; eta San Anton joanzekionean bisitatzera, biendako ogi osoa. Bizitu ze au 105 urte, ura 113 urte.

Ex. Santa Katalina Sena Auster egunetik Juan de Salvatore eguneraño mantenitu ze komunio sollareki (In ej.v.).

Ex. Nola erremediatu pobre bat, limosnas eman zuena zuen guzia (Abreu l.7. sec. 2, SS 5).

## 25. BORZGARREN PETIZIOAREN

Ex. Santa Isabel Ungriakoak eskatu zio biotzez, in zezotela zerbait ongi berex berari agrabio in ziotenei, ta Jaunak errespondatu zio: Beñere eztuzu in oraziorik quadratuzaidanik ainberze, ta orgatik segurutzen dizut barkatuak direla zure bekatuak (Avila ap. Abreu ib. SS.6).

Ex. Baten ilarian kantatzerakoan parce mihi, errespondatu kristioak: Non pepercit,

non parcam (Id. 1.13.SS.9).

## 26. SEIGARREN PETIZIOAREN

Ex. San Pedro ondazeko peligroan klamatzen: Jauna, libra benaza, etc. Diszipuloak itsas nasian: Jauna, salba gaitza, galduak gara, etc. Tobias jokatzearren kontra arrai lotsagarriak, Domine, in vadit me. San Pablok irur aldis eskatu kentzea tentazio bat, eta errespondatu: Sufficit tibi gratia mea, etc. Ez konsenti, etc.

Ex. Monje sandu batek eskatu berze batendako libra zezan tentazio deshonestoetaik, ta ez logratzen. Errebelatu zekio zela zeren berzeak etzuen bere aldetik egiten bear adiña, etc. (Rodriguez, tr.4.c.22.1.1).

Ex. Santa Katalina Senakoa persegitzen deabruak tentazio itsusieki, sandak erresistitzen fuerte osoki; eta kejatzen Jaunai amorosoki nola utzi zuen; Jaunak: Zureki nego, nork baizik nik eman dizu indar ta koraje ala erresistitzeko? (In ej.v.).

## 27. ZAZPIGARREN PETIZIOAREN

Ex. Gaitz guzien gaitza kondenazioa. Zeramazkitelaik karroan bida justiziatzera, ikusirik Santa Katalina Senakoak, zoezila gaizki disponiturik iltzeko ongi, sartu ze aien karroan ta zoeie bien ertean exhortatzen: Agertu zekiote Jesus llagaturik. Konbertitu ta konfesaturik il ongi ta libratu zire kondenaziotik (Ib.).

Ex. San Karpo nola erreprenditu zuen Kristok zeren bi zeudenak infernu-pokalean ez erortzeas zegon berantetsirik, ta Jaunak edatzen eskua libratzeko ainberze kostatu zekizkionak, etc. (Rodriguez l.3.n.1.c.13. ejercicios).

## 28. AMA BIRJINAREN

Ex. Santa Matildes (sic) ansiaturik salutatu naies Ama Birjina al daiken obekienik, agertu zekio Erregina, zekarrala petxoan eskribiturik Abe Maria urresko letraeki, ta erran zio eztaikela pensa salutazio obeagorik ta iago plazer emandezokenik. Eta explikatuzio itzez itz adiarazten dutena laudario gaiek (Abreu.ej.v.)

Ex. Batek ezin ikasis baizik Abe Maria grazias betea, zego kontino errepetitzen bi itz goiek. Il ondoan atra ze arren obiatik arbole bat zituena ostoetan itz goiek, etc. (Id.)

Ex. Abe Marien ezkilak soñatzea Juan XXII.: 1319. Erraten duenari Angelus Domini belauriko, egunoro 1, eguntako induljenzia ta ilaren buruan plenaria. Benedikto XIII. Erlojuak ematean Abe Maria errezazen duenai 1000 eguntako induljenzia. Leon X. Predikuetan Abe Maria. Urbano II. Santa Maria Jangoikoaren Ama proklamatu, etc. Konzilio Efesokoan. 431. Salbea kantarazi Gregorio IX.: Konpondu Hermano Kontraktok.

## 29. LEGEKO LENBIZIKO MANDAMENTUAREN

Ex. Jangoikoaren amorearen San Pablo, San Franzisko, Santa Teresa, etc.

Ex. Monje gaste bat azitzen zar batek, onek izan errebelazio galduko zela. Ark aiturik dio: Eztiot nik zerbitzatzen Jangoikoai zeruagatik, ez infernuagatik, bai bera denagatik, eta orai iago; Ez penatu, zarrai aingeru egiaskoak agertu zio egia ta akto garreki gasteak merejitu zuela, etc. (Parr. p.2.pl.2).

## 30. BLASFEMIEN

Exenpl. Lege zarrean manatzen ze iltzeko blasfemoak arrikaturik. Senakeribi

aingiru batek il zitiu eun ta laurogei milla soldado blasfemiagatik. Ejiptotarrak ondatu itsasoan guziak (Exod.).

Ex. Blasfemo bat atrarik armaturik kontra, desafiatus nai zuena defendatu Jangoikoa, eltxo batek kastigatu ta errendiarazi zue eskatzera miserikordia (Parr.p.2).

Ex. Bi blasfemo Gaskuñan asarraldi batez ilik, tzakur guziek bildurik zatikatu zuzte ozka (Ib.pl.15).

Ex. Mexikon blasfemo bat ez enmendatu sazerdote baten konsejus, bai orgatik iago blasfematzen zuena, demonioak jokatu zue pilotan bekala gora bera, ta azkenean apegatu zio mia agoari, ta ala biramonean ilze marroas animale bat bekala (Ibid.).

Ex. Borz urtetako aur bat blasfemiaetara usatua eraman zutela demonioek Aitaren besoetaik. San Gregoriok.

### 31. FEDEAREN ETA KONTRA

Ex. San Gregorio Taumaturgok aldatu zue oian bat aratago fedearen orazios. Aniano monjeak aldarazi zue lekus berze oian bat fedearen defensatan (Andrad gr.5).

Ex. Herejeen kastigoak askotan (Ib. ulterius). Eskarmentutako anitz gizon xakintsu erori herejian, etc.

Ex. Santa Justina armaturik fedes ta gurutzeas ezin errendiarazi zue Ziprianok arte gaixtos; bai konbertitu au (Ej.v.).

### 32. ESPERANZAREN TA KONTRA

Ex. Abraham prest sakrifikatzer bere seme bakarra, alaere konfiatzen ondoreko jenerazio abasto (Genes.). Moises botarik ugaldere Faraonen mandamendus, libratu rik azi aren alabaren kontura bere ama propioak. Josef Ejiptoko gura kalabozaan. Job estrabillean. Jonas balearen sabel barnean. Noe dilubio unibersalean. Moises bere jendeareki itsas gorrian. Dabid Saulen persekuzionean. Irur mutiko gaiek Babiloniako labea. Daniel leonen kubilan. Susana arrikatzeko zeukaten lekuan. San Pedro karzelean iltzeko bezperan. San Pablo milla arrixkoen erdian. San Felix bi pareteen ertekan tellarañaeki libratu. Bere obispoa Maximo billatu ta akorritu matsokoareki neguan, etc. Alako infinito.

Kontra.

Ex. Kain eta Judas deseperatus galduak. Santa Katalina Senakoari zio Kristok berak: Bekatari deskonfiatzen dutenek nitas iltzerakoan iago agrabio iten didate ortas, ezi bizi guziko bekatues, zeren nere miserikordiak baitama abantalla, etc. (Blos. Andrad. gr. 7.SS.5). Beira an.

Ex. Santa Rosa Limari zio: Zergatik zaude ala beldurrak ikar ikar? Nik eztut kondenatzen baizik kondenatu nai direnak. Gero, berriz, ain segura zego salbazioas, ezi konfesoarek erraten zio konbeni dela beldurtzea; ta sandak errespondatu zio: Ongi konsejatzan nau, baña ni nago seguraturik Jangoiko onaren onegias (In ej.V.).

Ex. San Felipe Neri karrikan Jangoikoaren inspirazios itzuli ta aurkitu zue heri bat kasi deseperaturik. Oius erraten dio: Norengatik iltze Jesu Kristo? Ark: Bekatariengatik. Eta zu zer zara? Bekatari gaixto bat. Sanduak: Beras, zurea da paraisoa, zuregatik il baize, etc. (V.).

Ex. Predikari famatu bat Italian nola errekaidatzen, nola Jaunak konbidatzen asko maneras, nola ta garaitu zuen, nola etc. Ikusgarri da (Andrad.gr.7.SS.14).

### 33. JURAMENTU ONEN TA GAIXTOEN

Ex. Santa Teresaren milagros sendatu ze nobizia bat. Erraten zio te juramenta zueiela, kanonizatzeko sanda; ura etze trebe eskrupulos, baña itzuli zekio orgatik gaitza Jangoikoaren permisios juramentatzeko, etc.

Ex. Herodesek gaizki egin ofrezitus juramentureki, ta gaizkiago egin kunplitus (Marc.6).

Ex. Zue batek kostunbre errateko: Arri biurtu naiela ezpada egia; erran bein ala ta ez ala izan, arri biurtu ze istantean. Darokan dago.

Ex. Bida bota zirenen maldizio, eta deabrua etorri kobratzera ofrezitua; nola libratu ziren inbokatus Jesus, Maria, konfesatus, etc. (Andr.gr.1a).

Maldizioen. Ex. Soldado maldizio-gille bati manatu zio konfesoreak penitenzian botazen zuen aldioro apatzea lurra. Bein botarik bat, istante kurtu ze lurrera; baliatu zekio bizia, zeren pasatu zekio gañetik ordu gartan bala bat ilen zuena egon baze txutirik (Parr.p.2.pl.19).

Ex. Berze bati ofrezitu zio sazerdote batek doblon bat, pasatzen baze arreki ordu erdi bat maldiziorik in gabe. Zerama bereki berze soldadoak beira zeuden lekuetan, irri aiek eta eskarnio; ura tentaturik ia ia botatzera maldizioa, sazerdoteak erakusten doblona; ala quartu ze ta eman zio ofrezitua erraten ziola: Doblomagatik bai ta Jangoikoagatik eztuzu inen?

Botoen. San Franziskori ofreziturik hume bat sendatzen baze, sendatu ta ez kunplitu. Bada, aita iltze urte berean San Franziskoren bezperan, semea urbilen urtean egun berean ta arreba urbilenean egun berean (Parr.ib.pl.21). San Eduardoren maiean gelditu ze ezin amena pasatus egin zuena juramentu falsu, etc. (In ej.V.).

### 34. JAIEN SANTIFIKATZEAREN

Ex. Jangoiko andiak utzirik gizonei asko egun lan iteko gorputzen, berexitu bakotx batzuk beretako ta arimendako: Oroi zaite, dio, santifikatzeas jai eguna (Exod.20).

Ex. Jesus, Maria ta Josef joaten zire zelebrazera, etc.

Ex. Tomas Moro karzelean ere bestitzen ze dezenteago, Jangoikoaren eguna distingitu naiez zuken gisan (Parr.).

Ex. Batek jai batez etzue nai lan egin Jangoikoaren atenzios, etzela bear andirik; pagatu zekio, ezi biramonean topatu zue joia urresko bat letrero goneki: Jangoikoaren eskuonak egin nau guardatudenaindako jaia (Parr.p.2.pl.27).

Ex. S. Notburga pobrettoa zerbitzuan ajustatu ze utzi bear ziotela libre jaiak; alaere manaturik zoeiela igitara jai batez, goraturik igitaria, airean gora gelditu ze dilindan deusek ukitu gabe. Milagro gau ikusirik utzi zute bere Jangoikoareki. (Claos.)

Ex. Nekazari batek Espiritu Sanduaren Bazkoa enpleaturik kentzen elurra garietaik, etzue bildu pikorrik Jangoikoaren permisios, izanik berzeko eraizio abasto (Cl. ibid.p.1 cat.c.47. Templ.errev.).

Ex. Jesu Kristo asarratu ta azote bateki botatzen sal-erosten zeudenak tenploan edo pokalean.

Ex. Tenploa profanaturik soldadoek, pestea itxeki zekiote, ta aurkitu ze San Albertoren gorputzila belauriko. Alaber, San Narzisoren obiatik atra zire uli anitz il zutenak jendeketa andia sakrilejoengatik.

Ex. Erdi lo zeudenei bota zio te deabruak infernu urrin bat ziola: Orazio alakoai alako inzensua.

Ex. San Gonzalo Amaranteren tenploan zeudelarik gizon ta emastekiak jardukian, tiraturik kortina estali zue aurpegia sanduak (Andrad.gr.11.).

Ex. Toledon nola eskribitzen deabruak pergaminoan bi emastekien jardukiak, nola irri, etc. (Id.ib.SS.18).

Ex. Nola Santa Isabelen paje bat bialirik erregek labe batera, non erreko zuten, gelditu enzuten meza bat eta berze bat, etc. Biali berze bat enbustero izana, xakitera in zen manatua; au erre zuten, berzea libre gelditu, errege admiraturik (In ej.V.).

Ex. San Pasqualek ertxi idiki begiak bere ilariko mezan.

### 35. HUME ONEN TA GAIXTOEN

Ex. Jesus obediente Amari bizian, ta iltzean enkomendatu zue San Juani (Evang.)

Ex. Salomon errege jakintsu andia izanik, jarrarazi bere eskuieko aldean ama Betsabe (3.Reg.2).

Ex. Tomas Morok, belauna paraturik lurrean, eskatzen aitari bedeizioa ta apatzen eskua (Cl.p.1.cat.c.55).

Ex. Benedikto XI. errezibitu ta estimatu bere ama pobrea pobre-gisa jaintsirik, berze gisas ez (Id.íbid.).

Ex. San Fernando murmuraturik sopra obediente zegola amari, zio: Noiz utzi dezaten hume izatea, utziko dut obediente etc. (Ej.V.).

Ex. San Antonio Padua bi aldiz eraman Jangoikoak milagrosoki urrundarik, libratzera bere aita kalumniatik, etc. (Ej.V.).

Ex. Santa Luziak logratu amari sendatzea milagros. Santa Katalina Senakoak uzten debozioak istantean, deitu orduko Amak; eta Jangoikoak asistitzen sukaldean, etc. (In ear.V.).

Ex. Aita sentenziaturik iltzera goseak alimentatzen alabak bere esneas. Piedade goi xakin zelaik, libre, etc.

Ex. Aita zorreatatik preso, ajustaturik libre uztea, baldin aren bi semeek zerbitzatzen baziote borz urtes artzeko zuenai; bata ez zai ta berzea obligatu ze amar urtetako. Au gero arturik heredero fortunoso, etc. Berzea desafortunatu, zorris beterik itzultzerakoan, burua autxirik sartu etxean, faboratu aitak, etc. (Andr.gr.12.SS.5).

Ex. Gaixtoen. Absalon goraturik bere aitaren kontra, dilindan bilotik arboletik irur lanzas il an.

Ex. Seme bati goratu zuenai eskua aitaren kontra, egun berean ebaki ziote esku bera Toledon (Andr.ib.1a).

Ex. Bat erman zuena arrastaka bere aita ardantze batean, ura gero bere semeak arrastatu zue leku berean. Oni dio arrek: Aski da, seme, ezi onaraño nik ere arrastatu nure nere aita (Baro 1.2.c.3).

Ex. Seme bat desanparatu zuena ama donazio in ziona, arrapatu lepotik serpiente batek, nola ibili zen eskarmentutako amareki elizas eliza, etc. (Andr.Ib.SS.10).

Ex. Jaundi baten alaba ezkondu aitaren bortxa nirabe bateki; au emana deabruai, etc. San Basiliok libratu (Ej.V.).

### 36. BURATSOEN

Ex. Doña Blanka San Luisen amak oni erraten: Naiago nuke ikusi zu ilik ezi bekatu mortalean.

Ex. Santa Monika San Agustinen amak zenbat dilijenzia, otoi, negar berareki,



Jangoikoareki, sandueki! Ezta posible galtzea alako negarren humea, zio San Ambrosiok.

Ex. San Andres Korsinoen amak amets eginik zeramala sabelean otsoko bat itzuliko zena axuri Karmesko tenploan, nola asi zen, nola erreprendatzen etc. (In ej.V.).

Ex. Heli kastigaturik, beratxegi erreprehenditus humeak.

Ex. Aurtto bat galdurik ta galdeginik nor zuen aita, nor ama. Aita zio demonioa, ama deabrua; ori aitzen.

Ex. Santa Maria Ogniakoari agertu zekio bere ama kondenaturik, zeren etzuen ajolarik bere familian iten zirenes, ta ez aditzen zuk erranak, ta ez egines penitentzia (Cl.p. 2.cat.).

36. Gaizki egitearen proximoeri.

Ex. Abelen kontra Kain ta Kainen kontra Jangoikoa: Vox sanguinis, fratris tui clamat ad me de terra (Gen.4).

Ex. Il zue batek aurtto bat ta ura eman zen penitentiara; noranai zoeien ta nonnai zegon, zego beti nola ikusten ta aditzen aurtto gura erraten ziola: Zergatik il nau? Zergatik il nau? De manera ezi aburriturik presentatu ze justiziari pagatzeko pena, etc. (Parr.p.2.pl. 37).

Ex. San Balburgaren bizian kontatzen da, bi pobre juntatu zirela bidean peregrino bati. Au lo zegolaik il zute, ta batak artu zue gorputz ila botatzeko ugaldere; baña ila apegatu zekio ain ain fuerte, ezpai zuke aparta niolaterre, ta ilareki bota ze urera, etc. (In ej.V.).

Gaizki erranen. Ex. Aita batek ikusi aurttoa esne edaten, ta erran zio: Edan zak or, edantzak deabrua. Istantean sartu Espiritu gaixtoa ta tormentatu zue anitz urtes gaisotxo (Parr.p.2.pl.38).

Ex. Ama batek zue kondizio errateko aur bati: Otsoek janazatela. Erran ta mezara; ta itzuli zeneko janik otsoak zeuka burua agoan mostra, etc. (Baro.).

Ex. Andre bat odol jarrios zazpi urtes bere iragatik. San Krisostomok.

### 37. ASARRE, ODIO TA ERRENKOREAREN

Ex. Adam ta Ebaren semea Kain izan ze lenbiziko jaio zena mundura. Arrek odios ta invidias iltzue bere anaia. Jaunak kargu egin zio: Zure anaia Abelen odola dagokida klamatzen lurretik (Gen.).

Ex. Batek urte guzian ezin ikusi zue Sakramentu aldarekoa. Sazerdote bateki komunikaturik, onek informaturik erran zio: Eztuena onesten proximoa dago ilik, itsu ta itsusi ariman. Orra kausa. Konfesatu ta emendatu ze, ta ia ikusten zue (Parr.p.3.Euch.).

Ex. Bi emasteki odioan bizi zire: Bata pobrea, berzea abratsa. Nai zue baketu gero ere, berzeak ez iago ezi deabruak. Bazkoa ellegaturik, apez-aitak etzio eman nai komunionea, ezpazitue bakeak egiten. Inzue itxura, ta ala utzi zue komekatzera. Elizatik atratzean, paratu zekio alzinean berzea eskerrak ematen barkatuas; baña arrek suberba asarre dio: Zer? Ni baketu ireki? Lenago urkatu. Istante, pikea bezain beltz paraturik, erori ze ilik; eta kanibeta batez bekala idikirik txintxurria, andik atra ze Hostia konsagratua, gelditurik airean, aliketa sazerdoteak arturik patenan depositatu zuen Sagrarioan. Eta desdixatu gura bota zute kanpoan nola tzakur bat. Eta arima? (Ib.).

Ex. Famatua da Nizeforo ta Saprizioarena. Len adiskide, gero etsai elkarren. Nizeforok akorriturik noizbait, nai zan zue baketu; eskatu zio barkazio Sapriziori. Onek, sazerdote izanik, bota zue ordu gaixtoan bein ta bizpirur aldiz ere. Goratu ze denbora gartan persekuzio kristioen kontra, ta Saprizio gonek sufritu zue martirio arrigarri

fedegatik. Azkenean, sentenziaturik iltzera zeramatelaik, ura zela eskaida ona baketzeko, atra zekio bidera Nizeforo, ematen ziola zori ona ta barka zezola. O gizonaren gogorra! Ezeta beiratu nai ere! Kontra bai errenegatu fedea, etc. Orduan Nizeforok: Nik kristio bekala emanen dut bizia fedegatik. Ala au in ze Martir, ura utzi zute iltzeko (sic), etc. Andik guti ilze, etc. (In ej.V.).

### 38. EXZESOEN, BEREXKI ARDOAN

Ex. Lenbiziko orditu dena munduan izan ze Noe, zein libratu rik dilubio unibersaletik Jangoikoak inarazi zion arka batean, gero plantatu ardantze bat, lenbizikoa, aren fruitutik edan ta orditurik, aurkitu ze indezenteki agerturik; zeintas baitio San Gregoriok, iago kalte eman ziola ardo edan zuen garrek, ezi dilubio unibersaleko ur guziek (Cl.p.3.conci.).

Ex. Lot, zein libratu rik aingeruak Sodomako su-erauntsietaik, etze libratu bera ardoaren exzesotik ta segitu zen desordenaziotik.

Ex. Holofernes, zein orditurik galdu bera ta bere jendea. Baltasar orditurik, profanatu baso sagratuak ta Jangoikoaren sententzia notifikatu, etc. Herodes orditurik, ilarazi San Juan Bautista. Alexandro andiak ordikerian, etc.

Ex. Galbide ematearen. Batek, on izanak, gaixtaturik iltzerakoan klamatzen: Ni banoaie infernura, eta ai galdu nauenas ni! (Cantimpr.Cl.p.1.cath.c.59).

Ex. Eleazaro 90 urtetakoak, ezeta ere iduriarazi nai jaten zuela janari debekatua, ez eman naies exenplu gaixtoa. Oroat San Pablok, non manducabo, etc.

### 39. LIMOSNA ESPIRITUALE TA KORPORALAREN

Ex. Arimen salbatzeko ansien ta neke-penaen exenplu Kristo, apostoluak, Jangoikoaren gizon andi guziak, San Ignazio, San Xabier, San Bizente Ferrer, Santa Teresa, Santa Katalina Senakoa, etc.

Ex. San Juan de Dios eskatzen bati, etzezala ofendi Jangoikoa; arrek eman bofetada bat ta sanduak erran: Eman bez naituen guziak, non ta ez dezan Jangoikoa ofendi. (Ej.v.).

Ex. San Karpo sopra zelos, berantetsirik ez galtzeas galdu zuena, kristio bat erreprehenditu Kristok (Ej.V.).

Ex. Sazerdote bati agerturik San Pedrok libru bateki, erraten dio: Leitzazu. Ta leitu zue: Noiz inen diozu Jangoikoai errestitu zio galdutuzun arimaes? (Señ.Parr.).

Ex. Limosnaren. Bi anaia, date et dabitur vobis. Sareptako alargunaren olioia ustus iraun, etc.

Ex. San Nikolas limosnaren txaskoa bati, ta Jangoikoak berai txasko egiteas, obispo (Ej.V.). San Gregorio emanagatik limosnan onzi bat zillarreskoa, Papa. San Juan limosneroak erosi Troilori limosnaren balioa. San Paulinok eman limosnas bera kautibo ta Jangoikoak, etc.

Ex. San Juan de Diosen pregona: Emazie zeurendako. San Xabierek Pedro Vellori pagatu ong, etc. Beira Ej.V.

### 40. SEIGARREN MANDAMENTUAREN

Ex. Dilubio unibersala luxuriagatik, urrikiturik bekala Jangoikoa kriatuas gizagendea (Genes.6).

Ex. Sodoma ta berze erri gaiek erraustuak azufresko su erauntsieki luxuria

itsusiagatik. (Ib.13).

Ex. Lebitaren konsortea agrabiaturik Benjamindarrek, ura il ta gero iago ezi 65 milla, etc. (Judic.20).

Ex. Troia galdu, erre ta erraustu Helenagatik.

Ex. España 714 urtean artu moroek Florindaren kasos.

Konparanzak. San Anselmok ikusi mundua nola estanke zikin bat, non dabilizan arrantzuan bekala. San Remijiok, aurret landara, larrietaik guti salbo luxuriagatik. Errebelatu arima bati, nola suberbiak bete infernua deabrues, ala luxuriak jendees. San Buenabenturak infernuaren gisara luxuria; an sua, arra ta azufrea. Luxurian pasionearen sua, erremordimentuaren arra ta infamiaren urrin gaixtoa. Luxuriosoa merkatari tontoa, trukutzen infinito balio duena ongariagatik. Nola otsorraia Noen arkatik atra ta gelditu lo, etc.; nola sare andi bat arrapatzen duena ugalde guzia; nola txakur, artzanz, zaldi ta astoen kondizioa: Sicút equus et mulus, quibus non est intellectus.

Konparanzak. Deabruak eixtari-gisa: Banidadeen sareeki; kodiziaren lakio; Luxuria ta gularen zebo; ira ta inbidiazen su-arma; ta perezaren lekedareki.

Ex. Aingiru guardakoak opaturik il urrintzu bat, mellarik ez; bai opatzean deshonesto bat, etc. (Cl.p.2.cat.).

Ex. San Felipe Nerik ezauntzen usmas, honestoak atxon onetik, deshonestoak usai gaixtotik (Ej.V.). Eskarmentu San Martiniano, Santiago Hermitañoa, San Biktorino, iten kostunbre ta okasioes (Parr.p.2.pl.42.43.cl.p.1).

#### 41. KASTIDADEAREN

Ex. Jesu Kristo gizon egiteko Birjinaganik, etc.

Ama Birjina Jangoikoaren Ama izateko, nai iraun birjin, quomodo, etc. Zeruan distingituak aureolas birjin izanak. Lurrean Kristoren esposak deitzen arima garbiak. San Juan Birjin Amaren semetako utzi kastidadeagatik. Sazerdoteak nai konsagratuak kastidadearen botoareki.

Ex. Josef Ejiptokoak triunfatu kastidades ta Jangoikoak etc.

Judit balienta. Elias, Eliseo, Daniel, Susanna, Juan

Bautista, San Josef Ama Birjinaren esposo, etc., etc.

Ex. Santa Petronilak logratu iltzea, ez ezkonzeagatik, etc. (V.). Utzi iltzera Santa Ines, Santa Ageda, Santa Zezilia, Daria, etc. Ear ... Santa Luzia, Santa Brijida Birjinas, etc. San Hilariok eskatuta, logratu il zeien bere alaba galdu bañolen birjintasuna (Ej.V.).

Ex. Santa Magdalena Pazzi ortzizeko kajan ilik, aurpegira beira zegokiolaik bat, itzuli arrek aurpegia, etc. (Ej.V.).

Ex. Espurina, donzella jentil bat, izanik sobra ederra, kanibeta bateki heritus itsustu zue bere aurpegia, ziola: Nai nue autxi lakioa zeintan erortzen ziren ainberze txori simple (Valer. Max.).

Ex. San Pelaio mutiko eder ederra, ezuzteagatik apatzera errege moroaganik, utzi ze iltzera martir.

Ex. Gaste batek ezin libratu berze gisas, bere ortzes ebaki zue bere mia ta tiratu zio aurpegira, etc. (Hier.).

Ex. San bizente Ferrer deiturik konfesatzera, tentatu zue señora batek, zein erreprehenditu fuerteki sanduak, ta iges eginik, ura arrapatu zue demonioak ta zio etzela atrako, ezpazue atrarazten erretzen etzenak suan. Bein ofrezitu zio guardatuko zuela Maria Santisimak (V.).

Ex. San Bernardino ain honesto ezi nior etze trebe aipatzera itz desonestorik aren alzinean, etc. Eldu da Bernardino. (Vit.).

Ex. Santo Tomas Doktore aingirukoak mutil zelarik bota zue sutillete bateki tentazalea ta bera aingiruek zeñitu, etc. (Ej.V.).

Ex. San Bernardok klamatzen oius: Ladronak, ladronak (V.). Sandu gau, San Diego, San Pedro Alkantara bota zire balsa izoztuan; San Benito ta San Franzisko lar ta maldaetan; berze batzuk azotatzen zire kruelkiro; berze batzuk paratzen eskua suan, garaitzeagatik tentazioak eta tentazaleak, ta Jangoikoak obratzen prodijioak.

#### 42. LAPURRERIEN ETA DAÑUEN

Exenpl. Judas traidorea sisatus ellegatu ze, etc.

Ex. Akam arrikatu zute Jangoikoaren manamendus zeren egin zuen lapurreria bat, etc. (Josue 7).

Ex. Ebanjelioko abrats gura kondenatu desanparatuas Lazaro, ta au salbo (Luc.16).

Ex. Zakeok errestituitua laur doble ta, etc. (Ib.19).

Ex. Berzeren gauza kontu dela zeboa satarteran dagona, tenes et teneris, dio San Agustinek (In.pl.61).

Ex. Erres bat ebatsi bere faleareki. Falea kendu ta altxatu, baña beti gilin gilin (Cl.p.1.cat.).

Ex. San Espiridioni erosi batek eun auntz, ta sanduak erran utzi zezala dirua leku batean; arrek sisatu zue baten prezioa. Joaten asi ze bere auntzeki. Gañarakoek segitzen bere bideas zuzen, baña bat beti atzerat. Gizonak laster arat onat, baña ezin zuzendu, etc. Lotu ta artu soñean; baña ark marrakas ta adarrukaldis nekarazten. Guziek irri. Sanduak erraten dio: Ezpide duzu pagatu ori, eztuelaik joan nai. Konfesatu zue, pagatu ta berla segi, etc. (Ej.V.).

Ex. Santa Rosa Biterboren ama inkietaturik zeren ebatsi zioten ollo bat; sandattoak artu zuenari eskatu zio itzul zezala. Onek bota zue ordu gaixtoan gaizki erranka, oius karrikan. Bereala bete zekio lumas aurpegia. Guziek irri aliketa, etc. (In ej.V.).

Ex. San Patriziok exhortatzen itzultzeko pobre bati bere ardi bat ebatsi ziotena; etze protxurik. Inzue orazio Jangoikoai guzien alzinean eta lapurra asi ze beeka ardia bekala. Guziek irri, ark bee bee. Ik artubideduk, ziate; ark bee bee. Ala erremediatu, etc. (In ej.V. Parr.).

... Errestituzioaren.

Ex. Espiritu gaixtoak konjuraturik bein zio: Irur gaude emen: bat deitzen biotz ertxizale, berzea ago ertxizale, berzea bolsa ertxizale; ez damutzeko, ez konfesatzeko, ez restituitzeko (Parr.pl.48).

Ex. Santa Maria Ogniakoaren ama kondenatu ez itzulias nori berea, etc. (Claus p. 1.cat.c.62).

Ex. Bat beti manaturik errestituzioa, beti bazela denbora; azkenean desesperaturik, o penitenzia, zio: Nukelaik, ez nue nai, nautelaik ez dezaket, etc. (Spec.poenit.).

Ex. Usurero batek aditurik predikuan, ezpada errestituziorik ezta salbaziorik, biotza ukiturik, heritasunean deitu zue konfessore bat; oni erran, zuen guzia zela gaizki irabazia. Turditurik konfessorea, alhaitu zue berak, guzia nai zuela eman zeien artzeko zutenei. Ortako billaturik laur gizon prestu, enkargaturik itzultzeko nori berea, saldus edo eman es etxean zen guzia, bera hospitalean il salbatu naies arima, etc. (Parr.p.2.pl.45).

#### 43. JUIZIO GAIXTO TA MURMURAZIOAREN

Ex. Sufritzeko ongi, Jesu Kristo akusaturik, murmuraturik, etc. eta San Pedro, Martiriari errana: Eta nik, Pedro, zer kulpaa nuen paratzeko gurutzeari? Kulpaa gabe da grazia (Ej. V.).

Ex. Irurek goratu San Narzisorik testimonio falsu: bata ilze errerik, berzea oñazes beterik; irugarrena libre konfesatus, barkazio eskatus ta errestitu zio, etc. (Ej.V.)

Ex. San Gregorio, Agrijentokoa obispa, akusatu falsuki konzilioan 110 testigoeki; Jangoikoak libratu ura, kastigatu aiek (Cl.p.1.cat.).

Ex. Bi emasteki txarrek beren deshonrearen kulpaa botarik etzutenei, Jangoikoaren kastigos, etc. (Spec.1.et.2).

Ex. Santa Teresak kontatzen du, bere monja bat aur txipittoa zelarik, artu zuela izeba batek herederatako. Irur emasteki batzuek goratu ziote falso testimonio, ilarazi nai zuela izeba benenos, aurttoak etzakiela ere zer den benenoa; baña irurak itz batean egoteareki, zenbat martirio pasatu zue gaisottoak! Baña Jangoikoaren permisios, aietarik bida il zire errabiatuak bekala; irugarrena erditzetik, konfesatus, etc. (Fundaciones c.26).

Ex. Murmurazioaren. Erreljioso bat, iltzerakoan exortaturik konfesatzera, zio: Eznaike. Ta mia atra ta mostratus eria: Onetxek narama infernura. Istante, aunditurik itsuskiro, il, etc. (Parr.p.2.pl.50).

Ex. San Bizente Ferrerek emasteki mutu bati galdegin zio: Zer nauzu? Ark: Ogi ta mintzoa. Sanduak: Ogi izain duzu, ez mintzoa, etzaiten gal, etc. (Spec.t.ling.ex.8).

#### 44. BEDRATZI TA AMARRGARREN MANDAMENTUEN

Konparanzak. Biotz-barnekoen. Ala nola su-txindiak eskutik, despei gogotik len baño len gogorazio gaixtoak (Aug.ap. Andr.gr.17). Ala nola ats gaixto korronpitua baita enfadagarri gizonen, ala gogorazio gaixtoek apartarazten Jangoikoa: Perversae cogitationes separant á Deo (Sap.1). Abominatio Domini cogitationes mala (Prov.15). Ala nola urrin gaixtoas aizkatzen usoak, ala uzten arima Jangoikoak ezin soportatus gogorazio gaixtoen urrin gaixtoa (Basil.ib.). Abrahamen gisa uli gaixtoak aizkatu, eta nola Ejiptoko eltxo benenatuak (Greg. mor.18.c.28). Jangoikoa espiritu, bear da adoratu espirituas ta egiaz. Emazu niri zeure biotza, dio. Jende gonek ezpañes honratzen nau, baña biotza eneganik apart. Ori da ematea Jangoikoai mia, mamia deabruai. Ori da Fariseoen orantza.

Ex. Monje bat tentaturik fuerteki erresisti fuerteago; gero itxeki sua ta joan erres banaka eskuko eriak. Tentazalea beira barronde arriturik, an ilze derepente. Jangoikoak gero sanduaren orazios biztu berriro ta konbertitu (Andr.ib.) San Antonin.

Ex. Eskribak ta fariseoak, zeñei erraten Kristok: Ai zuetas hipokritak, garbitzen onziaren gañeko aldea, baña barnetik baizauste beteak rapiñas ta inmundizias! Obiaen gisa txuri kanpotik, ta barnean beterik ilezurrez ta zikinkeries (Mat.23).

Ex. Edo nola onzi bat pozios betea esne baño bateki gañeko aldean; otsorrai uso-iduri, etc.

#### 45. ZAZPI SAKRAMENTUEN

Konparanzak. Ala nola gorputzaren bizitzaren, disponitu du Jaunak arimaren bear dena Sakramentueki. Lenik da jaiotzea mundura: Arima jaiotzea graziara iten da Bataioan. Gero azi ta indartzea: Ori arimak Konfirmazioan. Gero sustentatzea: Ori Komunioan. Gero heritzen balitz kuratzea: Ori Konfesioan. Armatzea bear orduan etsaien kontra: Ori Oliaduran. Gero bear nork eman ta nork errezibitu Sakramentuak: Ortako dire Orden

sagratua ta Matrimonioa.

Konparanza. Ala nola iturri baten kañu edo kanaleak, komunikatzeko Kristoren odol preziosoaren birtuteak ta graziak, ta errezibitzeko guk daramagun onzi ta dispozizioaren ariora.

#### 46. BATAIOAREN

Ex. San Patriziori bisione batean mostratu zekio infinizio bat aur, Hiberniatik urrun zegozkiola dei ta dei, zoeiela aien bataiatzera, etc. (Ej.V.).

Ex. San Franzisko Xabierek prinzipioan ezin logra konbertitza anitz larri, baña anitz aur iltzen zirenak bataiatu bai; ta zio, ezpalitz berzerik ere, solamente arima gaien irabaziagatik ontzat zeuzkiela trabaju pasatuak. (Ej.V.).

Ex. Santa Maria Ognikoak ikusi zue atratzen espiritu gaixtoa eta etortzen Jangoikoaren Espiritu Sandua bataiatzean, etc. (Ej.V.cl.cat.).

Ex. San Sijebertok jaio ta berrogeigarren egunean bataiatzerakoan San Amandoren eskus, forma akabatzean, errespondatu zue amen, etc. (Claus ib.4, cat.c.1).

Ex. San Julian bataiatu bitartean, ikusi ze aingeru bat obispoaren bakulo ta mitrareki an (Ej.V.).

Ex. Kasano tartaroen erregeak infielak artu zue esposatako Armeniako erregeren alaba kristioa. Onek bere denboran eman zue argira hume bat, ez persona, bai mostruo iduri zuena. Erregek manatu zue iltzeko bera bere hume garreki. Zeramatelaik, eskatu zue lizenzia ta bataiatu zue; orreki sollik mostruo-iduri gura itzuli ze aingeru eder bat bekala. Orgatik libratu ama, aita konbertitu (Cl.Parr.).

Ex. San Antonio Florenziakoak kontatzen du nola nekazari batek lantzean lurra opatu zuen mi bat gizonarena gorri, fresko, ta mintzatu ziola juez on batena zela, Jangoikoak konserbatu ziola arima, bataia zeien ta salba. Obispoak bataiatu ta auts biurt, etc. (Parr.).

Ex. Aitabitxi ta Amabitxi fiadore direnen. Emasteki galdu bat zeren libratu zuen gizon bat zoeiena urkatzera bere burua, konbertitu zue Jangoikoak ta ala bataiatu nai ze; baña sazerdotea etze trebe, fiadore ezpaze norbait atratzen aren urrengo bizimodu onaren. Agertu ze an erran zuena billatuko zituela fiadore onak; ebek izan zire Alexandriako senadore Jaun andienak: Ala, bataiatu ikusi zutelarik bestimenta txuriareki, murmuratzen zute, baña deklaratu milag., etc. (Parr.).

Ex. San Martinen diszipulo bat iltzena bataiatu gabe, biztu ze sanduaren orazios, kontatus berze munduko berriak; Bataiatu ta bizitu ze asko urtes (In Ej.V.).

Ex. Tukuman indiakoan, moreno bat konfesaturik iltzeko, itzularazi zue Maria Santisimak, desengañatus etzeikela sartu zeruan bataiatu gabe (Andr.gr.2.SS.6).

Ex. San Luis Beltrani, Indian, infiel batek ekarri zio bere seme bat iltzera zoeiena, ziola: Espiritu onak erran dida ekartzeko berorri au, orreki salbatuko dela (Ej.V.).

Ex. Konstantino enperadoreai manaturik medikuek bañatzea aurren odolesko bañuan garbitzeko lepratik, San Pedro ta San Pablok bataiarazirik garbitu ze. San Silbest.

Ex. San Agustinek bataiatu zue Kurma, berze mundutik etorria, manaturik bataia zoeiela (Andr.ib.SS.5).

Ex. Turko bat, Maria Santisimaren manamendus bataiatu ze iltzeko ta salbatzeko (Andr.ib.SS.11).

Ex. Doktore andi bati predikatu ondoan en hora buena ematean, amiña batek erran zio: Zori oneko eguna noiz ori nik bataiatu nuen. Informaturik ongi, etzegola ongi

bataiatu rik, bataiatu ze (Cl.ib.c.10).

Ex. San Andres Korsino, bataiatzerakoan bat, negarres asi ze ezaundurik Jangoikoaren argis au izanen zela gaixtoa ta justiziatua, nola izan baize (Ej.V.).

Ex. San Pedro Nolasko bere Ama Teodorak elizara atratzean zeramalaik besotan, sazerdote meza erraten zegonak orate fratres erran bearrean erran zue: Hic puer magnus coram Domino. Ecce propugnaculum ecclesiae et egenorum solatium. Jangoikoaren, etc. (Ej.V.).

#### 47. KONFIRMAZIOAREN

Ex. San Felipek bataiturik anitz Samariako ziudadean, aien konfirmatzera joan zire San Pedro ta San Juan; Eben orazio ta eskuen paratzeareki errezibitu zute Espiritu Sandua (Act.8). Oroat Efeson San Pablok (Ib.c.19).

Ex. Bataioaren perfekzioa, Konfirmazioa: Artan kristiatzen, ontan armatzen bekala ta alhaitzen, nola Espiritu Sanduaren suareki apostoluak Pentekostesen, Juliano apostoluak demonioei sakrifikatzean ezin atrarazis itzik, ministroak dio: Jauna, gure Jangoikoak daude mutu; bide dago emen kristioren bat balsamos unjitua. Koleraturik enperadoreak dio: Nor da emen ain atrebitua gure Jangoikoaren kontra in dezakena gerra? Bereala soldado batek korajes beterik dio: Ni naiz atrebitu goi noren alzinean ikaratzen den infernua, bainaiz Kristio konfirmatua. Enperadorea, kristio izana, alketurik joan ta guziak alhaiturik klamatzen an: Bai, Jesu Kristo da Jangoiko egiaskoa, etc. (Parr.p.3.pl.3).

Ex. San Mauriliok, zeren meza erraterakoan iltzen aur bat amak ekarri zuena konfirmatzeko, joan urruti penitenzian ta zazpi urteen buruan itzuli ze Jangoikoaren inspirazio eta milagroen podores; biztu zue aur gura ta konfirmatu zue, ta gero izan ze beraren ondorengo obispo, deitua Renato, baita nola berriz jaioa (Parr. de confirmatione et in Ej.V.).

#### 48. KONFESIOAREN. KONTRIZIOAREN (PAG.160)

Ex. Irur predikari munduan izan diren andienek, Jesu Kristo, San Juan Bautista ta San Pedro, lenbiziko prediku in zutena penitenziaren.

Ex. Seme prodigoarena, Pater, peccavi in coel, etc. Fariseoarena, gaizki laudatus bere burua, publikanoarena ongi, Deus propitius esto mihi peccatori, etc. Zakeorena, ofrezitus limosna ta errestituzioa. Magdalenarena lacrimis coepit rigare, etc. San Pedroarena, flevit amare. Saulorena, quis es tu Domine, quid me vis facere? Ingredere in civitatem etc. (Act.9). Fariseoek murmuratzen admititzentuela bekatariak. Jaun onak: Ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak; dela zeruan aleganzia bekatari batek egiteas penitentzia.

Ex. Adiarazteko preziso dena konfesios, egintu milagroak Jangoikoak; ala nola mantenitus arima buru ebakian ladron garri, baizego klamatzen: Konfesio, konfesio (Claus p.2.cath.c.70). Zaragozan, botarik butzura buru ebaki ziotena Alexandrari, buruan mantenitu zen arima, ta Santo Domingok iganarazirik, butzu pokalean konfesatu, etc. Birjinaren debot. (Garces.c). Berze bat debekatu zue Maria Santisimak etzeien urkatu, bai konfesatu ta noreki. Berze bida konfesarazi. Bere debota bat konfesarazi altxatuak, etc. (Andr.gr.20.SS.16 etc.).

Ex. Santa Katalina Sueziakoak, emakume bat zuena tratu deabruareki konfesarazi ta emendatu (In ej.V.).

Ex. San Antonio Padua agertzen bekatarietari ametsetan ere manatus konfesaratzeko

(In ej.V.). Exenplu konfesiorako afizionearen sandu ta sanda guziak; kontra, oposizioaren herejeak, aren kontra lenbiziko tiroak eta aunkak.

Ex. Santa Teresa, naiz errebela zekion gauza bat, berze bat erraten bazio konfesoreak, oni obedetzen zio (sic) ta Jangoikoak aprobatzen, aliketa berak aldarazi au (V.).

Ex. Anitz aldiz Jesu Kristok erran zio Santa Teresai ez deus altxatzeko konfesoreai (Vid.c.26). Zue sandak konfessore bat mortifikatzen ta exerzitatzen zuena anitz, ta ze protxu iago eman ziona. Nai zue aldatu, ta Jaunak erreprehenditu zue.

(V.ibid.). Konfessorea dagola Jangoikoaren lekuan ta nai duela bere Majestadeak in daien ark errana, naiz den errebelazioaren kontra (Morad.6.c.3). Naiz konfesoreak ez azertatu, penitenteak azertatuko du arri obeditzean, naiz Jangoikoaren aingirua zen errebelatu ziona (F.C.8). Sandak segitzen zue lenago konfesoreak manatzen ziona, ezi Kristok erraten ziona orazioan (F.1. Cant 19). Beñere etzue egiten deus konfessorearen opinionearen kontra (T.2.c.11.n.30).

Ex. San Ambrosio izanik obispo ta ain antiguaskoa, egoten ze konfesio aditzen ta administratzen penitenzia, ta negarres negar iten zuteneki (Ej.V.).

Ex. San Martini akar iten zio demonioak nola admititzen zituen konfesioan bekataria ain itsusiak. Errespondatu zio: Naibaiuke ik ere ongi urrikiturik konfesatu eure gaixtoa, iri ere barkalezakek Jangoiko onak (In ej.V.).

Ex. San Antonio Paduakoak zue dono andia konfesatzeko ladron famatuak ta gaizki-egille andiak, eta beraren bedeizioas sendatzen heri konfesatzen zirenak, baña etzirenak ez (In ej.V.).

Ex. San Pedro Gonzalez Telmo, edozein erritan ellega zeien, etze atratzen andik ango guziak garbitu arteo konfesioko lixuan (In ej.V.).

Ex. San Franzisko Xabier India gaietan berze lanen gañetik ontan enpleatzen ze geienik kristioeki; eta ellegatu orduko itsasonziren bat arara, berla zeukate an konbidatzen amorosoki konfesatzera (Ej.V.).

Ex. San Felipe Neri kontino konfesonarioan, iltzen egunean ere, ta askotan argiko ia berrogei zeuzkie konfesaturik; eta Jangoikoaren argias ikusten zitue konzienziak, ta abisatzen berei atzenekizkietenak; ta berexki deshonestoak ezauntzen zitue atxon onetik ta usai gaixtotik deshonestoak (Ej.V.).

Ex. San Raimundo Peñafort penitenziako ministro propia, eta bein erregeri erranik ezpazue despeitzen okasio gaixtoa bera despeituko zela, ta ark manaturik ez emateko niork ere itsasonzirik pasatzeko itsasoa, sanduak edaturik bere kapa itsasoa, pasatu zue aren gañean anitz lekoa, etc. etc. (Ej.V.)

Ex. San Luis Beltran, berze ministro bat Jangoikoaren biotzekoa; eta zenbatenas bekatu iago ta itsusiago konfesatzen zioten, bera kontentago mostratzen. Ori erreparaturik, batek erran zio: Ezpide da ori ain sandua, aditzentuelaik ene bekatu enormeak ain sereno ta kontent iduri. Sanduak errespondatu zio: Ni guardatu nau Jangoikoak erortzetik alakoetan; baña nola ez naiz alegratu bear ikustetas zu erori bazara gizon bekala, konfesatzen zarela kristio bekala? Ta libratzen infernuko otsoaren agotik ta itzultzen Jangoikoaren grazian, etc. (Ej.V.).

Ex. Espiritatu baten agotik erraten zitue deabruak presente zeudenen bekatuak, baña ez ongi konfesatuak. Konfesaturik bat itxuras joan ze, baña istante alkearazi zue burlatus goapoki garbitu zela tintas. Konfesatu ze gero sinki penaturik, ta joanik presenziara, erraten ziate an zeudenek: Orra ire adiskidea. Ark: Ez, au eztut ezauntzen ere



nik, etc. (Parr.p.3.pl.2).

Ex. Parisen bat kontrizioaren utses ezin erabakis, mias bekatuak erman zitue eskribiturik konfesoreai. Onek eskaturik lizenzia konsultatzeko superioerei, zerama papela, ta idikirik leitzeko, aurkitu ze garbi, etc. (Cl.p.3.c.17).

Ex. Obispo sandu batek zue Jangoikoaren donoa ezauntzeko aurpegian nor zegon bekatuan, nor grazian. Kontu emanik bi emaste gaixtoes, komekatzera ematean, ara non ellegatzen diren bi gaiak. Ikustentu argi, eder. Admiraturik ortas, xakin zue konfesatzea ongi baliatu zekiotela. Eman duenak bizia arimengatik zer, etc. (Parr.pl.3).

#### 49. KOMUNIONE SANDUAREN

Ex. Santa Teresak anitz aldiz ikusten zue Jaun dibinoa Sakramentuan. Eta dio, barin bada fede bizia, eztagola ain altxaturik, sentiarazten duela bere prezencia asko maneras. Erregalaten zue miragarriro. Desposatu zue bein emanen arhatako itze bat; etzeikela joan bein erauntsi erruan kasos, erran ziote; ta sandak: Eztut utziko, erauntsi balez ere lanzak. Bein ikusi zue komekatzean sazerdotearen lepoa inguratzen ziotela beren adarres bi demonioek, ta Jaun dibinoa zegola Sakramentuan ain eder, miragarri, zeñek erran zion: Permititu dut ikus dezazun onen estado gaixtoa ta enkomenda zazun, ta xakin dezazun eztela beñere faltatzen ene prezencia Sakramentuan, naiz gaixto izanik sazerdotea ... (Vid.c.38.n.15).

Eta geien komun gelditzen ze sanda komekatu ondoan elebaturik, argi-errañus inguraturik.

Ex. Santa Katalina Sena, pobretto bat ain faboratu apasionatua Jaun Sakramentatuagana ezi artan baizue bere gloria, ta bein garizuma guzian Joan de Salvatore eguneraño mantenitu ze komunione sollareki, etc. (Ej.V.).

Ex. Santa Maria Magdalena Pazzi adinera baño len anhelatzen komekatu naiak, ta bere Ama komekatzen zen egunean, aldakan beti ezin apartarazi, Kristo urrin senti zuela; gero asi zelaik komekatzen, neurritu zizkiotelaik egunak ortako, kontatzen orduak gogoareki, etc.

Ex. Santa Lutgurdis, debekaturik abadesak ain maiz komekatzea, il baize kasi pena amorosoas, ta orgatik kastigatu Jangoikoak abadesa, etzezoz debeka, etc. (Ej.V.).

Ex. San Luis Gonzaga komekatzen asteoro: irur egunak prebenitzen, berze irurak graziak ematen, ta komunioneke eguna kontino amoresko negar gozotan. (Ej.V.).

Ex. San Estanislao Kostka, estudiante-zutuan hereje baten etxean ostatus heri zegolaik, komekatu nai ta ezin logra; negarres aur baten gisa, zerutik komekatu. (Ej.V.).

Ex. San Buenaventura doktorea nai komekatu ta ez trebe humiltasunes; meza laguntzen dagolaik, aldareko Hostiatik saltatu zekio agora Hostia-zatitto bat bete zuena gustos, konsolazios, erregalos, etc. (Ej.V.).

Ex. B. Simoni komekatzera ematerakoan, erori lurrean Hostia ustekabean, ta penas beterik zegolarik ustez berabaitan indigno izanes ezpide zuela nai sartu, goraturik berez Hostia sanda sartu zekio (Cl.p.3).

Ex. Monja sanda batek ezin logra komekatzea bein ta eskatu zio San Lorenzo Justinianori mezan berere artas in zezan memoria; zegolaik au meza erraten, eramanik milagrosoki aren zeldara, komekatu zue (Hui.V.).

Ex. Imelda borz urtetakoa ez utzi nai komekatzera, ta zegolaik negar ta negar zokoan beira komekatzen berzeak, Hostia sanda joan sazerdotearen eskutik bolandan, formatu airean argisko bide bat; ta baratu zekio buruan, andik pasatu agora ta biotzera;

eta amores beterik arima ditzosa despeitu ze igateko zerura (Cl.p.3.Cat.).

Ex. Santo Tomas Villanuevak kontatzen du bates, ain pena errua senti zuela ez komekatzeas ezi bere errian etzeikelaik, joaten omen ze oñes urrun, komekatzeagatik. Ellegaturik berant Ortzegun Sandu batez, paratuas geros monumentuan, an zire aren aiotsak, ansiak, negarrak; baña bi esku agerturik airean Sakramentuareki, komekatu ze ta negarrak itzuli gozotan (Parr.pl.3.).

Ex. Oroat, San Franziskoren bi lego limosna-billa berandurik, egun gartan ikusi zute Sagarriotik atratzen gaste iduri bat ziona zela munduaren salbazale, ta emanik komunioa itzuli ze sagnariora. Oin kuntzeek diraute (Cl.3).

Ex. Santa Margarita de Kortona penitenteen exenplu, beñere etzeikena ase negarres ofendituas Jangoikoa, konsolatu zue bere Majestadeak segurki komekatzerakoan erranes: Nik absolbitzen zaitut zure bekatuetaik Aitareen, etc. (Cl.cat.3.c.39).

Ex. San Ambrosio heri zegolaik, Honorato Berzelisko obispoak abisaturik zerutik irur aldis emateko komekadura, eman zio. San Ramon Nonat komekatu zute aingiruek, etc. (In Eor.V.).

Ex. Bizpirur maiz konfesa-komekatzearen (Parr.pl.11).

## 50. KOMUNIONE INDIGNOAREN. FEDEAREN (P.147)

Ex. Judas traidorea, zeñen barnean amen garren atzetik sartu ze Satanas posesios; beira aren fina (Evang.).

Ex. Sazerdote bat zikindurik deshoneskerias, ellegatu zena komekatzera, kastigatu zue Jangoikoak kanzilla itsusi lotsagarri bateki buruan. Joan ze San Makariogana kuratu naiez. Sanduak, ongi kostarik, azkeneko logratu zio erremedioa; baña obligazioareki ez beñere bere bizian ellegatzeko aldarera (Floss.Ej.V.).

Ex. Berze bati eguerri egunean konsagratu ondoan, uso txuri batek konsumitu zio kalizan zen guzia ta eraman Hostia. Oroat bigarren ta irugarren mezan. Ezaundurik Jangoikoaren justizia miserikordiosoa ta konfesaturik ongi ta eginik penitentzia ere, etze atrebitzen ellegatzera. Gero, noizbait konfessorearen manamendus ellegatu ze, ta sagra ondorean, uso berak itzuli zizkio Hostiak ta len konsagratu guzia (Cl.p.3.c.44).

Ex. Berze indigno bati ustel-urrindu zekizkio ezpañak ta mia, ezpaizekioke nior arrima. Berze bati erre zekizkio eskuak ukondoraño (Spec.Missa).

Ex. Berze bati, etzela nai eman aurtto eder ikusi zuena deboto batek, konfesatuas geros bai gogotik (Ib.).

Ex. Akitanian, gaste bati joanik komekatzera estado gaixtoan ertxi zioite agoa, nork ta nola etxakin, ta idiki ezin; bear izan zue atzera joan. Emasteki bat konfesatu gabe ellegaturik, sazerdoteak erraterakoan Domine, non etc., botarik atzerat ta tronpazo bat emanik lurrain kontra, marrakas asi ze; gero kontatu nola demonioak nai zuen, etc. Kristio gaixto batek Kolonian errezibitu zue Sakramentua agoan, baña egozgaleak obligatu zue botatzera lurrean; eta doazelarik goratzera, agertu ze aur eder bat, ta lekua dago markaturik (Cl.p.3.c.46).

Ex. Gizon deshonesto bat debekaturik komekatzea, ellegaturik ala ere, sazerdoteak eskandaloaren beldurrez eman zio Jaun dibinoa, naiz lastimaturik, etc. Baña agoan artu orduko arrek sentitu zue tiratzen zutela atzerat fuerteki, ta bi eskus ertxitzen ziotela txintxurria garrotatus bekala; nai klamatu ta ezin; saltatu ze forma konsagratua kanpora ta ura ubeldurik aurpegia, begiak ilauri ta agoa idiki, ta mia atrarik itsuskiro, akabatu ze an (Cl.p.1.Conc.c.42).

## 51. BIATIKO EDO KOMUNIONEAREN ILTZEKO

Ex. Santa Maria Magdalena ogei ta amar urtes biziturik eremuan kubila batean, iganes aingeruek zerura maiz, azkenean iltzeko, gastigatu zio San Maximianori atra zeila urbilen igandean elizara, non komekaturik iltze sanduki (Ej.V.).

Ex. Santa Maria Ejipziaka berrogeitazazpi urtes biziturik penitenzian eremuan, Jangoikoaren inspirazios azkenean aurkitu zue Zosimas abadeak, zeñi eskatu zio zetorrela urbilen Asteazken Sanduan leku gartara Sakramentuareki. An, biek erranik Kredoa ta Aita gurea, komekatu ze negar gozoeki ta erran zitue Simeon sanduaren itz gaiek: Orai despeitzen du bakean bere sierbo gau, ofrezitu bekala, zeren nere begiek ikusiduten orren salbazioa. Despeiturik sazerdotea, itzuli ze urbilen urtean ta aurkitu zue ilik argierraiñus (Ej.V.).

Ex. Maurizio Parisko obispo batek, heri ta juiziotik joanik, ala ere eskatzen zue komekadura; trebe etzirelaik ematera, ekarri zioten Hostia bat konsagratu gabe. Istante, oiuz asi ze: Ken, ken, ori ezta ene Jangoiko Jauna. Ekarri zioten gero Hostia konsagratua, zein errezibiturik, etc. (Spec.tit.Euch.). San Ramon Nonati aingeruek ekarri komekadura. San Anbrosiori San Honoratok Jangoikoaren manamendus.

## 52. OLIADURA SANDUAREN

Ex. San Juan de Dios, pobreen aitak, nai zue olia zeien bere hospitalean zegon heri bat; onek atxeki komun gura, badela oraño denbora. Sandua bere limosnen billa atrarik, itzuli zeneko ia heria ilze oliatu gabe; ta mortax atzean, mintzatzen zaio ila Jangoikoaren permisios: O pobreen aita, izan dudan deskuidoagatik oliatzeas, nago sentenziaturik 20 urte purgatorio (Ej.V.)

Ex. Roberto enperadorea, beldurrak il oliatzeareki, zego luzatzen gerorako; baña konseju onen kasos, oliatu ze mugonez ta derepente sendatu, etc. (Parr.ib.de Unitate).

Ex. Fr. Nikolas Nize Franziskanoak kontatzen du, kaballero bat beldurrak il oliatzeareki, il zela oliatu gabe ta asko jenderen alzinean erran zuela: Zeren nai ez nuen oliatu, eun urtes padezitu bear dut purgatorioan, ta oliatu banitza, ez nitza ilen, bai sendatu (Parr.ib.pl.1).

Ex. Errelijioso dominiko batek eskatu zio prioreai olia zezala. Onek, berant zela orduan, utzi zue biramoneko. Goizean joanik, aurkitu zue heria aflijiturik erraten ziola: O Aita, zein obra gaixtoa in didan ez oliatuas bart; ezi orai egonen nitza ia palazio eder batean, non baizeude Fr. Rejinaldo ta berze asko sandu errezibitu nautenak ongi. Baña Jesu Kristok erran dida: Zoaz emendik zu, ezpaituzu errezibitu nik disponitu nuen Olio Sanduaren Sakramentua (Id.ib.).

Ex. Heri bat, konfesatzerakoan atra ze juiziotik oiuz, galdua zela ta kondenatua. Eman zioten oliadura ta, o Sakramentuaren birtutea! Lentxago zegona etsiturik arimaren ta gorputzaren eriotzeas, oliatzeareki, derepente aurkitu ze sano, alegre (Cl.4.cat.c.24).

Ex. Santa Lidubina beti heri, beti eske Ama Birjinai etzezan permiti il zeien oliatu gabe. Bazkoa egun batez, Kristo berak Ama Birjinaren konpañian oliatu sazerdote gisa ta lagundu zio iltzen (Claus.ib.).

Ex. Santa Maria Ogniakoak, bat oliatzerakoan, ikusi zue Kristo bera asko sandueki asistitzen, botatzen deabruak andik ta animatzen heria miragarriro (Cl.26).

Konparanza. Ala nola Kristo Jetsemaniko baratzean kongojaturik zegolaik odol izerditzten aingerua etorri baizekio konfortatzera, ala sazerdotea (Ib.). San Franzisko

Xabierek zio, bizitu direnak lazoki azkenean ain ertxi ertxitzen direla ezi nekez daizkela erreduzi konfiatzera Jangoikoaren miserikordian (Ib.).

### 53. HERI ONAREN KONFORMIDADEAREN

Ex. Santa Klara ogei ta zorzi urtes heri, ta herikor beti, ta beti kontent graziak ematen, beñerez kejatzen; ta azkenean amazapi egunes amenik ezin pasa. Ta konsolatu naizuelaik konfesoreak, errespondatu zio: Ezaunduas geros Jesu Kristoren grazia, etzaida iduri gogor edozein heritasun, pena ta penitentzia (Ej.V.).

Ex. Santa Lidubina iago urtes heri llaga ta oñaze arrigarris, Jaun dibinoak bisitatzen ta ez sendatzen (Ej.V.).

Ex. Santa Jertrudisi agertu zekio Jesus, zekarrala osasuna esku batean, berzean heritasuna, auta zezan zein nai zuen; sandak ez nai baizik berak nai zuena (Ej.V.)

Ex. Emasteki pobre bat deitua Bona, usteldurik bular bat ta beterik arres, bisitatu zue Santo Domingok ta eskatu zio ar gaietaik bat, zein artu orduko eskuan, itzuli ze perla preziosoa; sandak porfia itzuli zezola.

Fr. Rejinaldo heri zegolaik, agerturik gloriako erreginak Santa Zezilia ta Santa Katalinareki, erran zio eska zezala zer nai zuen. Ura zego dudan ta sanda batak erran zio: Ez eska, baizik utzi beraren eskura. Eta Ama Santisimak orduan nai izan zue sendatu, etc. (Rodriguez.p.1.tr8.c.18).

Ex. Benjamin hidropikoak sendatzen berzeak ta bere burua ez; ta lastimatzen zirenei zio: Eska zoze Jangoikoai nere arimagatik, ezi gorputza, sano zegolaik ere, kaltetako ze. San Pablori, virtus in infirmitate perficitur.

Gaizki nagolaik, nago obeki, zio Santa Teresak.

### 54. KONFORMIDADEAREN ILTZEKO ERE (RODRIGUEZ.IB.20.ETC.)

Ex. Desea ta eska daikela iltzea: 1. libratzeagatik emengo gaitzetaik, melior est mors quam vita amara (Eccl.30).

2. Ez ikusteagatik ainberze ofensa Jangoikoaren ta Elizaren, petivit anima sua ut moreretur (3.Reg.19.Elias). 3. Geurok libratzeagatik ofenditzetik. San Luisi amak: Naiago nuke zu ikusi ilik ezi mortalean, etc. 4.Ikusteagatik Jangoikoa ta Jesu Kristo, cupio dissolvi et esse cum Christo.

Ex. San Juan limosneroak eskatu kaballero baten semea senda zeien, ta ilze. Jangoikoak errebelatu aditu zuela orazioa, orai bizi zela glorian galduko zena, etc. (Ib.).

Ex. San Ziprianok kontatzen obispo bat heri zegolaik iltzeko beldurrak, etc., agerturik aingiruak, erran ziola grabe: Pati timetis, exire non vultis, quid faciam vobis? Beldur zarate padezitzeas emen, eztuzie nai atra emendik, zer inen diziet? (Ib.c.21).

Ex. Teodosio abade sanduak idikiarazi zue obia, ta diszipuloak inguruan, galdegin zue: Nork nai ortzi lenik emen? Basilio deitzen zen sazerdoteak: Ni, ni bear naiz ortzi lenbizikoa. Eta eginik il ari honra ta gañarako sufrajioak bizian, berrogeigarren egunean gaitzik gabe iltze nola lokartu, etc. (Ib.21).

Ex. San Simeon ziona: Nunc dimittis servum, etc.

Ex. San Josef, Jesus ta Maria Santisimak bi aldetaik asistitzen.

Ex. Jangoikoa maite dutenak iltzen direla suabeago dio Santa Teresak (V.c.38). Amorea almibar dulzatzenduana, etc.

### 55. ORDENA SAGRATUAREN

Konparanza. Ala nola zeruan diren grado ta distinzio sanduetan ta aingeruetan, ala Elizan kristioetan, ebetaik ministro sagratuak sazerdoteak.

Ex. San Felipe Nerik aurkiturik karrikan amasei urtetako mutiko bat, baratu ze beira ta galdegin zio: Etzara zu sazerdote? Ark errespondatu zio baietz, ta nola ordenatu zuten gogoaren bortxa, ta orgatik zebilala ez sazerdote bekala. Sanduak konsejatu zio bear zena. Gero erran zue ezaundu zuela istargitzean, kopetan, karakter sazerdotala borratu eztaikena, etc. (Ej.V.).

Ex. Konrado abadeari konsagraziooko bi eriek argitzen zio te miragarriri ilunbetan ere (Parr.de ord.1).

Ex. Sacerdos ineffabile conficit mysterium, et conficienti angeli tanquam famuli assistunt. San August. Ordenatu zue San Franzisko Salesek bat sazerdote, ta erreparatuzue nola elizatik atratzean keñu egiten zegon noribaiti, atra zeila len. Galdeginik, errespondatu zio Jangoikoaren fabores zuela ikustea bere aingeru guardakoa eta lenago alzinean joaten zena gelditu zela atzerat orduan, nola ordenatu baize sazerdote. Orgatik zela, etc. (Ibid.)

Ex. San Franzisko Asisek zio ezi aurki balez bateo aingeru bat ta sazerdote bat, lenik apatuko ziola eskua sazerdoteari ta gero egin erreberenzia aingeruari. Eta izanik ain sandu, etze atrebitu ordenatzera sazerdote (V.).

Ex. San Anton abadeak agitz beneratzen sazerdoteak kurtus burua, belaurikatus, eskua apatus, etc. (Ej.V.).

Ex. Aita Antonio Ruiz Montoiari asistitu Maria Santisimak, amabitxi bekala, meza berrian guzian, etc. (Parr.ib.).

Ex. Berze sazerdote bat tentatua Sakramentuaren fedean, seguratu zue Ama Santisimak. Bein mezan, sagra ondoan desagertu zekio alzinetik Hostia konsagratua. Lotsaturik goratu begiak ta ikusi zue Ama Birjina bere Semeareki besotan, erraten ziola amorosa: Tori, au da nere Semea, zuk konsagratu duzuna, etc. Ez duda, etc. (Parr.).

Ex. Santa Katalina Senakoak, ikusten zuelaik pasatzen karrikan sazerdote bat, jautsi ta apatzen zue lurra non frinkatu zuen arrek bere oña (In ej.V.). Karlos V enperadorea zegolaik aditzen predikua, erreparatuzue atzeko aldean zegola sazerdote bat txutirik. Jaiki ze ta nai zue jarrarazi bere katedran; ta bere Majestadea etze jarri aliketa ekarririk silla bat jarrarazi zuen bere aldakan (Bar.) Nulla Major dignitas sub sole, quam sacerdos Dei. Solo suo creatore inferior est. (August).

Ex. Maria Santisima kejatzen da grabekiro eztutenes respetatzen sazerdote pobreak. Gañarakoes landara dio: Andia ze nere dignidadea, Jangoiko beraren Amarena; alaere lurreraño apaltzen nue nere burua sazerdoteen oñetan. Asko aldis apatzen nue lurra non paratu zuten oña, ta ori neuka ditxa anditako. Eta nai dut xakin dezazun ezi zeruan duten tronotik beiratzentutela errespeto ta benerazioerki sazerdoteak lurrean daudenak (Myst.cuid.p.3.n.572).

Zer iago daike erran? Eta zierto sazerdotearen dignidadea da berarenaren gisa bere ariora. Ô veneranda sacerdotum dignitas, in quorum manibus velut in utero virginis incarnatur filius Dei! (Aug.)

Ex. Zegolaik sazerdote bat meza erraten ez ain dezente nola bear zen, beira zego Juan de Avila benerablea, ta zelos errerik jaiki ta doaie aldarera, ta bela bat konpontzeko atxekian erraten dio grabe: Trata bez ongi ezi Aita ta Ama onen humea da (Ej.V.).

Ex. Purgatorioan zegon arima bates diote asi zela beren alegranzias kantatzen. Zergatik ote? Zergatik bere jendakitik jaio zen egun gartan aur bat izanen zena sazerdote,

ta mezaeki libratuko zuena pena gaietaik. Naiz bai, bazue zer etxiden 24 urte (Claus.p. 1.Conc.c.80).

Ex. Avila venerableak, meza berria sollik erran ta iltzen bates zio bazemala zertas kontu eman sobra ere. Iago zio, asko malhur ta gaitzen kausa botako dela sazerdoteen gain eta asko penatuko direla izanas sazerdote; eta pizuago dela kasulla, uste duten baño (Cl.cat.4). Sazerdote onen exenplu San Pedro, San Juan, etc. Gaixtoen eskarmentu Judas Iskariote urkaturik dilindan, etc.

Ex. Heli sazerdotea il derepente, naiz berez ona, zeren ez aski korrejitu bere bi humeak, Ophni ta Finees, baizire filii Belial nescientes Dominum; neque officium sacerdotum ad populum, zein biak il baizire egun batean, etc., etc. (1.Reg.2.3.etc.).

Ex. Potamius episcopus.Bracarensis. post peccatum in honestum publicam et perpetuam egit poenitentiam, nec rursus ad officium episcopale reversus est (Flos SS.in V.1.Fructuosi).

Ex. Cuidam dixit ex Hostia, cur tu male habes me, cum ego non male habeam te? (Andrad.).

Ex. Santa Teres (Vid.c.38.n.15).

## 56. MATRIMONIOAREN

Ex. Trintate Jauna kasamentari bekala, erran zuelaik Adanes: Egin zogun bere gisako laguntza bat. Ortako Adanen kostillatik formatu baizue Eba, ziola: Au deituko da gizakidea zeren gizonaganik artua den. Onengatik utziko du gizonak bere aita ta bere ama, eta artuko du bere konsortea edo bizikidea ta egingen dire biok bat bekala. Jesu Kristok gero konfirmatu zue kontratu gau ta konsagratu Sakramentu erranes: Beras, bateratu duena Jangoikoak, ezdezala berexi edo apartatu gizonak (Mat.19).

Ex. Maria Santisima ta San Josef. Baitare lenbiziko milagroa egitea Jesu Kristok boda batean Ama Birjinaren petizios; itzulis ura ardotan, asistitus an Jaun dibinoa, Maria Santisima ta apostoluak matrimonioaren honratan (Jo.2).

Ex. Abraham ta Sara, Isaak ta Rebeka, etc. Prinzipalkiro Tobias ta Sara, izanes kasamentari bekala San Rafael zerutik bialia, etc. Konta agitua, etc.

Ex. San Ebaristo Aita Sandu seigarrenak, apostoluen tradizios ordenatu zue matrimonioa zelebrea daien publikoki, ta sazerdotearen bedeizioa ematea. San Soterek gero berritu zue manamendu goi (Burius).

Ex. San Ignazio M., ziona: Eztut nik mespreziatzen, ez, matrimonioaren estadoa. Ojala banitz digno ni egoteko zeruan anitz ezkondu izanen oñetan (Parr.hic.pl.1).

Ex. San Luis, San Fernando, San Leopoldo, San Henriko, San Konrado, Santa Paula, Santa Brijida, Santa Edubijes, Santa Isabel etc, etc, etc.

Ex. Nola zegolaik Juan abade sandua konjuratzen ta ezin atrarazis espiritu gaixtoa, atrazen au istante, ellegatzeareki an nekazari ezkondu pobre bat, etc. (Parr.ib.).

Ex. Nola seme bakar abrats bat eznaiez ezkondu abrats bateki, ta in zen pobretto on bateki, ta fortun (Ib.2).

Ex. Nola buratsoen desgogora ezkondurik señora bat nirabe bateki, au gero agertu sorgin, etc. San Basil. etc. (Ib.3).

Ex. Nola Santa Monikak sufritus senarra, beñere ez aipatus kontra, orazio egines Jangoikoai konbertitu, etc. (In ej.V.)

Ex. Libia, galdeginik nola irabazi zuen bere senar Augustoren grazia, egines nai duena, zio: Sufritus, etc. (Ib.6).

Ex. Nola Asbertak libratu zuen kautiberiotik Bertulfo bere senarra, joanik musiko iduri, etc., leigarri da (Ib.5).

Ex. Konrado III enperadoreak inguraturik Vinsperg, ia ia galtzeko guziak, sollik emastekiei permititu atratzea nai zuten gauzaeki beren soñetan; ikusgarri ze nola zoezin atras nor bere senarrareki soñean. Orgatik barkatu guziei biziak ta ondasunak, ... (Ib.6).

Ex. Doña Santxa Kastelako kondesak libratu senarra Leonen preso zegona, tresenak aldatus, gelditus, etc. (Cl.p.3.c.56).

Ex. Nataliak eznei admititu etxean San Adriano, ustes ernegatu zuen fede Kristioa, gero akonpañatu, etc. (Id.c.57).

Ex. Mitridates errege izana desterraturik, akonpañatu bere bizikide Hipsikrateak gizonki gisa jaintsirik; orgatik baizio ark, iago estimatzen zuela karidade gau ezi, etc. (Ibid).

Ex. San Isidoro Nekazaria ta Santa Maria de la Kabeza, au falsuki akusaturik pasatu oñes ugaldean etc. (In ej.V.).

Ex. Senar-emasteek utzirik pleitua Arkidamo jakintsuaren eskura, onek juramentarazi egonen zirela beraren sentenziara. Sentenzia ez aipatzeko pasatuak, barkatzeko elkar ta uzteko guzia atzendurik (Parr.pl.7).

Ex. Sokrates jakintsua beiti sereno, ixil zegon bitarteo, andrea Xantipe goititik karrañatzen; azkenean tiraturik kantaro bat ur burutik bera, arrek dio: Banekie ortotsen ondoan datorrela erauntsia. Eta lagunei zio, etxean zuela eskola ikasteko pazienza. Erremedio andia mokokaetan idukitzea berzeak. Ur urrupa bat agoan, eman zio konfesoareak. Zer ur da au, etc. Erremedio ertxitzea leio bat berere, nasten duelaik aizeak guzia, daudelaik bi leioak idikirik (Ibid.).

Ex. Nola Roberto erregeri lлага benenatua bere andreak kuratu txupatus ixilkian (Cl.p.2.cat.c.44).

Ex. Bizikide bida bizi zirelaik bake onean, bolsa gelditu senarrari eskañuan, ta iretsi zue txerriak. Ark sospetxa, konsulta sorgin bateki, onek deabruareki: Onek erraten dio zena, baña ik erranzon artu duela bere emasteak gastatzeko gaizki. Fortunas aitu zue ori barronde zegon batek. Sorginak erran zio gizonai odio zionagatik, etc. Zer diskordiak! Zer arroitauak! Baña aditu zuenak kontatzeareki zena ta iltzeareki txerria aurkiturik, etc. Sorgin gura kastigatu zue justiziak etc. (Cl.p.v.cat.c.35).

Ex. Nola ama ta aita ta irur hume il elkar, juramentu falsu eginik etziotela fiatu dirua alargun bati (Ib.43).

Ex. Siziliako Palermon erregeren tesoreroa falsuki akusaturik, sentenziatu zute urkatzera. Boto inzue Ama Birjinai, libratzen bazue, ezkontzea pobre bateki. Libratu zue. Bereala joan ze Katanara ematera graziak Ama Birjinai bere tenploan. Portalera ellegatzean opatu zue neska pobretto bat, zeñi galdetu zio non zen Ama Birjinaren tenploa. Ark erraten dio: Nik erakutsiko diot, arara noaie, betor. Ellegaturik, dagolaik orazioan, ikusten du neska gura ain debota ezin iagos. Admiraturik, jaun garrek artu zue bere esposatako, ta bera ze nori Ama dibinoak errebelatu zion akomodatu zuela ongi. Ala bieri, etc. (Cl.p. 3.59).

Ex. Ezkondu batek laudatzen zue kasto bere burua zeren guardatzen zion fedea bere konsorteai. Frai Gilek erran zio: Ori ongi, baña beira ezi bere etxeako ardoareki daikela orditu bat (Parr.pl.6.matr.).

Ex. San Franzisko Salesek dio ikusi zuela Santa Katalina Senakoak infernuan anitz kondenatuak, ez guardatuagatik bear den honestidade, moderazioa ta dezenia

matrimonioan. Ama bat bere alabari aparezitu kondenaturik orgatik, gañarakoan izanik ere exenplu onekoa (Ibid.)

Ex. San Venceslaus ab avia Ludmilla, Boles laus a Matre Drahomira educati quam divers. Felicitas 7 filior. Symporina 7. Nona 12 filior. SS. sobole felicissimae, etc., (S. Godoleva M.).

#### 57. ZAZPI BIZIO BURUEN, KAPITALEEN

Zazpi bizio, inklinazio edo azi gaixto tugu lur gontan, zeñen kasos, nola eixtariek egastiak ta animaleak, etsaiek arrapatzentuten arimak. Suberbo, andinai, presumitu, banoak, nola sareeki; kodiziosoak nola lakioareki; luxuriosoak ta gulosoak beren zeboeki; iratsu ta inbidiosoak sutunpaeki tiroka; perezoso, alfer, nagi, epelak, nola lekedareki.

#### 58. SUBERBIAREN

Ex. Luzifer, aingeru ederra zena, itzuli zue demonio itsusia superbiak.

Konparanzak. Da aizea: Aizeak itzaltzen argia, sekatzan intza, goratzen autsa, etc. Da nola kea, nola ilauna, nola ur kaskarabilla, etc. Da banoa nola olloa, errun arrautze txipi bat ta guzia karaka, ta ala galdu arrautzea. Da nola zikirio buru utsa ta bulto aizes aunditua; ezin pasa zeruko ataritik, baita apal ta mear (Bonav. Aug.).

Erremedio ta exenplu Kristo manso, humila biotzes. Humillatzen dena goratu, goratzen dena apalduko da. Humilai Jangoikoak ematen grazia, superboei kontra. Obeda bekatari humila ezi justo superboa; onek onkies ez irabazi ta gaizkiez galdu, guzia galdu. Itxaur fut futa, Sodomako fruita, etc.

#### 59. KODIZIAREN

Exenpl. Judas Iskariote, limosnak sisatu, Jesus saldu, dirua botatu, bera urkatu ta deabruak, etc.

Konparanzak. Kodizia nola itsasoa, nola erioa, nola infernua; Ura ez asetzen ures, berzea ez iles, ta infernua ez asetzen iretsis; ala kodizioso dena ezta asetzen, etc. Da nola satitsua edo satorra: Belz ariman, itsu, ignorante, lurrean ortzirik ta Jangoikoas, zeruas atzendurik.

Nola errotarria ta errueda: Inguraka beti ta beti batean, azkeneko nola etorri ala joan mundutik, etc.

Nola hazienda beltza: Bizian deustako, il goizik kirrinkas, erre, etc. Ala iltzen delaik kodiziosa, tira etc.

Nola eltze itsua deitzen dena: Nondik ezin atra sartu zena, ezpada auxten; ala kodiziosoa il arteo, etc.

Nola hidropikoa ezin ase ures, edanago ta naiago, ta kuratzea neke, etc, ala kodiziosoa, etc.

Nola saga satarteran: Arrapatu zeboa ta arrapaturik gelditu, nekez atra, errestitu zio, etc.

Erremedio. Exenplu. Jesu Kristo liberal guziz eginik pobre ganbela ta gurutzeraño, eman bera den guzia; ta zer eztingu eman ta emanen ainberze emandakoak?

Ex. Juizioko egunean sententzia miserikordiaren ariora, eginaren edo ez eginaren konforme, etc.

Ex. Quod dans pauperi dat Christo; Quod uni ex minimeis fecistis, mihi fecistis: Scil. pro, et contra.



Ex. Item, date et dabitur bobis, mensuram bonam, etc. (Luc.6).

## 60. LUXURIAREN

Ex. Herodes errege ta urde, ilarazi San Juan Bautista.

Konparanzak. Nola infernua, non sua, arra, azufre urrinzua ala luxurian pasionearen sua; konszienziaren arra erremordimentua; eta infamiaren urrin gaixtoa, etc.

Nola otsorraia, zein arkatik atra ta gelditu baize gorputz il korronpitueta zebatzen; usoa ez, etc.

Nola ugaldeko sare andia, arrai txipi-andi guziak arrapatzentuena, totum traxit in sagena.

Nola zaldi, asto ta abre, zakurrak, etc; nola munduko pestea ta pegakorra; nola deabruaren irabazi andiena ta zebo tentatzentuena guziak, etc. Ebanjelioan aipatzen den bide zabal, etc. (Bonav.). Nola gizagendearen azazkar itsusi, pegakor, deshoneskoa, animaletzen duena, comparatus est jumentis. Nola Ejiptoko elze ta farraskeriak, zeñen amorez mezprezatzen manna zerukoa ta Jangoikoaren gozoa, etc.

Erremedio ta exenpl. Jesus, Birjinaganik jaioa, Birjinen esposo, etc. Maria Birjin Amaren debozioa. Aingiru guardiakoarena. Santo Tomas Akino. San Bernardo. San Franzisko Sales. San Bernardino, etc. Santa Zezilia, Santa Luzia, Santa Kunegunda, Santa Petronilla, etc.

Fuga, modestia, mortificatio, humilis oratio; continentiam jubes, Domine; da quod jubes, et jube quod vis.

## 61. GULAREN, ORDIKERIAREN

Ex. Noe, Lot, Baltasar, Herodes, etc. Olofernes.

Konparanzak. Nola Kristoren gurutzearen etsai, zeñen fin ta buka eriotzea, ta zeñen Jangoikoa tripa (Filip.3).

Nola zaku zulatua edo urratua, betetzen ta ustutzen beti, beti sar atraketan, etc. (Bonav.).

Nola ziraña, zeñen alaba bida (Prov.30) eske beti afer afer, ekar jatera, ekar edatera, etc.

Nola arraia txintxurritik hamuas ta egastea lepotik lakioas arrapatzen, ala golosoak, etc.

Nola itsasonzian sobra kargatzea edo arrallatzea baita kausa ondatzeko ta galtzeko, ala triposkeriatik anitz gaitz ta kalte: Entendamentua tontorrotzen, burua pizutzen, animaletzen persona, gorputza gaizkitzen, mia lazitzen, kolera itxekitzen, luxuria berotzen, alkegabetzen, ajolakabetzen, desgobernu, desordenazio, kalte, pobreza, etc.

Erremedio. Abstinenzia, sanotasunaren ama, gorputzaren ta arimaren.

Ex. Daniel bere laguneki.

Ex. Institutio jejunii quadragesimalis, de quo Ecclesia quod animabus corporibusque curandis salubriter institutum.

Ex. Medikuek heri asi denai konbalezitzen, lenbiziko errezeta dute dieta; bizimoduan, oroat, onera ematen direnei lenbizikoa abstinenzia, bentzait tenplanza.

## 62. IRAREN, ODIO TA INBIDIAREN

Ex. Herodes irátus occidit innocentes, Judaei Jesum.

Konparanzak. Nola suak erre ta errausten agoztegia ala irak arima herikor,

pazienzia gutitakoa.

Nola elze irakiten duenak botatzen gaingas barnean egon bear zirenak, oroat, asarreak ixildu bearrak.

Nola basurdea ta zezena jokatzen armaren kontra, naiz il, ala asarreak itsu itsua edozeñen kontra.

Nola onzi utsa lertzen suan, ala pazienzia gabea edozein trabaju, agrabio-iduri ta naigabetan.

Nola deabrua, dela daukana odio biotzean, Anti Kristo estorbatzen duena bakea; ta au paratzen duena Jangoikoaren humea errealidadean, dio San Agustinek (S.28 ad fr.).

Inbidia nola arra zur eta fruitan, erdoia burriñan, sitsa tresenan; nola begi gaixtoa, on guziaren kontra. Bi alaba ditu deabruaganik, baitire berzeren ones tristura ta gaitzes alegranzia.

Inbidiak ekarri eriotzea; inbidiak il Kristo (Bon.).

Inbidioso basilisko deitzen du San Bernardok, begian daramana beneno mortala (Sup.ps.qui habit.s.18).

Inbidia dela itsutasuna, itsutzen arima (Chrysost.).

Atxekiarik gabeko gaitzak lekurik ez zeruan etc.

Guzien erremedio. Karidadea Kristok egin ta erakutsi zuena len ta gero ta beti, etc.

### 63. PEREZA, GOGAITZ TA EPELTASUNAREN

Ex. Laodiziako elizaren aingerua ez otz ta ez bero, bai epel; orgatik asiko dela egozten Jauna, etc. (Apoc.3).

Konparanzak. Nagi, epel edo alferra nola zarika edo zugarra itzal iteko, ez fruitu emateko (Bonav.).

Nola etiko edo perlesiatua, ezindua bekala, etc.

Nola estudiante ajolakabea, gizon lozorroa, etc.

Nola ur geldia, alor soro sasis betea, etc.

Nola txitxarra kantus, ez txinurria bekala bildus.

Nola etxokandre gastatzen sobra ta eztuena irabazten, etxea galtzen ta nausia pobretzen duena (Avila).

Nola Jaun andiari, nori dion obligazio infinito, eman guti, ta ori ere gana gaixtoan. In bear luke bentzait pobre prestuak diona: Jauna, emen eztu aurkituko baizik borondate ona.

Erremedioa. Dilijenzia, fintasuna, ferborea, etc.

Humiltasuna, orazioa, amorea, deseoa, etc.

Exenpl. Orazioaren. Zeuzkielaik Moisesek goraturik besoak, bereek garaitzen; ta apaltzetuelaik, garaituak (Ex.17).

Ex. Sartu maiz Jesusen llagen barnean (S. Vic.Fer.).

Nolite peregrinari in fervore, ez bere beroan egin geiegiak bearreztirenak. Ferbore sentigarria eztago gure eskuan, ezta bear ere. On da prokuratzea ta ez logratzea konta geuren kulpa dela; baña ez orgatik afliji sobra, nola ulia kopetan pikatzen didana iltzeagatik ematea golpe bat il nazana. Zerura doazinak ez guziak bardin. Ez desespera, naiz etzaren obenetaik (Avila p.3. cart.).

Kontrizioaren. Exenpl. Marina Eskobar benerealeak zue barridean emasteki bat etxean sartzek zekiona ta inkietatzen nai baño iago. Agitu ze akzidente bateki gelditzea sentidoik gabe mutu, ta ezin konfesa, ta ala iltzea; gelditu ze kuidadotan aren sortetas, eta

Jaunak erran zio: Enkomenda zazu, ezi bearrean dago zeruratzeko. Admiraturik zegolaik, erraten dio: Ez admira, ezi eman nio kontrizio ta barkazio il bañolen, ezpaitut nai gal daitzen arimak, ezi kosta izkida anitz.

Ex. Dabid, erran zueneko peccavi Domino, istantean seguratzue profetak, Jangoikoak ere barkatu ziola, etc. (2 Reg.12).

Ex. Seme prodigoak erran Aitari: Peccavi in coelum, etc. Aitak bereala bestiarazi galas ta fest, etc. (Luc.15).

Ex. Emasteki galdu bat, aditzerakoan San Bizente Ferrer, gelditu ilik an berean, ta sanduari errebelatu il zela kontriziosko penas, ta joan zerura (Parr.pl.9).

Ex. Santa Katalina Senakoari konfesoreak eskatu logra zezon Jangoikoaganik induljenzia bat plenaria. Sandak biramonean Jangoikoaren ona ta gure gaixtoa erabakis, urtus ura negarretan: Orra non duen induljenzia plenaria (Ej.V.).

Ad majorem Dei gloriam. Amen.

Ama Birjinari. — Jangoikoaren legea.

Birjin Ama ezin ohea, — Dire amar mandamentuak,

O planta bedekatua, — Bidetan biltzen guziak,

Eman duena fruitua, — Ala nola amar eriak

Faltatu gabe lorea, — Bi eskuetan paratuak

Niri emateko zerua, — Jangoikoa onetsi beragatik

Bida bida baimendea. Amen.

— Eta proximoa Jangoikoagatik O Jangoikoaren aingeru ona, pobre gonon guardian dagona; bada, beraren piedades orren anparoan nago ni, guarda, goberna, kida benaza ta salba egun ta beti. Amen.

### ZEÑATZEA

Gurutze Sanduaren + señaileagatik gure + etsaietatik libera gaizazu + gure Jaun eta Jangoikoa.

### SANTIGOATZEA

Aitaren, ta Semearen, + ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

### ORAZIOAK. AITA GUREA

Aita gurea zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena; etorri bedi zure erreinua, kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere; eman dezaguzu gure egunorosko ogia egun eta beti; barkadazkiguzu guri jeuren zorrak, ala nola guk barkatzenbaitiogute gu zor gaitusteneri, ta ezkaizazula utzi tentazioan erorzera, ta libra gaizazu gaitzetik. Amen.

### ABE MARIA

Jangoikoak salba zaizala Maria grazias betea, Jauna da zureki, bedeikatua zara emaste guzien artean ta bedeikatua da zure sabeleko fruitua, Jesus. Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk otoitz egizu gu bekatariengatik orai ta gure eriozeko orduan. Amen.

### KREDOA

Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren kriadorea baitan, ta Jesu Kristo arren Seme bakar gure Jaunabaitan, zein konzebitu baize Espiritu Santi Jaunare obras ta birtutes; jaio ze Maria Birjinaganik, pasatu zue pasio doloresko Ponzio Pilato juezare manuaren azpian, guruzifikatu zute, ilze, orzi zute, jautsi ze linboetara an zeuden arima santa profetaen librazera; andik ilta irugarren egunean erresuzitatu ze ilen ertetik bere birtute propios, igan ze zeruetara, an dago jarririk Aita eternoaren eskuetakako aldean, nondik etorko baita azken juizioko egunean onen ta gaixtoen juzgazera. Alaber sinestazen dut Espiritu Santi Jauna baitan, Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa, aragiaren erresurrekzioa ta bizitza sekulakoa. Amen.

### SALBEA

Jangoikoak salba zaizala Erreina, miseriardiaren Ama, bizitza, dulzetasuna ta gure esperanza, Jangoikoak salba zaizala. Zuregana deies gaude Ebaren hume desterratuok. Zuregana suspiratzen dugu aies eta negarres negarresko balle gontan. Ea bada gure Abogada, itzulizkizu guregana zeure begi miseriardiasko goiek, ta desterru gonon ondorean erakutsaguzu Jesus zure sabeleko fruitu bedeikatua. O klementisima, O piadosa, O dulce beti Birjina Maria, zuk otoitz egizu guregatik Jangoikoaren Ama sanda, izan gaizen digno erdexteko Jesu Kristoren promesak. Amen.

### ARTIKULO FEDESKOAK

Artikulo fedeskoak dire amalaur; lenbiziko zazpiak, Jangoikoaren dibinidad

sanduari dagozkionak dire ebek:

Lenbizikoa, sinestatzea dela Jangoiko bat bakarra guzis poderosoa.

Bigarrena, sinestatzea dela Aita.

Iruugarrena, sinestatzea dela Semea.

Laurgarrena, sinestatzea dela Espiritu Santi Jauna.

Borzgarrena, sinestatzea dela Kriazalea.

Seigarrena, sinestatzea dela Salbazalea.

Zazpigarrena, sinestatzea dela Glorifikazalea.

Berze zazpiak, Jesu Kristoren humanidade sanduari dagozkionak dire ebek:

Lenbizikoa, sinestatzea Jesu Kristo gure Jauna gizon den bezan bates izan zela konzebitua Espiritu Santi Jaunaren obras ta birtutes.

Bigarrena, sinestatzea jaio zela Birjina Mariaganik, gelditurik birjin erdi baño len, erditzean ta erdiaskeros beti birjinik.

Iruugarrena, sinestatzea pasatu zuela pasio ta eriotze gure ta mundu guziaren salbazeagatik.

Laurgarrena, sinestatzea jautsi zela linboetara an zeuden arima guzien libratzera.

Borzgarrena, sinestatzea erresuzitatu zela ilen ertetik bere birtute propios.

Seigarrena, sinestatzea igan zela zeruetara ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean.

Zazpigarrena, sinestatzea etorko dela azken juizioko egunean onen ta gaixtoen juzgazera, onei emain diotela betiko bere biziko gloria zeren guardatu zituste bere mandamentu sanduak, ta gaixtoei infernuko sekulako pena zeren etzitusten guardatu. Amen.

## MANDAMENTUAK

Jangoikoaren legearen mandamentu sanduak dire amar (irur lenbizikoak dagozkio Jangoikoaren honrari, berze zazpiak proximoaren probetxuari):

Lenbizikoa, Jangoikoa onetsi ta adora zagula gauza guzien gañetik.

Bigarrena, juramentu banorik in etzagula.

Iruugarrena, jaiak eta igandeak guardazkigula.

Laurgarrena, aitetamak ta geurok baño iagokoak ongi honra ta errespetazkigula.

Borzgarrena, nior il etzagula ta ez deseatu.

Seigarrena, luxuriasko bekaturik in etzagula.

Zazpigarrena, nion deus ebatsi etzagula.

Zorzigarrena, niori falso testimoniorik erakitxi etzagula, ta ez gezurrik erran.

Bedrazigarrena, proximoaren bizikidea deseata etzagula.

Amargarrena, Jangoikoak ematendigunareki kontenta gaizela.

Amar mandamentu gebek enzerrazen dire bidetan: lenbizikoa, Jangoikoa onestea guzien gañetik; bigarrena, proximo laguna geuren buruok bekala Jangoikoa gatik. Amen Jesus.

## ELIZAKO MANDAMENTUAK DIRE BORZ

Lenbizikoa: Jai ta igandetan meza osoa enzutea.

Bigarrena: Urtean bein berere konfesatzea, edo lenago, barin bada ilzeko peligrorik edo komekatu bear badu.

Irugarrena: Bazkoa garizumakoetan komekatzea, edo lenago, barin bada ilzeko peligrorik.

Laurgarrena: Eliza Ama Sandak manazen duenean barutzea.

Borzgarrena: Amarren eta primiziak justo ta lealki egitea. Amen.

#### ELIZAKO SAKRAMENTUAK DIRE ZAZPI

Lenbizikoa: Bataiatzea.

Bigarrena: Konfirmatzea.

Irugarrena: Konfesatzea.

Laurgarrena: Komekatzea.

Borzgarrena: Oliatzea.

Seigarrena: Ordena edo Ordenatzea.

Zazpigarrena: Matrimonioa edo ezkontzea.

#### OBRA MISERIKORDIASKOAK DIRE AMALAU

Lenbiziko zazpiak espiritualeak edo arimarenak dire ebek:

Lenbizikoa: Eztakienai erakustea.

Bigarrena: Konseju bear duenai konseju ematea.

Irugarrena: Utsiten duenai korrejitzea.

Laurgarrena: Injurien barkatzea.

Borzgarrena: Tristeen konsolatzea.

Seigarrena: Proximo-lagunen faltak ta agrabioak pazientzetan eramatea.

Zazpigarrena: Ilen ta biziengatik Jangoikoari otoitz egitea.

Berze zazpiak korporaleak edo gorputzarenak dire ebek:

Lenbizikoa: Herien bisitatzea.

Bigarrena: Goseak dagonai jatera ematea.

Irugarrena: Egarrak dagonai edatera ematea.

Laurgarrena: Biluxien bestitzea.

Borzgarrena: Kautiboen erreskatatzea.

Seigarrena: Pobre ta peregrinoei ostatu ematea.

Zazpigarrena: Ilak orzitzea. Amen.

#### BIZIO EDO BEKATU KAPITALEAK DIRE ZAZPI

Lenbizikoa: Suberbia.

Bigarrena: Abarizia edo Kodizia.

Irugarrena: Luxuria.

Laurgarrena: Ira.

Borzgarrena: Gula.

Seigarrena: Inbidia.

Zazpigarrena: Pereza.

Zazpi bizio-eben kontra dire zazpi birtute.

Suberbiaren kontra, Humildadea.

Kodiziaren kontra, Largeza.

Luxuriaren kontra, Kastidadea.

Iraren kontra, Paziencia.  
Gularen kontra, Tenplanza.  
Inbidiaren kontra, Karidadea.  
Perezaren kontra, Dilijenzia.

#### BIRTUTE TEOLOGALEAK DIRE IRUR

Fedea, Esperanza ta Karidadea.

Zer da Fedea? Sinestatzea ikusi gabe, zeren Jangoikoak errebelatu duen, ta Elizak ala erakusten duen.

Zer da Esperanza? Esperatzea gloria Jangoikoaren graziaren medios ta geuren obra onen medios.

Zer da Karidadea? Maitatzea Jangoikoa guzien gañetik ta proximoa geurok bekala Jangoikoagatik.

#### BIRTUTE KARDINALEAK DIRE LAUR

Prudenzia, Justizia, Fortaleza, Tenplanza.

#### GORPUTZAREN SENTIDOAK DIRE BORZ

Bista, Adimintua, Usma, Gustoa, Ukimentua.

#### ARIMAREN POTENZIAK DIRE IRUR

Memoria, Entendamentua, Borondatea.

#### ARIMAREN ETSIAK DIRE IRUR

Mundua, Demonioa ta Aragia.

#### GIZONAREN AZKENAK EDO NOVISSIMOAK DIRE LAUR:

Eriotzea, Juizioa, Infernua ta Gloria.

#### CONFITEOR DEO ETC.

Ni bekatorea, ni konfesazen nazaio zeruetako Jaunari, Birjina Andre Mariari, San Migel Aingiruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo Apostolueri, ta zeruetako sandu guzieren, eta berorri ene aita konfesore orri, egin dudala sobra bekatu itzes, obras ta pensamentus. Jauna, enea da kulpa, enea da kulpa, enea da kulpa andia. Orrengatik otoitz egiten nagokio Birjina Andre Mariari, San Migel Aingiruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo Apostolueri, ta zeruetako sandu guzieren eta berorri nere Aita konfesore orri, otoitz egin dezaten enegatik Jangoiko omnipotenteari. Amen.

#### KONTRIZIOSKO AKTA

Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, ene kriadorea ta ene erredentorea, zeuroi zarenagatik infinitoki ona, ta zeren onesten baizaitut gauza guziak baño iago, damu dut, Jauna, dut damu ta urriki zure ofendituas; eta proponitzen dut ez iago bekatu egiteko, ta apartatzeko bekatuen okasio guzietaik, ta konfesazeko, ta kunplizeko ene aita Konfesoreak ematen didan penitenzia. Ofrezitendizkizut nere obra ta trabaju guziok ene bekatuen satisfakziotan; ta dut esperanza zure baitan zure merejimentuengatik barkatuko itidazula, ta emain didazula mundu gontan zure

zerbitzazeko grazia ta berzean zure gloria. Amen.

#### MAIAREN BEDEIZIOA

Aitaren ta Semearen, + ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

Jauna, bedeika gu ta zeure erregalo gebek zure eskutik arzera goazinok, Kristo gure Jaunagatik. Amen. (Aita gurea etc. Abe Maria etc. Gloria Patri etc.) Jangoikoak egin gaizala zeruko Maiaren partizipante. Amen.

#### GRAZIAK, JANONDOREAN

Aitaren ta Semearen etc.

Ematentizugu graziak zure mertxede guziengatik, Jaun dibinoa, sekulakos bizi ta erreinazen zaudena. Amen.

(Aita gurea etc. Ama Birjinaren honratan Abe etc.

Ilze on batengatik Aita gurea ta Abe Maria.

Arimen faboretan, Aita gurea, Abe Maria)

Mantenatzengaituenak lurrean bedeika gaizala zeruan. Amen.

#### ERLOJUAK EMATENDUELAIK ORONA

O Jesusen Ama ederra, zori onean dela ordu gura, zeñetan alako iruzkia ekarri zigun mundura. Amen. Abe Maria Gloria Patri etc. Zuk Maria lauda zazu Jangoikoa instante guzietan, ta ez permiti ofendi zagun Jaun bat ain ona sekulan. Amen.

#### JAIORO

Fede, Esperanza ta Karidadearen aktak:

Nik sinestazen dut zure baitan, ene Jangoikoa, Aita Jangoiko, Semea Jangoiko ta Espiritu Sandua Jangoiko; irur persona distinto ta Jangoiko bat berdaderoa.

Nik sinestazen dut zurebaitan, Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, ta zure misterio guzietan.

Nik sinestazen dut Aldareko Sakramentu Sanduan, zeintan baizaude presente ain errealki nola zeruan.

Nik sinestazentut zure fedearen berze misterio guziak eta nai dut bizi ta il fede goneki.

Dut esperanza zurebaitan, ene Jangoikoa, Jesu Kristoren merejimentuengatik, Maria Santisimaren ta sandu guzien interzesioagatik emain didazula mundu gontan zure zerbizazeko grazia, ta berzean zure gloria. Nai dut bizi ta il esperanza goneki.

Maitazen zaitut, ene Jangoikoa, gauza guziak baño iago zeuroi zarenagatik infinitoki ona ta maitagarria; ta maitazentut zuregatik ene proximo guziak. Nai dut bizi ta il karidade goneki.

Damu dut, Jauna, zure ofendituas, dut damu milla aldis. Miserikordia ta grazia.

Biba Jangoikoa, biba Jesus, biba Maria, biba Kristoren fedea, ta biba Jangoikoaren legea. Fuera bekatua, fuera sekulakos.

#### SOÑATZERAKOAN ARGÍ-EZKILAK, EGERDI, TA ILUN-EZKILAK

1. Jangoikoaren ordes Aingiruak mezu emanik, konzebitu zue Mariak Espiritu Sanduaganik. Abe Maria.

2. Ona Jangoikoaren esklabá, egin bedi nereki zuk erran bekala. Abe Maria.



3. Eta Jangoikoa gizon egin ze, eta gutartean bizitu ze. Abe Maria.

#### ORAZIOA

Berorren grazia, otoi Jauna, biali bez gure biotzetara, orreki aingiruak anunziatus Kristo gure Jaunaren enkarnazioa sinestutzen dugunek, beraren pasio ta gurutzearen medios erresurrekzioaren gloriara ellegatzea mereji dezagun. Kristo gure Jaun beragatik. Amen.

Aita Sandu Pio VI eman zue anitz induljenzia errateuntenei orazio gau beren aingiru goardiakoai egunoro: Aingiru Jangoikoarena ene goardian zaudena, bada beraren piedades zure anparoan nago ni, argi ta kida nazazu, goarda ta goberna nazazu orai ta beti. Amen. Aita gurea ta Abe Maria, gloria.

Aita Asteteren doktrinari añaditu direnek daramate señale izartto gau: \*

\*GALDERA. Zertako jaio da gizona?

ERRESPUESTA. Amatzeko ta zerbitzatzeko Jangoikoa bizi gontan, ta gozatzeko bizitza sekulakoan.

G. Zein da gizonaren azken fina?

E. Gozatzea Jangoikoa bizitza sekulakoan.

G. Eta ortako, zer medio da?

E. Amatzea ta zerbitzatzea emen.

G. Eta amatzeko ta zerbitzatzeko zer medio?

E. Ezauntzea; ta ezaunzeko da doktrina kristioa xakitea.

G. Zer da doktrina kristioa?

E. Kristoren doktrina, au da, Kristo gizon dibino garrek, gure salbazaleak, erakutsi zuena salbatzeko ta gloriarazeko gizona.

#### KRISTIOAREN IZEN TA SEÑALEAREN GAIN LEN LENIK

G. Kristioa zara?

E. Bai, jauna, Jangoikoaren grazias.

G. Nondik duzu kristioaren izen goi?

E. Kristo gure Jaunaganik.

G. Zer nai du erran Kristioa?

E. Kristorena edo Kristoren gizona.

G. Eta zer entedazen da Kristoren gizona?

E. Gizon bat duena Kristoren fedea, bataio sanduan profesatua, ta ala dago obligaturik arren zerbitzu sandura.

G. Zein da kristioaren señalea?

E. Gurutze Sandua.

G. Zenbat gisatara señalatzen da?

E. Bidatara.

G. Zein dire?

E. Zeñatzea ta santiguatzea.

G. Zer da zeñatzea?

E. Eskuieko eri-beatzas irur gurutze egitea, lenbizikoa kopetan, bigarrena agoan,

irugarrena bularretan, mintzatus gure Jaun ta Jangoikoareki.

G. Ia nola?

E. Gurutze sanduaren señaleagatik gure + etsaietatik libra gaizazu gure Jaun + ta Jangoikoa +.

G. Zergatik zeñatzen gara kopetan?

E. Jangoikoak goarda gaizan pensamentu gaixtoetaik.

G. Zergatik zeñatzen gara agoan?

E. Jangoikoak goarda gaizan itz errate gaixtoetaik.

G. Zergatik zeñatzen gara bularretan?

E. Jangoikoak goarda gaizan obra ta afekto gaixtoetaik.

G. Zer da santiguatzea?

E. Eskuieko bi eri andienes gurutze bat egitea kopetatik asi ta bularretaraño, ezkerreko soñetik eskuiekoraño, inbokatus Trintate Jaun poderosoa.

G. Ia nola?

E. Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

G. Noiz usatu bear dugu señale gau?

E. Edozein lanen astean, kausten garelaik nezesidade, tentazio, edo peligrotan; partikularki goatzetik xaikitzean, etxetik atratzean, elizan sartzean ta atratzean, xatean ta etzitean.

G. Zergatik ainberze aldis?

E. Zergatik leku ta ordu guzietan geuren etsaiek tentatzen ta persegizen baikaituste.

G. Zer etsai dire oiek?

E. Mundua, Demonioa ta Aragia.

G. Badu gurutzeak birtuterik oien kontra?

E. Bai, jauna.

G. Zergatik?

E. Zergatik Kristok garaitu baizitue bere eriotzeareki guruzean.

G. Adoratzen delaik gurutzea, nola erraten da?

E. Adoratzen zaitut ta bedeikatzen zaitut Jesu Kristo ene Jauna, zeren zeure guruze sanduaren medios erredimitu baizindue mundua. Adoratzen zaitut gurutze bedeikatua, zeintan izan baize guruzifikatua ene Erredentorea.

## DOKTRINA KRISTIOAREN ERREPARTIMENTUA

G. Zenbat gauza xakin beartu kristioak ezaumentura ellegatuaskeros?

E. Laur, jauna.

G. Zein dire?

E. Lenbizikoa, xakitea zer bear duen sinestatu; bigarrena, xakitea zer bear duen eskatu; Irugarrena, xakitea zer bear duen obratu; laugarrena, xakitea zer bear duen errezibitu.

G. Nola xakinen du zer sinestatu?

E. Dakielaik Kredoan edo Artikulo fedeskoak.

G. Nola xakinen du zer eskatu?

E. Dakielaik Aita gurea ta Abe Maria ta Elizako gañarako orazioak.

G. Nola xakinen du zer obratu?

E. Dakizkielaik Jangoikoaren Legearen Mandamentu sanduak, Elizako borzak, ta Obra miserikordiasakoak.

- G. Nola xakinen du zer errezibitu?  
E. Dakizkielaik Elizako Sakramentu sanduak.

#### KREDOAREN EXPLIKAZIOA

- G. Nork erran zue Kredoan?  
E. Amabi Apostoluek.  
G. Zertako?  
E. Gu fede sanduan informatzeko, edo guri fedearen erakusteko.  
G. Zer da fedea?  
E. Sinestatzea ikusi gabe.  
G. Ikusi zindue zuk Kristo jaiotzen, iltzen, erresuzitatzen edo zeruetara igaten?  
E. Ez, jauna.  
G. Eta sinestatzeunzu?  
E. Bai, jauna.  
G. Zergatik?  
E. Zergatik Jangoikoak errebelatu baitio Eliza Ama Sandari, ta Eliza Ama Sandak ala sinestatzen ta erakusten baitigu guri.  
G. Zer gaude obligaturik sinestatzerik kristio bekala?  
E. Eliza Ama Sandak sinestatze duen guzia.  
G. Eta zer da sinestatzen duena Eliza Ama Sandak eta zuk?  
E. Artikulo fedeskoak prinzipalki, Kredoan dauden konforme.  
G. Eta zer dire Artikulo fedeskoak?  
E. Gure fedearen misterio prinzipalenak.  
G. Zertako dire?  
E. Guri emateko notizia Jangoikoas ta Jesu Kristo gure Erredentoreas.  
G. Nor da Jangoikoa?  
E. Da gauza bat ain exzelentea ta ain admirablea, ezpaitaiteke erran ta ez pensa;  
Jaun bat infinitoki ona, poderosoa, sabioa, justoa, prinzipio ta fin gauza guziena.  
G. Eta nor da Trinitate?  
E. Da Jangoikoa bera, Aita ta Semea ta Espiritu Santi Jauna, irur persona distinto ta Jangoiko bat bakar egiaskoa.  
G. Zenbat Jangoiko da?  
E. Bat, jauna.  
G. Eta zenbat persona?  
E. Irur, jauna.  
G. Zein dire?  
E. Aita ta Semea, etc. ut supra.  
G. Aita Jangoiko da?  
E. Bai, jauna.  
G. Semea Jangoiko da?  
E. Bai, jauna.  
G. Espiritu Santi Jauna Jangoiko da?  
E. Bai, jauna.  
G. Irur Jangoiko dire?  
E. Ez, jauna, baizik irur persona distinto ta Jangoiko bat, etc.  
G. Aita da Seme?

E. Ez, jauna.

G. Semea da Aita?

E. Ez, jauna.

G. Espiritu Santi Jauna da Aita edo Seme?

E. Ez, jauna.

G. Zergatik?

E. Zergatik baitire distinto personetan, naiz bat izanik Jangoikotasunean.

\*Nola den au, ikusko dugu zeruan joaten garelaik, ezpide da konprehenditzeko guziz emen lurrean, ezta ere konparazio aski denik; baña adiarasteko nolapait, konparazio iduri bat dugu iruzkian: an dugu sua, argia, beroa, eta ezta baizik iruzki bat.

\*G. Nor da Aita?

E. Da Trintateko lenbiziko persona dibina, zeñek enjendratu baizue Seme bat igoal esenzian, distinto personan.

G. Nor da Semea?

E. Trintateko bigarren persona dibina, zein baita enjendratua Aita eternoaganik.

G. Nor da Espiritu Santi Jauna?

E. Trintateko irugarren persona dibina, zeñek prozeditzen baitu Aitaren ta Semearenganik.

\*G. Aita norenganik da?

E. Niorenganik.

G. Semea norenganik?

E. Aitaganik.

G. Espiritu Santi Jauna norenganik?

E. Aitaren ta Semearen ganik.

\*Ala sinestaturik den bekala egia, baña entendatzea osoki nola den etorki gura, gelditzen da zerurako.

G. Irur personetaik zein da lenago denboran?

E. Nior ez, zeren irurak dire igoalki eterno.

G. Zein da iago podores, majestades etc.?

E. Irurak igoal, irurak baitire Jangoiko bat natura lezan, podorean, ta guzietan bat, solamente distinto personetan. \*Santa Klara de Monte Falkoren entrañetan aurkitu zire irur bolatto, misterio gonon mostra-iduritako, guziz bardinak bultoan, figuran, kolorean, pizuan, batak pizatzen zuela berzeak adiña txusto txustoa, ta biek ta irurek ez iago batek baño.\*

G. Zer nai du erran dela Jangoikoa guziz poderoso?

E. Bere podoreareki in dezakela nai duen guzia.

\*G. In dezake bekaturik, gezurrik ta alakorik?

E. Ori ez, ez eta nai ere; ori al balezake ezlizake guziz poderoso, zeren ezi ori egitea ezta podore baizik flakeza ta miseria.

G. Zer nai du erran dela Kriadore?

E. Kriatu zituela gauza guziak ezdeusetaik.

G. Zer nai du erran dela Salbazale?

E. Ematen digula grazia ta barkatzen bekatuak.

G. Zer nai du erran dela Glorifikazale?

E. Beraren grazian ilzen direnei emain diotela gloria, ta desgrazian ilzen direnei infernua.

G. Non dago Jangoikoa?

E. Leku guzietan, espezialki zeruan ta aldareko Sakramentu Sanduan.

\*G. Dago Jangoikoa suan? Dago urean?

E. Bai, jauna.

G. Erretzen edo bustitzen da?

E. Ez, jauna.

G. Zergatik?

E. Zergatik baita espiritu puro, inpasible, ezin altera daikena.

\*G. Dago Jangoikoa infernuan ere?

E. Bai, jauna.

G. Zer ai da an?

E. Dago egiten justizia.

G. Badu Jangoikoak gorputzik, guk bekala?

E. Ez, jauna, zeren baita espiritu purisimo.

\*G. Badu Jangoikoak begirik?

E. Ez, jauna.

\*G. Zereki, bada, ikustentu gauzak?

E. Bere xakintasun immensoareki.

G. Badu oin edo eskurik?

E. Ez, jauna.

G. Zereki, bada, egintu ta itentu gauzak?

E. Bere podore infinitoareki.

\*Eta ala erraten delaik Jangoikoaren beso, esku, begi, aurpegi ta alako itzkuntzak, erraten dire gure emengo mintzatze-gisara, ta entendatu bear dire ez materialki, baizik espiritualki.

\*G. Badu Jangoikoak arimarik?

E. Ez, jauna, zeren arima baita krietua, ta Jangoikoa Kriadore.

\*G. Badu Jangoikoak memoria, entendamentu ta borondaterik?

E. Badu entendamentu ta borondate dibinoak Jangoiko bekala, baña memoriaik ez.

G. Nolas eztu memoriaik?

E. Zeren memoria baita oroitzeko gauza pasatues, eta Jangoikoarendako ezta gauza pasaturik, guzia dauka presente beti.

## JESU KRISTOREN MISTERIOEN GAIN

G. Trintateko irur persona dibino gaietaik zein egin ze gizon?

E. Bigarrena, baita Semea.

G. Aita egin ze gizon?

E. Ez, jauna.

G. Espiritu Santi Jauna in ze gizon?

E. Ez, jauna.

G. Zein bada?

E. Solamente Semea, zein gizon eginik deitzen baita Jesu Kristo.

G. Nor da, bada, Jesu Kristo?

E. Jesu Kristo da Jangoiko biziaren Semea, gizon egin zena gu erredimitzeagatik ta bizitzaren exenplu emateagatik. Berze gisas, Jesu Kristo da gizon bat Jangoiko dena batean, Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa.

\*(G. Jesu Kristo da Jangoiko?  
E. Bai, jauna.  
G. Jesu Kristo da gizon?  
E. Bai, jauna.  
G. Beras, da Jangoiko ta gizon?  
E. Ala da.  
\*G. Zenbat naturaleza da Kristo baitan?  
E. Bida, bat dibinoa, berzea humanoa.  
G. Eta zenbat persona da Kristo baitan?  
E. Bat sollik, ta ori dibinoa, Trintateko bigarrena.  
G. Zer nai du erran ontan?  
E. Aixtean errana klaroago, Jesu Kristo izanik persona bat dibinoa, dela Jangoiko ta gizon batean.  
\*G. Jesu Kristo nondik edo nola da Jangoiko?  
E. Jangoiko Aitaganik, den bekala Trintateko bigarren persona dibinoa, deitzen dena Semea.  
G. Eta Jesu Kristo nondik da gizon?  
E. Maria Santisima bere Ama Birjinaganik.  
\*G. Jesu Kristok nor du Aita? Ta nor du Ama?  
E. Jangoiko den aldetik, Aita du Aita eternoa Amarik gabe; Gizon den aldetik, Ama du Maria Santisima Aitarik gabe.  
G. Jesu Kristo da ainberze nola bere Aita eternoa?  
E. Gizon den aldetik, ez; Jangoiko den aldetik, bai, zeren baita berareki Jangoiko bat.)  
G. Non egin ze gizon?  
E. Maria Santisimaren entraña sanduetan.  
G. Noren obras?  
E. Espiritu Sanduaren obras.  
\*G. Nola izan zen obra goi?  
E. Obratus Jangoikoak sobrenatural ta milagrosoki. Jangoikoak Maria Santisimaren odol garbitik formatu zue gorputz bat; kriatu zue ez deusetarik arima bat; arima ta gorputz gau elkarreki uniturik unitu zire Trintateko bigarren personai deitzen denai Semea; eta ala len zena sollik Jangoiko, gelditu ze Jangoiko ta gizon bateo Maria Santisimaren entraña sanduetan.  
G. Beras Maria Santisima da Jesu Kristoren Ama propioa?  
E. Bai, jauna, dudarik gabe.  
G. Eta dei daike Jangoikoaren Ama?  
E. Dei daike ta deitu bear da Jangoikoaren Ama, zeren baita Ama gizon dibino garren, zein baita Jangoiko bateo; ala nola Obispo denaren Ama deitzen baita Obispoaren Ama, naiz Amak eztion eman obispotasuna.  
G. Eta San Josef zer da?  
E. Maria Santisimaren esposo, ez ordea Kristoren Aita errealdadean, baizik solamente jendeen opinioean.  
G. Zenbat denboras egon ze Kristo Amaren sabelean?  
E. Bedratzi ilabetes, Martxoaren ogeitaborzgarrenetik Abenduaren ogeitaborzgarreneraño.

- G. Zer nai du erran, jaio zela Maria Birjinaganik?
- E. Jaio zela Krristo Maria Santisimaganik, gelditurik Ama birjin erditzean, erdi baño len ta erdias geros beti birjinik.
- G. Nola izan ze ori?
- E. Jangoikoaren milagros.
- G. Zergatik?
- E. Zergatik konzebitu baizue gizonkirik gabe Espiritu Sanduaren birtutez.
- G. Jesu Kristok badu gorputzik?
- E. Bai, zeren baita gizon egiaskoa.
- G. Jesu Kristo non iltze?
- E. Gurutzean gurutifikaturik.
- G. Zer da gurutifikatzea?
- E. Gurutzean itzeeki jositzea esku oñetaik.
- G. Iltze Jangoiko bezan bates edo gizon bezan bates?
- E. Gizon bezan bates, zeren ezi Jangoikoa eztaike il, da imposible.
- G. Zer da iltzea?
- E. Arima gorputzetik berextea.
- G. Kristo il zelaik guruzean zer gelditu ze an?
- E. Bere gorputza beraren dibinidadeareki.
- G. Eta arima zer egin ze?
- E. Jautsi ze linboetara, an zeuden arima sanden atratzera.
- G. Nola jautsi ze?
- E. Dibinidade berareki.
- \*G. Noiz erresuzitatu ze?
- E. Il ta irugarren egunean.
- G. Zer da erresuzitatzea?
- E. Arima gorputzera itzulzea ta biztea berriro.
- G. Nola erresuzitatu ze?
- E. Berriz juntatus bere arima ta gorputza gloriosorik, ez beñere ilzekotan.
- G. Noren birtutes?
- E. Bere birtute propios.
- G. Nola igan ze zeruetara?
- E. Bere birtute propios.
- G. Zer nai du erran, an dagola jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean?
- E. Duela Jesu Kristok Aita eternoak adiña gloria, Jangoiko den bezan bates, eta berze guziek baño iago, gizon den bezan bates.
- \*G. Non dago orai Jesu Kristo?
- E. Zeruan ta aldareko Sakramentu sanduan; errealki an ta errealki emen; baña zeruan egotemodu natural ikusgarrian; Sakramentuan egotemodu sobrenatural milagroskoan.
- G. Noiz etorriko da ilen ta bizien juzgatzeraz?
- E. Azken juizioko egunean.

#### AZKEN ARTIKULOEN GAIN

- \*G. Alaber nik sinestatzen dut Espiritu Santi Jauna baitan. Zer sinestatzen duzu Espiritu Santi Jauna baitan?

E. Espiritu Santi Jauna dela Jangoiko ta Trintateko irurgarren persona dibinoa prozeditzen duena Aitaren ta Semearen ganik.

G. Zer da Eliza?

E. Da kristio fiel guzien kongregazioa, saldoa edo familia, zeñen burua baita Jesu Kristo, ta Jesu Kristoren pean Aita Sandua.

G. Nor da Aita Sandua?

E. Kristoren bikarioa lurrean, zeñi guziok baikaude obligaturik obeditzera.

G. Zer nai du erran, sanduen komunioa?

E. Kristio fiel guziak direla partizipante elkarren obra onetan, mienbro diren bekala gorputz batenak, zein baita Eliza.

G. Zer nai du erran, bekatuen barkazioa?

E. Konfesio on baten medios gure bekatuak izain direla barkatuak. Edo badirela Elizan paratuak erremedioak barkazeko bekatuak.

G. Zer nai du erran, aragiaren erresurrezioa?

E. Erresuzitatu bear dugula guziek azken juizioko egunean orai tugun gorputz ta arimeki.

(\*G. Zergatik dion aragiaren ta ez arimaren erresurrekzioa?

E. Da zeren gorputza ilzen baita berexteareki arima, ta orduan au itzulzeareki biztuko da ura.

G. Zertako?

E. Biek errezibitzeko gloria edo pena merejitu zutena emen biek. Bitarteo egonen da arima zeruan, edo infernuan, edo purgatorioan, segun nola atrazen mundugontaik.

G. Nora doazin arimak berexten direlaik gorputzetaik?

E. Da lenik juiziora edo Jangoikoaren tribunalera, andik zein eze joan diren Jangoikoaren desgrazian, aiek infernura betikos; zein eze joan diren Jangoikoaren grazian guzis garbi, aiek zerura betikos; zein eze joan diren Jangoikoaren grazian, baña dutela purgazeko zerbait, aiek purgatoriora guzis purgatu artaño; aur bataiatu gabeak linbora.

G. Gorputz gloriosoaren doteak zenbat diren?

E. Laur, mostratzen direnak itz gonon letraeki, kasi: Klaridadea, ajilidadea, sutileza, inpasibilidadea.

G. Zenbat diren gizonaren Novissimoak edo azken finak?

E. Laur: Eriotzea, juizioa, infernua ta gloria.)

G. Zer nai du erran bizitza sekulakoa?

E. Bizi bear dugula secula seculorum zeruan edo infernuan. Jangoikoaren grazian iltzen direnak zeruan, desgrazian ilzen direnak infernuan; edo bizi gonon ondorean badela berze bizi bat betirokoa zeruan edo infernuan etc.

G. Zer nai du erran Kredoan, Amen?

E. Ala da.

## AITAGUREAREN EXPLIKAZIOA

G. Nork erran zue Aita gurea?

E. Jesu Kristok bere ago sanduas.

G. Zertako?

E. Guri erakusteko orazio egiten.

G. Zer da orazio egitea?

E. Goratzea biotza Jangoikoagana ta eskatzea.



G. Aita gurea diogulaik, noreki mintzatzten gara?  
E. Gure Jaun ta Jangoikoareki.  
G. Orazio guzietaik zein da obena?  
E. Aita gurea.  
G. Zergatik?  
E. Zergatik erran baizue Jesu Kristok bere ago sanduas.  
G. Eta zergatik iago?  
E. Zergatik baititu zazpi petizio fundatuak karidadean.  
G. Zein da lenbiziko petizioa?  
E. Santifika bedi zure izena.  
G. Zer eskatzen dugu petizio gontan?  
E. Jangoikoaren izena izandadiela ezaundua ta honratua mundu guzian.  
G. Zein da bigarren petizioa?  
E. Etorri bedi zure erreinua.  
G. Zer eskatzen dugu petizio gontan?  
E. Erreina dezala Jangoikoak gure arimaetan, emen graziaren medios, ta gero digula bere gloria.  
G. Zein da irugarren petizioa?  
E. Kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala, etc.  
G. Zer eskatzen dugu ontan?  
E. Egin dezagula Jangoikoaren borondatea lurrean gaudenek oroat nola iten duten zeruan bienabenturatuek.  
G. Zein da laugarren petizioa?  
E. Eman zaguzu gure egunorosko ogia egun etc.  
G. Zer eskatzen dugu ontan?  
E. Eman dezagula Jangoikoak mantenimentu konbeni dena gorputzendako, ta graziarena ta sakramentuena arimendako.  
G. Zein da borzgarren petizioa?  
E. Barkadazkiguzu guri geuren zorrak ala nola guk barkazenbaitiogute gu zorgaitustenei.  
G. Zer eskatzen dugu ontan?  
E. Barka dezkgula Jangoikoak guri bekatuak nola guk barkatzen dioguten agrabio indigutenei.  
G. Zein da seigarren petizioa?  
E. Ezkaizazula utzi tentazioan erorzera.  
G. Zer eskatzen dugu ontan?  
E. Ezkaintzala Jangoikoak utzi konsentitzera tentazio ta pensamentu gaixtoetan, zeñeki etsaiak prokuratzen baitu eroriarastea bekatuan.  
G. Zein da zazpigarren petizioa?  
E. Libra gaizazu gaitzetik.  
G. Zer eskatzen dugu ontan?  
E. Libra gaizala Jangoikoak arimaren ta gorputzaren, oraiko ta geroko gaitz guzietaik.  
G. Zertako diozu lenean Aita gurea zeruan zaudena?  
E. Goratzeko biotza Jangoikoagana, ta eskatzeko humiltasun ta konfianzareki.  
G. Zer nai du erran Amen Aita gurean?

- E. Ala izan daiela, nola eskazen duten.
- G. Zer orazio erratentiogu prinzipalkiro Maria Santisimari?
- E. Abe Maria ta Salbea.
- G. Nork erran zue Abe Maria?
- E. Parte Aingiru San Gabrieleke, parte Santa Isabelek eta parte Eliza Ama Sandak.
- G. Nork erran zue Salbea?
- E. Eliza Ama Sandak dauka errezibiturik.
- G. Zertako?
- E. Eskatzeko Maria Santisimari fabore.
- G. Erraten dugulaik Abe Maria edo Salbea, noreki mintzatzen gara?
- E. Maria Santisimareki.
- G. Nor da Maria Santisima?
- E. Da Andre bat grazias ta birtutes betea, zein baita Jangoikoaren Ama ta baitago zeruan.
- G. Eta aldarean dagon gura zer da?
- E. Imajina edo pintura bat zeruan dagonarena.
- G. Zertako dago an?
- E. Arren medios oroi gaizen dagonas zeruan ta egin zogun erreberenzia, zeren baita arren imajina.
- G. In bear diogute orazio ta erreberenzia Aingiruei ta Sanduei ere?
- E. Bai, jauna; zergatik baitire Jangoikoaren adiskideak ta gure medianeroak.
- G. Zer dire Aingiruak?
- E. Espiritu bienabenturatuak daudenak gozatzen Jangoikoa zeruan.
- G. Zertako kriatu zitue Jangoikoak?
- E. Laudatzeko bere Majestadea ta goardatzeko gizonak.
- G. Bauzu beras zuk zeure Aingiru goardiakoa?
- E. Bai, ta gizon guziek dute nork berea.
- Bada, izan zozu anitz debozio ta enkomenda egunoro.

#### MANDAMENTUEN EXPLIKAZIOA

- G. Zein da Jangoikoaren Legearen mandamentu lenbizikoa?
- E. Jangoikoa onetsi ta adora zagula guzien gañetik.
- G. Nork onesten du Jangoikoa?
- E. Goardatzentuenak beraren mandamentuak.
- G. Eta zer da onestea gauza guzien gañetik?
- E. Galdu naia gauza guziak lenago ezi ofenditu beraren Majestadea.
- G. Zertara iago obligatzen gaitu mandamentu gonek?
- E. Adoratzera Jangoikoa sollik sinestatzen ta esperatzen dugulaik berabaitan.
- G. Nork faltazen du mandamentu gonon kontra?
- E. Faltatzen duenak fedean, esperantzan, karidatean, edo errelijionean.
- G. Zein da bigarren mandamentua?
- E. Juramenturik banoan in etzagula.
- G. Nork iten du juramentu banoan?
- E. Iten duenak egirik gabe, justiziarik gabe ta nezesidaderik gabe.
- G. Zer erremedio da ez iteko juramentu banorik?
- E. Akostunbratzea erratera ez edo bai llano, Kristok erakutsi bekala.

- G. Zein da irugarren mandamentua?  
 E. Jaiak eta igandeak goardazkigula.  
 G. Nork goardatzentzu jaiak?  
 E. Enzuten duenak meza ta eztenak trabajazen.  
 G. Zein da laugarren mandamentua?  
 E. Gure aitetamak ta geurok baño iagokoak ongi honra etc.  
 G. Nork honratzentzu aitetamak?  
 E. Maitazen, sokorritzen, obeditzen ta errespetatzentuenak.  
 G. Zein da borzgarren mandamentua?  
 E. Nior il etzagula.  
 G. Zer manatzen zaigu ontan?  
 E. Etzogula niori gaizkirik egin ez obras, ez itzes, ez biotzes.  
 G. Zein da seigarren mandamentua?  
 E. Luxuriasko bekaturik in etzagula.  
 G. Zer manatzen zaigu ontan?  
 E. Izan gaitzela garbi ta kastoak obra, itz ta pensamentuetan.  
 G. Zein da zazpigarren mandamentua?  
 E. Nion deus ebatsi etzagula.  
 G. Zer manatzen zaigu ontan?  
 E. Ez kentzea, ez idukitzea, ez deseatzea berzeren gauza, jabearen borondatearen kontra; niori perjuiziorik ez egitea.  
 G. Zein da zorzigarren mandamentua?  
 E. Niori falsu testimoniorik erakitxi etzagula.  
 G. Zer manatzen zaigu ontan?  
 E. Etzagula juizio gaixtorik egin, ez murmuratu, ez aitu murmuratzen, ez agertu sekreto denik, ta ez gezurrik erran.  
 G. Bedratzi ta amargarren mandamentuetan zer debekatze zaigu?  
 E. Deseo deshonestoak ta kodiziaskoak.  
 \*Azken bi mandamentu geben kontrako bekatuak daizke examina konfesatzeko seigarren ta zazpigarren mandamentuetan brebeagos; baño paratutu beretz Jangoikoak mostratzeko debekatzentuela ez solamente bekatu agerriak, baita ere biotz barnekoak.  
 \*Amar mandamentu gebetan dago Jangoikoaren Legea ta guzia fundatzenda bitan: onestea Jangoikoa guzien gañetik eta proximoa geuren buruok bekala Jangoikoagatik.  
 Orra zerurako eskalera amar gradaeki ta amarrak fundatuak bi saietsetako agaetan.

## SAKRAMENTUEN EXPLIKAZIOA

- G. Zer dire sakramentuak?  
 E. Señale sagratu ageri batzuk, Jesu Kristok paratuak emateko guri aien medios bere grazia ta birtuteak.  
 G. Zer da Grazia?  
 E. Da Jangoikoaren dono andi bat iten duena arima Jangoikoaren hume onetsia ta zeruko heredero.  
 G. Zer birtute emateute sakramentuek graziareki bateo?  
 E. Prinzipalki irur teologalak.  
 \*G. Eta sakramentuek ematen dute beti grazia signifikatzen dutena?  
 E. Segurki beti ta noiz errezibitzentuenak duen disposizio bear dena.

\*G. Noren birtutes emateunte?

E. Jesu Kristoren promesa ta merejimentuen birtutes.

G. Zertako da bataiatzea?

E. Kentzeko bekatu orijinala ta berze edozein aurkidaiena bataiatzen dena baitan.

G. Zer da bekatu orijinala?

E. Jaiotzesko bekatua zeñeki guziok jaiio garen Adanenganik heredatua.

G. Zertako da konfirmazioa?

E. Konfirmatzeko gu bataio sanduan errezibitu ginduen fedean.

\*Irugarrena batzuek deitzeunte penitenziako sakramentua, zeren arren parte prinzipalena baita penitentzia, pena izatea edo penatzea bekatues; berze batzuek errekonziliazioaren sakramentua, zeren an errekonziliatzen edo baketzen baita bekatariareki Jangoikoa; berze batzuek konfesioko sakramentua, zeren konfesatzea bekatuak baita arren parte prinzipale bat; baña guzia eldu da batera.

G. Zertako da konfesioko sakramentua?

E. Barkazeko bekatuak bataiatuaskeros inikakoak.

G. Zer bekatu dire oriek?

E. Mortalak ta benialak.

G. Zer da bekatu mortala?

E. Da egitea, edo erratea, edo deseatzeta, edo pensatzea Jangoikoaren Legearen kontra grabekiro. Da desobediencia grabe bat Jangoikoaren manamentuari.

G. Zergatik deitzen da mortala?

E. Zergatik iltzen baitu iten duenaren arima. (Nola iltzen duen, da pribatus Jangoikoaren graziatik, paratus beraren desgrazian, odioan ta kondenazioko estadoan, galdurik gloriarako dretxoa).

G. Zer da bekatu beniala?

E. Egitea, erratea etc. lebekiro. Da desobediencia lebe bat Jangoikoai, edo dispozizio bat mortalerako.

G. Zergatik deitzen da beniala?

E. Zeren aisa egiten ta aisa barkatzen baita.

G. Badaizke benialeak barka konfesiok gabe?

E. Bai, berze edozein sakramentureki; baita ere sakramentale solleki, baitire ebek:

1. Meza enzutea.

2. Komekatzea.

3. Ni bekatorea erratea.

4. Obispoaren bedeizioa errezibitzea.

5. eta 6. Ogi bedeikatu ta ur bedeikatu artzea.

7. Prediku aditzea.

8. Aita gurea errezatzea.

Ta 9. Bularrean golpe ematea eskatus Jangoikoai barkazio.

(\*Zer medios daiken barkatu mortalea, da laur medios:

1<sup>a</sup>. Emanes Jangoikoak bere grazia nori duen plazer.

2. Edozein sakramentus, duelaik bateo atrizio ustes zuen kontrizio.

3. Kontrizio sollareki, duelaik bateo intenzio konfesatzeko.

4. Konfesioko sakramentuareki, duelaik atrizio berere.

Eta au da medio propioa Jesu Kristok paratua barkazeko bekatuak, eta berze medioak entenda beti konfesatzeko intenzioareki; au da bigarren ola, bigarren bataioa, etc.).

G. Zenbat gauza bear da konfesio on baten egiteko edo ongi konfesatzeko? (Irur diote batzuek: Biotzesko kontrizioa, agosko konfesioa, ta obrasko satisfakzioa; baña biotzesko kontrizioan entenda zeunte propositoa ere, ta agosko konfesioan examina. Orgatik ori beroi klaroago).

E. Borz, jauna:

Lenbizikoa, konzienzia ongi examinatzea.

Bigarrena, artzea dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofendituas.

Irugarrena, proposito firme bat ez iago bekatuik egiteko.

Laurgarrena, bere bekatuak enteroki konfesatzea.

Borzgarrena, konfesoreak ematen dion penitentzia kunplitzea.

\*G. Zer da konzienziaren examinatzea?

E. Bere bekatues oroitzea edo bekatuak memoriara ekartzera prokuratzea.

G. Nondik iten da examina goi?

E. Amar mandamentuetaik.

G. Dolorea zenbat gisatara da?

E. Bidatara.

G. Zein dire?

E. Kontrizioa ta atrizioa.

G. Zer da kontrizioa?

E. Da amoresko dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofendituas bera denagatik, zeren ofenditu baitu Jaun bat ain ona ta amablea, intenzioreki kofesazeko ta ez iago bekatuik egiteko.

G. Zer da atrizioa?

E. Da beldurresko dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofendituas, zeren bere bekatu gaixtoen medios galdu baizue zerurako dretxoa ta bota baizuke infernuko sekulako penetara.

G. Bi dolore goietaik zein da obe?

E. Kontrizioa

G. Zergatik?

E. Zergatik kontrizioak bakarrik barkatzen baititu bekatuak, eta atrizioak ez sakramenturik gabe; bai sakramentuareki.

G. Eta kontrizioak bakarrik barkatzentzu bekatuak konfesatzeko intenzioik gabe?

E. Ez, jauna, ezta ere kontrizio intenzio goi gabe.

G. Zein da kontriziosko doloreain motiboa?

E. Jangoikoaren ontasuna ofenditua, amatu bearrean.

G. Zein da atrizioaren motiboa?

E. Bekatuaren itsustasuna, infernuko penak, ta graziaren ta gloriaren galtzea.

G. Zer da propositoa?

E. Da gogo ta erresoluzio firme bat ez beñere iago bekatuik egiteko.

G. Nolakoa bear da izan?

E. Firmea, efikaza ta unibersala. Firmea nai du erran, gogo ta biotzeskoa sin sina; efikaza, paratzentuen medioak emendatzeko; unibersala, bekatu guzien usteko ta denbora guzietan.

G. Zer nai du erran, bere bekatuak enteroki konfesatzea?

E. Erran bear direla konfesioan bekatu mortale guziak konzienzian dauden bekala, ziertoak zierto bekala, dudaskoak dudasko bekala, batere kendu ta añaditu gabe.

G. Noiz bear da kunplitu penitentzia?

E. Len baño len, ezpadu seinalatzen denbora konfesoreak, ta seinalazen badu, seinalatuan.

G. Zertako da komunionea edo komekazea?

E. Alimentatzeko arima ta aumentazeko grazia

G. Zer da komekatzea?

(Itzak diones, da komunikatzea arima Kristoreki ta Kristo arimareki janari gisan).

E. Da errezibitza aldareko sakramentua janari gisa.

G. Zer da aldareko sakramentua?

E. Hostia konsagratua.

G. Zer dago Hostia konsagratuan?

E. Jesu Kristoren gorputz preziosoa bere odol, arima, humanidade ta dibinidade guziareki: itz bates Kristo guzia.

G. Daude an Aita ta Espiritu Sandua ere?

E. Bai, jauna, zeren Trintateko irur personak ezpaitaizke elkarreganik aparta.

G. Zer zego Hostian konsagratu gabe?

E. Ogi guti bat.

G. Eta konsagratuaskeros badago an ogirik sustanzia, edo ogiaren sustanziarik?

E. Ez, jauna.

G. Zer egin ze bada?

E. Konsagrazioko itzen birtutes aldatu ze Jesu Kristoren gorputzaren sustanzian.

G. Zer da, bada, an ikusten, gustatzen ta gustatzen dena?

E. Ogiaren akzidenteak edo itxurak, kolorea, zaporea, urrina, quantidatea, baña ogiaren sustanziaik gabe.

G. Nola dagoke Jesu Kristo guzia ain gauza gutian?

E. Jangoikoaren podorearen milagros, sobrenatural ta milagrosoki, baña ain errealki ta berdaderoki nola zeruan.

(G. Partitzen delaik Hostia zatitzen da gorputz dibinoa?

E. Ez, baizik solamente ogiaren akzidenteak, eta zati batean ain oso dago Jesu Kristo nola guzian, txipian ainberze nola andian, ta bateo anitz lekutan. Konparazio-iduri: hispillu bat autxirik, zati txipian ageriko da aurpegia oso nola andian. Boza bat izanik, dago bateo askoen adimentuetan; kalizako ardoas bere ariora duzu doktrina).

G. Zenbat gauza bear da ongi komekatzeko?

E. (Suponiturik baduela zerbait ezaumentu an errezibitzen denas, baitare debozio bear dena) Bida, jauna; arimaren aldetik grazian joatea, gorputzaren aldetik baru naturalean. (Bi itzes: arima garbirik ta gorputza barurik).

G. Senti denak bekatu mortalean, zer in bear du komekatzekos?

E. Konfesatu lenik, al badaike. Ala dauka deklaraturik Elizak.

(Noiz dugun obligazio errezibitzeko Konfesioko ta Komunionekeo sakramentuak, dio Elizak ala: Urtean bein berere konfesatzea, edo lenago barin bada ilzeko peligrorik edo komekatu bear badu. Orra irur obligazio konfesiorearen: urtean bein berere, ilzeko peligroan ta komekatu bearduenean. Komekatzeas dio, Bazkoa garizumakoetan ta ilzeko peligroan. Orra bi obligazio. Baña ortas landara bakotxai bere konzienziaren nezesidadeak konfesoreain konsejuareki bear dio erakutsi noiz iago).

(Zertan distingitzen diren Komunionea, Sakramentua ta Sakrifizioa, da ezi Komunionea da errezibitza aldareko Sakramentua arimaren alimentutako; Sakramentua

da Hostia konsagratua, non dagon kontino Jesu Kristoren presentzia; Sakrifizioa da Meza sandua. Zer da Meza? Da sakrifizio bat solemnea, zeintan ofratzen baita Jesu Kristo Jangoikoai sazerdotearen eskus ogi ardoen idurien pean. Edo ala: Meza da Jesu Kristoren pasio ta eriotzearen memoria ta errepresentazio bizi bat. Eta orra nola ortako, au da, errepresentatzeko Kristoren odol ixurze gura bere pasioan, bear diren berex konsagratu Hostia ta Kaliza, ezperen ezta sakrifizio; baña izateko sakramentu, aski da bietaik bat sollik, edozein dela. Berze alde, Sakramentua da prinzipalki alimentazeko gure arimak; Sakrifizioa da prinzipalki ofrazeko Jangoikoai. Sakramentu gonon fruituak komunioean nork kontu? Baña laur berexirik, janari onaren gisara, dire alimentatzea, azitzea, indar ematea ta gusto soberanoki arimai. Bada mezako sakrifizioaren ondasunak nola konprehendi? Zenbait berexirik, prinzipalki dire laur Jangoikoaren alde: lena da berritzea kontino bere amoresko fineza gaien memoria; berze irurak, ematea Jangoikoaren Majestadeai honra, eskerrak ta plazer gure partes; orgatik deitzen da latines Rememorativum, Latreuticum, Eucharisticum ta in odorem suavitatis. Berze laur gure faboretan: lenbizikoa Propitiatorium, logratzea Jangoikoaren piedadea ta barkamentu bekatariendako; bigarrena Meritorium, aumentatzea justoei grazia ta merejimentuak; irugarrena Satisfactorium, presentatzea an gure kulpen ta penen zorren pagamendu ta satisfakzio; laugarrena Impetratorium, erdextea ondasun-jenero guziak, ala gorputzaren nola arimaren, ala oraiko nola geroko aldarean sakrifikatzen den axuri dibinoa dela medio. Ortas landara honra ta konplazentzia ematen diona bere Ama Birjinai aldioro, gozo berria zerukoei ta sufrajorik obena purgatoriokoei).

G. Zertako da Oliatzea?

E. Irur gauzatako: lenbizikoa, kentzeko lengo bekatuen erresabioak ta efektoak; bigarrena, emateko arimai indar ta konfianza tentazioen kontra; irugarrena, emateko gorputzai alibio ta osasuna, konbeni bada.

G. Zertako da Ordenatzea edo Ordena?

E. Konsagratzeko elizako ministroak eta sazerdoteak.

G. Zertako da Matrimonia?

E. Ezkontzeko ta ezkonduer emateko grazia, zeñeki bizi daitzen bakean lagundus elkar, ta azitzeko humeak zerurako. Amen.

**BIRTUTE TEOLOGALEAK DIRE IRUR:**

**FEDEA, ESPERANZA, KARIDADEA**

Fedea da sinestatzea ikusi gabe, zeren Jangoikoak errebelatu dion Eliza Ama sandari, ta Eliza Ama sandak ala sinestazen ta erakusten baitigu guri. Esperanza da esperatzea gloria Jangoikoaren graziaren medios ta geuren obra onen medios. Karidadea da onestea ta maitatzea Jangoikoa gauza guzien gañetik, bera denagatik, eta geuren proximo-laguna geuren buruok bekala Jangoikoagatik. Amen.

Alabatua ta bedeikatua izan daiela aldareko Sakramentu sandua, ta Maria Santisimaren konzepzio garbia, zein izan baize konzebitua bekatu orijinalaren mantxarik batere gabe bere lenbiziko istante sagratan. Amen.

Goizoro in bear dena da, idatzarri-orduko goratu biotza Jangoikoa gana, estimatu, adoratu, eman eskerrak ta ofrezitu bere burua, bere bizi ta gauza guziak beraren zerbitzuko. In daike biotz solles ere, baña nai duenak itzes, ona forma-iduri bat: bestitu-

orduko bereala ur bedeikatus zeñaturik, paratzen da belauriko Jangoikoaren presenzian, ta agur andi bat eginik bere Majestadeai, kurtus burua lurreraño, erran:

1. Adorazioa. O Jangoiko Jaun andia, nik, lurreko artto gonek sinestutzen, konfesatzen, amatzen, estimatzen ta adoratzen dut gogotik berorren Majestadea ene Jaun, Errege, Aita ta ondasun guzia den bekala. Aurki bez otoi pobre gonek grazia berorren begietan, Jesu Kristorengatik. Amen.

2. Kontrizioa. Biotzes dut urriki ta damu ofenditu duten guzias orai artaño, berori denagatik, zeren ofenditu baitut Jaun bat ain ona ta amablea. Barka, otoi, barka bezada.

3. Graziak. Esker milla milla, Jauna, zeren kriatu, erredimitu, kristiatu ta konserbatu nauen nik mereji-gabe, ta gañarako egintidan faborees, berexki ellegarazias bizirik egungontaraño. Biz berorren zerbitzutako ta nere salbaziotako. Amen.

4. Ofrezimentua. Ofratzen ta konsagratzen diot berorri neure persona, neure biotz, arima ta gorputza; neure obra, trabaju, pausu, itz, afekto, pensamentu ta errespira zio guzi guziak, egungoak eta betikoak, guzia enplea dadien berorren gustora, orai ta beti. Bizi ta il bedi orren sierbo gau berorren zerbitzutan. Amen.

5. Petizioak. Baña nola deus ere onik ezpaitezaket neureganik, eman bezada, otoi, bere grazia poderosoa, ofendi ez dezaten deustan ere ez obras, ez itzes, ez biotzes, ez deskuidos, baizik bai guzietan plazer egin dezoten. Amen. Argi bez ene entendamentua, kida bez ene biotza ta borondatea, goberna bez ene mia, ta gañarako potenziak eta sentidoak, enplea dadien gizon gau guzian orren borondatearen konforme guzis. Amen.

Irur Aita gure ta irur Gloria, etc

Ama Birjinai. O Maria Santisima, Jangoikoaren Ama ta nere Ama, mostra bez, otoi, dela Ama; kuida bez nitas beti, bizi nadien ta il nadien Jangoikoaren ta berorren grazian. Amen. Irur abe, etc.

Aingiru goardiakoai. Aingiru Jangoikoarena, ene goardiakoa zarena, bada beraren piedades zure anparoan nago ni; argi ta kida nazazu, goarda ta goberna nazazu orai ta beti. Amen. Aita gurea, Abe Maria. Sanduei berze Aita gurea, Abe Maria. Berze bat arimei.

Jangoiko omnipotentearen, Aita ta Seme ta Espiritu Sanduaren bedeizioa biz ene gain ta bego beti. Amen.

#### ARRATSORO INBEARDENA, EXAMINATU KONZIENZA GISA ONTAN

1. Graziak. O ene Jangoikoa, esker milla milla zeren ellegarazi nauen bizirik gau ontaraño, eta gañarako fabore egintidanes. Amen.

2. Petizioa. Grazia eskatzen diot orai ezauntzeko nere gaizki eginak, eta kontrizio andi bat biotzean guzietas. Amen.

3. Examina. Errepasatus zer ta zer falt (sic), etc.

4. Kontriziosko akta. Jesu Kristo ene Jauna, etc.

5. Penitentzia. Salbe bat Ama Birjinai. Aita gure ta Abe Maria Aingiru goardiakoai. Berze ainberze arimen faboretan. Gero Antifona Jauna, salba benaza idatzarrik nagolaik, goarda benaza lo nagolaik, Kristoreki bizi nadien ta bakean deskansa nadien.

V. Orren sierbo ni, ta ori nere jabe.

R. Goarda benaza gaur bekaturik gabe.

V. Egin bez eneki otoi miserikordia.



R. Jauna, miserikordia.

V. Bere bedeizioa niri eman bezada.

R. Orren baitan esperanza duten bezala.

V. Ene orazioa adi bez, otoi, Jauna,

R. Eta ene deseoa betor berorregana.

Oremus. Bisita bez, otoi Jauna, leku gau eta aparta bezki emendik urrun etsaiaren gaixtakeria guziak; beude emen gureki berorren aingiru sanduak, goarda gaitzaten gu bakean, ta berorren bedeizioa biz gure gañean beti, Jesu Kristo gure Jaunagatik. Amen.

Bedeika zogun gure Jaunari, Jangoikoari eskerrak.

Bedeika ta goarda gaizala gu Jaun guzis poderosoak ta miserikordiosoak, Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santi Jaunak. Amen.

#### MEZAREN OFREZIMENTUA MEZA-ALZINEAN

O gure Jangoiko Jauna, meza sandu gau, zein baita berorrek emanik munduan den gauzarik andiena ta obena, zeintan sakrifikatzen ta ofratzen baita guregatik amorosoki, berriro egunoro, Axuri dibinoa, Jesu Kristo gure Salbazalea, bere gorputz ta odol prezioso sazerdotearen eskus aldarean, ofratzen diogu berorren Majestadeai guk, lurreko kristio bekatarik pobreek zeruko guzien prezentsian, emen humil geuren biotz guzieki Kristoreki bateo ta beraren atzetik, beraren ta Eliza Ama sandaren intenziora. Amen.

Biz, len lenik, bere Majestadearen gusto, gloria, estimazio ta esker milla millatan. Amen.

Biz, alaber, Jesu Kristoren pasio ta eriotzearen memoriatan. Amen.

Biz, alaber, Maria Santisimaren honra ta zerbitzutan. Amen.

Biz ere aingiruen ta sanduen gozo berritan. Amen.

Biz, alaber, purgatorioko arimen, berexki orrek iago plazer ta guk obligazio iago dugun gaienen faboretan. Amen.

Biz, alaber, mundu guziaren erremedio, berexki kristiandadearen on eta probetxutan. Amen.

Biz justoen graziaren amentu, bekatarik barkazio, barkatuen satisfakzio; azkenean logratzeko beartugun graziak ta ondasunak arimaren ta gorputzaren, Kristoren pasio ta eriotzearen fruituak kontino, ongi bizitzea, ongi bukatzea, ta ondorean sekulako salbazioa glorian. Amen.

Nai dugu, Jauna, egin geuren aldetik sakrifizio gontan, eta ofratu oneki bateo geuren buruok ta gauza guziak orren Majestadeai gure arimen amore guziareki. Amen.

Jangoiko guzis poderosoaren, Aita, ta Seme, ta Espiritu Sanduaren bedeizioa betor gure gain, ta bego gureki orai ta beti. Amen. Amen.

#### ERROSARIOA BERE MISTERIOEKI

Zeñatu ta Kontrizosko akta egin ondoan:

#### OFREZIMENTUA

O Jangoikoaren Ama sanda ta guzien Erregina Maria, errosario gau gure salbaziosko misterioen memoriareki ofratzen diogu Jangoikoaren gloriatan ta berorren zerbitzutan, eskatzen diogula humilki Eliza sandaren onagatik, fede ta birtute kristioen

aumentuagatik, herejien ta bekatu guzien erremedioagatik; eta erdetxi dezagun bizitze ta iltze bat preziosoa gure Jaunaren presenzian, berorren anparo ta asistentiareki ordu gartan; azkenik libra gaitzan gaitz guzietaik ta logra dezkgun lurrean beartugun ondasunak, ta betirokoak glorian. Amen.

Maria graziaren Ama, miseriardiaren Ama. Defenda gaitza etsaiaganik ta anpara gaitza orai ta gure eriotzeko orduan. Amen.

#### IGANDE, ASTELLEN TA ORTZEGUNEN MISTERIO GOZOSOAK

1. Lenbiziko misterioa. Jesu Kristoren enkarnazioa.  
V. Jangoikoa gizon inda gugatik.  
R. Jauna ofenditua nago penaturik.
  
2. Bigarren misterioa. Ama Birjinaren bisitazioa Santa Isabeli  
V. Birjin Ama joan ze grazias beterik.  
R. Jauna ofenditua nago penaturik.
  
3. Irugarren misterioa. Jesu Kristoren jaiotzea.  
V. Jaio ze Jesus Birjinaganik.  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
4. Laugarren misterioa. Ama Birjinaren purifikazioa.  
V. Aitari Ama-Semeak beira ofraturik.  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
5. Borzgarren misterioa. Jesusen aurkitzea tenploan.  
V. Galdu ta orra tenploan Aurra opaturik.  
R. Jauna ofenditua, etc.

#### ASTEAREN TA ORZIRALEAN. MISTERIO DOLOROSOAK

1. Lenbiziko misterioa. Jesusen orazioa ta preso egitea.  
V. Triste Jesus beira ta preso eginik.  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
2. Bigarren misterioa. Jesusen azotatzea loturik kolumnan.  
V. Jesus ona azotes beira urraturik.  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
3. Irugarren misterioa. Jesusen koronatzea arantzees.  
V. Gloriako Errege ala koronaturik!  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
4. Laugarren misterioa. Soñean gurutzeta, ta Kalbarioko bidea.  
V. Iltzera damate Jesus erdi ilik.  
R. Jauna ofenditua, etc.
  
5. Borzgarren misterioa. Guruzifikatzea ta iltzea Jesus.

V. Ilda Jesus ona penas beterik.  
R. Jauna ofendituas, etc.

#### ASTEAZKEN TA LARUNBATEKO MISTERIO GLORIOSOAK

1. Lenbiziko misterioa. Jesu Kristoren erresurrekzio gloriosoa.

V. Il ta bera berez beira bizturik.

R. Jauna ofendituas, etc.

2. Bigarren misterioa. Jesusen igatea zerura.

V. Jautsi zena igan da guzien gañetik.

R. Jauna ofendituas, etc.

3. Irugarren misterioa. Espiritu Sanduaren etorria.

V. Amoresko sua dator zerutik.

R. Jauna ofendituas etc.

4. Laugarren misterioa. Maria Santisimaren eramatea zerura.

V. Jesus onak Ama igan du emendik.

R. Jauna ofendituas, etc.

5. Borzgarren misterioa. Maria Santisimaren koronatzeta Erregina.

V. Maria Erregina koronaturik.

R. Jauna ofendituas, etc.

#### ABE MARIA EZKILEN SOÑATZERAKOAN

1. Jangoikoaren Aingiruak mezu emanik, konzebitu zue Mariak Espiritu Sanduaganik. Abe Maria, etc.

2. Ona Jangoikoaren esklaba, egin bedi nereki zuk erran bekala. Abe Maria, etc.

3. Eta Jangoikoa gizon egin ze ta gutartean bizitu ze. Abe Maria, etc. Gloria Patri, etc.

Orazioa. Para bezki, otoi Jauna, gure arimak bere grazian, orreki ezaundu dugunek aingiruren mezus Kristo bere Semearen enkarnazioa, beraren pasio ta gurutzearen medios ellega gaitzen erresurrekzioaren gloriara. Gure Jaun Jesu Kristo beragatik. Amen.

#### ERLOJUAK EMATERAKOAN ORONA

O Jesusen Ama ederra, biz bedeikatua ordu gura zeñetan alako iruzkia ekarri zigun mundura. Amen. Abe Maria, etc.

Zuk, Maria, estima zazu Jangoikoa ordu guzietan ta ez permiti ofendi zagun Jaun bat ain ona sekulan. Amen.

#### MAIAREN BEDEIZIOA

Aitaren ta Semearen + ta Espiritu Sanduaren, etc.

Jauna, bedeika gaitza gu ta bere erregalo gebek berorren eskuetaik artu beartugunok, Kristo gure Jaunagatik. Amen. Aita gurea, etc. Abe Maria, etc. Gloria, etc.

Jangoikoak in gaitzala zeruko maiaren partizipante. Amen.

**Joakin Lizarraga**